

**33/2013 FORU ARAUA, AZAROAREN 27KOA, PERTSONA FISIKOEN  
ERRENTAREN GAINEN ZERGARI BURUZKOA**

**(ALHAO, 140. zk., 13-12-9koa, gehigarria)**

**ZIOEN AZALPENA**

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga Arabako Lurralde Historikoko zerga sistemaren euskarrietako bat da. Oraingo arautegia, urtarrilaren 29ko 3/2007 Foru Arauak ezarritakoa, hainbat bider aldatu behar izan da indarrean egon den zazpi urteetan aldi aldiko inguruabar ekonomiko eta sozialetara moldatzeko. Azken aldaketa krisi ekonomiko-finantzarioari aurre egiteko onartu da; 2013ko urtarrilaren 1etik aurrera sortuko ditu ondorioak.

Krisiak, ostera, bere hartan segitzen du eta oraindik ez dago inolako zantzurik laster batean jarduera ekonomikoak eta enpleguak hobera egingo dutela eta ondorioz ekonomia berriz ha102ziko dela pentsarazten duenik. Hori dela eta, Arabako Lurralde Historikoko erakundeek jarrera aktiboa hartu behar dute eta neurriak ezarri behar dituzte zerga zamak modu egokiagoan banatzeko, gaitasun ekonomiko handia dutenei esfortzu handiagoak eskatzeko eta sarreren eta gastuen arteko oreka egokia bultzatzeko, finantza publikoak iraunkorrak eta aski izan daitezzen.

Batez ere pertsona fisikoen zerga ordainketan ezinbestekoa da ekitatea, gehikortasuna, neutraltasuna, gardentasuna eta erraztasuna sendotzea, bai eta zergadunen arteko oreka hobetzea ere.

Neutraltasunari dagokionez, zerga onura batzuk (salbuetsitako errentak, murrizketak eta kenkariak) berrikusi dira eta beraien tratamendua doitu da gastu eta sarrera politiken arteko ezinbesteko elkarreragiketa sendotzeko, eraginkortasuna ebaluatu ondoren; horretarako bikoiztasunak ezabatu dira eta lortu nahi den xederako egokiak ez diren politikak aldatu dira.

Ekitatearen printzipioa dela eta, indarreko tarifa gehitu da eta tasa altuagoko tarteak sortu dira, bai likidazio oinarri orokorrean, bai aurrezkiaren likidazio oinarrian.

Gaitasun ekonomikoaz denaz bezainbatean, arautegiaren bitartez baliabide berriak ezarri behar dira jarduera ekonomikoaren etekinak behar bezala kargatzeko, hau da, zergadunek errenta horiek ezkutatzea eragozteko (batzuek benetan lortutakoak baino sarrera gutxiago eta kenkari eskubiderik ez duten gastuak aitortzen dituzte). Horrez gainera, iruzurraren kontrako neurriak ezarri behar dira.

Foru arau hau helburu horiek guztiak lortzeko onartu da. Foru Arauak osagai hauek dauzka: hamalau titulu, hogeita bi xedapen gehigarri, hogeita bat xedapen iragankor, xedapen indargabetzaile bat eta azken xedapen bi.

I. tituluan zergaren izaera eta aplikazio eremua finkatu dira. II. tituluan numerus clausus ezarri zaie hainbat sorburutako errenta batzuei: nahiz eta pertsonen gaitasun

ekonomikoaren adierazgarri izan eta Zergaren zerga egitearen osagai izan zerga politika dela eta orain arte Zergaren kargapean egon ez diren errentak.

Ohi bezala arautegi berrian salbuetsitako errentak ezarri dira: gizartean duten eraginagatik (sari garrantzitsuak, beka publikoak, laguntzak publikoak) edo kalte-ordain gisakoak direlako (dena batera jasotzen den langabezia prestazioa, herri administrazioek ematen dituzten kalte-ordainak) Zergaren karga jasan beharretik aske daudenak dira. Horrez gainera, foru legerian muga batekin salbuetsitako errenten zerrenda gehitu da (errenta horiek zenbateko jakin batera arte salbuetsita daude eta hortik gortako kargatu egiten da) eta oraindik aurrera, justizia soziala eta zerga zama banatu beharra aintzat hartuta, horrelakoak izango dira errenta salbuetsiak izan diren batzuk, esate baterako langileek kaleratzeagatik edo lana utzarazteagatik jasotzen dituzten kalte-ordainak (salbuetsitako zenbatekoa: 180.000 euro gehienez).

Salbuetsitako errentak direla eta, berrikuntza nagusia estu lotuta dago iruzurraren kontrako etengabeko borrokarekin; izan ere, borroka horrek arrakasta edukiko badu, ezinbestekoa da, beste tresna batzuk beste direla, Zerga Administrazioak zergadunei buruzko informazio zehatza edukitzea, hain zuzen ere: jasotako errentak, denetarikoak, herri administrazio zein erakunde guztiek emanak; zerga ordainketan eragina duten inguruabar pertsonalak eta ondarekoak, orain arteko zerga tratamendua gorabehera.

Horregatik foru arau honetan informazioaren inguruko betebeharrak ezarri dizkie dirulaguntzak edo errentak, salbuetsiak zein bestelakoak, ematen dituzten administrazio publikoei (berriazko eredu informatiboa prestatu da horretarako). Horri esker Zerga Administrazioak zergadun bakoitzak jasotako errenta guztien berri edukiko du eta horrela laguntzak eta dirulaguntzak bidegabe jasotzen dituztenen iruzurraren kontra egin ahal izango du beste herri administrazioekin batera.

III. tituluan zergadunak zehaztu dira. IV. tituluan zerga oinarria arautu da: arau orokorrak, lanaren etekinak, jarduera ekonomikoen etekinak, kapitalaren etekinak, ondare irabaziak eta galerak, errenten egozketa eta eratzikipena, aldi egozketa, baloraziorako erregelak bereziak, errenta motak, eta errenten integrazioa eta konpentsazioa.

Etekin irregularrei dagokienez, goitik behera berrikusi da etekinok integratzeko sistema; egungo integrazio ehuneko murriztuak mantendu dira baina gehieneko zenbatekoa ezarri da: 300.000 euro.

Jarduera ekonomikoen etekinetara etorrira, duela urte batzuk Arabako Lurralde Historikoko arautegian zenbatespen objektiboaren metodoaren aplikazioa gutxika-gutxika murrizteko prozesua abiarazi zen, pertsona fisiko diren enpresariengaineko karga beraien jardueraren benetako etekinera doitzeko asmoarekin, eta prozesua burutzeko metodo hori indargabetu da. Beraz, 2014ko urtarrilaren 1etik aurrera jarduera ekonomiko guztien etekinak kalkulatzeko zuzeneko zenbatespenaren metodoa aplikatuko da (bi modalitate daude: arrunta eta erraztua).

Gainera, aipatu behar da higiezinak errentatzea edo salerostea jarduera ekonomikotzat hartzeko betekizunak aldatu direla: gutxienez pertsona bat eduki beharko da lanaldi osoko eta dedikazio eskusiboko lan kontratuarekin, baina oraindik aurrera ez da

kontuan hartuko zergadunaren ezkontidea, ez izatezko bikotekidea, ez aurrekorik, ez ondorengorik, ez bigarren graduko ahaiderik, ez harekin lotutako pertsonarik. Osagarri gisa, eta jarduera ekonomikoaren kontzeptua gaur egungo egoerara egokitzeko, jarduera ekonomikoa hura kudeatu baizik egiten ez den lokalean egin beharra ezabatu da.

Kapitalaren etekinei dagokienez, etxebizitzaren azpierrementamenduaren tratamendua azaroaren 24ko 29/1994 Legeko 2. artikulua arabera etxebizitza errentamendutzat hartzen diren eragiketena bezalakoak izango da, baina gastu kengarriak muga hau edukiko du: azpierrementamenduak sortutako etekinaren ehuneko 20. Horrela ez da gertatuko etekinik ez egotea, ez eta etekinak negatiboak izatea ere, batzuetan emaitza horiek fiktizioak izaten dira eta.

Aurrekoaren osagarri, etekinak kostu bidez lortutzat joko dira kasu hauetan: Zerga Administrazioak jakiten duenean zergadunak higiezin bat errentamenduan laga duela eta ez duela horren etekinik batere zenbatu; honelakoetan higiezinaren balorazioaren ehuneko 5 hartuko du etekintzat, Ondarearen gaineko Zergari buruzko Foru Arauan ezarritakoarekin bat etorriz.

Halaber, aldaketa batzuk egin dira zerga oinarriaren murrizketei buruzko arauetan. Gizarte aurreikuspenaren eremuan, oro har, banako ekarpenei 5.000 euroko muga ezarri zaie eta ezabatu egin da 5 urtean behin kontingentziak gertatzeagatik eta gizarte aurreikuspeneko sistemen eskubide ekonomikoak erreskatatuta jasotzen diren kopuruei integrazio ehuneko murriztuak aplikatzeko aukera.

Sistema ixteko asmoarekin zerga ordainketarako logikoa den prebentzioa ezarri da: zerga oinarri orokorrean murrizketak aplikatzeko aukera mugatu da kasu jakin batzuetan, hain zuzen ere zergaldi berean gizarte aurreikuspeneko erakunde bati ekarpenak egiten bazaizkio eta kapital prestazioren bat jasotzen bada erretiratzeagatik edo erreskatearen bidez (salbuespena: enplegu planetara egiten diren ekarpenak eta pertsona desgaituen gizarte aurreikuspeneko tresnetara egiten direnak).

VI. tituluan (kuota osoari buruzkoa) funtsezko aldaketa egin da. Aurreko arautegian kenkari orokorra zegoen eta guztirako kuota osoari aplikatzen zitzaion. Arautegi berriaren arabera hauei soilik aplikatuko zaie kenkaria: aurrezkiaren likidazio oinarriaren gaineko tarifa ordaintzen duten zergadunei; likidazio oinarri orokorraren gainekoa ordaintzen dutenei ez zaie aplikatuko. Ondorioz, oraindik aurrera guztirako kuota osoa murriztu baizik ezin da egin; ezin da izan negatiboa.

Ekitatea aintzat hartuta, indarreko tarifa zabaldu da eta likidazio oinarri orokorrean tasa altuagoko tarteak sortu dira 92.310 eurotik gorako zenbatekoetarako (tasa marjinalik altuena, ehuneko 49, 179.540 eurotik gorako errentei aplikatuko zaie) eta aurrezkiaren likidazio oinarrian ehuneko 25eko tasa aplikatuko zaie 30.000 eurotik gorako kopuruei.

VII. tituluan kuota likidoa eta kenkariak arautu dira: familia kenkariak eta kenkari pertsonalak; pertsona desgaitu baten ondare babestura egindako ekarpenen ziozko kenkariak; ohiko etxebizitzagatik kenkariak; jarduera ekonomikoak sustatzeagatik kenkariak; emariengatik kenkariak. Kenkari pertsonalak direla eta, adinagatik kenkariak muga hau edukiko du: 30.000 eurotik beherako errenta duten zergadunei soilik aplikatuko zaie. Desgaituta edo mendetasunean dagoen pertsona batengatik

kenkariak aplikatzeko ezinbestekoa izango da zergaduna harekin bizitzea, logikoa den bezala. Kenkaria aplikatzeko eskubidea ematen duen pertsona egoitza zentro batean bizi bada, kenkaria honexek aplikatu ahal izango du: faktura bidez zentroko egonaldi gastuak ordaindu dituela frogatzen duen hurbileneko ahaideak.

Etxebizitzagatiko kenkariak direla eta, etxebizitza eskuratzen duenak jasotzen duen urteko zerga pizgarriaren kopurua gutxitu da. Oro har, ohiko etxebizitza alokatzeagatik aplikatzen den kenkaria zergaldian ordaindutako kopuruaren ehuneko 20 izango da orain arte bezala, eta urtean 1.600 euro kendu ahal izango dira. Ohiko etxebizitza erosten bada, kenkaria zergaldian etxebizitzan inbertitutako kopuruaren eta horren korrituen ehuneko 18 izango da eta urteko gehieneko zenbatekoa 1.530 euro. Gazteek eta familia ugariak pizgarri hauek azkar aplikatzen segitu ahal izango dute; alabaina, aurrean aipatu den bezala, etxebizitza eskuratzen den kasuetan urteko kopurua txikiagoa izango da.

Kenkarien atalarekin amaitzeko, aurreko arautegian ezarritako zerga onuren eraginkortasuna gehitu nahi izan da, eta horretarako langileek enpresan partaidetza edukitzeagatiko kenkaria eta dohaintzengatiko kenkaria mugatu dira eta kreditu erakundeetan jarduera ekonomiko bati ekiteko inbertsiorako kopuruak gordailatzeagatiko kenkaria ezabatu da.

Egungo abagune ekonomikoarekin bat etorri bi zerga pizgarri berri ezarri dira. Batetik, ekintzailtza sustatzeko eta norberaren kontura lan egitea bultzatzeko asmoarekin, jarduera ekonomikoek jarduneko lehen bi urteetan sortzen dituzten etekin garbiei murrizketa aplikatuko zaie, eta etekin hori jarduera horiek burutzean jasoko dira, baina muga ondokoa izango da: ekintzailtza jarduera hasi eta hurrengo bost urteko epea. Bestetik, hurbileko inbertsoreek ("business angel") ehuneko 20ko kenkaria aplikatu ahal izango dute; kenkari honen bitartez enplegua eta balio erantsia sortzen dituzten enpresa proiektuak bultzatuko dira eta enpresa sortu berriek errazagoa izango dute pertsona fisiko diren zergadunen funtsak erakartzea.

Negoziatzeko onartutako baloreek sortutako ondare irabaziak direla eta xedapen gehigarri batean tratamendu berria ezarri da: horrelako baloreak eskualdatzen dituzten zergadunek bi aukera edukiko dituzte, balore horien eskualdaketa onoriozko ondare irabazien kalkularen araubide orokorra aplikatu edo, bestela, ehuneko 3ko karga berezia aplikatu eskualdaketa balioari, baldin eta ekitaldian eskualdatutako balore guztien eskualdaketa balioa 10.000 euro baino gutxiago bada. Honi esker burtsan transakzio txikiak egiten dituzten zergadunek erraz likidatu ahal izango dute Zerga eta Zerga Administrazioak tresna berria edukiko du Zergaren kudeaketa azkartzeko.

X. tituluan Zergaren baterako ordainketa arautu da; aldaketa garrantzitsua egin da eta oraindik aurrera kasu gutxiagotan hautatu ahal izango da modalitate hau. Modalitate honen xedearen kontrako jokabideak antzeman dira; hori dela eta ziurtasun neurri bat ezarri da elkarrekin bizi diren zergadunek modalitate honetaz baliatzerik ez edukitzeko legezko bananketa gertatu edo epai bidez bien artean inolako loturarik ez dagoela adierazi ondoren.

Azkenik, xedapen iragankorretan neurri batzuk ezarri dira urtarrilaren 29ko 3/2007 Foru Arauan xedatutakoaren itzalpean gertatutako egoera batzuk babesteko, arau hori

indargabetu baita. Hain zuzen ere, aldi baterako neurriak ezarri aldatutako zerga tratamendu batzuetarako; hauexek dira garrantzitsuenak: gizarte aurreikuspeneko sistemetara egindako ekarpenetatik 2014ko ekitaldiko aurreko zergaldietan murrizketarik eragin ez duten soberakinei buruzkoak eta etekin irregularrak integratzeko ezarritako ehuneko berriei buruzkoak. Halaber, araubide iragankorra ezarri da kreditu erakundeetan jarduera ekonomiko bati ekiteko inbertsiorako kopuruak gordailatzeagatiko kenkariari buruz, foru arau hau indarrean jarri aurretik horrelako gordailuak egin dituzten zergadunak babesteko.

## **I. TITULUA ZERGAREN IZAERA ETA APLIKAZIO EREMUA**

### **1. artikulua. Izaera.**

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga zuzeneko zerga pertsonal eta subjektiboa da; pertsona fisikoen errentak kargatzen ditu foru arau honetan ezarritakoarekin bat etorritz.

### **2. artikulua. Aplikazio eremu subjektiboa.**

Foru arau honetan xedatutakoa Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zergapeko hauei aplikatuko zaie:

#### **1. Zergadun gisa:**

a) Hurrengo artikuluan xedatu denarekin bat etorritz ohiko egoitza Araban duten pertsona fisikoei.

Familia unitate bateko zergadun batzuen ohiko egoitza beste lurralde batean badago eta Zerga batera ordaintzea hautatzen badute, foru arau honetako 97. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz, Zerga Arabako Foru Aldundiari ordainduko diote likidazio oinarririk handiena daukan kidearen ohiko egoitza Arabako lurraldean egonez gero.

Likidazio oinarririk handiena nork daukan kalkulatzeko, Arabako egoiliar ez diren zergadunei euren berariazko araudia aplikatuko zaie.

b) Foru arau honetako 4. artikuluko 1. eta 2. idatz zatietan ezarritakoarekin bat etorritz ohiko egoitza atzerrian duten pertsona fisikoei, artikulua horretan ezarri den bezala.

**2.** Konturako ordainketak egin behar dituztela eta, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren ordainketarako atxikipenak eta konturako sarrerak egin behar dituztenei, baldin eta ordainketok Ekonomia Ituneko 7 - 11 bitarteko artikuluetan xedatutakoarekin bat etorritz Arabako Foru Aldundiari egin behar zaizkio.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa gorabehera, administrazio kontseiluetako eta haien ordezkotzat hartutako eta beste ordezkari organo batzuetako administratzaileek eta kideek jasotzen dituzten ordainsarien gaineko atxikipenei eta konturako sarrerei, erakundeen funtsetako partaidetzen ondoriozko etekinei, eta obligazioen eta antzeko tituluen korrituei eta gainerako kontraprestazioei foru arau honetan xedatutakoa

aplikatuko zaie kasu honetan: erakunde ordaintzaileari Sozietateen gaineko Zergari buruzko Arabako arautegia aplikatzen zaionean.

3. (24) 3. Foru arau honetan (batez ere 56. eta 113 bis artikuluetan) ezartzen diren informazio betebeharren arabera behartuta dauden errentak esleitzeko araubideko entitateei.

### **3. artikulua. Ohiko egoitza.**

1. Subjektu pasiboak ohiko egoitza Arabako Lurralde Historikoan daukala pentsatuko da ondoko erregelak betetzen baditu:

1. Zergaldiko egun gehienak Euskal Autonomia Erkidegoan emanaz gero, Araban egindako egunen kopurua Euskal Autonomia Erkidegoko beste bi lurralde historikoetako bakoitzean egindakoa baino handiagoa denean.

Lurralde jakin batean zenbat denbora eman den zehazteko, kanpoan eman diren aldi baterako egonaldiak konputatuko dira, zerga egoitza beste herrialde batean dagoela frogatu ezean.

Zerga egoitza paradisu fiskaltzat jotzen den herrialde edo lurralde batean badago, Zerga Administrazioak eska dezake frogatzeko bertan eman direla urte naturaleko 183 egun baino gehiago.

Bestelakorik frogatzen ez bada, pertsona fisiko bat Araban bizi dela pentsatuko da beraren ohiko etxebizitza bertan badago.

2. Interesen gune nagusia Araban badauka. Zergadun batek bere interesik gehienak Araban dauzkala pentsatuko da zerga oinarriaren zatirik handiena Euskadin lortzen badu eta Arabako Lurraldean lortzen duen zerga oinarria beste lurralde bietan lortzen duena baino gehiago bada. Dena dela, ondorio bietarako, irizpide horretatik kanpo geratuko dira kapital higigarriaren ondoriozko errentak eta ondare irabaziak, eta egotzitako zerga oinarriak ere bai.

3. Zerga honen ondorioetarako aitortutako azken egoitza Araban dagoenean.

Lehenengo erregela aplikatuta zergadunaren ohiko egoitza zein lurraldetan dagoen (erkidean edo foralean) zehaztea ezinezkoa gertatzen bada, bigarren erregela aplikatuko da. Lehen eta bigarren erregeletan xedatutakoa aplikatuta ere gauza bera gertatzen bada, hirugarren erregela aplikatuko da.

2. Espainiako lurraldeko egoiliar diren pertsona fisikoek ez badituzte bertan ematen 183 egun baino gehiago urte naturalean, Euskal Autonomia Erkidegoko egoiliartzat joko dira enpresa edo lanbide jardueren gune nagusia edo basea edo interes ekonomikoena lurralde horretan egonez gero.

Aurreko paragrafoan ezarritakoaren arabera pertsona fisiko baten ohiko egoitza Euskal Autonomia Erkidegoan egonez gero, Araban bizi dela pentsatuko da baldin eta beraren enpresa edo lanbide jardueren gune nagusia edo basea edo beraren interes ekonomikoen gune nagusia lurralde horretan badago.

**3.** Pertsona fisiko bat Espainiako lurraldeko egoiliarra dela uste bada, legez banandu gabeko ezkontideak eta beraren kargura dauden adingabeko seme-alabek ohiko egoitza Araban dutelako, pertsona fisiko horren ohiko egoitza Araban dagoela pentsatuko da. Uste horren aurkako frogak aurkez daitezke.

**4.** Ohiko egoitza aldatzen denean, irizpide hauek hartuko dira kontuan:

a) Araban bizi den zergadun batek bere ohiko egoitza beste lurralde batera (erkidera edo foralera) aldatzen badu, edo beste lurralde batetik (komunetik edo foraletik) Arabara aldatzen badu, aldaketa gertatzen denetik egoitza berria dagoen lekuan bete behar ditu zerga betebeharrak, egoitza berria lotunea izanez gero.

Gainera, hurrengo b) letran ezarritakoaren arabera egoitza aldaketarik gertatu ez bada, zergadunak ohiko egoitza daukan lurraldeko zerga administrazioari aurkeztu behar dizkio bideko aitortpenak, berandutze korritu eta guzti.

b) Zergagatik gutxiago ordaintzeko asmoarekin egiten diren egoitza aldaketek ez dute eraginik izango.

Egoitza berrian gutxienez hiru urtean bizi izan ezean, egoitza aldaketarik ez dela izan pentsatuko da inguruabar hauek gertatuz gero:

1. Egoitza aldaketa gertatu den urtean edo hurrengoan zerga oinarria gutxienez aldaketa aurreko urteko zerga oinarriaren ehuneko 50 baino gehiago izatea.

Familia unitate bateko pertsona fisikoek Zerga ordaintzeko modu desberdinak hautatzen badituzte aurreko paragrafoan aipatutako urteetan (batzuetan banaka, beste batzuetan batera), zerga ordaintzeko moduak bateratuko dira soilik bertan aipatzen diren oinarrien konparaketarako, eta oinarriak banakatzeko bidezko arauak aplikatuko dira.

2. Egoitza aldatzen den urtean Zergagatik ordaindu beharrekoa aldaketaren aurreko lurraldeko arautegiaren arabera ordainduko zena baino gutxiago izatea.

3. Aurreko 1. inguruabarrean aipatzen den egoera gertatu eta hurrengo urtean, edo hurrengoan, ohiko etxebizitza berriz ere lurralde horretan edukitzea.

**5.** Espainia kide den nazioarteko itunbenetako arau bereziak aplikatu ezin direnean, ez dira zergaduntzat hartuko elkarrekotasunagatik ohiko egoitza Araban duten atzerritarrak, baldin eta inguruabar hau foru arau honetako hurrengo artikuluan ezarritako kasuetako baten ondorioz gertatzen bada.

#### **4. artikulua. Zerga ordaindu beharra dakarten kasu bereziak.**

1. Foru arau hau Espainiako naziotasuna duten pertsoneri eta beraien ezkontideei (legez banandurik ez badaude) eta adingabeko seme-alabei aplikatuko zaie, baldin eta zerga honi Arabako arautegiari loturik daudela ohiko egoitza atzerrira aldatzen badute ondokoetako bat direlako:

- a) Espainiako misio diplomatikoren bateko kidea (misioburua, diplomazia langilea, administraria, teknikaria edo zerbitzu langilea).
- b) Espainiako kontsul bulegoren bateko kidea (kontsula, bulegoari atxikitako funtzionarioa edo zerbitzu langilea). Honetatik salbuetsita daude ohorezko kontsulordeak eta ohorezko agente kontsularrak, bai eta haien menpeko langileak ere.
- c) Estatu espainiarreko kargu edo lanpostu ofizial bateko titularra, nazioarteko erakundeen aurrean kreditatutako eskuordetza eta ordezkartzaren bateko kide edo atzerriko eskuordetza edo behapen misioren bateko kidea denean.
- d) Atzerrian kargu edo lanpostu ofizialean ari den ekineko funtzionarioa, ez diplomazian ez kontsuletxean ari ez dena.
- e) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioarentzat lan egiten duen funtzionarioa edo kontratupeko langilea, Euskal Autonomia Erkidegoak atzerrian daukan bulego batera bidalia.

**2.** Ondoko kasuetan ez da aplikatuko aurreko idatz zatian xedatutakoa:

- a) Aipatutako pertsonak ez direnean funtzionario publiko aktiboak ez kargu edo enplegu ofizial baten titularrak eta ohiko egoitza atzerrian eduki badute kidetza edo titulartasun horietako bat eskuratu dutenean.
- b) Legez bananduta ez dauden ezkontideen eta beraien adingabeko seme-alaben kasuan, ohiko egoitza atzerrian eduki badute ezkontideetako batek -amak edo aitak- aurreko 1. idatz zatian zerrendatutako kidetza edo titulartasunetako bat eskuratu baino lehen.

**3.** [\(10\)](#)

## **5. artikulua. Itunak eta hitzarmenak.**

Foru arau honetan ezarritakoak ez du ezertan eragozten Espainiako barne ordenamenduaren osagai diren nazioarteko itunetan eta hitzarmenetan xedatutakoa.

## **II. TITULUA ZERGA EGITATEA**

### **6. artikulua. Zerga egitatea.**

**1.** Zergadunak errenta bat lortzea da zerga egitatea, errenta non sortu den eta ordaintzailearen egoitza non dagoen kontuan eduki gabe.

Foru arau bidez ezartzen diren errenta egozketak ere errenta lortzeak izango dira.

**2.** Zergadunaren errentatzat hartuko dira:

- a) Lanaren etekinak.



- b) Jarduera ekonomikoen etekinak.
- c) Kapitalaren etekinak.
- d) Ondarearen irabaziak eta galerak.
- e) Foru arau bidez ezartzen diren errenta egozketak.

3. Zerga oinarria zehazteko eta Zergaren kalkulua egiteko, bi errenta mota daude: orokorra eta aurrezkiaren errenta.

#### **7. artikulua. Errenten zenbatespena.**

Lanaren eta zerbitzuen prestazioak, eta ondasun eta eskubideen lagapenak, foru arau honetan ezarritakoarekin bat etorri ordaindutat joko dira.

#### **8. artikulua. Kargapean ez dauden errentak.**

Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergaren kargapeko errentak ez daude zerga honen kargapean.

#### **9. artikulua. [\(19\)](#) [\(29\)](#) Salbuetsitako errentak.**

Errenta hauek salbuetsita daude:

1. Epaille baten erabakiagatik gurasoek ordaintzen dituzten mantenu urtekoak.

Modu berean tratatuko dira Janarien Ordainketaren Berme Funtzaren antolamenduari eta funtzionamenduari buruzko abenduaren 7ko 1618/2007 Errege Dekretuak araupetutako Janarien Ordainketaren Berme Funtzak ematen dituen kopuruak.

2. Terrorismo ekintzengatik ematen diren aparteko prestazio publikoak.

3. Gizarte Segurantzak edo horren ordeztan ari direnek, zergadunari baliaezintasun gabeko lesio iraunkorregatik, ezintasun iraunkor partzial, oso edo absolutuagatik edo baliaezintasun handiagatik onartzen dizkieten prestazioak.

Zergadunak ezintasun iraunkor partziala edo osoa badu, salbuespena ezingo zaio aplikatu foru arau honetako 18. artikulua a) letran aipatzen ez diren lanaren etekinak edo jardueren etekinak jasotzen baditu.

Baina prestazioak aldian-aldian jasotzen baditu, aurreko paragrafoan aipatutako bateraezintasuna ez da aplikatuko prestazioa lehenengoz jasotzen den zergaldian.

Era berean, ondokoak ere salbuetsita daude, aurreko paragrafoetan aipatutako egoera beraietan jasotzen badira:

- Gizarte Segurantzaren norberaren konturako langileen araubide berezian ez dauden profesionalei edo langile autonomoei Gizarte Segurantzaren araubide berezi horren

hautabide gisa ari diren gizarte aurreikuspeneko mutualitateek aintzatetsitako prestazioak.

- Gizarte aurreikuspeneko borondatezko erakundeek kooperatiba bazkideei aintzatetsitako prestazioak.

Aurreko paragrafoan ezarritako bi kasuetan, gehienez ere Gizarte Segurantzak dena delako kontzeptuagatik aintzatesten duen gehieneko zenbatekoa salbuetsiko da. Horren gaineko kopurua lanaren etekin gisa kargatuko da. Zergadun batek Gizarte Segurantzaren prestazioaz gainera aurrean aipatutako mutualitateek edo borondatezko gizarte aurreikuspeneko erakundeek emandakoak jasotzen baditu, gaindikina azken horietan gertatutzat joko da.

4. (1) Klase pasiboen araubidean ezereztasun edo ezintasun iraunkorragatik jasotzen diren pentsioak, baldin eta ezereztasuna edo ezintasuna ekarri duen lesioak edo gaixotasunak pentsioaren hartzaileari erabat eragozten badio lanbide edo ogibide batean aritzea edo, bestela, zergadunak ez badu jasotzen bere lanagatik Zergaren Foru Arauko 18.a) artikuluan ezarritakoez beste etekinik, ez jarduera ekonomikoen etekinik.

Hala ere, aurreko paragrafoko azken tartekian aipatutako bateraezintasuna ez da aplikatuko pentsioa jasotzen den lehenengo zergaldian.

5. (24) Langileak irazteagatik edo lana utzarazteagatik jasotzen dituen kalte ordainak, hain zuzen ere Langileen Estatutuan, hura garatzen duen araudian edo, bestela, epaiak betearazteko araudian ezarritako nahitaezko kopurua. Ezin dira hartu halakotzat hitzarmena, ituna edo kontratua dela bide ezarritakoak. Era berean, Euskadiko Kooperatibei buruzko abenduaren 20ko 11/2019 Legearen 30. artikulua 2. paragrafoa aplikatuz, bazkide langileak edo lan bazkideak kooperatiban baja hartzean jasotzen dituen kalte ordainak salbuetsita egongo dira, Langileen Estatutuaren 52. artikulua c) letran lana uzteko lan araudiak nahitaezkotzat ezarritako zenbateko berean.

Aurreko paragrafoan ezarritakoa eragotzi gabe, talde irazpena gertatzen denean Langileen Estatutuko 51. artikuluan xedaturikoarekin bat etorri eta kontratuak Langileen Estatutuko 52. artikuluko c) letran ezarritako arrazoiak batengatik azkentzen badira, batera zein bestera arrazoi ekonomikoa, teknikoa, antolakuntzako, ekoizpeneko edo ezinbestekoa denean, jasotzen den kalte-ordainaren zati bat salbuetsita egongo da: Langileen Estatutuan bidegabeko irazpenerako ezarritako nahitaezko muga gainditzen ez duen kopurua. Muga berekin salbuetsiko dira laneko harremanak suntsitu eta laneko jarduerako erretiroa aurreratzen duten langileek ordeztu kontratu baten itzalpean jasotako diru kopuruak.

Zenbaki honetan xedatutakoaren ondorioetarako, aurreko paragrafoan aipatutako arrazoi objektiboen ondoriozko talde irazpenekin edo utzarazpenekin berdintsiko dira herri administrazioetako giza baliabideen plan estrategikoak, Langileen Estatutuko 51. artikuluan ezarritako kasuetako batean oinarrituak.

Zenbaki honetan ezarritako kalte-ordain salbuetsiaren zenbatekoa ezin da izan 180.000 euro baino gehiago.

6. Pertsoneri eginiko kalte fisiko, psikiko edo moralen ondoriozko erantzun zibilaren kalte-ordainak (legez edo epai bidez onartutako zenbatekoa).

7. (4) Aurreko paragrafoan adierazitako kalte berdinentatik aseguru kontratuen bidez jasotzen diren zenbatekoak, 150.000 euroko mugarekin. Zenbateko hori 200.000 euro izango da lesioak jasotzailea edozein lan edo jarduera egiteko ezgaitzen baldin badu, eta 300.000 eurokoa izango da baldin eta, horrez gainera, jasotzaileak beste pertsona baten laguntza behar badu eguneroko bizitzako oinarrizko ekintzetarako.

8. Giza eskubideen defentsaren eta sustapenaren inguruko sariak, bai eta literatura, zientzia edo artearen arlokoak ere, arauzko baldintzak betez gero.

9. (5). Irabazteko asmorik gabeko entitateek emandako beka eta beka publikoak, irabazteko asmorik gabeko entitateen eta mezenasgorako zerga pizgarrien zerga erregimena arautzen duen araudia aplikagarria bazaie, eta Aurrezki kutxa eta banku fundazioei buruzko abenduaren 27ko 26/2013 Legearen II. tituluan araututako banku fundazioek dagokien gizarte ekintzako jarduera garatzean emandako beka, ikasketak egiteko emandakoak, Espainian zein atzerrian, hezkuntza sistemako gradu eta maila guztietan, unibertsitateko hirugarren ziklora arte.

(20) Halaber, salbuetsita daude doktoratu aurretik prestakuntza jasotzen ari diren langile ikertzaileen estatutua onesten duen martxoaren 1eko 103/2019 Errege Dekretuak ezarritako eremuan ikerketarako ematen diren beka, publikoak zein aurreko paragrafoan aipatutako irabazteko asmorik gabeko erakundeek eta banku fundazioek ematen dituztenak, bai eta ikerketa xede duten erakundeek administrazio publikoen zerbitzuko funtzionario eta gainerako langileei eta unibertsitateetako irakasleei eta ikertzaileei ematen dizkietenak ere.

10. Pertsonak etxean hartzeagatik herri erakundeek ematen dituzten diru kopuruak.

11. 1936/1939 bitarteko gerra zibilaren ondorioz lesioak edo mutilazioak jasan zituzten pertsonen alde onartutako pentsioak, dela Estatuko Klase Pasiboen araubidearen bitartez, dela horretarako egindako legeria bereziaren babesean.

12. (10) (14) Errenta hauek salbuetsita daude:

a) Urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako Gizarte Segurantzari buruzko Lege Orokorraren Testu Bategineko II. tituluko X. eta XV. kapituluetan eta VI. tituluko I. kapituluan arautzen diren familia prestazioak, eta Gizarte Segurantzaren eta klase pasiboen araubide publikoetatik jasotzen diren zurtasun pentsioak eta hartzeko pasiboak eta hogeita bi urtetik beherako biloben eta anai-arreben alde edo lan orotarako ezinduen alde aitortutakoak.

b) (24) Adingabearen jaiotzagatiko eta zaintzagatiko prestazioak eta bularreko haurren zaintza eta erantzunkidetasunagatiko prestazioak, urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bateginaren II. tituluko VI. eta VII. kapituluetan araututakoak, hurrenez hurren, Gizarte Segurantzaren araubide publikoetatik jasotakoak, eta funtzionarioei dagozkien araubide publikoetatik jasotzen diren prestazio berdinak.

Halaber, salbuetsita egongo dira zerbitzuak ematen dituzten organo edo erakundeko funtzionarioek jasotako ordainsariak, urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren testu bateginaren 48. artikularen f) letran onartutako edoskitzeagatiko baimenari dagozkionak. Salbuetsitako zenbatekoak muga hau izango du: urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Gizarte Segurantzaren testu bateginaren II. tituluko VII. kapituluaren aurreikusitako bularreko haurraren zaintzaren ekitaldi erantzunkideko prestazio ekonomikoagatik Gizarte Segurantzakaitortzen duen gehieneko prestazioaren zenbatekoa .

c) Norbere konturako langileen edo langile autonomoen Gizarte Segurantzaren araubide berezian sartuta ez dauden profesionalei araubide berezi horren ordezkoko gisa jarduten diren gizarte aurreikuspeneko mutualitateek onartzen dizkieten prestazioak, betiere aurreko a) eta b) apartatuetan aipatutako egoera berdinengatik jasotako prestazioak badira.

Kasu horietan, salbuespen horrek muga bat dauka: Gizarte Segurantzak kasuan kasuko kontzeptuagatik onartzen duen prestaziorik handienaren zenbatekoa. Horren gaineko kopurua lanaren etekin gisa kargatuko da. Zergadun batek Gizarte Segurantzaren prestazioaz gainera aurrean aipatutako mutualitateek emandakoak jasotzen baditu, gaindikina azken horietan gertatutzat joko da.

d) Borondatezko gizarte aurreikuspeneko entitateek kooperatibetako bazkideei onartutako prestazioak, betiere aurreko a) eta b) apartatuetan aipatutako egoera berdinengatik jasotako prestazioak badira.

Salbuespen honek muga bat dauka: Gizarte Segurantzak kasuan kasuko kontzeptuagatik onartzen duen prestaziorik handienaren zenbatekoa. Horren gaineko kopurua lanaren etekin gisa kargatuko da. Zergadun batek Gizarte Segurantzaren prestazioaz gainera aurrean aipatutako borondatezko gizarte aurreikuspeneko entitateek emandakoak jasotzen baditu, gaindikina azken horietan gertatutzat joko da.

e) Funtzionarioek zerbitzuak ematen dituzten organo edo erakundetik jasotzen dituzten prestazioak minbizia edo beste gaixotasun larri bat duten seme-alabak zaintzeko lanaldia murrizteagatik. Kasu horiek urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuari buruzko Legearen testu bateginaren 49. artikuluko e) apartatuan arautzen dira.

Salbuetsitako zenbatekoaren muga izango da Gizarte Segurantzak minbizia edo beste gaixotasun larri bat duten adingabeak zaintzeagatik onartzen duen prestaziorik handienaren zenbatekoa. Kasu horiek Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testu bateginaren II. tituluko X. kapituluaren arautzen dira.

f) Autonomia erkidegoek eta toki erakundeek ematen dituzten amatasun eta aitatasun prestazio publikoak.

g) Jaiotzagatik, erditze anitzagatik, adopzioagatik, adopzio anitzagatik, kargupeko seme-alabengatik eta zurztasunagatik jasotzen diren gainerako prestazio publikoak.

**13. (5)** Entitate kudeatzaile eskudunak onetsitako langabezi prestazioak, ekainaren 19ko 1044/1985 Errege Dekretuaren bidez ezarritako ordainketa bakarreko

modalitatean jasotzen direnean, hau da, ordainketa bakarrek modalitatean ordaintzen diren langabezi prestazioak arautzen dituen dekretuan ezarritakoaren arabera jasotzen direnean, baldin eta jasotako zenbatekoak aipatutako errege dekretuan ezarritako helburuetara bideratzen badira eta bertan aipatzen diren kasuetan emandakoak badira.

Aurreko paragrafoan ezarritako salbuespena aplikatzeko ezinbestekoa da hauetako bat gertatzea: zergaduna lan sozietate edo lan elkartuko kooperatiba batean sartu bada edo ekarpena egin badu merkataritzako entitate baten kapitalera, akzioa edo partaidetza bost urtean mantentzea; langile autonomoa bada, jarduerari bost urtean eustea. Akzioa edo partaidetza mantentzeko bost urteko epea ez da eskatuko hura ez betetzearen zioa enpresa edo jarduera ekonomikoa lehiaketa prozedura baten ondorioz likidatzea denean. Langile autonomoen kasuan, epe hori mantentzea ez da eskatuko hura ez betetzearen zioa urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testu bategineko 331. artikuluko 1. ataleko a) letrako 1. eta 3. zenbakietan xedatutakoaren ondorio baldin bada. Ez betetzearen zioak egiaztatzeko zergadunak aurkeztu beharreko ziurtagiriak arauz definituko dira, eta, zehazki, aipatutako 331. artikuluko 1. ataleko a) letrako 1. zenbakian eskatutako galera maila erregistratzen duen kontabilitate dokumentazioa.

Halaber, salbuetsita egongo dira borondatezko gizarte aurreikuspeneko entitateek desegintzat jotako kooperatiben bazkide langileei eta lan-bazkideei –Gizarte Segurantzaren norberaren konturako langileen edo langile autonomoen araubideari atxikitakoei- behin betiko birkokatzen diren kooperatiben kapital sozialerako ekarpenak egiteko behin betiko birkokapenagatik onartutako enplegurako laguntza ekonomikoak.

Aurreko paragrafoan jasotako kasuetan, Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoak halako kontzeptuan onartzen duen gehieneko prestazioa izango da zenbateko salbuetsiaren muga. Gaindikina lanaren etekin gisa kargatuko da.

**14.** Ondokoak aplikatuta jasotzen diren gizarte laguntzak: 9/1993 Errege Dekretu- Legea, maiatzaren 28koa (honen bidez hartutako immuno-eskasiaren sindromeak (HIESa) jotakoentzako laguntzak ematen zaizkie osasun sistemaren jarduketan ondorioz kutsatu direnei); 14/2002 Legea, ekainaren 5ekoa, 2. artikulua (honen bidez gizarte laguntzak ezarri dira hemofilia edo bestelako koagulopatia kongenitoren bat dutenentzat).

**15.** Maila handiko kirolariek jasotzen dituzten laguntza ekonomikoak, arloko eskumenak dituzten erakundeek ezarritako prestakuntzako programei lotutakoak, arauz ezartzen denarekin bat etorritik.

**16.** Nazioarteko bake misioetan eta misio humanitarioetan parte hartzeagatik jasotzen diren aparteko haborokinak eta prestazio publikoak, arauz ezartzen denarekin bat etorritik.

**17.** [\(1\)](#) [\(10\)](#) Atzerrian egindako lanengatik jasotzen diren lan etekinak, honako betekizun hauek betetzen badira:

1. Lan horiek Espainian egoitzarik ez daukan enpresa edo erakunde batentzat edo atzerrian finkatutako establezimendu iraunkor batentzat egitea erregelamenduz ezartzen den bezala. Bereziki, gertatzen bada lanak hartzen dituen entitateak lotura bat duela langilea enplegatu duen entitatearekin edo haren zerbitzuak jasotzen dituen enpresarekin, Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 44.1 artikuluan aurreikusitako baldintzak bete beharko dira.

2. Lanak egin diren lurraldean hau bezalako edo honen antzeko zerga bat aplikatzea, eta lurraldea edo herrialdea zerga paradisua ez izatea. Azken betekizuna betetzat joko da lanak egin diren herrialdeak edo lurraldeak Espainiarekin sinatuta badauka nazioarteko zergapetzebikoitza ekiditeko hitzarmena eta hitzarmen horrek informazioa trukatzeko klausula badauka.

Atzerrian emandako egunetan sortu diren ordainsariei aplikatuko zaie salbuespena, eta urtean 60.100 eurokoa izango da gehienez.

Atzerrian destinaturik dauden zergadunen kasuan, salbuespen hori bateraezina izango da Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Araudiak tributaziotik kanpo uzten dituen soberakinen araubidearekin, atzerrian jasotako errenten zenbatekoa edozein dela ere. Zergadunak soberakinen araubidea aplikatzea aukeratu ahal izango du, salbuespen honen ordean.

Atzerriratutako langileak bera enplegatu duen enpresaren edo entitatearen nazioz harandiko zerbitzu emate baten barruan atzerriratu izan behar du.

[\(16\)](#)

**18.** Errenta positiboak, honela sortzen direnak:

a) [\(32\)](#) Europar Batasunak nekazaritzako politikaren barruan esne ekoizpenari, mahastizaintzari, madari, mertxika edo nektarinen laborantzari behin betiko uzteagatik edo bananondoak, sagarrondoak, madariondoak, mertxikondoak eta nektarinondoak erauzteagatik eta azukre erremolatxaren eta azukre kanaberaren laborantzari behin betiko uzteagatik ematen dituen laguntzak jasotzea, eta klimaren eta ingurumenaren aldeko erregimenen (ekoerregimenak) laguntzak jasotzea.

b) Europar Batasunak arrantzako politikaren barruan arrantzari behin betiko uztearen, ontziaren arrantza jarduera bertan behera uztearen eta gainontzeko herrialdeekin sozietate mistoak eratzeko edo eratzearen ondoriozko eskualdatzearen ziozko laguntzak jasotzea.

c) Arrantza ontzia besterentzea, baldin eta eskuratzailleak besterentzen denetik urtebete pasatu baino lehen zatitzen badu eta Batasunak arrantza jarduera bertan behera uzteagatik laguntza ematen badio.

d) Suteak edo uholdeak edo beheratzean suntsitutako ondare elementuak konpontzeko jasotzen diren laguntza publikoak.

e) Errepidezko garraioari uztearen ziozko laguntzak jasotzea, arloan eskumena duen administrazioak emanik, laguntza horien araudian ezarritako betekizunak betez.

f) Izurriak edo gaixotasunak errotik erauzteko ekintzen esparruan abereak derrigorrez hil behar izatearen ondorioz kalte-ordain publikoak jasotzea. Idatz zati honetan xedatutakoa ugalketarako diren abereei bakarrik aplikatuko zaie.

Zenbaki honetan aipatzen den errenta kalkulatzeko kontuan hartuko dira bai jasotako laguntzak bai ondare elementuetan gertatutako ondare galerak, egonez gero. Aurreko c) letrako kasuan ondare irabaziak ere zenbatu behar dira. Dirulaguntza horien zenbatekoa aipatutako elementuetan gertatutako galera baino gutxiago bada, diferentzia negatiboa zerga oinarrian sartu ahal izango da. Galerarik ez badago, laguntzen zenbatekoa soilik geratuko kargapetik salbu.

Zenbaki honetan ezarritakoak ez beste laguntza publikoak, ondare elementuek suteetan, uholdeetan eta bestelako ezbehar naturaletan jasandako kalteen ordain gisa jasotzen direnak, zerga oinarrian sartu behar dira, baina soilik kalteak konpontzeko kostua gainditzen duen zenbatekoa. Konponketa kostuak (muga: laguntzaren zenbatekoa) ezin dira kendu zerga ordainketan, ez hobekuntza gisa konputatu.

Aurrean azaldutako arrazoietako batengatik zergadun batek bere ohiko etxebizitza edo jarduera ekonomikoa egiten duen lokala behin betiko edo aldi baterako utzi behar badu eta horregatik laguntza publikoa jasotzen badu, laguntzaren zenbatekoa zerga kargatik salbuetsita dago.

**19.** Arloko eskudun den administrazioak onartutako basogintza kudeaketarako plan tekniko, mendi antolamenduko plan tekniko, plan dasokratiko edo basoberritzeko planen arabera emandako kapital dirulaguntzak, baldin eta batez besteko ekoizpenaldia gutxienez hogeita hamar urtekoa bada.

**(22)** Modu jasangarrian kudeatutako baso finkak ustiatzen dituztenei emandako dirulaguntzak, basogintzaren arloan eskumena duen Arabako Foru Aldundiko sailak ezarritako arauen arabera. Paragrafo honetan ezarritakoa aplikatzeko, beharrezkoa izango da Arabako Foru Aldundian basogintzaren arloan eskumena duen sailak horri buruz emandako ziurtagiria edukitzea.

**20.** Zinpekogaiek eta zinpeko titular eta ordezkoeak beren eginkizunak egiteagatik jasotzen dituzten kopuruak.

**21.** **(20)** Zerbitzu publikoen funtzionamenduak pertsonengan eragindako kalte fisiko, psikiko edo moralengatik administrazio publikoek emandako kalte ordainak, baldin eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legean jasotako prozeduren arabera ezarritakoak badira.

**22.** Lurperatze edo hilobiratzearen zioz jasotako prestazioak; muga: egindako gastuak.

**23.** Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Legeko (Sozietateen gaineko Zergaren, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren eta Ondarearen gaineko Zergaren legeak partzialki aldatu ditu) hirugarren xedapen gehigarrian aipatzen diren aurrezki sistematikoko planetatik sortutako biziarteko errenta aseguruak eratzen diren unean sortzen diren errentak, foru arau honetako laugarren xedapen gehigarrian ezarritako espezialitateak kontuan hartuta.

**24.** 6/2006 Foru Arauko 34. artikuluko a) eta b) letretan aipatutako mozkin dibidenduak eta partaidetzak, muga honekin: 1.500 euro urtean.

**(24)** Salbuespen hau ez zaie aplikatuko talde inbertsioko entitateek banatzen dituzten dibidenduei eta mozkinari, ez eta baloreen eta partaidetzen ondoriozkoei ere, baldin eta dibidenduak ordaindu aurreko bi hiletan eskuratu badira eta ondoko bi hiletan balore homogeneoak eskualdatu badira. Europako Parlamentuak eta Kontseiluak 2014ko maiatzaren 15ean finantza tresnen merkatuez emandako 2014/65/EB Zuzentarauan azaldutako bigarren mailako balore merkatu ofizialetan negoziatzeko onartzen ez diren balore eta partaidetzen kasuan, epealdia urtebetekoa izango da.

Halaber, salbuespen hau ez zaie aplikatuko kooperatibek bazkideei ordaintzen dizkieten ekarpenen korrituei ere.

**25.** Pertsona desgaituek errenta moduan jasotako prestazioen ondoriozko lanaren etekinak, PFEZaren Foru Arauko 72. artikuluan aipatzen diren ekarpenei dagozkienak, muga honekin: lanbide arteko gutxieneko soldata halako hiru.

**26.** Besteren laguntza behar duten pertsonen autonomia pertsonalari eta arretari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legearen ondoriozko prestazio ekonomiko publikoak, familia giroan zaintzea eta laguntza pertsonalizatua ematea xede dutenak.

**27.** **(29)** Erregelamendu bidez ezartzen diren laguntza publikoak, sektore publikoak emanak.

**28.** Amnistiari buruzko urriaren 15eko 46/1977 Legean ezarritako kasuetan askatasuna kendu eta kartzeletan sartu zituztenentzat Estatuko eta autonomia erkidegoetako legerian ezarritako kalteordainak eta abenduaren 26ko 52/2007 Legean ezarritakoak (lege honen bidez Gerra Zibilean eta diktaduran jazarpena edo indarkeria jasan zutenen eskubideak onartu eta zabaldu dira eta haien aldeko neurriak ezarri dira).

**29.** **(10)** Askatasun eta eskubide demokratikoak defendatuz eta aldarrikatuz hiltzeagatik eta ezintasunak eragin zituzten lesioak izateagatik jasotzen diren kalteordainak, 2007ko abenduaren 26ko 52/2007 Legean aurreikusitakoak badira (lege horrek gerra zibilean eta diktaduran jazarpena edo indarkeria pairatu zutenen eskubideak onartzen eta zabaltzen ditu, eta haien aldeko neurriak ezartzen ditu).

Era berean, salbuetsita egongo da Bigarren Mundu Gerran ankerkeria ekintzen biktimak izandako gurasoen umezurtzen sufrimenduagatik emandako finantza laguntza; laguntza hori Frantziako Errepublikaren Gobernuak onartu du uztailaren 27ko 2004/751 Dekretuaren bidez.

**30.** Nekazaritza Bideratu eta Bermatzeko Europako Funtsaren (NBBEF) kontura osorik finantzaturiko laguntzen ehuneko 50, baldin eta lehentasunezko zatitako ustiatzearen bitartez jasotzen badira.

Hala ere, ondoko laguntza hauek osorik daude salbuetsita (ehuneko 100), zeinahi dela ere jasotzailea:

- Mendi nekazaritzako zonetarako eta zona behartsuetarako konpentsazio ordainak.



- Abuztuaren 2ko 50/2005 Foru Dekretuak, Arabako Lurralde Historikoko ingurumenarekin eta natur baliabideak artatzearekin bateragarriak diren laborantza metodoak sustatzeko laguntzak onartu dituenak, aipatzen dituen nekazaritza eta ingurumen laguntzak, eta Landa Garapenerako 2007-2013 Planean arautzen direnak.

**31.** [\(20\)](#) Euskal Autonomia Erkidegoan 1978 eta 1999 bitartean izandako motibazio politikoko indarkeria egoeran giza eskubideen urraketak jasan dituzten biktimei errekonozimendua eta erreparazioa emateko uztailaren 28ko 12/2016 Legearen xedapenen arabera aitortutako kalte ordainak.

**32.** Ondoko bi testuen ondoriozko laguntzak: Babes Integraleko Neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoa; Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza sailburuak 2007ko azaroaren 29an genero indarkeriaren biktimei emakumeei dirulaguntzak emateko eta ordaintzeko prozedura ezartzeko emandako Agindua (dirulaguntza horiek Genero Indarkeriaren aurkako Babes Integraleko Neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoko 27. artikuluan ezarri ziren). Horrez gainera salbuetsita daude, halaber, lurralde administrazio publikoek abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoaren helburu bererako ematen dituzten laguntzak ere.

**33.** Ekainaren 12ko 107/2012 Dekretuan ezarritako konpentsazio ekonomikoak (dekretu horren bidez Euskal Autonomia Erkidegoan, 1960tik 1978ra bitartean, motibazio politikoko indarkeria-egoeran izandako giza eskubideen urraketan ondorioz sufrimendu bidegabeak jasan zituzten biktimei aitortu ziren eta biktime horiei ordainak eman zitzaizkien).

**34.** [\(4\)](#) Autonomia erkidegoek ezarritako prestazio ekonomikoak, baliabide ekonomikorik ez dutenei iraupenerako baliabide ekonomikoak bermatzeko txertaketako errenta minimo kontzeptupean; bai eta autonomia erkidegoek edo toki entitateek ezarritako dituzten gainerako laguntzak ere, beren araudiaren arabera, laguntza emateko hainbat kolektibori: gizartean baztertuta geratzeko arriskuan daudenei; gizarte larrialdiko egoerak dituztenei; baliabiderik ez duten eta bizileku beharrak dituzten pertsonen; edo elikadura, eskolaratze edo gainerako oinarriko beharrak dituzten adingabeei edo ezinduei, beraiek eta beraien mende daudenek baliabide ekonomiko nahikorik ez badute. Prestazio horiek lanbide arteko gutxieneko soldata bider 1,5eko urteko baterako zenbatekoa izan dezakete, gehienez ere.

**35.** [\(4\)](#) Indarkeriazko delituen biktimei emandako laguntzak, abenduaren 11ko 35/1995 Legean, indarkeriazko delituen eta sexu askatasunaren aurkako delituen biktimei laguntzeko eta sorostekoan, jasotakoak; abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoan, genero indarkeriaren aurka oso-osoko babesa emateko neurrienean, jasotako laguntzak; eta genero indarkeriaren biktimei genero indarkeriaren biktimei izateagatik emandako gainerako laguntza publikoak.

**36.** [\(5\)](#) [\(10\)](#) Eskola Kiroleko Egitarauaren barnean edo eskola adinean dauden kirolarientzako Arabako Foru Aldundiak baimendutako jardueretan edo Eusko Jaurlaritzaren urtarilaren 31ko 16/2006 Dekretuak araututako Euskadiko kirol federazioen jardueretan diharduten monitore, arbitro, epaile, ordezkari, kirol arduradun, federazioko zuzendari tekniko eta entrenatzaileen etekinak, lanbide arteko soldataren mugaraino.

**37. (8)** Foru arau honetako hogeita hamabigarren xedapen gehigarrian aipatzen diren epe luzerako aurrezki-planak eratzekoerabiltzen diren bizi-aseguru, gordailu eta finantza-kontratuetatik datozen kapital higigarriaren etekin positiboak, baldin eta zergadunak ez bada plan horretako kapitala erabiltzen hura irekitzen denetik bost urte igaro baino lehen.

Epe hori amaitu baino lehen erabiltzen bada kapitalen bat edo betetzen ez bada foru arau honetako hogeita hamahirugarren xedapen gehigarrian zehaztutako betekizunetako edozein, aurreko paragrafoan aipatzen diren etekinak, plana indarrean egon den bitartean sortuak, ez-betetzea gertatzen den ekitaldiko zergaldian hartu behar dira kontuan.

**38. (16)** Administrazio publikoek eta haien sozietate publikoek zuzenean zein zeharka emandako laguntzak eta dirulaguntzak, energia eta mugikortasun eraginkortasunaren irtenbide bateratu eta orekatua helburu duen Gasteizko Koroatze auzorako Hirigintza Integratuko Eraberritze Proiektuarekin eta eremu horretan bizi kalitatea era jasangarrian hobetzen duten IKTekin zerikusia dutenak.

**39. (18) (29)** Bizitzako gutxieneko sarrera ezarri duen abenduaren 20ko 19/2021 Legean araututako bizitzako gutxieneko sarrera gisa jasotakoak

**40. (32)** Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuaren 2023ko urriaren 3ko Aginduaren itzalpean (horren bidez «Euskadi Bono-Comercio / Euskadi Bono-Denda» programa arautzen eta iragartzen da, Euskal Autonomia Erkidegoko tokiko saltoki txikia suspertzeko eta hiriko merkataritza-jarduerarekin lotura duten merkataritza- eta zerbitzu-sektoreko establezimenduetan kontsumoa sustatzeko) edo horren ordeko aginduaren itzalpean onuradunei ematen zaizkien laguntzak, eta beste lurralde administrazio batzuek xede berarekin ematen dituzten beste laguntza batzuk.

**41. (32)** Eusko Jaurlaritzaren otsailaren 21eko 27/2023 Dekretuaren itzalpean (seme-alabaren bat duten familientzako laguntzen dekretua) edo xede bereko ordeko dekretuaren itzalpean onuradunei ematen zaizkien laguntzak.

### **III. TITULUA ZERGADUNAK**

#### **10. artikulua. Zergadunak.**

**1.** Zerga honen zergadunak nortzuk diren foru arau honetako 2. artikuluko 1. zenbakiko a) eta b) letretan azaldu da.

**2.** Espainiako nazionalitatea daukaten pertsona fisikoek Arabako zerga araudiari lotuta egon ondoren zerga egoitza berria paradisu fiskaltzat jotako herrialde edo lurralde batean ezarri dutela frogatzen badute, ez diote horregatik PFEZen zergadun izateari utziko. Erregela hau egoitza aldatzen den zergaldian eta hurrengo lauretan aplikatuko da.

3. (7) Orobat, herentzien gaineko zerga honen zergadunak ere izango dira testamentu ahalordea edo gozamen ahaldua erabili gabe duten herentziak.

#### **11. artikulua. Errenten eratzikipena.**

1. (5) Sozietate zibilen (nortasun juridikoa izan zein ez), jaraunspen banatugabeen, ondasun erkidegoen eta Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 35. artikuluko 3. idatz zatian aipatutako gainerako entitateen errentak bazkideei, jaraunslerei, erkideei edo partaideei eratzikiko zaizkie, hurrenez hurren, foru arau honetako IV. tituluko VI. kapituluko 2. atalean ezarritakoaren arabera.

Atal horretan xedatutakoa ez da aplikagarria izango foru arau honetako hogeita bederatzigarren xedapen gehigarrian aipatutako sozietate zibilen bazkideen kasuan.

2. Errentak egozteko araubidea ez zaie aplikatuko Eraldakuntzako Nekazaritzako Sozietateei; hauek Sozietateen gaineko Zerga ordainduko dute.

3. (29) Errentak esleitzeko araubidean dauden entitateak ez dira egongo sozietateen gaineko zergaren kargapean, honako kasu honetan izan ezik: Sozietateen gaineko zergari buruzko abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauak 31 bis artikulua 11. apartatua xedatzen duena aplikatzen zaienean.

4. (7) Testamentu ahalordea edo gozamen ahaldua erabili gabe duten herentzietan ez zaie aplikatuko errentak esleitzeko araubidea, eta zergapetuko dira erakunde hauei dagozkien xedapen zehatzetan ez ezik Foru Arau honen 12. artikuluko 6. idatz zatian ere ezarritakoaren arabera.

#### **12. artikulua. Errenten bakoiztapena.**

1. Errenta bakoitza zer zergadunek lortu duen zehazteko haren sorburua edo iturria hartuko da kontuan, senar-emazteen edo izatezko bikotearen araubide ekonomikoa gorabehera, halakorik egonez gero.

2. Lanaren etekinak haiek jasotzeko eskubidea sortu duenari bakarrik egotziko zaizkio. Hala ere, foru arau honetako 18. artikuluko a) letran aipatzen diren prestazioak onartu zaizkien pertsona fisikoei egotziko zaizkie.

3. Jarduera ekonomikoen etekinak ekoizpen baliabideak edo jarduerari atxikitako giza baliabideak ohiz, pertsonalki eta modu zuzenean bere kontura ordenatzen dituenak lortutakotzat joko dira.

Bestelako frogarik ezean, jarduera ekonomikoen titular gisa agertzen direnek aurrean aipatutako baldintzak betetzen dituztela pentsatuko da.

4. Kapitalaren etekinak sortzen dituzten ondare elementuen (ondasunak edo eskubideak) titular diren zergadunei eratzikiko zaizkie.

Aurreko paragrafoan ezarritakoaren ondorioetarako, ondasunak eta eskubideak honela eratzikiko zaizkie zergadunei: titulartasun juridikoari buruz kasu bakoitzean aplikatu

beharreko arauekin bat etorri eta zergadunek aurkeztutako frogak eta Administrazioak aurkitutakoak kontuan hartuta.

Behar denean, senar-emazteen edo izatezko bikoteen araubide ekonomikoari buruzko xedapenetan eta senideen arteko ondare harremanez kasu bakoitzean aplika daitezkeen legeria zibileko manuetan ondasunen eta eskubideen titulartasun juridikoaz ezarritako arauak aplikatuko dira.

Senar-emazteen edo izatezko bikotearen araubide ekonomikoari edo ondare araubideari dagozkion xedapenen edo itunen arabera ondasunen eta eskubideen titulartasuna biena bada, erdibana eratzikiko zaizkie, beste partaidetza kuota batzuk aplikatu behar direla frogatu ezean.

Ondasunen edo eskubideen titulartasuna ondo egiaztaturik ez badago, Zerga Administrazioak zerga erregistro batean edo beste erregistro publikoren batean halakotzat agertzen dena hartu ahal izango du titulartzat.

**5.** Ondareko irabaziak eta galerak aurreko idatz zatian ezarritakoaren arabera haiek sortu dituzten ondasun, eskubide eta gainerako ondare elementuen titular diren zergadunek lortuzat joko dira.

Frogatu gabeko ondare irabaziak sortu dituzten ondasunen edo eskubideen titulartasunaren arabera eratzikiko dira.

Aurreko eskualdaketa batetik ez datozen ondasunen eta eskubideen eskuraketak ondasunok edo eskubideok lortzeko eskubidea daukanaren edo zuzenean irabazi dituenaren ondare-irabazitzat joko dira.

**6.** (7) Testamentu ahalordea edo gozamen ahaldua erabili gabe duten herentziei dagozkien errenta etekinak eta egozpenak herentziako ondasunen gozamendunari esleituko zaizkio, haien jatorriaren edo iturriaren arabera. Aurreko 3. zenbakian xedatutakoa gorabehera, ekonomia jardueren etekinak gozamendunari egotziko zaizkio, ekonomia jardueren etekin modura esleitu ere.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa gorabehera, Foru Arau honen 35. artikuluan aipatzen diren kapital higigarriaren etekinak eta ondasunak edo eskubideak eskualdatzearen ondorioz eskuratutako ondare irabaziak eta ondare galerak, baldin eta testamentu ahalordea edo gozamen ahaldua noiz erabili zain dauden jaraunspenen baitako besteren kapitalen erakarpena eta erabilera ordeztzen dituzten aktiboak eskualdatuz lortzen badira, baldin eta eskualdaketa horrek ez badakar Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergaren sortzapenik, herentziari berari eratzikiko zaizkio eta Foru Arau honen hogeita hamargarren xedapen gehigarriak ezarritakoaren arabera kargatuko dira.

Gozamen eskubiderik ezartzen ez zaien ondasun edo eskubideei dagokienez, herentziari berari esleituko zaizkio, eta Foru Arau honen hogeita hamargarren xedapen gehigarriak ezarritakoaren arabera zergapetuko dira.

Euskal Zuzenbide Zibilari buruzko ekainaren 25eko 5/2015 Legearen 140. artikuluan ezarritako ezkontza ondoko erkidegoaren errentak, testamentu ahalordea erabili

bitartean, erdi bana esleituko zaizkie ezkontide alargunari eta testamentu ahalordea erabiltzearen zain dagoen herentziari, aurreko hiru paragrafoetan ezarritako arauekin bat etorriz.

Aurreko paragrafoan ezarritakoa Eusko Legebiltzarraren maiatzaren 7ko 2/2003 Legean xedatutakoaren arabera eraturako izatezko bikoteei ere aplikatuko zaie, baldin eta bikoteak hautatutako ondare araubide ekonomikoari Euskal Zuzenbide Zibilaren Legearen manu hori aplikagarri bazaio.

## **IV. TITULUA ZERGA OINARRIA**

### **I. KAPITULUA ARAU OROKORRAK**

#### **13. artikulua. Zerga oinarria zer den.**

Zerga oinarria zergadunak zergaldian lortutako errenta guztien kopurua da; titulu honetan xedatutakoaren arabera kalkulatu behar da.

#### **14. artikulua. Zerga oinarria zehaztea.**

1. Zerga oinarria zuzeneko zenbatespenaren araubidean kalkulatu da edo bestela, modu subsidiarioan, zeharkako zenbatespenaren araubidean, Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean xedatutakoarekin bat etorriz.

2. Zerga oinarria zenbatzeko hauxe egin behar da:

1. Errentak sorburuaren arabera sailkatu.

2. Etekin garbiak, ondareko irabazi-galerak eta egotzitako errentak kalkulatu titulu honetan ezarritakoaren arabera.

3. Errentak sorburuaren arabera eta sailkapenaren arabera (errenta orokorra edo aurrezkiaren errenta) integratu eta konpentsatu.

Eragiketa horien guztien emaitzak zerga oinarri orokorra eta aurrezkiaren zerga oinarria izango dira.

### **II. KAPITULUA LANAREN ETEKINAK**

#### **15. artikulua. Lanaren etekinak zer diren.**

Lanaren etekinak dira zergadunaren lan pertsonalak edo beraren lan harremanek edo estatutu harremanek zuzenean zein zeharka sortzen dituzten kontraprestazio eta onura guztiak, jarduera ekonomikoen etekinak ez beste guztiak.

Gauzazko ordainsaritzat jotzen dira ondasunak, eskubideak edo zerbitzuak dohainik edo merkatuko ohiko prezioetik behera nor bere xedeetarako erabiltzea, kontsumitzea edo lortzea, nahiz eta ematen dituenarentzat gastu erreala ez izan.

Errentak ordaintzen dituenak zergadunari eskudirutan ordaintzen dionean horrek ondasun, eskubide edo zerbitzuak eros ditzan, errenta diruzkotzat joko da.

#### **16. artikulua. Lanaren diruzko etekinak.**

Besteak beste, ondoko hauek dira lanaren diruzko etekinak:

- a) Soldatak eta lansariak.
- b) Langabezia prestazioak eta langile autonomoek jarduerari uzteagatik jasotzen dituztenak.
- c) Ordezkaritza gastuengatik jasotzen diren ordainsariak.
- d) Bidai gastuetarako dietak eta kopuruak, joan-etorrietakoak eta ostatueta egiten diren mantenukoak eta egonaldikoak izan ezik, arauz ezartzen diren mugekin.
- e) Aurreko artikuluan zerrendatu diren harremanek sortzen dituzten sariak eta kalte ordainak.

#### **17. artikulua. Lanaren gauzazko etekinak.**

1. Besteak beste, ondoko hauek dira lanaren gauzazko etekinak:

- a) [\(20\)](#) Borondatezko gizarte aurreikuspeneko erakundeetako bazkide babesleek ordaindutako kontribuzioak edo ekarpenak eta, orobat, azaroaren 29ko 1/2002 Legegintzako Errege Dekretuak onetsitako Pentsio Plan eta Funtsak arautzen dituen Legearen testu bateginean ezarritako pentsio planen sustatzaileek edo Europako Parlamentuak eta Kontseiluak enpleguko pentsio funtsen jarduerari eta ikuskapenari buruz 2016ko abenduaren 14an emandako 2016/2341 (EB) Zuzentarauan ezarritako enpresa sustatzaileek egindakoak.
- b) Enpresaburuek pentsioengatik hartutako konpromisoei aurre egiteko ordaindutako kontribuzio edo ekarpenak, azaroaren 29ko 1/2002 Legegintzako Errege-Dekretua onartutako Pentsio Plan eta Funtsei buruzko Legearen testu bategineko lehen xedapen gehigarrian eta hura garatu duen araudian ezarri den bezala, kopuru horiek guztiak prestazioekin lotutako pertsonen egozten bazaizkie. Zerga egozketa hau borondatezkoa izango da enpresen gizarte aurreikuspeneko planez bestelako talde aseguruaren kontratuetan. Erabakia hartuz gero, aseguru kontratua iraungi arte ordaintzen diren prima guztietarako eutsi behar zaio. Dena den, arrisku aseguruaren kontratuetan nahitaezkoa izango da, hurrengo idatz zatiko f) letran xedatutakoa gorabehera. Aseguru kontratuan aldi berean erretiroa, heriotza edo lanerako ezintasuna estaltzen badira, zerga egozketa ez da nahitaezkoa.
- c) Etxebizitza erabiltzea kargu batean aritzeagatik edo enplegatu publikoa edo pribatua izateagatik.

- d) Ibilgailu automobilak erabiltzea edo ematea.
- e) Diruaren legezko korritu tasa baino tasa txikiagoa duten maileguak jasotzea.
- f) Mantenu, ostatu, turismoko bidaia eta antzekoengatik jasotzen diren prestazioak.
- g) Aseguru kontratuagatik edo antzeko beste aseguru bategatik enpresak ordaindutako primak edo kuotak, hurrengo idatz zatiko e) eta f) letretan xedatutako kasuan izan ezik.
- h) Zergadunaren, beraren ezkontidearen edo izatezko bikotekidearen edo berarekin ahaidetasunaz lotutako pertsonen (ezkontzaren edo izatezko bikotearen eraketaren ondoriozkoak barne) ikasketa gastuak eta mantenu gastuak ordaintzeko erabiltzen diren kopuruak.

**2.** Aurreko paragrafoan xedatutakoa gorabehera, ondoko hauek ez dira lanaren gauzazko etekintzat hartuko:

- a) Enpresetako taberna eta jantokietan edo gizarte ekonomatuetan langileei merkatutako prezioetan egiten zaizkien ekoizkinen emateak. Enpresetako jantokietan beheratutako prezioetan egindako ekoizkin ematezkat hartuko dira zerbitzuak emateko zeharkako formulak, baldin eta zenbatekoa ez bada arauz ezarritakoaz gainekoa.
- b) Langileen gizarte eta kulturaren arloko zerbitzuetarako ondasunak erabiltzea. Halakotzat hartuko dira, besteak beste, enpresek edo enplegatzaileek euren langileen seme-alabei Haur Hezkuntzako lehen zikloaren zerbitzua emateko jartzen dituzten eremuak eta lokalak, Herri Administrazioak homologatuak, bai eta zerbitzu hori baimendutako bati kontratatzea eta zerbitzua emateko zeharkako formularen batez baliatzea ere, baldin eta zenbatekoa ez bada arauz ezarritakoa baino gehiago.
- c) Langileak prestatzeko, gaitzeko edo birziklitzeko erabiltzen diren diru kopuruak, haien eginkizunak betetzeko edo lanpostuaren ezaugarriak direla beharrezkoa badira.
- d) Langileak teknologia berrietara ohitzeko erabiltzen diren diru kopuruak, arauz ezartzen denarekin bat etorritik.
- e) Langilearen lan istripuetarako aseguru kontratuak edo beraren erantzukizun zibileko aseguru kontratuak direla bide enpresak ordaindutako kopuruak.
- f) Heriotza edo elbarritasuneko arrisku garbiko aldi baterako aseguru kontratu kolektiboen primak, legez ezarritako mugarekin.
- g) [\(5\)](#) [\(29\)](#) Merkatuko balio normalaren eta langileek akzioak eta partaidetzak eskuratzeko duten eskualdaketa balioaren arteko diferentzia positiboa, eskurapenak eskuratzailerik foru arau honen 89. artikuluan edo 89 bis artikuluan ezarritako kenkaria aplikatzeko eskubidea ematen dienean, bai eta merkatuko balio normalaren eta langileek enpresak edo entitateen partaidetzak edo akzioak eskuratzeko ordaindutako eskualdaketa balioaren arteko diferentzia positiboa ere, foru arau honen 41. artikuluan 2. apartatuaren d) lettran exijitutako beharkizunak betetzen direnean.

Foru arauaren 41.2 d) artikuluan edo 89. artikuluan edo 89 bis artikuluan eskatzen diren baldintzak betetzen ez badira enpresa edo akzioak edo partaidetzak eskuratu ondoko bost urteetako edozein egunetan, zergadunak bere zerga egoera erregularizatu beharko du baldintza betetzen ez den ekitaldiko autolikidazioan. Erregulazioan, era berean, behar diren berandutze interesak sartu beharko dira.

h) [\(12\)](#) Bidaiarien garraio kolektiboaren zerbitzua emateko ardura duten erakundeei ordaindutako diru-kopuruak, langileak beren etxebizitzatik lantokira horrela joatea sustatzeko helburuz, betiere konpromiso hori jasota badago dagokion hitzarmen kolektiboan edo akordio sozialean. Muga 1.500 eurokoa izango da urteko eta langile bakoitzeko. Halaber, zerbitzu publiko hori emateko ardura duten erakundeei ordaindutako diru-kopurutzat joko dira erregelamendu bidez ezartzen diren baldintzak betetzen dituzten zeharkako ordainketa-erak.

Aurreko paragrafoak aipatzen duen kasurako, ez da gauzazko lan-ordainsaritzat joko alderdi enplegatzaileak bere bitartekoak erabiliz langileen garraio-zerbitzua ematen duelarik.

i) [\(22\)](#) Enplegatzailearen jabetzako hiriko bizikletak erabiltzea entitateko langileek beren ohiko bizilekutik lantokira edo alderantziz egin beharreko joan-etorrietarako. Ondorio horietarako, motor elektrikoz lagundutako bizikleta pedaldunak sartzen dira, Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko urtarrilaren 15eko 168/2013 (EB) Erregelamenduan jasotako definizioaren arabera.

## **18. artikulua. Lanaren beste etekin batzuk.**

Ondoko hauek ere lanaren etekinak dira:

a) Prestazio hauek:

1. Gizarte Segurantzaren eta klase pasiboen araubide publikoetatik jasotako pentsio eta hartzeko pasiboak, eta ezintasun, erretiro, istripu, gaixotasun, alarguntasun edo antzeko egoerengatik erakunde publikoek emandako gainerako prestazioak, foru arau honetako 9. artikuluan xedatutakoa gorabehera.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa gorabehera, jarduera ekonomikoren bat burutzen dutenak jarduera egiteko aldi baterako ezinduta badaude, Gizarte Segurantzari buruzko Lege Orokorrean ezarritako kontzeptuetako bat dela eta, jasotzen dituzten prestazioak eta kopuruak jarduera ekonomikoaren etekintzat joko dira.

2. Funtzionarioen nahitaezko mutualitate orokorrek, zurtz elkartek eta antzeko erakundeek ematen dituzten prestazioak.

3. Ondoko prestazio hauek:

a') Borondatezko gizarte aurreikuspeneko erakundeetako bazkideek eta haien onuradunek jasotzen dituzten kopuruak, are borondatezko edo derrigorrezko baxaren ondorioz eta erakundearen desegitearen edo likidazioaren ondorioz jasotzen direnak eta gaixotasun larriaren eta langabezia luzearen zioz jasotzen direnak ere.



Hala ere, borondatezko edo derrigorrezko bajagatik nahiz erakundea desegiteagatik edo likidatzeagatik jasotako zenbatekoak borondatezko gizarte aurreikuspeneko beste erakunde batean oso osorik sartzen badira bi hilabete pasatu baino lehen, ez dira zerga oinarrian integratu behar.

b') (5) (20) Pentsio planen onuradunek jasotako prestazioak, barnean direla azaroaren 29ko 1/2002 Legegintzako Errege Dekretuak onetsitako Pentsio Plan eta Funtsak arautzen dituen Legearen testu bategineko 8. artikulua 8. apartatuan jasotako kasuetan modu aurreratuan erabiltzen diren kopuruak, bai eta enpleguko pentsio funtsen jardueri eta ikuskapenari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren abenduaren 14ko 2016/2341 (EB) Zuzentarauan araututako pentsio planetatik jasotakoak ere.

4. Gizarte aurreikuspeneko mutualitateekin hitzartutako aseguru kontratuen onuradunek jasotzen dituzten prestazioak, baldin eta haien ekarpenak, zati batean behintzat, jarduera ekonomikoen etekin garbia kalkulatzeko gastu kengarritzat hartu ahal izan badira edo zerga honen zerga oinarria murriztu badute.

Kontratu horien ondoriozko erretiro prestazioak eta elbarritasun prestazioak zerga oinarrian integratu behar dira, hain zuzen ere jasotako kopuruaren eta foru arau honetako 70. artikuluko 1. idatz zatiko 4. zenbakiko a) letran eta zortzigarren edo bederatzigarren xedapen gehigarrian ezarritako betekizunak ez betetzeagatik zerga oinarritik kendu edo murriztu ezin izan diren ekarpenen arteko diferentzia.

5. Enpresen bermatutako aurreikuspen planen onuradunek jasotzen dituzten prestazioak.

6. Enpresen gizarte aurreikuspeneko planekin zer ikusirik ez duten aseguru kontratu kolektiboen onuradunek erretiroagatik eta elbarritasunagatik jasotako prestazioak, zenbatekoa zerga ordainketarako egotzitako kontribuzioa eta langileak zuzenean egindako ekarpena baino gehiago den neurrian. Nahitaezkoa da kontratu horietan enpresek pentsioei aurre egiteko bereganatu dituzten konpromisoak bideratzea (azaroaren 29ko 1/2002 Legegintzako Errege-Dekretuaren bidez onartu zen) Pentsio Plan eta Funtsei buruzko Legeko lehenengo xedapen gehigarrian eta horren garapenerako araudian ezarritakoarekin bat etorritz.

7. (5) Bermatutako aurreikuspen planen onuradunek jasotzen dituzten prestazioak, are alde zuzen jarritako kopuruak ere, azaroaren 29ko 1/2002 Legegintzako Errege Dekretu bidez onartutako Pentsio plan eta funtsak arautzeko Legearen testu bateratuak 8. artikulua 8. idatz zatian jasotako kasuetan.

8. Mendetasun aseguruaren onuradunek jasotako prestazioak, autonomia pertsonala eta pertsona desgaituen arreta sustatzen dituen abenduaren 14ko 39/2006 Legearen xedatutakoaren arabera.

b) Kargua dela eta Europako Parlamentuko diputatuei, Gorte Nagusietako diputatu eta senadoreei, Eusko Legebiltzarreko kideei eta beste autonomia erkidegoetako kideei, Batzar Nagusietako prokuradorei, udaletako zinegotziei, eta foru aldundietako eta beste toki erakunde batzuetako kideei ordaintzen zaizkien kopuruak; nolana ere, ez

dira zenbatuko erakunde horiek bidaietarako eta joan-etorrien gastuetarako ematen dituzten kopuruak.

c) Espainiak nazioarteko erakundeetan dituen funtzionarioen ordainsariak; honek ez du eragozten nazioarteko itunbenetan eta hitzarmenetan ezarritakoa.

d) Legez onartutako erlijioetako ministro edo apaiz lanak egiteagatik jasotzen diren kopuruak.

e) Administrazio kontseiluetako eta haien ordezkoko batzordeetako eta beste ordezkariak organo batzuetako administratzaileek eta kideek jasotzen dituzten ordainsariak.

f) Sozietateen fundatzaileek edo sustatzaileek euren zerbitzuen ordainketa gisa eurentzat gordetzen dituzten eskubide ekonomiko bereziak.

g) Foru arau honetako 15. artikuluan azaltzen diren harremanetako baten ondoriozko bekak, 9. artikuluan xedatutakoa gorabehera.

h) Jarduera humanitarioetan edo asistentzia sozialekoetan laguntzeagatik jasotako ordainsariak; honek ez du eragozten foru arau honetako 9. artikuluan ezarritakoa.

i) Ezkontideak edo izatezko bikotekideak emandako konpentsazio pentsioak eta mantenurako urtekoak, foru arau honetako 9. artikuluko 1. idatz zatian xedatutakoa gorabehera.

Foru arau honetako 69. artikuluko bigarren paragrafoan xedatutakoa aplikatu ahal bada, ez dira lanaren etekintzat jo behar.

j) Lan harreman berezien ondoriozko ordainsariak.

k) Herriak hautatuko kargudun politikoek eta baita izendapen libreko kargudunek jasotzen dituzten kopuruak euren kargua uzteagatik, uzteagatiko kausa edozein dela eta karguan zenbat egon diren kontuan izan gabe.

## **19. artikulua. Lanaren etekin osoa.**

1. (29) Lanaren etekin osoan kapitulu honetako aurreko artikuluetan definitu diren etekin guzti-guztiak sartzen dira, oro har.

Foru arau honen 18. artikulua a) letran aipatzen diren prestazioak, errenta gisa jasoz gero, eta zerga oinarria murrizten duten enpresaren kontribuzio egotziak osorik zenbatu behar dira. Osorik zenbatuko dira, halaber, lanetik kanporatzeagatik edo lana utzarazteagatik errenta gisa jasotzen diren kalteordainetatik zerga honen kargatik salbuetsitako zenbatekoa gainditzen dutenak, foru arau honen hogeita batgarren xedapen gehigarrian ezartzen dena gorabehera.

2. Hala ere, idatz zati honetan zerrendatzen diren kasuetan, lanaren etekin osoa kapitulu honetako aurreko artikuluetan definitu diren etekinen zenbateko osoari ondoko portzentajeak aplikatuz kalkulatu da:

a) Lanaren etekinak bi urtetik gorako aldiaren sortu badira eta aldizka edo noizean behin lortu ez badira, ehuneko 60 aplikatuko da; sorkuntzaldia bost urtetik gorakoa izan bada edo etekinak arauz kalifikatzen badira denboran era irregular nabarmenean lortuzat, ehuneko 50 aplikatuko da.

Etekinak zatika kobratzen badira, etekinaren sorrerakoa konputatzeko zenbat urtetan zatikatzen den kobrantza hartuko da kontuan, ezarritako arauekin bat etorriz.

Idatz zati honetan aipatzen diren 100etik beherako ehunekoak aplikatzen zaizkien etekinen guztirako zenbatekoa ezin da izan 300.000 euro baino gehiago urtean. Hortik gorako kopurua osorik integratuko da (ehuneko 100).

Jasotako etekinei 100etik beherako integrazio ehuneko desberdinak aplikatu ahal bazaizkie, aurreko paragrafoan ezarritako 300.000 euroko muga konputatzeko lehenbizi integrazio ehuneko txikiena dutenak hartuko dira kontuan.

b) Foru arau honetako 18. artikuluko a) letran ezarritako prestazioak, 6. zenbakikoak ez beste guztiak, kapital moduan jasotzen badira, jasotako zenbatekoa osorik integratuko da (ehuneko 100).

Aurreko paragrafoan ezarritakoa gorabehera, kontingentzia batengatik prestazioren bat jasotzen bada, kapital gisa jasotzen den kopuruaren ehuneko 60 integratuko da, baldin eta lehenengo ekarpenetik bi urte baino gehiago pasatu badira. Prestazioak elbarritasun edo ezintasunagatik jasotzen badira, ez da exijituko bi urteko epealdia.

Paragrafo honetan ezarritako tratamendua gaixotasun larrien kasuan eta iraupen luzeko langabezia egoeretan jasotzen diren kopuruei ere aplikatuko zaie.

Halaber, letra honetan ezarritako integrazio ehunekoa (ehuneko 60) aplikatuko zaio estalitako kontingentziak ez beste batzuk gertatzeagatik edo azaroaren 29ko 1/2002 Legegintzako Errege-Dekretuak onartutako Pentsio Plan eta Funtsei buruzko Legearen Testu Bategineko 8. artikuluko 8. idatz zatian ezarritako egoerak ez beste batzuk gertatzeagatik jasotzen den lehenengo kopuruari.

Idatz zati honetan ezarritakoaren ondorioetarako jasotako lehen kopurutzat hartuko da zergaldi batean kapital moduan jasotako kopuruaren batura.

### (3)

c) Etekinak foru arau honetako 18. artikuluko a) letrako 6. zenbakian aipatzen diren aseguru kontratu kolektiboen ondorioz kapital moduan jasotako prestazioek sortu badituzte eta enpresaburuen ekarpenak prestazioak jasotzen dituzten pertsonen egotzi bazaizkie, honela jokatuko da:

a') Erretiro prestazioak:

- Aseguru primak ordaindu zirenetik bi urtetik gorako aldia pasatu bada, lortutako etekinen ehuneko 60.

- Aseguru primak ordaindu zirenetik bost urtetik gorako aldia pasatu bada, lortutako etekinen ehuneko 25. Azkeneko ehuneko hori bera aplikatuko zaio horrelako kontratuen ondoriozko etekin osoari lehen prima ordaindu zenetik zortzi urte baino gehiago pasatuz gero, baldin eta kontratuaren iraupenean zehar primak aldizkakotasun eta erregularitasun nahikoarekin ordaindu badira, arau bidez ezartzen den bezala.

b') Elbarritasun prestazioak:

- Elbarritasuna arauz ezarritakoaren arabera eta bertan finkatutako graduetan gertatzen bada edo prestazioak zortzi urte baino antzintasun handiagoa duten aseguru kontratuen ondoriozkoak badira, zenbatekoaren ehuneko 25; ezinbestekoa da kontratua indarrean den artean primak aldizkakotasun eta erregularitasun nahikoarekin ordaintzea.

- Aurreko betekizunak betetzen ez diren kasuetan ehuneko 60.

Gainera, tratamendu hau aplikatuko zaie arrisku garbiko aldi baterako talde aseguruak elbarritasunagatik ematen dituzten kapital prestazioei ere (foru arau honetako 17. artikuluko 2. idatz zatiko f) letra).

Prestazioak foru arau honetako 18. artikuluko a) letrako 6. zenbakian aipatzen diren aseguru kontratu kolektiboen ondorioz kapital moduan jasotzen badira eta enpresaburuen ekarpenak prestazioak jasotzen dituzten pertsoneri egotzi ez bazaizkie, zenbatekoaren ehuneko 60 integratuko da kasu hauetan:

- elbarritasun prestazioak direnean.

- aseguru primak ordaindu zirenetik gutxienez bi urte pasatu direnean.

Letra honetan aipatzen diren ehunekoak aplikatzeko formula erraztuak finkatu ahal izango dira arau bidez.

d) (29)

(3) Idatz zati honen b) eta c) letretan aipatzen diren etekinen zenbatekoak, zeini 100etik beherako integrazio portzentajea aplikatu zaien, 300.000 euro baino gutxiago izango da urteko. Zenbateko horretatik gorakoa ehuneko 100ean integratuko da.

## **20. artikulua. Akzioen gaineko aukerak.**

1. Lanaren etekinak zerbitzuak egin diren erakundearen, sozietate taldeko erakunde baten edo loturaren bat dagoen beste erakunde baten akzioen gaineko aukerak baliatuz sortzen badira, guztirako zenbatekoa (lanaren etekin osoa) kalkulatzeko ondokoak hartu behar dira kontuan:

a) Kasu honetan soilik joko da etekina bi edo bost urte baino aldi luzeagoan eta aldizkakotasunik gabe sortutzat: aukera eskubidea ematen denetik hurrenez hurren bi edo bost urte pasatutakoan baliatzen denean (ezinbestekoa da urtero ez ematea).

b) Aurreko 2. idatz zatiko a) letran aipatzen den integrazio ehuneko aplikatuko zaion etekinaren zenbatekoa ezin da izan arau bidez zehazten den kopurua etekina sortu den aldiko urteen kopuruaz biderkatzearen emaitza baino gehiago.

**2. Akzioen gaineko aukera eskubideen emateek jarraian adieraziko diren baldintzak betez gero, aurreko idatz zatiko gehieneko zenbatekoa bertan finkatutakoa halako bi izango da:**

a) Akzioek edo partaidetzek gutxienez 3 urtean edukitzea erosteko aukera baliatzen denetik.

b) Erosteko aukeren eskaintza baldintza eurretan egitea enpresako edo enpresa talde edo azpitaldeko langile guztiei.

### **21. artikulua. Lanaren etekin garbia.**

Lanaren etekin garbia kalkulatzeko eragiketa hau egingo da: etekin osoei gastu kengarriak eta hobariak kendu.

### **22. artikulua. Gastu kengarriak.**

Gastu kengarritzat ondoko hauek soilik hartuko dira:

a) Gizarte Segurantzari edo funtzionarioen derrigorrezko mutualitate orokorre egindako kotizazioak, eskubide pasiboen murrizketak eta umezurtzen ikastetxe edo antzeko erakundeei egindako kotizazioak, bai eta zergadunek erakunde edo instituzioei ordaindutako zenbatekoak ere, baldin eta horiek, indarrean dagoen araudiarekin bat, Gizarte Segurantzari dagokion zenbait kontingentziaren prestazioak bereganatu badituzte.

b) Herriak aukeratutako kargu politikoek eta izeneztapen askeko kargu politikoek euren erakunde politikoari nahitaez emandako kopuruak.

Kopuru horien muga lantoki horretan jardunez lortutako etekin osoaren ehuneko 25 izango da, etekin horiek zergadunaren errenta nagusiak badira.

Letra honetan ezarritakoa foru arau honetako 116. artikuluko i) letran aipatzen den eredu informatiboan ageri diren zergadunek soilik aplikatu ahal izango dute.

### **23. artikulua. Lanaren etekinaren hobariak.**

**1. Lanaren etekin osoaren eta gastu kengarrien arteko diferentzia positiboari hobari hauek aplikatuko zaizkio:**

a) Diferentzia 7.500 eurotik gorakoa ez bada, 4.650 euroko hobaria.

b) Diferentzia 7.500,01 - 15.000 euro artekoa bada, 4.650 euroko hobaria aplikatuko da, baina kopuru hau kendu ondoren: diferentziazatik 7.500,00 euro kenduta geratzen den kopurua 0,22z biderkatuta sortzen den kopurua.

c) Diferentzia 15.000 euro baino gehiago bada, 3.000 euroko hobaria.

2. Zerga oinarrian lanak sortzen ez dituen errentak konputatzen badira eta horien zenbatekoa 7.500 euro baino gehiago bada, hobaria 3.000 eurokoa izango da.

3. (3) Aurreko idatz zatietan jasotako hobariak honela gehituko dira:

a) Zergaduna aktibo dagoen langile ezindua bada eta haren ezintasun gradua ehuneko 33-65 bitartekoa bada, hobaria ehuneko 100 gehituko da.

b) Zergaduna aktibo dagoen langile ezindua bada, haren ezintasuna ehuneko 33-65 bitartekoa bada eta mugitzeko gaitasuna murriztuta badauka, hobaria ehuneko 250 gehituko da. Halakotzat joko dira abenduaren 23ko 1971/1999 Errege Dekretuaren, ezintasun gradua aintzatetsi, adierazi eta kalifikatzeari buruzkoaren, II. eranskineko baremoko A, B eta C letretan adierazitako egoeretako batean daudenak, baremo horretako D, E, F, G edo H letran 7 puntu edo gehiago dauzkatena. Ehuneko bera aplikatuko zaie ehuneko 65eko ezintasuna edo handiagoa daukaten langile ezinduei ere.

4. Artikulu honetako hobariaren aplikazioak ezin du ekarri lanaren etekin garbia negatiboa izatea.

### **III. KAPITULUA JARDUERA EKONOMIKOEN ETEKINAK**

#### **24. artikulua. Jarduera ekonomikoen etekin osoak: zer diren.**

1. Jarduera ekonomikoen etekin osotzat honako hauek hartzen dira: lan pertsonaletik eta kapituletik, bietatik aldi berean edo horietako batetik bakarrik, eratorriak izanik, zergadunak produkzio bideak eta giza baliabideak, edo bietako bat bakarrik, bere kontura antolatzea dakartenak ondasun eta zerbitzuen produkzio edo banaketan esku hartzeko.

Bereziki, halakotzat jotzen dira erauzketa jardueren etekinak eta fabrikazio, merkataritza edo zerbitzu prestazioenak, artisautza, nekazaritza, basogintza, abeltzaintza, arrantza, eraikuntza, meatzaritza eta jarduera profesionalak barne.

2. Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren tarifen bigarren eta hirugarren ataletan daudenak soilik joko dira jarduera profesionaltzat.

3. Higiezinak errentatzea edo salerostea jarduera ekonomikotzat hartzeko ezinbestekoa da gutxienez langile bat edukitzea kontratatuta jarduera antolatzeko lanaldi osoarekin eta dedikazio eksklusiboarekin. Horretarako, ondoko hauek ez dira enplegatutzat hartuko: ezkontidea, izatezko bikotekidea, aurrekoak, ondorengoak, bigarren graduako albo-ahaideak (ahaidetasunaren jatorria gorabehera: odolkidetasuna, ezkontza, izatezko bikotearen eraketa edo adopzioa) eta Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 42. artikuluko 3. idatz zatiaren arabera lotuta dauden pertsonak.

## **25. artikulua. Etekin garbia kalkulatzeko arau orokorrak.**

1. Etekin garbia kalkulatzeko zuzeneko zenbatespena erabiliko da; modalitate hauek daude:

a) Arrunta.

b) Erraztua. Jarduera ekonomiko baten etekin garbia kalkulatzeko modalitate hau aplikatu ahal izateko ezinbestekoa da zergadunak aurreko urtean egindako jarduera guztietako eragiketen bolumena 600.000 euro baino gehiago ez izatea.

Jarduera hasi berria bada, aurreko paragrafoan aipatutako zenbatekoa kalkulatzeko ekitaldian egindako eragiketen bolumena hartuko da aintzat.

Jarduera urte osoan egin ez bada, etekin garbien zenbatekoa kalkulatzeko jarduera egin den aldiko eragiketen bolumena urte osora heldu arte biderkatuko da.

Modalitate hau aplikatzeko ezinbestekoa zergadunak berariaz jakinaraztea arauz ezarritakoarekin bat etorritz.

2. Zergadunak ondasunak, eskubideak edo zerbitzuak lagatzen edo mailegatzten badizkie hirugarrenei, dohain edo merkatuko balio arrunta baino nabarmen txikiagoa den kontraprestazioa jasota, edo bere jarduerako ondasunak, eskubideak edo zerbitzuak kontsumitzen edo erabiltzen baditu, jardueraren etekin garbia kalkulatzeko foru arau honetako 58. artikuluan xedatutakoa aplikatuko da.

3. [\(16\)](#) Jarduera ekonomikoen etekin garbia kalkulatzeko, haiei atxikitako ondare elementuen ondoriozko ondare irabaziak edo galerak hartuko dira kontuan; horien zenbatekoak Sozietateen gaineko Zergaren Foru Arauak ezartzen duenaren arabera zehaztuko dira.

Halaber, foru arau horretako 36. artikuluan aparteko mozkinen berrinbertsioaz xedatzen dena aplikatuko zaie.

Honela jokatu da etekin garbia kalkulatzeko: apartatu honetan xedatzen denaren aplikazioaren ondorioz ondare irabaziak badaude, jarduera ekonomikoaren etekin arruntari gehituko zaizkio; aldiz, ondare galerak badaude, etekin arrunt horretatik kenduko dira.

4. Lanaren etekin garbia bi urte baino aldi luzeagoan sortu bada eta etekinak ez badira aldian-aldian lortzen, zenbatekoaren ehuneko 60 konputatuko da; sortzapenaldia bost urte baino luzeagoa izan bada edo eta etekinak denboran modu nabarmen irregularrean lortutzat jotzen badira, ehuneko 50 integratuko da.

Etekinak zatika kobratzen badira, haien sorkuntzaldia zehazteko kontuan hartu beharko da zenbat urtetan zatikatu den kobrantza (araudian ezarriko da nola).

Idatz zati honetan hizpide den etekin garbiaren zenbatekoa, hau da, integrazio ehuneko aplikatuko zaion kopurua, ezin da izan 300.000 euro baino gehiago urtean. Hortik gorako kopurua osorik integratuko da (ehuneko 100).

Jasotako etekinei 100etik beherako integrazio ehuneko desberdinak aplikatu ahal bazaizkie, aurreko paragrafoan ezarritako 300.000 euroko muga konputatzeko lehenbizi integrazio ehuneko txikiena dutenak hartuko dira kontuan.

5. Jarduera ekonomiko bati ekiten dioten zergadunek ehuneko 10eko murrizketa aplikatu ahal izango diote haren etekin garbi positiboari (behar den kasuetan aurreko idatz zatian xedatutakoa aplikatu ondoren) etekinen zenbatekoa positiboa den lehenengo zergaldian eta hurrengoan, betiere etekin garbi positibo hori lehenengo aldiz lortu badu jarduera hasi eta hasierako bost zergaldietako batean.

Hori dela eta, zergaduna aurretik jardun ekonomiko berean aritu bada, zuzenean zein zeharka, ez da pentsatuko jarduera ekonomiko bati ekin dionik. Lehenengo jarduera eta oraingoa Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren tarifen talde berean badaude, zergaduna jarduera berean ari dela pentsatuko da.

Zergaldian ekindako jarduera ekonomikoak sortutako sarreren ehuneko 50 baino gehiago aurreko urtean zergadunari lanaren etekinak ordaindu dizkion pertsona edo erakunde batetik etorri badira, murrizketa hau ezin izango da aplikatu.

6. [\(22\)](#) Basogintzako jarduera ekonomiko bat garatzen duten zergadunek ehuneko 10eko murrizketa aplikatu ahal izango diote haren etekin garbi positiboari, behar den kasuetan artikuluko honetako 4. eta 5. apartatuetan xedatutakoa aplikatu ondoren.

Aurreko paragrafoan ezarritakoa aplikatzeko, beharrezkoa izango da Arabako Foru Aldundian basogintzaren arloan eskumena duen sailak arauz ezartzen dituen baso kudeaketa jasangarrirako konpromisoak betetzea. Konpromiso horiek betetzen direla egiaztatzeko, basogintzaren arloan eskumena duen Arabako Foru Aldundiko sailak horri buruz emandako ziurtagiria aurkeztu beharko du.

7. [\(4\)](#) [\(22\)](#) Ez dira aplikagarri izango Sozietateen gaineko zergaren Foru Arauaren IV. tituluko V. kapituluaren ezarritako zuzenketak, emaitzaren aplikazioari dagozkionak.

## **26. artikulua. Atxikitako ondare elementuak.**

1. Hauexek dira jarduera ekonomikoari atxikitako ondare elementuak:

a) Zergadunak bere jarduera egiteko erabiltzen dituen ondasun higiezinak.

b) Jardueran ari diren langileen zerbitzu ekonomikoetarako eta soziokulturaletarako erabiltzen diren ondasunak. Aldiz, aisialdi eta olgetarako ondasunak ez dira jarduerari atxikitatzen joko, ez eta, oro har, jarduera ekonomikoaren titularrak erabilera pribaturako erabiltzen dituenak ere.

c) Etekinak lortzeko beharrezkoak diren gainerako ondare elementu guztiak. Erakundeen funtsetako partaidetzak adierazten dituzten aktiboak eta kapitalak hirugarrenei laga izana islatzen dutenak inolaz ere ez dira jarduera ekonomikoari atxikitako elementuak.



**2.** Jarduera ekonomikoan partzialki baino erabiltzen ez diren ondare elementuen kasuan, jardueran benetan erabiltzen den zatia bakarrik hartuko da jarduerari atxikitzat.

Arau bidez finkatu ahal izango da zer gertatu behar den ondare elementu jakin batzuk jarduera ekonomiko bati atxikitzat jotzeko, nahiz eta beharizan pribatuak asetzeko erabili eta erabilera hori osagarria eta garrantzirik gabea izan.

**3.** Ondare elementu bat jarduera bati atxikitzat jotzeko ez da kontuan hartuko titulartasuna bi ezkontideena edo izatezko bikoteko kide biena den.

**4. (3)** Zergadunak ondare elementuak jarduera bati atxikitzea edo aktibo ez-korronteak hartatik jaregitea ez da ondare aldakuntza izango, baldin eta ondasunek edo eskubideek beraren ondarean jarraitzen badute.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa gorabehera, zergadunaren jarduera ekonomikoari atxikitako elementuak jaregiten badira beraren ondare pertsonalean sartzeko, eskuraketa balioa honela kalkulatu behar da, inoiz ondare aldakuntza zehaztu behar bada ere:

a) Etekin garbia kalkulatzeko zuzeneko zenbatespenaren metodoaren modalitate arrunta erabiltzen bada, jaregitea gertatzen den unean duten kontabilitateko balio garbia.

b) Gainerako kasuetan eskuraketa prezioaren eta egindako edo egin beharreko amortizazioen arteko diferentzia.

Elementuak jarduerari atxikita egon diren aldian zergadunak jarduera ekonomikoaren etekinak kalkulatzeko aplikatu duen zenbatespen modalitateak ez badu aukerarik eman, aldi osoan zein zati batean, elementu horien amortizazioagatik kenkaria aplikatzeko, aldi horretan amortizazio honen kenkaria aplikatu dela pentsatuko da: gehieneko aldiari dagokion gutxieneko koefizientea aplikatzearen emaitzako kopurua, Sozietateen gaineko Zergaren arautegian ezarritakoarekin bat etorritik.

**5.** Ondasunak edo eskubideak besterentzen badira jaregitea gertatu denetik hiru urte pasatu baino lehen, jaregitea ez gertatutzat joko da.

Jarduerari uzten zaionean, ondare elementuak jardueratik hori baino lehen jaregin direla ulertuko da, ondoko kasuan izan ezik: zergadunak hurrengo hiru urteetan (jarduerari uzten zaion egunetik zenbatuta) jarduera ekonomikoren bati ekin ezean.

Ostera, jarduera ekonomiko bati ondare pertsonaleko ondasunak edo eskubideak atxikitzen bazaizkio, haien eskuraketa balioa hartu behar da kontuan.

Ondorio guztietarako, ondasunak eta eskubideak jarduerari lotu eta hiru urte pasatu baino lehen besterentzen badira lortutako kopurua Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 36. artikuluan ezarri den bezala berrinbertitu gabe, atxikipenik ez gertatutzat joko da.

## **27. artikulua. Etekin garbia zuzeneko zenbatespenaren metodoaren modalitate arruntaren bidez kalkulatzeko arauak.**

Etekin garbia zuzeneko zenbatespenaren modalitate arruntaren bidez kalkulatzeko foru arau honetako 25. artikuluan ezarritako arau orokorrak eta Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauan xedatutakoa aplikatuko dira; horiez gainera erregela berezi hauek hartuko dira kontuan:

1. [\(5\)](#) [\(10\)](#) Ez dira gastu kengarritzat joko Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 31. artikuluko 4. zenbakian aipatutako kontzeptuak, ez eta enpresaburuak edo profesionalak berak gizarte-aurreikuspeneko mutualitateei egindako ekarpenak ere, foru arau honetako 70. artikuluan xedatutakoaren kalterik gabe.

Hala ere, gastu kengarritzat joko dira norbere konturako langile edo autonomoen Gizarte Segurantzako araubide berezian txertatu gabeko profesionalek sinatutako aseguru kontratuengatik ordaindutako kopuruak, urriaren 30eko 8/2015 Legegintzazko Errege Dekretuak onartutako Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bateginaren hamazortzigarren xedapen gehigarrian ezarritako betebeharra betetzeko, aipatutako Gizarte Segurantzako erregimen bereziaren ordezkotzat lan egiten dituztenean, erregimen berezi horrek hartutako kontingentzien estaldura xedetzat daukan zatian, aipatutako erregimen berezian ekitaldi ekonomiko bakoitzerako ezarritako kontingentzia arrunten gehienezko kuota muga gisa izanik.

2. Zergadunaren ezkontideak edo izatezko bikotekideak edo adingabeko seme-alabek, harekin bizi direla, berak egiten dituen jarduera ekonomikoetan etenik gabe beharrezko lan kontratuarekin eta Gizarte Segurantzako araubide orokorrean afiliaturik lan egin ohi dutela behar bezala frogatzen denean, etekinak zehazteko bakoitzarekin hitzartutako ordainsariak kenduko dira, beti ere beraien gaikuntzari eta beraiek egindako lanari dagozkienak merkatukoak baino handiagoak ez direnean.

Kopuru horiek, zerga ondorio guztietarako, ezkontideak edo izatezko bikotekideak edo adingabeko seme-alabek lortuzat joko dira (lanaren etekinak).

3. Zergadunaren ezkontideak edo izatezko bikotekideak edo adingabeko seme-alabek, harekin bizi direla, berak egiten dituen jarduera ekonomikoetan etenik gabe beharrezko lan kontratuarekin eta Gizarte Segurantzako araubide orokorrean afiliaturik lan egin ohi dutela behar bezala frogatzen denean, etekinak zehazteko bakoitzarekin hitzartutako ordainsariak kenduko dira, beti ere beraien gaikuntzari eta beraiek egindako lanari dagozkienak merkatukoak baino handiagoak ez direnean. Kopuru horiek, zerga ondorio guztietarako, ezkontideak edo izatezko bikotekideak edo adingabeko seme-alabek lortuzat joko dira (lanaren etekinak).

Erregela honetan xedatutakoa ez zaie aplikatuko bi ezkontideek edo izatezko bikotekideek amankomunean dituzten ondasunei eta eskubideei.

4. Zenbaki honetan aipatze diren gastuak kengarriak izango dira, jarduera ekonomikoarekin lotuta dauden neurrian; hauek dira zenbatekoak eta baldintzak:

a) Harreman publikoak direla eta zergadunak jatetxe, ostatu, bidaiari eta joan-etorrietan bere jardueretariko bakoitzean egindako gastuen ehuneko 50. Gehieneko muga,

kontzeptu guztiak batera hartuta, zergadunak zergaldian jardueretariko bakoitzean izandako diru sarreraren ehuneko 5 izango da.

b) Opariak eta gainerako erregaliak, betiere unitateko zenbatekoa gehienez ere 300 euro bada hartzaile eta zergaldi bakoitzeko, eta hartzailea nor den agiri bidez jasorik uzten bada. Baldin eta aipaturiko gastuak goian zehazturiko zenbatekoa baino gehiago badira, zenbateko horretaraino soilik izango dira kengarri.

5. Bat. Oro har, ez dira kengarriak izango turismo ibilgailuak eta horien atoiak, ziklomotoreak eta motozikletak erabiltzearekin lotutakoa eskuratu, inportatu, errendatu, konpondu, mantendu, balio gale-rarekin edo erabilerarekin lotutako gastuak.

Bi. Zergadunak frogatzen badu jardueraren berezko ezaugarriak direla eta ibilgailua oso garrantzitsua dela sarrerak lortzeko eta horretarako erabili ohi duela, gastu horien ehuneko 50 kendu ahal izango du ibilgailuko, muga hauekin:

a) 2.500 euro edo zergadunak erabilitako amortizazio ehunekoa 25.000 euroko kopuruari aplikatzearen emaitzako zenbatekoaren ehuneko 50, hura baino gutxiago bada eta amortizazioa ondare elementu baten errentamenduagatik, lagapenagatik edo balio galeragatik aplikatu bada.

b) Ibilgailuaren eskuraketa prezioa 25.000 euro baino gehiago izanez gero, kopuru horren zati proportzionala ibilgailuaren eskuraketak eragindako finantza gastuekiko.

c) 3.000 euro urtean ibilgailuaren erabileraren inguruko gainerako kontzeptu guztiengatik.

Hiru. Zergadunak modu sinesgarrian egiaztatzen badu ibilgailua soil-soilik jarduera ekonomikoari lotuta dagoela, kengarriak izango dira gastu horiek, muga hauek izanik:

a) [\(22\)](#) Errentamendu, lagapen edo balio galera gisa:

- Zenbateko hauetatik txikiena: 5.000 euro edo zergadunak erabilitako amortizazio ehunekoa bider 25.000 euro eginda ateratzen den zenbatekoa, zenbatekoa baino gutxiago bada eta ondare elementua amortizatzen bada.

- Bateriako ibilgailu elektrikoak (BEV) edo bateria hedatuko ibilgailu elektrikoak (E-REV) badira, lehen adierazitakoaren orde, zenbateko hauetatik txikiena aplikatuko da: 7.000 euro edo zergadunak erabilitako amortizazio ehunekoa bider 35.000 euro eginda ateratzen den zenbatekoa, zenbatekoa hura txikiagoa bada eta ondare elementua amortizatzen bada.

b) [\(22\)](#) Aipatutako ibilgailuak erostearen ondoriozko finantza gastuei dagokienez:

- Ibilgailuaren eskuraketa prezioa 25.000 euro baino gehiago izanez gero, kopuru horrek osatzen duen zati proportzionala ibilgailuaren eskuraketaren prezioarekiko.

- Bateriako ibilgailu elektrikoak (BEV) edo bateria hedatuko ibilgailu elektrikoak (E-REV) badira, lehen adierazitakoaren orde, hau aplikatuko da: ibilgailuaren eskuraketa

prezioa 35.000 euro baino gehiago denean, kopuru horrek osatzen duen zati proportzionala ibilgailuaren eskuraketaren prezioarekiko.

c) 6.000 euro erabileraren inguruko gaineko kontzeptu guztiengatik.

Baldin eta ibilgailua erabili badu zergadunak urteko zati batean, erabilera denborarekiko proportzioan kalkulatuko dira arau honetan aipaturiko mugak.

Lau. Erregela honetako bigarren eta hirugarren idatz zatietan ezarritako mugak ez zaizkie aplikatuko ondoko zerrendako ibilgailuen erabileraren inguruko gastuei (gastuok jarduera ekonomikoak eragindakotzat joko dira):

1. Salgaiak garraiatzeko erabiltzen diren ibilgailu mistoak.
2. Kontraprestazio bidez bidaiarien garraio zerbitzua eskaintzeko erabiltzen direnak.
3. Fabrikatzaileek probetan, saiakuntzetan, erakustaldietan edo salmenten sustapenean erabiltzen dituztenak.
4. Ordezkeri edo agente komertzialek lan bidaietan erabiltzen dituztenak (mugak: aurreko hirugarren idatz zatiko a) eta b) letretan ezarritakoak).
5. Kontraprestazio truke gidariei eta pilotuei irakaskuntza zerbitzuak eskaintzeko erabiltzen direnak.
6. Zaintza zerbitzuetan erabiltzen direnak.
7. Kontraprestazio bidezko alokairua ohiko jarduera duten erakundeek jarduera horretarako eraginkortasunez eta bakarrik erabiltzen dituzten ibilgailuak.
6. Ez dira kengarriak izango aisiarako edo ur kiroletarako itsasontziak edo aireontziak erosi, errentatu, konpondu, mantendu edo balioa galtzearekin zerikusia duten gastuak, ez eta ontzi horien erabilerari lotutako beste guztiak ere.

Aipatutako garraiogailuak jarduera ekonomiko bat egiteko soilik erabiltzen badira, aurreko paragrafoan aipatutako gastuak kendu ahal izango dira, muga hau gainditu gabe: zergaldi bakoitzean jarduera horrek sortutako sarreraren zenbatekoa. Baina ez da muga hori aplikatuko zergadunak frogatzen badu badituela behar beste baliabide material eta giza baliabide jarduera ekonomiko hau egiteko: aipatutako garraiobideak etenik gabe ustiatzea.

7. Gastu hauek ez dira kengarriak izango: iruzurraren aurkako prebentzioa eta borroka areagotzearen zerga eta aurrekontu araudia aldatu eta finantza araudia egokitzen duen urriaren 29ko 7/2012 Legeko 7. artikuluan diruzko ordainketen mugei buruz xedatutakoa betetzen ez duten eragiketen ondoriozko gastuak.

8. Eroskeriazko emariak ez dira kengarriak.

9. Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 13. artikuluan mikroenpresa, enpresa txikia edo enpresa ertaina izateko ezarritako betekizunak betetzen dituzten

zergadunei foru arau horretako 21. artikuluko 1. idatz zatiko b) letran eta 2. eta 3. idatz zatietan eta 22. artikuluko 3. idatz zatian xedatutakoa aplikatuko zaie.

Aurrean aipatutako 13. artikuluko betekizunak betetzen direnez argitzeko zergadunaren jarduera ekonomiko guztiak hartuko dira kontuan.

10. (16) Zuzeneko zenbatespenean etekin garbia zehaztean, zergadunak jarduera ekonomikoan bere burua mantentzeko jabetxeetan eta ostalaritzako establezimenduetan egiten dituen gastuak kengarriak izango dira, baldin eta baliabide elektroniko bidez ordaintzen badira; gastu hauek muga dute, pertsona langileen ohiko mantenu gastuetarako ezarritako dieta eta diru kopuruen arauzko muga, bai eta arauz ezarritako beste betekizun batzuk ere.

## **28. artikulua. Etekin garbia zuzeneko zenbatespenaren metodoaren modalitate erraztuaren bidez kalkulatzeko arauak.**

1. (4) Hauxe egingo da etekin garbia zuzeneko zenbatespenaren metodo erraztuaren bidez kalkulatzeko:

a) Sozietateen gaineko zergaren Foru Arauan eta aurreko artikuluan ezarritako arauetan xedatutakoarekin bat etorriz kalifikatu eta zenbatuko dira sarrerak eta gastuak, hauek izan ezik: narriaduraren ondoriozko galerak, amortizazioak, foru arau honen 27. artikuluko 5. erregelaren Bi idatz zatiko a) letran eta Hiru idatz zatiko a) letran aipatzen diren errentamendu, lagapen eta balio galeren ondoriozko gastuak, ez eta jarduerari atxikitako ondare elementuen ondoriozko irabaziak eta galerak ere.

b) (27) (29) Aurreko idatz zatian aipatutako sarreren eta gastuen arteko diferentzia kalkulatu da eta kopuru horri ehuneko 10 kenduko zaio, Foru Arau honen 27. artikuluko 5. erregelaren Bi idatz zatiko a) letran eta Hiru idatz zatiko a) letran aipatutako amortizazioengatik, narriaduraren ondoriozko galerengatik, alokairu gastuengatik, lagapenengatik edo balio galeragatik, eta gastu frogagaitzengatik.

c) Jarduerari atxikitako ondare elementuen irabazi eta galerak gehitu edo kenduko zaizkio aurreko b) letran esandakoaren arabera ateratzen den kopuru edo emaitzari, Foru Arau honen 25. artikuluan 3. idatz zatian xedatutakoari jarraituz.

2. (23) Zuzeneko zenbatespen erraztua erabiltzen duten enpresaburu edo profesionalak osatutako zenbait talderen kasuan, arau bereziak ezarri ahal izango dira, erregelamendu bidez, gastu kengarri jakin batzuk kuantifikatzeko, artikuluko honetako 1. idatz zatiko b) letran aipatu den ehunekoa ere barne.

Foru arau honen hogeita hamalagarren xedapen gehigarrian aipatzen diren eremu edo guneetan kokatutako jarduera ekonomikoaren kasuan, artikuluko honen 1. apartatuko b) letran aipatzen den ehunekoa ehuneko 45ekoa izango da. Ehuneko hori erregelamendu bidez aldatu ahal izango da.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa eremu eta gune horietan fisikoki eta modu iraunkorrean kokatuta dauden jarduera ekonomiko bakoitzeko ez zaie aplikatuko, aurrez

aurre garatzen edo gauzatzen badira, eta eremu edo gune horietatik harreman zuzenean bezeroekin edo erabiltzaileekin.

## **IV. KAPITULUA KAPITALAREN ETEKINAK**

### **1. ATALA ARAU OROKORRAK**

#### **29. artikulua. Definizioa.**

1. Kapitalaren etekin osotzat hartuko dira zuzenean edo zeharka ondareko elementuek, ondasunek eta eskubideek sortzen dituzten onura edo kontraprestazio guztiak, izendapena edo izaera gorabehera, diruzkoak zein gauzazkoak, baldin eta elementu, ondasun edo eskubide horien titularrak zergaduna bada eta zergadunak berak egindako jarduera ekonomikoren bati atxikita ez badaude.

Hala ere, ondare elementuen titulartasuna eskualdatzeak sortzen dituen errentak ondareko irabazi edo galera gisa zergapetuko dira, nahiz eta jabariaren erreserbarako ituna hitzartuta egon, kasu honetan izan ezik: foru arau honen arabera errenta horiek kapitalaren etekintzat hartu behar badira.

2. Gauzazko errentak dira ondasunak, eskubideak edo zerbitzuak xede partikularretarako erabiltzea, kontsumitzea edo lortzea doan edo merkatuko ohiko prezioetik behera, nahiz eta ematen dituenari benetako gasturik ez eragin.

Errentak ordaintzen dituenak zergadunari eskudirutan ordaintzen dionean horrek ondasun, eskubide edo zerbitzuak eros ditzan, errenta diruzkotzat joko da.

3. Edonola ere, ondoko hauek kapitalaren etekinak izango dira:

a) Zergadunak egindako jarduera ekonomikoren bati atxikita ez dauden landa ondasun higiezinak eta hiri ondasun higiezinak ematen dituzten etekinak.

b) Kapital higigarriak sortzen dituenak eta, oro har, zergadunak egindako jarduera ekonomiko bati atxikita ez dauden gainerako ondasunen eta eskubideen ondoriozko etekinak.

### **2. ATALA KAPITAL HIGIEZINAREN ETEKINAK**

#### **30. artikulua. Kapital higiezinaren etekin osoak: zer diren.**

1. Kapital higiezinaren etekin osoetan hiri ondasun higiezinak eta landa ondasun higiezinak sortzen dituzten etekinak eta horien gaineko eskubide errealak lagata eskuratzen direnak sartu behar dira, ondokoak barne direla: ondasun horiek errentan

edo azpierrean emanda edota erabiltzeko edo gozatzeko eskubideak edo ahalmenak lagata lortzen diren etekin guztiak, izendazioa edo izaera gorabehera.

**2.** Etekin oso gisa konputatuko dira erabiltzeko edo gozatzeko eskubidearen eraketaren errentari, azpierreari, lagapen hartzaile edo onuradunak kontzeptu guztiak direla eta ordaindutako zenbatekoak, are higiezinarekin batera lagatako ondasun guztien etekinak ere, Balio Erantsiaren gaineko Zerga sartu gabe.

**3.** Hala ere, foru arau honetako 32. artikuluko 2. idatz zatian aipatzen diren etekinak bi urte baino aldi luzeagoan sortu badira eta ez badira jasotzen aldizka ez behin baino gehiagotan, etekin osoa kalkulatzeko ehuneko 60 integratu behar da. Etekinak bost urte baino aldi luzeagoan sortu badira, edo arau bidez denboran modu irregular nabarmenean lortuzat jotzen badira, ehuneko 50 integratuko da.

Etekinak zatika kobratzen badira, etekinaren sorrereldia konputatzeko zenbat urtetan zatikatzen den kobrantza hartuko da kontuan, ezarritako arauekin bat etorritik.

Idatz zati honetan hizpide den etekinen zenbatekoa, hau da, integrazio ehunekoa aplikatuko zaion kopurua, ezin da izan 300.000 euro baino gehiago urtean. Hortik gorako kopurua osorik integratuko da (ehuneko 100).

Jasotako etekinei 100etik beherako integrazio ehuneko desberdinak aplikatu ahal bazaizkie, aurreko paragrafoan ezarritako 300.000 euroko muga konputatzeko lehenbizi integrazio ehuneko txikiena dutenak hartuko dira kontuan.

Ondasun higiezinak erabiltzeko edo gozatzeko eskubide errealak eratzeak sortzen dituen etekinak osorik konputatu behar dira (zenbatekoaren ehuneko 100).

### **31. artikulua. Etekin garbia.**

Kapital higiezinaren etekin garbia kalkulatzeko etekin osotik hurrengo artikuluan aipatzen diren kontzeptuak kendu behar dira.

### **32. artikulua. Gastu kengarriak eta hobaria.**

**1.** (23) Kapital higiezinaren etekinak etxebizitzan bidez lortu badira, higiezin bakoitzeko lortutako etekin osoei ehuneko 20ko hobaria aplikatuko zaie. Ehuneko hori ehuneko 30ekoa izango da etxebizitza kokatuta badago foru arau honen hogeita hamalagarren xedapen gehigarrian aipatzen diren eremu edo guneeetako batean.

Gainera, ondokoak ken daitezke (hauexek soilik): etekinen iturri diren ondasunak edo haiek erabiltzeko edo gozatzeko eskubideak edo ahalmenak eskuratzeko, birgaitzeko edo hobetzeko inbertitutako besteren kapitalen interesak eta finantzaketako gainerako gastuak.

Ondasun higiezin bakoitzean, hobariaren eta gastu kengarrien baturak ezin du eragin etekin garbia negatiboa izatea.

Idatz zati honetan etekin hauek soilik sar daitezke: Hiri Errentamenduei buruzko azaroaren 24ko 29/1994 Legearen 2. artikuluan etxebizitzaren errentamendutzat jotako eragiketek sortutako etekinak.

**2.** Kapital higiezinaren etekinak aurreko idatz zatian aipatzen direnak ez beste batzuk izanez gero, etekin osotik ondoko gastu hauek kendu behar dira.

a) Etekinak lortzeko egindako gastuak: etekinen iturri diren ondasunak edo haiek erabiltzeko edo gozatzeko eskubideak edo ahalmenak eskuratzeko, birgaitzeko edo hobetzeko inbertitutako besteren kapitalen korrituak eta finantzaketako gainerako gastuak.

b) Etekinen iturri diren ondasunetan erabileragatik edo denboraren joanak eraginda gertatutako narriaduraren zenbatekoa, arauz ezartzen denarekin bat etorritz.

Erabilpenerako edo gozamenerako eskubideen titulartasunak sortzen dituen etekinen kasuan, ordaindutako eskuraketa balioaren zati proportzionala ken daiteke balio galeragatik, arauz ezartzen denarekin bat etorritz.

Higiezin bakoitzaren gastu kengarrien baturak ezin du ekarri etekin garbia negatiboa izatea.

### **3. ATALA KAPITAL HIGIGARRIAREN ETEKINAK**

#### **33. artikulua. Kapital higigarriaren etekinak: zer diren.**

**1.** Kapital higigarriaren etekin osoetan ondoko hauek sartu behar dira:

a) Denetariko erakundeen funtsetako partaidetzei esker lortzen diren etekinak.

b) Norberaren kapitalak hirugarrenei lagata lortutako etekinak.

c) Kapitalizazio eragiketetatik, bizi edo elbarritasun aseguruaren kontratuetatik eta kapital ezarpenen errentetatik datozen etekinak.

d) Kapital higigarriaren beste etekin batzuk.

**2.** Ez dira hartuko kapital higigarriaren etekintzat ohiko jarduera ekonomikoan egiten diren eragiketen prezioa geroratzeagatik edo zatikatzeagatik lortutako kontraprestazioak (honek ez du eragozten kontraprestazio horiek bidezko kontzeptuagatik zergapetzea).

#### **34. artikulua. Denetariko erakundeen funtsetako partaidetzei esker lortzen diren etekinak.**

Denetariko erakundeen funtsetako partaidetzari esker lortutako etekintzat hartuko dira etekin hauek, diruzkoak zein gauzazkoak:



a) Denetarikoko erakundearen dibidenduak, batzarretara joateagatik sariak eta irabazi partaidetzak.

b) Aktibo mota guztien etekinak, ondokoak izan ezik: estatutuak direla bide edo sozietatearen organoaren erabakiaren bidez erakundearen mozkinetan, salmentetan, eragiketetan, sarreretan edo norberaren lanaren ordainsarrietan ez beste kontzeptuetan partaidetza izateko ahalmena ematen duten akzio askatuek ematen dituztenak.

c) Erakunde baten funts propioen partaidetza ordezkatzeko ematen duten balore edo partaidetzeko gainerako erabilera edo luperketa eskubide edo ahalmenak eratuta edo lagata lortzen diren etekinak, direnak direla haien izena edo izaera.

d) Aurrekoa ez den beste erabilera bat, erakunde batek ematen duena bazkide, akzionista, kide edo partaide izateagatik.

e) [\(5\)](#) [\(24\)](#) Akzio edo partaidetzeko jaulkipen primaren banaketa. Lortutako zenbatekoak akzio edo partaidetza bakoitzaren eskuratze balioa murriztuko du, deuseztatu arte. Gai-dokumentu bakoitzak, kopuru hori kapital higigarriaren etekin gisa zergapetuko da.

[\(24\)](#) Aurreko paragrafoan xedatzen dena gorabehera, sozietate edo entitateko funts propioen partaidetzaren ordezkari eta finantza tresnen merkatuei buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko maiatzaren 15eko 2014/65/EB Zuzentarauan definitutako baloreen merkatu arautuetan negoziatutako onartu gabeko baloreei dagozkien jaulkipen primak banatuz gero, prima banatzeko data aurretik itxita azken ekitaldiari dagozkion partaidetza edo akzioen funts propioen balioaren eta eskuratze balioaren arteko diferentzia positiboa baldin bada, lortutako zenbatekoa edo jasotako eskubide edo ondasunen merkatuko balio normala kapital higigarriaren etekin gisa hartuko da, diferentzia positiboaren mugarekin.

Ondorio horietarako, aurreko paragrafoak aipatutako funts propioen balioa gutxitu egingo da jaulkipen prima banatu aurretik banatutako etekinen zenbatekoan, funts propioetan jasotako erreserbetatik jasotakoak, baita akzioak edo partaidetzak eskuratu ondoren sortutako funts propio horietan jaso eta legalki erabilezinak diren erreserben zenbatekoan ere.

Aipatutako mugaren gainerako gehiegikeriak partaidetza edo akzioen eskuraketa balioa murriztuko du e) letra honen lehenengo paragrafoan xedatutakoarekin bat etorriz.

Baldin eta e) letra honen bigarren paragrafoan xedatutakoa aplikatuz jaulkipen primaren banaketak zenbatutakoa lortutako zenbateko osoaren edo zati baten kapital higigarriaren etekin gisa hartzea ekartzen bada, edo jasotako ondasun eta eskubideen merkatuko balio normalarena, eta ondoren zergadunak artikuluko honen a) letrarekin bat etorriz etekinetan partaidetzak edo dibidenduak lortuz gero, entitate berberetik iritsitakoak jaulkipen prima banatu zenetik bere ondorean egondako partaidetza edo akzioei dagozkenez, etekinetan partaidetza edo dibidenduetatik iritsitako zenbatekoari kendu egingo zaio, aldeztu aurretik zenbatutako kapital higigarriaren etekinen mugarekin, aipatutako partaidetza edo akzioei dagozkienak, horien eskuraketa balioa, e) letra honen lehenengo paragrafoan ezarritakoarekin bat etorriz.

### **35. artikulua. Norberaren kapitalak hirugarrenei lagata lortutako etekinak.**

1. Norberaren kapitalak hirugarrenei lagata lortutako etekintzat hartuko dira kontraprestazio guztiak, izendazioa eta izaera gorabehera, diruzkoak zein gauzazkoak (esaterako, korrituak eta lagapenaren ordainsari gisa itundutako gainerako ordainsari guztiak), eta besteren kapitalen erakarpina eta erabilpena adierazten dituzten eskualdaketa, itzulketa, amortizazio, truke eta bihurtzen ondoriozko kontraprestazioak ere bai.

2. Hain zuzen ere, halakotzat hartuko dira:

a) Denetariko igorpen tresnek sortzen dituzten etekinak, are merkataritzako eragiketetan sortzen direnak ere, endosua edo eskualdaketa egiten den unetik aurrera, ondoko kasuan izan ezik: endosua edo lagapena hornitzaileentzako kreditu baten ordain gisa egiten denean.

b) Denetariko finantza erakundeetako kontuetatik datozen kontraprestazioak, izendazioa eta izaera gorabehera, finantza aktiboekin egiten diren eragiketetan oinarritutakoak barne.

c) Finantza aktiboak berriro erosteko itunarekin egiten diren aldi baterako lagapenek sortzen dituzten errentak.

d) Finantza erakundeek beren kredituak, osorik edo zatika, eskualdatu, laga edo transferitzeagatik ordaintzen dituzten errentak.

3. Baloreak eskualdatu, itzuli, amortizatu, trukatu edo bihurtuz gero, baloreen eskualdatze, itzultze, amortizatze, trukatzeko edo bihurtze balioaren eta eskuratze edo harpidetze balioaren arteko diferentzia etekintzat hartuko da.

Truke edo bihurtze balioa jasotzen diren baloreen balioa izango da.

Eskuratze eta besterentze gastu osagarriak, era berean, etekina kuantifikatzeko konputatuko dira, behar bezala frogatzen badira.

Finantza aktiboak eskualdatzearen ondoriozko etekin negatiboak, baldin eta zergadunak eskualdaketa horien aurreko edo ondoko bi hiletan finantza aktibo homogeenak eskuratu baditu, beraren ondarean mantentzen diren finantza aktiboak eskualdatu ahala integratuko dira.

4. (7) Artikulu honetan aipatutako besteren kapitalak erakarri eta erabiltzea ordezkatzeko duten aktiboak direla eta, zergadunaren heriotzaren zioz halako aktiboak kostu gabe eskualdatzen badira ulertuko da ez dagoela kapital higigarriaren etekinik, eta ez da kapital higigarriaren etekin negatiborik konputatuko "inter vivos" doako eskualdaketa ondorioz.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa aplikatuko da doako eskualdaketa egiten denean komisarioak testamentu ahalordea, gozamen ahaldua edo oraingo eraginkortasuneko oinordetza tituluren bat erabiltzearen ondorioz. Hori dela eta, oinordetza tituluak zein

diren Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 7. artikuluan ezarri da.

Aurreko paragrafoan aipatu diren kostu gabeko eskualdaketetan, alegia, eraginkortasuna unean bertan duten oinordetza tituluen bidezko kostu gabeko eskualdaketetan, besteren kapitalak erakarri eta erabiltzea ordezkatzan duten aktiboen eskualdatzaileari dagokionez, eskuraketa balioa, hurrengo eskualdaketetarako, dohaintza emaileak aktibo horiek dohaintza hartzaileari ematean duten balioa izango da, dohaintza hartzaileak aktiboak dohaintza emailea hil aurretik eskualdatu ezean. Izan ere, hala gertatzen bada, dohaintza hartzailea dohaintza emailearen lekuan subrogatuko da aktibo horien eskuraketa balio eta datei dagokienez, eta azken horrek eraginkortasuna unean bertan duen oinordetza itunaren aurretik zituen balio eta datak atxikiko ditu.

### **36. artikulua. Kapitalizazio eragiketek, bizi edo elbarritasun aseguruaren kontratuek eta kapital ezarpenen errentek sortzen dituzten etekinak.**

1. Honelakoak dira kapitalizazio eragiketen bidez eta biziaseguru edo elbarritasun aseguruaren kontratuen bidez lortzen diren etekinak, diruzkoak zein gauzazkoak, kasu honetan izan ezik: foru arau honetako 18. artikuluko a) letran ezarritakoaren arabera lanaren etekin gisa zergapetu behar direnean. Kapital higigarriaren etekin hauei arau hauek aplikatuko zaizkie:

a) [\(5\)](#) Kapital geroratu jasotzen denean, jasotako kapitalaren eta ordaindutako primen arteko diferentzia izango da kapital higikorren etekina.

Hala ere, aseguru kontratuak biziraupen kontingentzia eta ezintasun edo heriotza kontingentzia uztartzen baditu eta jasotako kapitala biziraupen kontingentziari badagokio, kapitalari dagozkion ordaindutako primak ere kendu ahalko dira ezintasun edo heriotza arriskuan, ordura arte kontsumitutakoa, betiere kontratuaren indarraldi osoan arrisku kapitala hornidura matematikoaren %5en parekoa edo txikiagoa bada. Ondorio horietarako, hornidura matematikoaren eta ezintasun edo heriotzarako aseguraturako kapitalaren arteko aldea kapital arrisku gisa hartuko da.

b) Berehalako biziarteko errenten kasuan, baldin eta ez badira eskuratu jaraunspen bidez, ez legatu ez bestelako oinordetza titulu baten bidez, kapital higigarriaren etekina kalkulatzeko ondoko zerrendako ehuneko egokia aplikatu behar zaio urteko zenbatekoari:

- Ehuneko 40, jasotzailea 40 urtetik beherakoa denean.
- Ehuneko 35, jasotzailea 40 eta 49 urte bitartekoa denean.
- Ehuneko 28, jasotzailea 50 eta 59 urte bitartekoa denean.
- Ehuneko 24, jasotzailea 60 eta 65 urte bitartekoa denean.
- Ehuneko 20, jasotzailea 66 eta 69 urte bitartekoa denean.
- Ehuneko 8, jasotzailea 70 urtetik gorakoa denean.

Errenta eratzen den unean errentadunak daukan adinaren arabera aplikatuko dira ehuneko hauek, eta ez dira aldatuko errentaren iraupen osoan.

c) Berehalako aldi baterako errenten kasuan, baldin eta ez badira eskuratu jaraunspen bidez, ez legatu ez bestelako oinordetza titulu baten bidez, kapital higigarriaren etekina kalkulatzeko ondoko zerrendako ehuneko egokia aplikatu behar zaio urteko zenbatekoari:

- errentaren iraupena bost urte edo laburragoa bada, ehuneko 12.
- errentaren iraupena bost eta hamar urte artekoa bada, ehuneko 16.
- errentaren iraupena hamar eta hamabost urte artekoa bada, ehuneko 20.
- errentaren iraupena hamabost urte baino luzeagoa bada, ehuneko 25.

d) (7) Errenta geroratuak, biziartekoak edo aldi baterakoak jasotzen direnean, baldin eta ez badira eskuratu jaraunspen bidez, ez legatu ez bestelako oinordetza titulu baten bidez, kapital higigarriaren etekina kalkulatzeko aurreko b) eta c) letretako ehuneko egokia aplikatu behar zaio urteko zenbatekoari, errenta eratu arte lortutako errentagarritasunaren zenbatekoa gehiturik (errenta hau arauz ezartzen den moduan kalkulatu da). Errentak dohaintzaz edo dohainik eta "inter vivos" egindako beste edozein negozio juridikoren bidez eskuratu direnean (salbu eraginkortasuna unean bertan duten oinordetza tituluak), kapital higigarriaren etekina hau bakarrik izango da: aurreko b) eta c) letretan jasotako portzentajea urteko zenbateko bakoitzari aplikatuz ateratzen den emaitza.

Aurreko paragrafoan jasotakoa gorabehera, zergaren zerga oinarrian sartuko dira, kapital higigarriaren etekin gisa, erregelamendu bidez finkatzen den moduan, Foru Arau honek 18. artikulua a) letran aipatutakoak ez diren eta haien indarraldian aseguru kontratuaren horniduretan inolako mobilizaziorik izan ez duten bizi edo elbarritasun aseguru buruzko kontratuen onuradunek errenta moduan jaso dituzten erretiro eta elbarritasun prestazioak, haien zenbatekoa kontratua dela-eta ordaindutako prima baino handiagoa den momentutik aurrera. Errentak eskuratu badira dohaintzaz edo dohainik eta "inter vivos" egindako beste edozein negozio juridiko bidez (salbu eraginkortasuna unean bertan duten oinordetza tituluak), aldiz, zerga oinarrian sartuko dira prestazio horiek errenten eraketa uneko balio aktuariala baino handiagoak direnean. Kasu horietan, ez dira aplikatuko aurreko b) eta c) letretan jasotako portzentajeak. Erretiro prestazioen kasuan araubide hau aplikatuko bada, beharrezkoa da aseguru kontratua gutxienez erretiro data baino bi urte lehenago hitzartu izana.

e) (7) Jaraunspenez, legatuz edo bestelako oinordetza titulu baten bidez eskuratu ez diren aldi baterako edo biziarteko errentak azkenduz gero, eragilea erreskatatzeko eskubidea baliatzea izan bada, kapital higigarriaren etekina honela kalkulatu behar da: erreskatearen zenbatekoari ordu arte ordaindutako errentak batu behar zaizkio eta emaitzako kopurutik ordaindutako primak eta idatz zati honetako aurreko letren arabera kapital higigarriaren etekin gisa kargatutako zenbatekoak kendu. Errentak dohaintza bidez edo kostu gabeko "inter vivos" negozio juridiko baten bitartez (salbuespena: oraingo eragina daukaten oinordetza tituluak) eskuratu badira, errentak eratu arte metatutako errentagarritasuna ere kendu behar da.

f) Kapital prestazioak, biziarteko edo aldi baterako errenta eratuta, ematen dituzten bitzta edo elbarritasun aseguruak aurreko d) letrako lehen paragrafoan azaldu den bezala zergapetuko dira, baldin eta kontratuan bihurteta horretarako aukera finkatuta badago. Zergadunak kapitala beste modu batean jasotzen badu, atal honetan xedatzen dena ezin da aplikatu.

2. Kapital ezarpenetik datozen biziarteko edo aldi baterako errenten kasuan (salbuespena: jaraunspenez, legatuz edo beste ondorengotza-titulu baten bidez eskuratu direna), kapital higigarriaren etekina kalkulatzeko aurreko idatz-zatiko b) eta c) letretan bitzta aseguruaren kontratuetatik datozen biziarteko edo aldi baterako errenta berehalakoetarako ezarritako ehuneko egokia aplikatu behar zaio urteko zenbatekoari.

### **37. artikulua. (29) Kapital higigarriaren beste etekin batzuk.**

Honako etekin hauek, diruzkoak zein gauzazkoak:

a) Jabetza intelektualaren ondoriozko etekinak, zergaduna autorea ez denean, eta zergadunak

egindako jarduera ekonomikoei atxikita ez dagoen jabetza industrialaren ondoriozkoak.

b) Laguntza teknikoa emanda lortzen diren etekinak, jarduera ekonomiko baten esparruan ematen denean izan ezik.

c) Ondasun higigarriak, negozioak eta meatzeak errentatuta lortzen diren etekinak, eta azpierrentariak azpierrentamenduei esker jasotzen dituztenak, azpierrentamendua jarduera ekonomikoa ez bada.

d) Irudia ustiatzeko eskubidea lagata edo hura erabiltzeko baimena edo adostasuna emanda lortuak, eskubidea sortzen duenak lortzen dituztenean edo jarduera ekonomiko batean sortzen direnean izan ezik.

### **38. artikulua. Kapital higigarriaren etekin osoak.**

Kapital higigarriaren etekin osoan atal honetako aurreko artikuluetan zehaztu diren etekin guztiak zenbatu behar dira.

### **39. artikulua. Etekin garbia.**

1. Kapital higigarriaren etekin garbia etekin osoen batura da, artikulua honetako hurrengo artikuluan ezarritako kasuan izan ezik.

2. Laguntza teknikoa emanda edo ondasun higigarriak, negozioak edo meatzeak errentatuta edo azpierrentatuta lortzen diren etekinei dagokienez, etekin osoa kalkulatzeko etekin osoetatik haiek lortzeko egin behar izan diren gastuak kendu behar dira, eta behar denean sarrerak sortu dituzten ondasunen edo eskubideen narriaduren zenbatekoa ere bai.

37. artikuluko etekin bakoitzean, gastu kengarrien baturak inolaz ere ezin du ekarri etekin garbia negatiboa izatea.

(5) Atal honetako lehenengo paragrafoan jasotakoa gorabehera, Hiri errentamenduei buruzko azaroaren 24ko 29/1994 Legeko 2. artikulua aipatutako etxebizitzaren gaineko azpierreteak eratorritako errentamenduak direnean, errentamendu garbia lortzeko kengarriak izango dira azpierreteak errentamendu kontzeptuan ordaindutako zenbatekoak, azpialokatutako elementuaren zati proportzionalan eta, horrez gain, azpialokatutako higiezin bakoitzeko lortutako etekin guztien eta gastu kengarri gisa zenba daitekeen zenbatekoaren arteko aldeari %20ko hoberia aplikatuko zaio.

3. Hala ere, foru arau honetako 37. artikuluan aipatzen diren etekinak bi urte bainoaldi luzeagoan sortu badira eta ez badira jasotzen aldizka ez behin baino gehiagotan, etekin garbia kalkulatzeko etekinen ehuneko 60 integratu behar da. Etekinak bost urte bainoaldi luzeagoan sortu badira, edo arau bidez denboran modu irregular nabarmenean lortuzat jotzen badira, etekinen ehuneko 50 integratu behar da.

Etekinak zatika kobratzen badira, etekinaren sorrerakoa konputatzeko zenbat urtetan zatikatzen den kobrantza hartuko da kontuan, ezarritako arauekin bat etorritik.

Idatz zati honetan hizpide den etekinen zenbatekoa, hau da, integrazio ehuneko aplikatuko zaion kopurua, ezin da izan 300.000 euro baino gehiago urtean. Hortik gorako kopurua osorik integratuko da (ehuneko 100).

Jasotako etekinei 100etik beherako integrazio ehuneko desberdinak aplikatu ahal bazaizkie, aurreko paragrafoan ezarritako 300.000 euroko muga konputatzeko lehenbizi integrazio ehuneko txikiena dutenak hartuko dira kontuan.

## **V. KAPITULUA ONDAREKO IRABAZIAK ETA GALERAK**

### **40. artikulua. Kontzeptua.**

Zergadunaren ondarearen osakeran gertatzen diren aldaketen ondorioz agerian jartzen diren haren balioaren aldakuntzak ondareko irabaziak edo galerak dira, foru arau honen arabera etekinak direnean izan ezik.

### **41. artikulua. Kasu bereziak.**

1. (7) Honako kasu hauetan, ondarearen osakera ez dela aldatzen ulertuko da, baldin eta ez bada gertatzen adjudikazio gaindikirik:

a) Gauza erkidea zatikatzen denean.

b) Irabazpidezko sozietatea edo ondasunen foru komunikazioa desegiten denean, ezkontzako partaidetzako araubide ekonomikoa azkentzen denean eta izatezko bikote baten ondare araubide ekonomikoa azkentzen denean, baldin eta aurreko araubide ekonomikoetako bat itundu badute.

c) Ondasun erkidegoak desegitean edo erkideak banantzen direnean.

Zenbaki honetan aipatzen diren kasuek ezingo dute inola ere ekarri jasotako ondasunen edo eskubideen balioa eguneratzea.

(24) Nolanahi ere, ondarearen osaeran aldaketak egon direla ulertuko da, baldin eta alderdietako batek bere buruari ondasunak edo eskubideak esleitzen badizkio, aldez aurreko partaidetza kuotari dagokiona baino balio handiagoarekin, besteari edo beste batzueikonpentsazioa emanez, edo inolako konpentsaziorik ordaindu gabe. Horrelako kasuetan, soberan jasotako ondasunen edo eskubideen balioak eguneratu beharko dira.

2. Kasu hauetan ez da gertatzen ondareko irabazirik ez galerarik:

a) (5) Kapital murrizketetan. Kapital murrizketak, edozein xede duela ere, balore edo partaidetzak amortizatzea dakarrenean, eskuratutako lehenak joko dira amortizatutzat, eta haien eskuraketa balioa proportzionalki banatuko da zergadunaren ondarean segitzen duten gainerako balore homogeneoen artean. Kapital murrizketak ez badie zergadunaren balore edo partaidetza guztiei maila berean eragiten, lehenago eskuratutakoei dagokiela ulertuko da.

Kapital murrizketaren xedea ekarpenak itzultzea denean, murrizketaren zenbatekoa edo jasotako ondasun edo eskubideen merkatu balio normala gutxituko zaio ukitutako baloreen edo partaidetzen eskuraketa balioari, aurreko lerroaldeko arauarekin bat etorriz, balio hori deuseztatu arte. Soberakin egonez gero, soberakin hori kapital higigarriaren etekin gisa integratuko da eta edozein motatako entitateen funts propioetan parte hartzeagatik lortu dela joko da. Integrazioa jaulkipen primen banaketarako ezarritako era berberari jarraikiz egingo da, kapital murrizketa banatu gabeko mozkinen ondorio denean izan ezik. Horrelakoetan, kontzeptu honengatik jasotzen diren kopuru guztiak foru arau honetako 34.1.a) artikuluan xedatutakoaren arabera zergapetuko dira. Ondorio hauetarako, kapital murrizketak, edozein xede duela ere, banatu gabeko mozkinetatik ez datorren sozietatearen kapitalaren zatiri eragingo dio lehendabizi, hura deuseztatu arte.

(24) Aurreko paragrafoan xedatzen dena gorabehera, kapitala murrizten bada ekarpenak itzultzeko, eta ez bada sozietate edo entitateko funts propioen partaidetzaren ordezkari eta finantza tresnen merkatuei buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko maiatzaren 15eko 2014/65/EB Zuzentarauan definitutako baloreen merkatu arautuetan negoziatorako onartu gabeko baloreei dagozkien banatu gabeko mozkinen ondoriozkoa, kapital murrizketa egin aurretik itxitako azken ekitaldiari dagozkion partaidetza edo akzioen funts propioen balioaren eta eskuratze balioaren arteko diferentzia positiboa bada, lortutako zenbatekoa edo jasotako eskubide edo ondasunen merkatuko balio normala kapital higigarriaren etekin gisa hartuko da, diferentzia positiboaren mugarekin.

Ondorio horietarako, aurreko paragrafoak aipatutako funts propioen balioa gutxitu egingo da kapitala murriztu aurretik banatutako etekinen zenbatekoan, funts propioetan jasotako erreserbetatik jasotakoak, baita akzioak edo partaidetzak eskuratu ondoren sortutako funts propio horietan jaso eta legalki erabilezinak diren erreserben zenbatekoan ere.

Aipatutako mugaren gaineko gehiegikeriak partaidetza edo akzioen eskuraketa balioa murriztuko du a) letra honen bigarren paragrafoan xedatutakoarekin bat etorriz.

Baldin eta a) letra honen hirugarren paragrafoan xedatutakoa aplikatuz kapitala murrizteak zenbatutakoa lortutako zenbateko osoaren edo zati baten kapital higigarriaren etekin gisa hartzea ekartzen badu, edo jasotako ondasun eta eskubideen merkatuko balio normalarena, eta ondoren zergadunak foru arau honetako 34. artikuluko a) letrarekin bat etorriz etekinetan partaidetzak edo dibidenduak lortuz gero, entitate berberetik iritsitakoak kapitala murriztu zenetik bere ondarean egondako partaidetza edo akzioei dagokienez, etekinetan partaidetza edo dibidenduetatik iritsitako zenbatekoari kendu egingo zaio, aldez aurretik zenbatutako kapital higigarriaren etekinen mugarekin, aipatutako partaidetza edo akzioei dagozkienak, horien eskuraketa balioa, a) letra honen bigarren paragrafoan ezarritakoarekin bat etorriz.

b) [\(7\)](#) Zergadunaren heriotzaren ondorioz egiten diren dohaineko eskualdaketetan, dohaineko eskualdaketa hori komisarioak testamentu ahalordea edo gozamen ahaldua erabilia edo unean bertan eragina daukan oinordetza titulu bat dela bide egiten denean ere.

Hori dela eta, oinordetza tituluak zein diren Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 7. artikuluan ezarri da.

c) [\(5\)](#) [\(29\)](#) Ondarearen gaineko Zergari buruzko foru arauaren 6. artikulua lehenei apartatuetan aipatzen diren enpresen edo entitateen akzioen eta partaidetzen kostu gabeko eskualdaketa ezkontidearen, izatezko bikotekidearen, aurreko edo ondorengo ahaide baten alde edo laugarren gradura arteko albedo ahaide baten alde egiten denean (odol ahaideak, ezkontza bidezko ahaideak, izatezko bikotearen ondoriozkoak zein adopzioaren ondoriozko ahaideak), honako baldintza hauek betetzen badira:

Lehenengoa. Eskualdatzaileak hirurogei urte edo gehiago izatea edo ezintasun iraunkorreko egoeran egotea, dela absolutua dela baliaezintasun handia.

Bigarrena. Eskualdatzaileak, zuzendaritza lanak bete izan baditu, eskualdaketaren unetik beretik lan horiek egiteari eta dagozkien ordainsariak jasotzeari uztea.

Ondorio horietarako, sozietatearen administrazio kontseiluko kide izate hutsa ez da zuzendaritza funtzioen barruan sartuko.

Hirugarrena. Eskuratzzaileak mantendu egin beharko ditu jasotako enpresa, akzio edo partaidetza horiek, dohaintzaren eskritura publikoaren dataren ondorengo bost urteetan zehar, epe horren barruan hiltzen denean izan ezik edo konkurtso prozedura baten ondorioz enpresa edo entitatea likidatzen denean izan ezik. Halaber, eskuratzzaileak ezin izango du xedapen egintzarik edo sozietate eragiketarik gauzatu, eragiketok, zuzenean edo zeharka, eskuraketa balioa nabarmen murriztu dezaketenean.

Mantentze epea betetzen ez bada, eskuratzzaileak zerga egoera erregularizatuko du ez betetzea gertatzen den ekitaldiari dagokion autolikidazioan. Ekitaldi horretan eginikotzat joko da ondare irabazia edo galera. Erregularazioan, era berean, behar diren berandutze interesak sartu beharko dira.



Ondare elementuak eskuratu eta gero zergadunak elementuok ekonomia jarduerari lotzen badizkio, ezinbestekoa izango da elementu horiek gutxienez bost urtez eta etenik gabe egon izana jarduerari lotuta eskualdaketa egin aurretik.

(29) Hala ere, c) letran ezarritakoa gorabehera, akzioen eta partaidetzen eskualdaketa, ulertuko da ondare irabazia edo galera dagoela jarduera ekonomikoa egiteko behar ez diren aktiboen balorearen jardueratik ez datozen zorren zenbatekoa kenduta eta entitatearen ondare garbiaren balorearen artean dagoen proportzioari dagokion zatian. Arau horiek berak ezarriko dira partaidetutako entitatearen partaidetzak baloratzeko, entitate edukitzailearen partaidetzen balorea zehazteko. Aktibo bat jarduera ekonomikoa egiteko behar denez ebazteko, Ondarearen gaineko Zergari buruzko foru arauak 6. artikularen laugarren apartatuan xedatzen duena aplikatuko da.

Zergadunak c) letra horretan ezarritako eskualdaketa bat aurrera eramanez gero, autolikidazioan jaso beharko ditu eragiketari buruzko datuak.

d) (5) Ondarearen gaineko Zergaren Foru Arauak 6. artikuluan aipatzen dituen enpresa, akzio edo partaidetzen eskualdaketa, enpresako langile baten edo batzuen alde egiten direnean, baldin eta aurreko c) letran ezarritako beharkizunez gain honako hauek ere betetzen badira:

Lehenengoa. Langile eskuratzailerik lan egin behar izan dute enpresan edo entitatean edo taldearen entitateetan eskuraketa izan aurreko bost urteetatik hiru urtetan gutxienez. Ondorio horietarako, entitate horietariko batean lan egindako epe gisa zenbatuko dira langileak senitartekoak zaintzeko borondatezko eszedentzia egondakoak.

Bigarrena. Aurreko c) letrako hirugarren baldintzaren lehen paragrafoan aipatutako bost urteko epea enpresaren edo beronen akzioen edo partaidetzen eskualdaketa datatik aurrera zenbatuko da; eskualdaketa eskritura publikoan edo agiri pribatuan jaso beharko da, eta eskritura edo agiri hori Zerga Administrazioari aurkeztuko zaio.

Langile eskuratzailerik ekarpenean ematen badizkio eskuratutako akzio edo partaidetzak aurrerago arautzen diren eta langileek berek eratutako entitateetako bati, baldintza hau betetzen dela ulertuko da langile horrek aurreko paragrafoan aipatutako epea osatu arteko denboran mantentzen duenean partaidetza entitate horretan.

Hirugarrena. Aurreko bigarren baldintzan jasotako epean zehar, langile eskuratzailerik lanean jarraitu behar dute, langile gisa, entitatean edo taldeko entitateetan edo, hala badagokio, entitateari lan pertsonala eskainiz, foru arau honetako 24. artikuluko 1. idatz zatiak aipatu bezala. Ondorio horietarako, ulertuko da senideen zaintza dela-eta aipatutako entitateetako batean borondatezko eszedentzian dauden langileek bertan jarraitzen dutela lanean eszedentziak iraun bitartean.

Langileek ez dituzte bete beharko aurreko paragrafoan ezarritako baldintzak, baldin eta, eskualdaketa behin egindakoan, zentzen badira edo enpresan lan egiteari uzten badiote ezintasun iraunkor osoa, absolutua edo baliaezintasun handia aitortu zaielako aurreko paragrafoan ezarritako epea bete aurretik; gauza bera gertatuko da enpresa edo entitatea likidatzen bada konkurtso prozedura baten ondorioz.

Laugarrena. Aurreko bigarren baldintzan aurreikusitako epean zehar, langile bakoitzak entitatean zuzenean edo zeharka izan dezakeen partaidetza, barruan sartuta ezkontidearena edo izatezko bikote lagunarena, aurrekoena, ondorengoena eta alboko ahaideena, hirugarren graduraino, ezin da izan 100eko 20tik gorakoa. Entitatea talde bateko kide bada, aurreko baldintza taldea osatzen duen entitate bakoitzari dagokionez bete beharko da.

Eskualdaketa entitateko edo taldea osatzen duten entitateetako langileen alde egiten dela joko da, eskuratzailerak entitate bat denean eta, gainera, entitate horrek baldintza hauek betetzen dituenean:

a') Akzioak edo partaidetza eskualdatu zaizkien entitate horretako edo taldeko entitateetako langileak izatea partaide bakarrak, eta langile horiek d) letra honetako lehenengo baldintza betetzea.

Entitatearen akziodunen osaeraren ondorioetarako, ulertuko da aurreko paragrafoan langileak partaide bakarrak izateari buruz aipatutako baldintza betetzen dela bertan parte hartzen duten pertsonen entitate enplegatzailean lan egitearen uzten diotenean ezintasun iraunkor osoa edo absolutua edo baliaezintasun handia aitortu baitiete.

Halaber, ulertuko da entitatearen akziodunen osaerari buruzko baldintza betetzen dela langileak partaide bakarrak diren entitatearen akzioak edo partaidetzak eskuratu ondoren hildako langileen ondorengoei dagokien partaidetza dagoenean. Aurrekoa aplikagarria izango da gehienez bi urteko epean langilea zentzen denetik zenbatzen hasita.

b') Bere aktiboaren gutxienez ehuneko 90, a) eta b) letretan aipatutako akzio edo partaidetzak izatea. Portzentaje hori zehazteko, diruzaintza ez da zenbatuko aktiboaren barruan.

Akzio edo partaidetzak eskuratu edo harpidetu badira entitatea eratzeko edo kapitala zabaltzeko, entitateak bi hilabeteko epea izango du b') letran ezarritako baldintza betetzeko.

Aurreko paragrafoek aipatutako langileek bakar-bakarrik parte hartzen duten entitateak aurreko a') eta b') letretan ezarritako beharkizunak bete beharko dituzte bigarren beharkizunean ezarritako epean barrena.

Akzioak eta partaidetzak mantentzeko epea, bigarren beharkizunean aipatua, exijituko zaie bai langileek bakar-bakarrik parte hartutako entitateari, entitateak berak eskuratutako akzio eta partaidetzei dagokienez, eta bai langileei, entitatean dituzten akzio eta partaidetzei dagokienez. Langileek bakar-bakarrik parte hartzen duten entitatea desegiten bada epea bete aurretik, epea osatzeko ezinbestekoa izango da bazkide langileek beren akzioak eta partaidetzak mantentzea.

Eskurapenak aurreko paragrafoetan aurreikusitako langileek bakar-bakarrik parte hartzen duten entitateek eginak direnean, entitatean parte hartzen duten langileei dagokie d) letra honetako hirugarren eta laugarren baldintzak betetzea.

d) letran ezarritako baldintzak betetzen ez badira eskualdaketa ondoen eta alde batera utzita eskualdaketa langileei edo haiek bakarrik parte hartutako entitateei egin zaien ala ez, eskualdatzaileak zerga egoera erregularizatu behar du baldintzak bete ez diren ekitaldiko autolikidazioan. Erregulazioan, era berean, behar diren berandutze interesak sartu beharko dira.

Aurreko c) letrako azken-aurreko paragrafoan esandakoa d) letra honetan jasotako akzio eta partaidetzen eskualdaketa ere aplikatuko da.

Enpresen, akzioen edo partaidetzen eskualdaketa kostu bidezkoa izan bada, gero eskualdaketa batean zer ondare irabazia edo galera izan den kalkulatzeko langileak kontuan hartu behar duen eskurapen balioa izango da benetan ordaindutako zenbatekoa. Aurrekoa ez da aplikagarria izango, aurreko paragrafoan ezarritakoaren arabera, eskualdatzailearentzat ondare irabazi edo galera dagoela ulertzen den zatian; zati horrekiko proportziorako eskurapen-balioa zehaztuko da zergaren arau orokorretara egokituta.

Letra horretan taldeei buruz egindako aipamenak sozietate taldeei egin zaizkiela ulertuko da, Merkataritzari buruzko Kodearen 42. artikulua ezarritakoaren ildotik.

Zergadunak d) letra horretan ezarritako eskualdaketa bat aurrera eramanez gero, autolikidazioan jaso beharko ditu eragiketari buruzko datuak.

Orobat, d) letra honetan ezarritakoa ez da aplikagarria izango akzioen eta partaidetzen eskualdaketa egiten bada haien gaineko aukerak baliatuz.

e) [\(4\)](#) Ezkontzaren ondasun banantzearen araubide ekonomikoa edo izatezko bikotearen ondarearen araubide ekonomikoa azkentzen denean, baldin eta legearen aginduz edo epailearen ebazpen bidez konpentsazioen bat (diruzkoak edo ondasunak esleitzearen bitartez egindakoak) egiten bada ezkontideen edo izatezko bikotekideen arteko konpentsazio pentsioa ez den arrazoiren batengatik.

Letra honetan aipatzen diren konpentsazioek ez dute eskubiderik emango ordaintzailearen zerga oinarria murrizteko, eta ez da jasotzailearentzako errenta izango.

Idatz zati honetan aipatzen den kasuan, esleitutako ondasunen edo eskubideen balioa ez da inolaz ere eguneratuko.

f) Pertsona desgaituentzat eratutako ondare babestuetara ekarpenak egiten direnean.

## **42. artikulua. Salbuetsitako ondare irabaziak.**

Zergaren kargatik salbuetsita daude ondoko kasuetan agerian jartzen diren ondare irabaziak:

a) Foru arau honetako 91. artikuluan aipatzen diren erakundeei dohaintzak egiten zaizkienean.

b) Mendetasun larria edo handia duten pertsonak (Besteren Menpean dauden Pertsonen Autonomia Pertsonala eta Arreta Sustatzeko abenduaren 14ko 39/2006 Legea) ohiko etxebizitza kostu bidez eskualdatzen dutenean.

c) 65 urtetik gorako pertsonak euren ohiko etxebizitza kostu bidez eskualdatzen dutenean. Salbuespen hau eskualdaketa bati bakarrik aplika dakiok, eta muga honekin gainera: ohiko etxebizitza eskualdatuta lortutako ondare irabaziaren lehenengo 400.000 euroak.

d) Foru arau honetako 103. artikuluko 3. idatz zatian ezarritakoa gertatzen denean.

e) (3) Zordunaren edo zordunaren bermatzailearen ohiko etxebizitza ordainetan ematen denean, haren gaineko hipotekekin bermatutako zorrak kitatzeko, baldin eta zorrok mailegu eta hipoteka kredituak era profesionalean ematen dituen kreditu erakunde edo beste zernahi erakunderekin badira.

Izaera berbera izango du ondorengo kasuan: zordunaren edo zordunaren bermatzailearen ohiko etxebizitza ordainean ematea zordunaren ohiko etxebizitza eskuratzeko zorrak bermatzeko abal-emailea izanda egiten delarik.

Salbuetsita egongo dira, halaber, aurreko baldintzak betetzen dituzten etxebizitzaren besterentzeen ondorioz izandako ondare irabaziak, epaile edo notario erabaki bidez exekutatu badira hipotekak.

Horrelakoetan, ezinbestekoa izango da ohiko etxebizitzaren jabeak beste ondasun edo eskubiderik ez izatea edo horrelako nahikorik ez izatea, zorra guztiz kitatzeko eta, beraz, etxebizitzaren besterentzea saihesteko.

f) (5) 65 urtetik gorako zergadunek ondare elementuen eskualdaketa dela bide agerian geratzen diren ondare etekinak, betiere eskualdaketatik lortutako zenbateko guztia sei hileko epean bere aldeko biziarteko errenta batera bideratzen bada, arau ezarritako baldintzetan. Biziarteko errentara bideratu daitekeen gehienezko zenbatekoa 240.000 eurokoa da.

Berrinbertitutako zenbatekoa txikiagoa bada eskualdaketa jasotako zenbateko osoa baino, lortutako ondare irabazian berrinbertitutako zenbatekoari dagokion zati proportzionala baino ez da utziko zergapetu gabe.

Eratutako biziarteko errentatik eratorritako eskubide ekonomikoak erabat edo partzialki aurreratzeak kasuan kasuko ondare irabazien tasaren mende egotea ekarriko du.

g) (10) (24) (29) Entitateetako akzioak edo partaidetzak eskualdatzean agerian gelditzen diren ondare irabazien ehuneko 50, hain zuzen ere horiek eskuratzeko zergadunak foru arau honen 90. artikuluan ezarritako kenkaria aplika dezakeenean, betiere ondorio horietarako aipatutako aginduaren 3. eta 7. apartatuetan xedatutakoa kontuan hartu gabe.

Aurreko paragrafoa xedatutakoa aplikatzeko, zergadunak foru arau honen 90. artikuluan 6. apartatuan aipatzen den ziurtagiria aurkeztu beharko du.

Salbuespena ondare irabaziaren ehuneko 100era iritsiko da, zergadunak letra honen lehen paragrafoan aipatzen diren akzioak edo partaidetzak eskualdatzean lortutako zenbatekoa berriro inbertitzen duenean, paragrafo horretan aipatzen diren baldintzak betetzen dituzten beste akzio edo partaidetza batzuk eskuratzean, betiere eskualdatze horren datatik gehienez ere bi urteko epealdian. Kasu horretan, ezin izanen da aplikatu foru arau honen 90. artikuluan ezarritako kenkaria aipatutako berrinbertsioa gauzatzen den akzio edo partaidetzei dagokienez.

Berrinbertitutako zenbatekoa eskualdaketa jasotakoa baino gutxiago denean, aurreko paragrafoan xedatutakoa aplikatuko zaio berrinbertitutako zenbatekoari dagokion ondare irabaziaren zati proportzionalari bakarrik.

Letra honetan aipatzen den ehuneko 100eko albuespena aplikatzearen ondorioetarako, Zerga Administrazioak berrinbertsio plan bereziak onartu ahal izango ditu, hori justifikatzen duten inguruabar espezifikoak daudenean.

Aurreko paragrafoan aipatzen diren inguruabarrak gertatzen direla ulertuko da frogatzen denean ezen, bere ezaugarri ekonomikoengatik, inbertsioa nahitaez egin behar dela bi urtetik gorako epealdian, oro har ezarritako eskualdaketa datatik aurrera, edo, gerora sortutako eta behar bezala arrazoitutako inguruabarrengatik, berrinbertsiorako prozesua ezin denean osatu aipatu epealdian.

Berrinbertsio plan berezia onesteko eskaera egingo da arau zehazten diren prozedura eta baldintzak betez. Ondare elementua edo partaidetzak eskualdatu aurreko edo ondoko sei hilabeteko aldian aurkeztuko da eskaera hori, salbu eta ezusteko inguruabarren ondorio denean. Halakoetan, oro har ezarritako eskualdatze datatik aurrera bi urteko epealdia amaitu baino lehen aurkeztu beharko da eskaera, eta egindako berrinbertsioaren zatia eta hura osatzeko behar den denbora plana zehaztu beharko dira.

#### **43. artikulua. Ondare galera konputaezinak.**

Ondoko galera hauek ez dira ondare galeratzat joko:

- a) Frogatzen ez direnak.
- b) Kontsumoak eragiten dituenak.
- c) Inter vivos egintzen edo eskuzabaltasunaren ondoriozko kosturik gabeko eskualdaketa ondoriozkoak.
- d) (3) Ondasun higiezinaren kostu bidezko eskualdaketa ondoriozkoak, baldin eta ondasunok aurretik egindako kostu gabeko eskuraketa salbuetsi batetik badatoz edo zergarik ordaindu ez badute.

Hala ere, letra honetan xedatutakoa ez da aplikatuko zergadunak frogatzen badu ondasun higiezinaren balioa aparteko inguruabarrengatik gutxitu dela, ez eta galeraren eragileak besterentzearen edo eskuraketaren berezko gastuak direnean ere.

e) (5) Zerga-aldian izandako joko-galeren ondorioz gertatzen direnak, baldin eta zerga-aldi berean jokoan lortutako irabaziak baino handiagoak badira. Ez dira inola ere kontuan izango Foru Arau honen Hamazortzigarren Xedapen Gehigarrian aipatzen diren jokoetan parte-hartzetik eratorritako galerak.

f) Ondare elementuak eskualdatzearen ondoriozkoak, eskualdatzaileak atzera eskuratzen baditu eskualdatu eta urtebete pasatu baino lehen. Ondare galera hori ondare elementua eskualdatzen denean integratuko da.

g) (24) Europako Parlamentuak eta Kontseiluak 2014ko maiatzaren 15ean finantza tresnen merkatuez emandako 2014/65/EB Zuzentarauan azaldutako bigarren mailako balore merkatu ofizialetako batean negoziatzeko onartutako balore edo partaidetzen eskualdaketen ondoriozkoak, baldin eta zergadunak balore homogeenak eskuratu baditu eskualdaketa gertatu aurreko edo ondoko bi hiletan.

h) (24) Europako Parlamentuak eta Kontseiluak 2014ko maiatzaren 15ean finantza tresnen merkatuez emandako 2014/65/EB Zuzentarauan azaldutako bigarren mailako balore merkatu ofizialetan negoziatzeko onartu ez diren balore edo partaidetzen eskualdaketen ondoriozkoak, baldin eta zergadunak balore homogeenak eskuratu baditu eskualdaketa gertatu aurreko edo ondoko urtean.

Aurreko g) eta h) letretan ezarritako kasuetan ondare galerak zergadunaren ondarean mantentzen diren baloreak edo partaidetzak eskualdatu ahala integratuko dira.

#### **44. artikulua. Ondareko irabazien edo galeren zenbatekoa. Arau orokorra.**

1. Ondareko irabazi edo galeren zenbatekoa hauxe izango da:

a) Kostu bidezko edo kostu gabeko eskualdaketatik, ondare elementuen eskuraketa balioaren eta eskualdaketa balioaren arteko diferentzia. Bidezkoa denean, eskuraketa balioa eguneratuta egongo da hurrengo artikuluan ezarritakoaren arabera.

b) Gainerako kasuetan ondare elementuen merkatuko balioa (edo zati proportzionalena).

2. Eskualdatutako ondare elementuetan hobekuntzak egin badira, besterentzearen balioetik elementu bakoitzari dagokion zatia bereizi behar da.

#### **45. artikulua. Kostu bidezko eskualdaketak.**

1. Eskuraketa balioa ondoko hauen batura izango da:

a) Ondasuna eskuratzeko ordaindutako benetako zenbatekoa.

b) Eskuratzailleak eskuratutako ondasunetan egindako inbertsio eta hobekuntzen kostua eta eskuraketari dagozkion gastuak eta zergak, korrituak kanpoan utzita.

Bidezkoa denean, balio horretatik arauz ezarritakoaren arabera egindako amortizazioen zenbatekoa kenduko da; edonola ere, gutxienezko amortizazioa konputatuko da.

2. Aurreko paragrafoan aipatutako eskuraketa balioa arau bidez finkatzen diren koefizienteak aplikatuz eguneratuko da. Horretarako kontuan hartuko da batik bat ondare elementuen eskuraketa egunetik kontsumorako prezioen indizeak izan duen bilakaera eta eskualdaketaren ekitaldirako espero dena. Koefizienteak honela aplikatuko dira: [\(2\)](#)

a) Aurreko paragrafoa a) eta b) letretan aipatutako zenbatekoen gainean, zein urtetan ordaindu diren kontuan hartuta.

b) Amortizazioen gainean, zein urtetakoak diren kontuan hartuta.

3. Eskualdaketa balioa besterentzearen benetako zenbatekoa izango da. Balio honi aurreko 1. paragrafoa b) idatz zatian adierazitako gastu eta zergak kenduko zaizkio, behin eskualdatzaileak horiek ordaindu ondoren.

Besterentzearen balioaren benetako zenbatekotzat benetan ordaindutakoa hartuko da; hala ere, merkatuko balio arrunta baino gutxiago bada, merkatukoa hartuko da aintzat.

#### **46. artikulua. [\(7\)](#) Kostu gabeko eskualdaketak.**

Eskuraketa edo eskualdaketa kostu gabekoa denean, aurreko artikuluko arauak izango dira aplikagarriak, eta balio bakoitzaren benetako zenbatekotzat Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergaren arauak aplikatuz ateratako balioak hartuko dira.

Foru arau honetako 41. artikuluko 2. paragrafoaren b) letran aipatzen diren kostu gabeko eskuraketetan, alegia, eraginkortasuna unean bertan duten oinordetza tituluen bidezko kostu gabeko eskualdaketetan, eskuraketa balioa, hurrengo eskualdaketetarako, dohaintza emaileak aktibo horiek dohaintza hartzaileari ematean duten balioa izango da, dohaintza hartzaileak aktiboak dohaintza emailea hil aurretik eskualdatu ezean. Izan ere, hala gertatzen bada, dohaintza hartzailea dohaintza emailearen lekuan subrogatuko da aktibo horien eskuraketa balio eta datei dagokienez, eta azken horrek eraginkortasuna unean bertan duen oinordetza itunaren aurretik zituen balio eta datak atxikiko ditu.

Foru arau honetako 41. artikuluko 2. zenbakiko c) eta f) letretan aipatutako kostu gabeko eskuraketetan, dohaintza hartzailea dohaintza emailearen lekuan subrogatuko da ondasunen eskuraketa balio eta datei dagokienez. c) letrak aipatutako eskuraketetan, aurrekoa ez da aplikagarria izango azken aurreko paragrafoan ezarritakoaren ondoriozko proportzioari dagokion eskuraketa balioari dagokionez.

#### **47. artikulua. Baloraziorako arau zehatzak.**

1. Ondarearen balioa honako arrazoiengatik aldatzen denean:

a) [\(24\)](#) Europako Parlamentuaren eta Europako Kontseiluaren finantza tresnen merkatuei buruzko 2014ko maiatzaren 15eko 2014/65/EB Zuzentarauan definitutako merkatuetako batean negoziatzeko onartu eta sozietate edo entitateen funts propioetako partaidetza ordezkatzeko duten baloreen kostu bidezko eskualdaketek eragin badute, irabazia edo galera beren eskuraketa balioaren eta eskualdaketa balioaren arteko diferentzia izango da; eskualdaketa balioa merkatu horietan gertatzen

denean daukan kotizazioa izango da, edo bestela itundutako prezioa, hura baino gehiago bada.

Balore horiek harpidetzeko eskubideak eskualdatuta lortzen den zenbatekoa ondare irabazia izango da eskualdatzailearentzat eskualdaketa gertatzen den zergaldian.

Partzialki askatutako akzioak eskualdatuz gero, eskuraketa balioa zergadunak benetan ordaindutako zenbatekoa izango da.

Gutziz askatutako akzioak eskualdatuz gero, haien eta beraien sorburu direnen eskuraketa balioa guztirako kostua titulu guztien (zaharrak zein askatuak) artean banatzearen emaitzako kopurua da.

b) [\(24\)](#) Europako Parlamentuak eta Kontseiluak 2014ko maiatzaren 15ean finantza tresnen merkatuez emandako 2014/65/EB Zuzentarauan azaldutako balore merkatuetan negoziatzeko onartu ez diren baloreak, sozietate edo entitateen funts propioetako partaidetzaren ordezkari direnak, kostu bidez eskualdatuz gero, ondare irabazia edo ondare galera eskuraketa balioaren era eskualdaketa balioaren arteko diferentzia da.

[\(5\)](#) Benetan ordaindutako zenbatekoa alderdi independenteek merkatuko baldintza arruntetan hitzartuko zutenarekin bat datorrela frogatu ezean, eskualdaketa balioak ezingo du honako bi hauek baino txikiagoa izan:

- Zergaren sortzapen data baino lehen itxitako azken ekitaldiko balantzetik ateratako eskualdatutako balioei dagokien ondare garbiaren balioa.

- Zergaren sortzapen egunaren aurretik itxitako hiru ekitaldien emaitzen batez bestekoari ehuneko 20ko kapitalizazio tasa aplikatzearen emaitzako kopurua. Horretarako, mozkin gisa konputatuko dira banatutako dibidenduak eta erreserbarako kopuruak, baina bazter utziko dira balantzeak erregularizatzeko edo eguneratzeko erreserbetarako kopuruak.

Horrela kalkulaturako eskualdaketa balioa hartuko da kontuan eskuratzaileri dagozkion balore edo partaidetzen eskuraketa balioa zehazteko.

Balore edo partaidetza horien gaineko harpidetza eskubideak eskualdatuta lortutako zenbatekoa ondare irabazia izango da eskualdatzailearentzat eskualdaketa gertatzen den zergaldian.

Partzialki askatutako akzioak eskualdatuz gero, eskuraketa balioa zergadunak benetan ordaindutako zenbatekoa izango da.

Gutziz askatutako akzioak eskualdatuz gero, haien eta beraien sorburu direnen eskuraketa balioa guztirako kostua titulu guztien (zaharrak zein askatuak) artean banatzearen emaitzako kopurua da.

[\(5\)](#) Lan sozietateen eta bestelako sozietateen akzio edo partaidetzak eskualdatzeari aplikagarri zaizkion arau bereziak.



1. Lan sozietateen lan motako akzio edo partaidetzen eskualdaketan zer ondare irabazi eta galera izan diren kalkulatzeko, sozietate kontratuetan, kontratu sozialetan edo sozietatearekin hitzartutakoetan ezarritako prezioa merkatuko baldintza normaletan alderdi independenteek adostutako prezioetat hartuko da foru arau honetako 47.1 artikuluko b) letraren bigarren paragrafoan ezarritakoaren ondorioetarako. Arau hori aplikatu ahal izateko, eskualdaketan jasotako prezioak bat etorri behar du sozietate kontratuetan, kontratu sozialetan edo sozietatearekin hitzartutakoetan ezarritako prezioarekin.

2. Orobat, sozietatearen akzio edo partaidetzak sozietate horretako edo sozietate taldeko langileek eskualdatzean zer ondare irabazi edo galera izan diren kalkulatzeko, akzio edo partaidetza horien eskurapenaren unean geroako eskualdaketari begira adostutakoa, horixe hartuko da merkatuko baldintza normaletan alderdi independenteek adostutako prezioetat, foru arau honetako 47.1 artikuluko b) letraren bigarren paragrafoan ezarritakoaren ondorioetarako

Idatz zati horretan ezarritakoa aplikatzeko, honako baldintza hauek beteko dira:

a) Eskuratzailleak honako pertsona edo entitateetariko batzuk izatea:

a') Entitateko edo taldeko entitateetako langileak, baldin eta haien akzioak edo partaidetzak eskualdatzen bazaizkie. Eskuratzailleak bete behar ditu foru arau honetako 89. artikuluan langileek enpresan parte hartzeagatik arautzen den kenkarirako baldintzak.

b') Entitatea, baldin eta akzioak edo partaidetzak taldeko beste entitate batzuei eskualdatzen bazaizkie gehienez bi urteko epean eta horiek haien langileei eskualdatzen badizkiete aurreko a') letrak ezarritakoari jarraikiz.

c') Foru arau honen 89.1. artikuluko c) letrak aipatzen dituen langileak partaide bakarrak diren entitateak, baldin eta eskualdatzen diren akzio edo partaidetzen entitatean edo taldeko entitateetan parte hartzen badute. Kasu horretan, entitate eskuratzailleak eta bertan parte hartzen duten langileek ezinbestean bete beharko dituzte 89. artikuluan ezarritako baldintzak.

Hala, a) letra horretan ezarritako baldintzak bete ezean, zergadunak bere zerga egoera erregularizatu beharko du ez betetzea izan den ekitaldiari dagokion autolikidazioan. Erregulazioan, era berean, behar diren berandutze interesak sartu beharko dira.

b) Eskualdaketan zinez jasotako prezioa bat etortzea geroagoko eskualdaketarako eskuraketaren unean adostutakoarekin. Akordio hori eskritura publikoan dokumentatu beharko da.

Idatz zati honetan xedatutakoa berdin aplikatuko da, noiz eta langileek foru arau honetako 89.1 artikuluko c) letran ezarritako baldintzak betetzen dituzten entitateen akzio edo partaidetzak eskualdatzen dizkietenean entitateko edo haren taldeko entitateetako langileei edo akzioak edo partaidetzak eskualdatzen zaizkio entitateari berari, baldin eta idatz zati honetako a) letrako a') eta c') letretan ezarritako baldintzak betetzen badira.

Idatz zati honek ezarritako ondorioetarako, taldeei egiten zaizkien aipamenak sozietate taldeei egiten zaizkiela ulertuko da, betiere Merkataritzari buruzko Kodearen 42. artikuluko haritik.

c) Ondarearen balioa aldatzen bada ondare-sozietateen kapitaleko balore edo partaidetzak eskualdatzeagatik, eragiketa horretako irabazia edo galera Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauko bosgarren xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera konputatuko da.

d) Balioa aldatzen bada inbertsio kolektiboko entitateen kapital edo ondarearen akzio edo partaidetzen kostu bidezko eskualdaketa edo itzulketarik, akzio partaidetzon eskuraketa balioaren eta eskualdaketa balioaren arteko diferentzia izango da eragiketa horretako irabazia edo galera. Eskualdaketa balioa eskualdaketa edo itzulketa egiten den egunean aplikagarria den likidazio balioak emango du, edo, halakorik ezean, argitaratutako azken likidazio balioak. Likidazio baliorik ez badago, zergaren sortzapen data baino lehen itxitako azken ekitaldiko balantzetik ateratako eskualdatutako partaidetza edo akzioei dagokien ondare garbiaren balioa hartuko da. [\(5\)](#)

[\(5\)](#) Partaidetzen itzulketa ez beste kasu guztietan, eskualdaketa balioa ezin da izan bi haueetatik handiena baino gutxiago:

- Eskualdaketan benetan itundutako prezioa.

- [\(24\)](#) 2014ko maiatzaren 15ean finantza tresnen merkatuez emandako 2014/65/EB Zuzentarauan azaldutako bigarren mailako balore merkatuetako eta, bereziki, urriaren 23ko 4/2015 Legegintzako Errege Dekretu bidez onartutako Balore Merkatuei buruzko Legearen testu bategineko 43. artikuluko 4. apartatuan ezarritakoaren arabera baimendutako balore negozioko sistemetako kotizazio balioa, eskualdaketa egunekoa.

Eskuraketa-balioa kalkulatzeko, 1. zenbaki honetako a) letran xedatutakoa aplikatuko da, hala dagokionean.

[\(3\)](#) Aurreko paragrafoetan xedatutakoa gorabehera, uztailaren 13ko 1082/2012 Errege Dekretuaren bidez onartutako azaroaren 4ko 35/2003 Legearen Araudiaren, talde inbertsioko erakundearen, 79. artikuluan aipatzen diren kotizatutako inbertsio funtsen partizipazioak eskualdatzen direnean balore burtsetan, eskualdaketa balioa 1. idatz zati honetako a) letran ezarritakoarekin bat etorritik kalkulatu da.

e) Sozietate batera diruzkoa ez bestelako ekarpena eginez gero, irabazia edo galera ekarritako ondasunen edo eskubideen eskuraketa balioaren eta ondoko kopuru haueetako handienaren arteko diferentzia da.

Lehenengoa: Ekarpengatik jasotako sozietatearen akzioen edo partaidetzen balio izendatua edo, bestela, hari dagokion zatia. Horri jaulkipen primen zenbatekoa batu behar zaio.

Bigarrena: Jasotako tituluen kotizazio balioa, ekarpena egin den eguneko edo aurreko egunekoa.

Hirugarrena: Ekarritako ondasunaren edo eskubidearen merkatu balioa.

Horrela kalkulaturako eskualdaketa balioa diruzkoak ez bestelako ekarpenaren ondorioz jasotako tituluen eskuraketa balioa zehazteko hartuko da kontuan.

f) Bazkideak banandu edo sozietateak desagiten direnean, honako hau hartuko da ondareko irabazitzat edo galeratzat, sozietateari dagokiona eragotzi gabe: sozietatearen likidazio kuotaren balioa edo jasotako ondasunen merkatuko balioa ken tituluaren edo kapital partaidetzaren eskuraketa balioa.

Sozietate bat zatitzen bada, batzuek bat egiten badute edo batak bestea irensten badu, kenketa hau egin behar da zergadunaren ondare irabazia edo ondare galera kalkulatzeko: bazkidearen partaidetzaren titulu, eskubide edo baloreen eskuraketa balioari jasotako tituluen, eskudiruaren edo eskubideen balioa kendu behar zaio.

g) Intsuldaketen ondoriozko ondare irabazia intsuldaketaren zenbatekoa da eta lagatzaileari konputatu behar zaio.

Intsuldaketen ondoriozko ondare irabazia intsuldaketaren zenbatekoa da eta lagatzaileari konputatu behar zaio.

h) Ondare elementuen galerengatik edo ezbeharrengatik kalte-ordainak edo kapital aseguruak jasotzen badira, ondare irabazia edo ondare galera kalkulatzeko jasotako kopuruaren eta kalteari dagokion eskuraketa balioaren zati proportzionalaren arteko kenketa egin behar da. Kalte-ordaina eskudirutan eman ez bada, jasotako ondasunen, eskubideen edo zerbitzuen merkatu balioaren eta kalteari dagokion eskuraketa balioaren proportziozko zatiaren arteko diferentzia konputatuko da. Ondare irabazia zergadunaren ondarearen balioan gehikuntza izanez gero soilik konputatuko da.

i) Ondasun edo eskubideak trukutzen badira (balore trukea barne), irabazia edo galera honela kalkulatu da: lagatako ondasunaren edo eskubidearen balioari jarraian azalduko diren bietako handiena kenduko zaio:

- Emandako ondasunaren edo eskubidearen merkatuko balioa.

- Trukean jasotako ondasunaren edo eskubidearen merkatuko balioa.

j) Bizi arteko edo aldi baterako errentak azkentzen badira, ondare irabazia edo ondare galera haiek ordaindu behar dituenari konputatuko zaio, eta zenbatekoa hartutako kapitalaren eskuraketa balioaren eta benetan ordaindutako errenten baturaren arteko diferentzia izango da.

k) Ondare elementu bat aldi baterako edo biziarteko errenta baten trukean eskualdatzen bada, ondare irabazia edo ondare galera kalkulatzeko kenketa hau egin behar da: errentaren egungo finantza balio aktuariatik eskualdatutako ondare elementuen eskuraketa balioa kendu.

l) Ondasun higiezin bat gozatzeko eskubide erreal baten titularrak higiezina eskualdatzen badu, edo eskubide hori azkentzen bada, ondare irabazia edo ondare galera kalkulatzeko eragiketa hau egin behar da: foru arau honetako 45. artikuluko 1. idatz zatiko a) letran aipatzen den benetako zenbatekotik zergaduna eskubidearen titular izan den denboraren proportziozko kopurua kendu.

m) Eskualdaketa batetik ez datozen ondasun edo eskubideen eransketen ondoriozko ondare irabazia haien merkatu balioa da.

n) (3) Urriaren 15eko 1282/2010 Errege Dekretuak araututako eperakoen eta aukeren merkatuetan egiten diren eragiketen ondoriozko ondare irabazia edo ondare galera lortutako etekina izango da; hala ere, eragiketak zergadunaren jarduera ekonomiko batean itundutako eragiketa nagusi baten estaldura badakar, titulu honen III. kapituluan ezarri den bezala zergapetuko da.

ñ) (7) Balio aldaketa gertatzen bada ondasunen foru komunikazioari loturiko ezkontideen ondasunak edo ezkontza horretako ondasunak besterentzean direnean. Ezkontzak bere hartan dirauela, foru komunikazioaren araubidean dagoen ezkontide baten ondasun bat eskualdatzen bada, irabazia edo galeraren zenbatekoa haren eskuraketa balioaren eta eskualdaketa balioaren arteko diferentzia izango da eta ondasunaren titular den ezkontidearen errentan konputatuko da.

Foru komunikazioaren ondorioz, aurrez hildako ezkontide batengandik datorren ondasun bat beste ezkontideari adjudikatzen bazaio ezkontza desegitean, eta azken horrek gero eskualdatu egiten badu ondasun hori, orduan, ondare irabazia edo galera kalkulatzeko, hildako ezkontideak ondasuna eskuratu zueneko balioa hartuko da eskuraketa baliotzat, edota ezkontza egin zenekoa, ezkontza eskuraketaren ostean egindakoa bada.

Tratamendu bera aplikatuko zaie izatezko bikoteei, izatezko bikotearen araubide ekonomikoa foru komunikazioarena bada.

o) (7) Testamentu ahalordea edo gozamen ahaldua baliatzearen zain dagoen herentzia bateko ondasunak besterenduz gero, ondarean gertatu den irabazia edo galera kalkulatzeko oinarritzat hartuko den ondare elementuaren eskuraketa balioa testamentua egiteko ahalordea edo gozamen ahaldua erabiltzen den unekoa izango da.

2. (4) Aurreko idatz zatiko a), b), c) eta d) letretan xedatutakoaren ondorioetarako, eta letra horietan adierazitako baloreen kostu gabeko eskualdaketen ondorioetarako, balore homogeenak daudenean, zergadunak eskualdatutakoak lehenengo eskuratutakoak direla ulertuko da.

Erabat askatutako akzioak eskualdatzen badira, haien antzintasuna jatorrizko akzioena bera izango da.

3. Artikulu honetako 1. idatz zatiko e), f) eta i) letretan baloreen trukeaz xedatutakoak ez du ezertan eragozten Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauko VI. tituluko VII. kapituluan ezarritakoa.

4. Ondarearen balioaren aldakuntza artikulu honetako 1. idatz zatiko a) letretan xedatutakoaren arabera gertatzen bada, zergadunak foru arau honetako hogeigarren xedapen gehigarrian xedatutakoa aplikatu ahal izango du.

#### **48. artikulua. Berrinbertsioa, talde inbertsioko erakundeen akzioak edo partaidetzak eskualdatzen direnean.**

1. Talde inbertsioko erakundeen akzioak edo partaidetzak eskualdatuta edo itzulita lortzen den zenbatekoa ezarritako prozedurari lotuz talde inbertsioko erakundeen akzioak edo partaidetzak eskuratzeko edo harpidetzeko erabiltzen bada, ondarean gertatzen den irabazia edo galera ez da konputatu behar, eta harpidetutako akzioen edo partaidetzen balioa eta data eskualdatu edo itzultitako akzio edo partaidetzenak izango dira, kasu hauetan:

a) Inbertsio funts diren talde inbertsioko erakundeen partaidetzak itzultzen direnean.

b) Sozietate gisako talde inbertsioko erakundeen akzioak eskualdatzen direnean, baldintza hauek betez gero:

- Talde inbertsioko erakundeak 500 bazkide baino gehiago eduki behar ditu.

- Eskualdaketaren aurreko hamabi hiletan zergadunak talde inbertsioko erakundeak eduki duen partaidetza ezin da izan kapitalaren ehuneko 5 baino gehiago.

**(3)** Idatz zati honetan ezarritako araubidea ez da aplikatuko zergadunak talde inbertsioko akzioak edo partizipazioak berreskuratuta edo eskualdatuta lortutako zenbatekoa jasotzen badu. Gainera, araubide hori kasu honetan ere ezin aplikatu izango da: azaroaren 4ko 35/2003 Legearen, talde inbertsioko erakundearen, Araudiaren 79. artikuluan (araudia uztailaren 13ko 1082/2012 Errege Dekretuak onartu du) ezarritakoaren arabera kotizatzen duten inbertsio funtsak diren talde inbertsioko erakundeen ondarearen partizipazioak edo halako sozietateen akzioak berreskuratzen, eskualdatzen, harpidetzen edo eskuratzeko direnean.

2. Aurreko idatz zatian ezarritako araubidea Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2009ko ekainaren 13ko 2009/65/CE Zuzentarauak (higigarrien baloreetako inbertsio kolektiboko erakunde batzuei buruzko lege, arau eta administrazio xedapenak koordinatu dituenak) araupetutako inbertsio kolektiboko erakundeetatik (foru arau honetako 52. artikuluan ezarritakoak ez beste batzuk) Europar Batasuneko estatu batean eratu eta egoiliartuta daudela egoitza Espainian duten erakundeek merkaturatzeko asmoarekin Baloreen Merkatuaren Nazio Batzordearen erregistro berezian inskribatutakoetako bazkideei edo partaideei aplikatuko zaie.

Aurreko idatz zatian ezarritakoa aplikatzeko ondoko betekizunak bete behar dira:

a) Talde inbertsioko akzioak eta partaidetzak Baloreen Merkatuko Komisio Nazionalak inskribatuta dituen merkaturatze erakundeen bidez eskuratu, harpidetu, eskualdatu eta itzuli behar dira.

b) Talde inbertsioko erakundea konpartimentuetan edo azpifuntsetan egituratuta badago, aurreko 1. idatz zatiko b) letran aipatutako bazkideen kopurua eta gehieneko partaidetza ehuneko merkaturatzen den konpartimentu edo azpifunts bakoitzari dagozkio.

c) (29) Itzulketaren, eskualdatzearen edo, behar denean, harpidetzaren edo eskuratzearen xedea ez izatea azaroaren 4ko 35/2003 Legea garatzeko Erregelamendua onesten duen uztailaren 13ko 1082/2012 Errege Dekretuaren 79. artikuluan ezarritako mota bereko sozietateetako edo inbertsio kolektiboko entitateetako partaidetzak edo akzioak, direnak direla kotizatzen duten merkatu arautua edo negoziazio sistema aldeaniztuna eta erreproduzitzen, errepikatzen edo erreferentziazat hartzen duten indizearen osaera.

3. Talde inbertsioko erakundeen bazkideen kopurua eta haien kapitaleko gehieneko partaidetza ehunekoa arauz ezartzen den prozeduraren arabera zehaztuko dira. Horretarako, bazkideen kopurua, haien nortasuna eta bakoitzaren partaidetza ehunekoa ez dira izango informazio gailenak.

4. (10) Artikulu honetan xedatutakoa aplikagarri izango da, ere berean, martxoaren 7ko 2/2018 Foru Arauaren 10, 11., eta 12. artikuluan jasotako betekizunak betetzen dituzten honako funts europar hauetako partaidetzei: berrikuntza bultzatzeko Europako Funtsak, jarduera ekonomikoaren finantzazioa bultzatzeko Europako Funtsak edo kapitalizazio produktiboa bultzatzeko Europako Funtsak.

#### **49. artikulua. Berrinbertsioa, ohiko etxebizitza eskualdatzen denean.**

1. (10) Kargatik kanpo utzi ahal izango dira zergadunaren ohiko etxebizitza eskualdatzeagatik lortutako etekinak. betiere transmisioa lortutako zenbateko osoa ohiko etxebizitza berri bat erosteko inbertitzen bada, erregelamendu bidez zehazten diren baldintzetan.

Horretarako, zergadunak bi etxebizitzen jabetza osoa eduki beharko du, eta hori horrela dela ulertuko da nahiz eta jabetza hori beste titularkide batzuekin partekatu.

2. Berrinbertitutako zenbatekoa eskualdaketa jasotako zenbateko osoa baino gutxiago bada, berrinbertitutako zenbatekoari dagokion ondare irabaziaren zati proportzionala soilik geratuko da zergapetu gabe.

3. (3) Aurreko idatz zatietan xedatutakoa hauei era aplikatuko zaie: eskualdaketa aurretik ohiko etxebizitza eta familia etxebizitza izaera izan duen etxea eskualdatzean lortutako ondare irabaziei, aplikatu ere zergadunak han bizitzeari utzi dionean, epaileak hala erabaki duelako, ezkontideak edo izatezko bikotea banatze prozedura batean murgildurik egoteagatik.

Idatz zati honetan xedatutakoa aplikatzea edo ez baldintzapean dago, alegia, eskualdatzen edo ez den familia etxebizitza zergadunaren ezkontidearen edo izatezko bikotekidearen ohiko etxebizitza izatea.

#### **50. artikulua. Frogatu gabeko ondare irabaziak.**

1. Frogatu gabeko ondare irabazizat hartuko dira ukantza, aitortpena edo eskuraketa zergadunak aitortutako errentarekin bat ez datorren ondasunak edo eskubideak, bai eta ez dauden zorrak zerga honen edo Ondarearen gaineko Zergaren aitortpenetan sartzea edo erregistro ofizialetan idaztohartzea ere.

2. Frogatu gabeko ondare irabaziak sortu diren zergaldiko likidazio oinarri orokorrean integratu behar dira, kasu honetan izan ezik: zergadunak behar bezala frogatzen duenean ondasunen titularrak izan dela preskribatutako zergaldi batetik.

3. (26)

4. (3) (26)

## VI. KAPITULUA ERRENTEN EGOZKETA ETA ERATXIKIPENA

### 1. ATALA ERRENTEN EGOZKETA

**51. artikulua. (17) Errenten egozketa nazioarteko zerga gardentasunaren araubidean.**

1. Zergadunei egoitza Espainiako lurraldean ez daukaten entitateek lortutako errenta positiboa egotziko zaie, artikulua honetako bigarren idatz zatian ezarritako motetako bada eta ondoko inguruabarrak gertatzen badira:

a) Zergadunak Espainiako egoiliar ez den entitatearen kapitalaren, funts propioen, emaitzen edo boto eskubideen ehuneko 50eko partaidetza edukitzea gutxienez sozietatearen ekitaldian ixten den egunean, berak bakarrik edo Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 42. artikuluko 3. idatz zatian ezarri den bezala ahaidetasunez (zuzeneko zein zeharkako ahaidetasuna, edo odol ahaidetasuna edo kidekotasuneko, bigarren graduraino, berau barne dela) lortutako beste zergadun batzuekin batera (ezkontidea edo izatezko bikotekidea barne).

Entitate lotu ez-egoiliarren partaidetza konputatzeko, kontuan hartuko da Espainiako lurraldean egoiliarren diren pertsona edo entitate lotuetan zeharka ematen den partaidetzaren zenbatekoa.

Sartu beharreko errenta positiboren zenbatekoa emaitzetako partaidetzaren proportzioan zehaztuko da, edo, horren ezean, entitatearen boto eskubideetako, funts propioetako edo kapitaleko partaidetzaren proportzioan.

b) Espainian egoitza ez daukan entitateak ordaindutako kopurua, Sozietateen gaineko Zerga bezalako edo antzeko zerga baten kargapean egonik hurrengo 2. idatz zatian ezarritako errentetako bati egotzi ahal zaiona, zerga horren arauekin bat etorritik ordaindu beharko litzatekeen kopurua baino gutxiago izatea.

2. Egoitza Espainiako lurraldean ez duen entitate batek lortutako errenta positibo osoa zergadunei egotziko zaie, baldin eta entitate horrek ez badu errenta hori gauzatzeko baliabide materialen eta giza baliabideen antolaketa egokirik, nahiz eta eragiketa errepikariak izan. Hala ere, partaidetzen eskualdaketatik eratorritako errenta edo etekinen partaidetza edo dibidendu kasuetan, atal honetako azken hiru paragrafoetan jasotakoari erreparatuko zaio.

Errenta osotzat hartuko da Sozietateen gaineko Zergaren Foru Arauan eta horretarako zerga horri buruzko gainerako xedapenetan ezarritako printzipio eta irizpideak aplikatzearen ondoriozko zerga oinarriaren zenbatekoa.

Aurreko paragrafo bietan ezarritakoa ez da aplikatuko baldin eta zergadunak egiaztatzen badu eragiketa horiek Merkataritzako Kodeko 42. artikuluan ezarritako irizpideen arabera talde berekoa den eta egoitza Espainiako lurraldean ez duen entitate baten baliabide material eta giza baliabideekin egiten direla, entitateon egoitzaren lurraldea eta urteko kontu bateratuak egiteko betebeharra kontuan hartu gabe, edo egiaztatzen badu arrazoi ekonomiko baliadunak daudela entitatea eratzeko eta haren jardunerako.

Zenbaki honen lehenengo bi paragrafoetan ezarritakoa aplikatzen ez bada, dela haietan ezarritako inguruabarrak betetzen ez direlako, dela aurreko paragrafoan ezarritakoa aplikatu delako, bakarrik egotziko da honako iturri hauetako bakoitzetik datorren errenta positiboa:

a) Landa ondasun edo hiri ondasun higiezinaren titulartasuna edo haien gaineko eskubide errealena, ondoko kasuetan izan ezik: jarduera ekonomiko bati atxikita badaude, foru arau honetan xedatutakoarekin bat etorriz, edo erabiltzeko lagata badaude Merkataritzako Kodeko 42. artikulua dionaren arabera titularraren sozietate talde berekoak diren entitate ez-egoiliarrei, berdin du haien egoitza non den eta urteko kontu bateratuak egiteko betebeharra duten, eta orobat jarduera ekonomiko bati atxikita badaude.

b) Denetariko entitateen funts propioen partaidetzak eta norberaren kapitalak hirugarrenei lagatzea (foru arau honetako 34. eta 35. artikulua, hurrenez hurren).

Ez da letra honetan sartuko honako finantza aktibo hauetatik eratorritako errenta positiboa:

a') Zergadunak jarduera ekonomikoetan aritzeak berekin dakartzan legezko eta arauzko betebeharrak betetzeko dauzkan finantza aktiboak.

b') Jarduera ekonomikoak burutzeko finkatutako kontratu harremanetatik sorturiko kreditu eskubideak dituztenak.

c') Baloreen merkatu ofizialetan bitartekaritzako jardueren ondorioz dituztenak.

d') Kreditu entitateek eta aseguru etxeek beren jarduerak egitearen ondorioz dituztenak, ondoko i) letran ezartzen dena eragotzi gabe.

Hirugarrenei kapital propioak lagatzetik sortzen den errenta positiboa ondoko i) letran aipatzen diren kreditu eta finantza jarduerak eginez lortutzat joko da kasu honetan: lagatzailea eta lagapen hartzailea sozietate talde berekoak badira Merkataritzako Kodeko 42. artikulua dionaren arabera, berdin du haien egoitza non den eta urteko kontu bateratuak egiteko betebeharra duten, eta lagapen hartzailearen diru sarrerak ehuneko 85ean gutxienez enpresa jardueretatik lortuak badira.



c) Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 42. artikuluko 3. idatz zatian ezartzen denaren arabera lotuta dauden pertsonak eta entitateek ondasunekin eta zerbitzuekin egiten dituzten eragiketak, baldin eta egoiliar ez den entitateak edo establezimendu iraunkorrak inolako balio ekonomikorik sortzen ez badu edo sortzen duen balio ekonomikoa oso urria bada.

d) Kapitalizazio eta aseguru eragiketak, haien onuraduna entitatea bera bada.

e) Jabetza industrialak eta intelektuala, laguntza teknikoa, ondasun higigarriak, irudi eskubideak eta negozio edo meatzeen errentamendu eta azpierreantamendua, foru arau honetako 37. artikuluan ezartzen den bezala.

f) Finantza tresna deribatuak, salbu eta jarduera ekonomikoak egitetik datorren eta berariaz identifikatuta dagoen arrisku bat estaltzeko izendatutakoak.

g) Aurreko a), b), c), d) eta e) letretan aipatzen diren ondasunak eta eskubideak eskualdatzea, errentak sortzen direnean.

h) Aseguru jarduerak, kreditu jarduerak, finantza errentamenduko eragiketak eta beste finantza jarduera batzuk; salbuespena: jarduera ekonomikoen bidez lortzen diren errentak, hurrengo i) letran ezartzen dena gorabehera.

i) Kreditu, finantza, aseguru eta zerbitzu jarduerak, esportazio jarduerekin zuzenean lotuta daudenak izan ezik, baldin eta zuzenean edo zeharka Espainian egoitza duten eta Sozietateen gaineko Zergaren Foru Arauko 42. artikuluko 3. idatz zatiaren zentzuan lotuta dauden pertsona edo entitateekin batera egin badira, pertsona egoiliar horientzat gastu kengarriak sortzen dituztenean.

Baldin eta kreditu jardueren, finantza jardueren, aseguru jardueren edo zerbitzugintzen ondoriozko sarreren ehuneko 50 baino gehiago (esportazioarekin zuzenean lotutako jarduerenak ez dira zenbatzen) Sozietateen gaineko Zergaren Foru Arauaren 42. artikuluko 3. apartatuan ezarritakoaren arabera lotuta ez dauden pertsona eta entitateekin egindako jarduerak sortu badute, ez da sartu behar letra honetan arautzen den errenta positibo hau.

Aurreko b) eta g) letretan ezarritako errentak, entitate ez-egoiliarrak lortutakoak, ez dira sartu behar kasu honetan: entitate horrek zuzenean edo zeharka ehuneko bostekoa baino partaidetza handiagoa daukan entitateen baloreetatik badatoz (edo ehuneko hirukoa baino handiagoa, sozietate horrek antolatutako bigarren mailako merkatu batean kotizatzen badu), ondoko bi baldintzak betez gero:

Lehenengoa. Egoiliar ez den erakundeak partaidetzak zuzentzea eta kudeatzea bere giza baliabideak eta materialak antolatuz.

Bigarrena. Errentak sortzen dituzten entitateen sarreren ehuneko 85 gutxienez jarduera ekonomikoetan lortzea.

Honetarako, jarduera ekonomikoetan lortuzat joko dira b) eta g) letretan aipatutako errentak, baldin eta bigarren betekizuna betetzen duten entitateetatik badatoz, hain zuzen ere entitateak zuzenean edo zeharka ehuneko bostekoa baino partaidetza

handiagoa daukan entitateetatik (edo ehuneko hirukoa baino handiagoa, sozietate horrek antolatutako bigarren mailako merkatu batean kotizatzen badu).

Entitateak Merkataritza Kodearen 42. artikuluan ezarritako irizpideen arabera sozietateen talde berekoak badira, urteko kontu bateratuak aurkezteko betebeharra eta egoitza gorabehera, partaidetzari dagozkion betekizunak eta partaidetza kudeaketa eta helburu bat izateak horren parte diren guztiak aintzat hartuta ebatziko da.

**3.** Aurreko 2. idatz zatian adierazitako errentak egotzi gabe geratuko dira beren zenbatekoen batura egoiliar ez den entitateak lortutako errenta guztien ehuneko 15 baino gutxiago bada.

Hala ere, 2. idatz zatiko i) letran aipatzen diren errentak nahitaez egotzi behar dira; dena den, aurreko paragrafoan aipatzen den baturan kontuan hartuko dira.

Merkataritzako Kodearen 42. artikuluen arabera sozietate talde batekoak diren eta Espainiako lurraldean egoitzarik ez daukaten entitateen multzoak lortutako errentari buruzkoa izango da apartatu honetan ezarritako muga, berdin du haien egoitza non den eta urteko kontu bateratuak egiteko betebeharra duten.

Inola ere ezingo da sartu entitate ez egoiliarraren errenta osoa baino handiagoa den zenbatekorik.

Zergadunaren zerga oinarrian ez da egotziko egoiliarra ez den sozietateak sartu beharreko errenta zatiagatik Sozietateen gaineko Zerga bezalako edo horren antzeko zergaren edo zergen zioz ordaindu beharreko kuota.

Artikulu honetako 2. idatz zatian aipatzen den iturri bakoitzeko errenta positiboak zerga oinarri orokorrean egotziko dira, foru arau honetako 62. artikuluan ezartzen denaren arabera.

**4.** 1. idatz zatiko a) letran ageri diren zergadunek egin behar dituzte egozketak, hain zuzen ere egoiliarra ez den entitatean zuzenean edo zeharka, egoiliarra ez den beste entitate baten bidez, partaidetza dutenek. Azken kasu horretan errenta positiboaren zenbatekoa zeharkako partaidetzarena izango da.

**5.** Espainiako lurraldeko egoiliarra ez den entitatearen ekitaldi soziala amaitzen den egunari dagokion zergaldian egin behar da egozketa. Hori dela eta, ekitaldi sozialaren iraupena ezin da izan hamabi hilabete baino luzeagoa.

**6.** Zerga oinarri orokorrean egotzi beharreko errenta positiboaren zenbatekoa kalkulatzeko Sozietateen gaineko Zergaren zerga oinarria zehazteko ezarritako printzipioak eta irizpideak aplikatuko dira.

Horretarako, Espainian egoitza ez daukan entitatearen ekitaldia ixtean indarrean egon den truke tasa aplikatuko da.

Inolaz ere ezin da egotzi egoiliarra ez den entitatearen errenta osoa baino gehiago.

**7.** Egotzitako errenta positiboari dagokion zatiari dagokionez, dibidenduak edota mozkinetako partaidetzak ez dira egotziko. Tratamendu bera aplikatuko zaie konturako dibidenduei.

Erreserbak banatzen badira, sozietatearen erabakian ezarritako zuzkidura hartu behar da aintzat; ordaindutako azken kopuruak erreserba horietarako erabilitzat joko dira.

Errenta positibo bat behin bakarrik egotzi ahal da, nola eta zer entitateetan sortu den kontuan hartu gabe.

**8.** Kuota osotik ken daiteke atzerrian dibidenduak edo mozkinetako partaidetzak banatzeagatik benetan ordaindutako zerga edo karga, bai ezarpen bikoitza saihesteko hitzarmen baten arabera, bai herri edo lurralde hartako legeriaren arabera, hain zuzen ere aurretik zerga oinarrian egotzitako errenta positiboari dagokion zatia.

Errenta positiboa sartu zen zergaldian ez ezik, beste zergaldi batzuetan ere aplika daiteke kenkari hau.

Zerga paradisutzat jotzen diren herrialde eta lurraldeetan ordaindutako zergek ez dute kenkaririk sortuko.

Kenkariaren zenbatekoa ezin daiteke izan zerga oinarrian egotzitako errenta positiboagatik ordaindu beharko litzatekeen kuota osoa baino gehiago.

**9.** Zuzeneko zein zeharkako partaidetza baten eskualdaketak sortutako errenta kalkulatzeko foru arau honetako 47. artikuluko 1. idatz zatiko c) letran zerga oinarrian egotzitako errenta positiboaz ezarritako arauak aplikatuko dira. Letra horretan araututako sozietate mozkinak egotzitako errenta positiboari dagozkio.

**10.** Artikulu honetan ezarritakoa aplikatu behar zaien zergadunek Espainian egoitza ez daukan entitateari buruzko datu hauek aurkeztu behar dituzte zerga honen autolikidazioarekin batera:

a) Sozietatearen izena eta egoitza.

b) Administratzaileen zerrenda.

c) Balantzea eta galera-irabazien kontua.

d) Egotzi beharreko errenta positiboen zenbatekoa.

e) Egotzi beharreko errenta positiboa dela eta ordaindutako zergen frogagiriak.

**11.** Partaidetutako entitatearen egoitza zerga paradisutzat jotzen den zergarik gabeko herrialde edo lurralde batean badago, pentsatuko da:

a) Aurreko 1. idatz zatiko b) letran ezarritako baldintza betetzen dela.

b) Zergadunak partaidetza daukan entitateak lortutako errenta aurreko 2. idatz zatian aipatutako iturrietako batetik jaso dela.

c) Partaidetutako entitateak lortutako errenta partaidetzaren eskuraketa balioaren ehuneko 15 dela.

Aurreko letretan ezarritako usteen kontrako froga aurkeztu ahal izango da.

Aurreko letretan ezarritako usteak ez dira aplikatuko zergadunak partaidetza daukan entitateak bere kontuak bateratzen dituenean Merkataritzako Kodeko 42. artikuluan ezarritakoaren arabera errenta positiboa sartzera behartuta dauden entitateetako batekin.

**12.** Partaidetutako entitateren egoitza Europar Batasuneko edo Europako Esparru Ekonomikorako Akordioari atxikitako estatu batean badago, artikuluko 11. idatz zatian azaldutako kasuetatik kanpo, zergadunak artikuluko honetan xedatutakoa aplikatzea saihestu ahal izango du frogatzen baldin bada partaidetutako entitatea benetan dagoela egoitza daukan estatuan, eta beraren egitura ez dela artifizia, Sozietateen gaineko Zergaren zioz gutxiago ordaintzeko bakarrik antolatua; horretarako frogatu beharko du bere gaineko zama arindu duten transakzio guztiak entitate horren egoitza dagoen estatuan egindako prestazioei dagozkiela eta badutela interes ekonomikorik zergadunaren jarduerarako.

Bereziki, entitateren egitura ez dela guztiz artifizia frogatzeko, zergadunak frogatu elementu objektiboak aurkeztu behar ditu partaidetutako entitateak egoitza daukan estatuan duen presentzia fisikoaren norainokoari buruz, partaidetutako sozietateak egiten duen jardueraren benekotasunari buruz eta partaidetutako sozietatearen jarduerak zergadunaren eta talde osoaren jardueraren aldean duen balio ekonomikoari buruz.

**13.** Artikulu honetan arautzen dena honako kasu honetan ere ez da aplikatuko: egoiliarra ez den entitatearen egoitza Europar Batasuneko edo Europako Esparru Ekonomikorako Akordioari atxikitako estatu batean dagoenean, baldin eta ez bada Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2009ko uztailaren 13ko 2009/65/CE Zuzentarauak (higigarrien baloreetako talde inbertsioko entitate batzuei buruzko lege, arau eta administrazio xedapenak koordinatzen dituenak) arautzen dituen talde inbertsioko entitateetako bada, Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 23ko 37/2013 Foru Arauak 81. artikuluan arautzen dituenak ez beste bat, eta Europar Batasuneko estatu batean eratuta eta egoiliartuta badago.

**14.** Artikulu honetan ezarritakoak ez du ezertan eragozten Espainiako ordenamenduan sartu diren nazioarteko itunetan eta hitzarmenetan ezarritakoa.

**15.** Artikulu honen ondorioetarako, Merkataritzako Kodeko 42. artikuluan aipatzen den sozietate taldean sartzen dira talde anitzeko entitateak eta entitate elkartuak, merkataritzako legeriarekin bat etorritik.

## **52. artikulua. Zerga paradisuak jotzen diren herrialde edo lurraldeetan eratutako talde inbertsioko erakundeetako bazkide eta partaideen zerga ordainketa.**

**1.** Zerga paradisuak jotako herrialde edo lurraldeetan eratutako talde inbertsioko erakundeetan partaidetza duten zergadunek partaidetzaren zergaldiaren itxiera

eguneko likidazio balioaren eta eskuraketa balioaren arteko diferentzia positiboa egotzi behar diote zerga oinarri orokorrari.

Egozten den zenbatekoa eskuraketa baliorik handiena izango da.

2. Aipatutako talde inbertsioko erakundeek banatzen dituzten mozkinak ez dira egotziko; beraien zenbatekoa partaidetzaren eskuraketa baliotik kenduko da.

3. Kontrako frogarik ez badago, aurreko 1. idatz zatian aipatutako diferentzia akzioaren edo partaidetzaren eskuraketa balioaren ehuneko 15 izango da.

4. Akzioak edo partaidetzak eskualdatuta edo itzulita lortzen den errentaren zenbatekoa foru arau honetako 47. artikuluko 1. idatz zatiko d) letran ezarritakoarekin bat etorri kalkulatu da. Horretarako eskuraketa balioa zehaztu behar da, eta horretarako aurreko idatz zatietan ezarritakoa aplikatu da.

## **2. ATALA ERRENTA ERATXIKIPENA**

### **53. artikulua. Errenta eratxikipenaren araubideko erakundeak.**

Errenta eratxikipenaren araubideko erakundeak dira foru arau honetako 11. artikuluan aipatzen direnak, eta bereziki Espainiako legeen arabera eraturako errenta eratxikipenaren araubideko erakundeen izaera juridiko bera edo antzekoa duten atzerrian eraturako erakundeak.

Errenta eratxikipenaren araubideko erakundeen errentak bazkideei, jaraunsleei, erkideei edo partaideei eratxikitako zizkie atal honetan ezarritakoaren arabera.

(5) Atal horretan xedatutakoa ez da aplikagarria izango foru arau honetako hogeita bederatzigarren xedapen gehigarrian aipatutako sozietate zibilen bazkideen kasuan.

### **54. artikulua. Eratxikitako errentaren kalifikazioa.**

Errenta eratxikipeneko araubideko erakundeetako bazkide, jaraunsle, erkide edo partaideei eratxikitako errenten izaera sortu diren jardueraren edo iturriaren arabera izango da.

Zati batean liberatutako akzioak direnean, haien eskuraketa balioa zergadunak benetan ordaindutako zenbatekoa izango da. Erabat liberatutako akzioak direnean, bai haien eskuraketa balioa eta bai euren sorburu direnena kostu osoa titulu zahar eta liberatuen kopuruaren artean banatuz aterako da.

Hala ere, eratxikitako etekinak kapitalaren etekinak izango dira aurrean aipatutako jardueretan parte hartzen ez duten bazkide, jaraunsle, erkide eta partaideentzat, baldin eta erakundeeko partaidetza kapitala ekartzea baizik izan ez bada. Hala gertatuz gero, ezin da egotzi etekin gisa ekarritako kapitalaren ehuneko 15 baino gehiago.

## **55. artikulua. Errenta eratzikigarriaren kalkulua eta konturako ordainketak.**

1. Bazkide, jaraunsle, erkide edo partaide bakoitzari eratziki beharreko errenta kalkulatzeko arau hauek aplikatuko dira:

1. Errentak zerga honen arauen arabera zehaztuko dira eta ez dira aplikatuko foru arau honetako 25. artikuluko 4. idatz zatian, 30. artikuluko 3. idatz zatian eta 39. artikuluko 3. idatz zatian ezarritako integrazio ehunekoak; kontuan eduki behar dira berezitasun hauek:

a) Errenta eratzikigarria kalkulatzeko Sozietateen gaineko Zergari buruzko arautegia erabiliko da, baldin eta errenta eratzikipearen araubidean dagoen erakundeko kide guztiak zerga horren zergadunak badira, edo Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren zergadunak izanik establezimendu iraunkorra badute, eta lehenengo kasuan, ondare sozietateak ez badira.

b) Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren zergadunei (establezimendu iraunkorrik ez) eratziki beharreko errenta Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauko IV. kapituluaren ezarritakoaren arabera zehaztu behar da.

c) Errenta eratzikipearen araubideko erakundeetan, Sozietateen gaineko Zergaren edo Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren (establezimendu iraunkorrek bezala zein halakorik gabe) zergadun diren kideetatik pertsona fisiko ez direnei jarduera ekonomiko bati atxikita ez dauden ondare elementuak eskualdatuta lortutako irabazien ondorioz eratziki beharreko errenta kalkulatzeko ez da aplikatuko foru arau honetako lehenengo xedapen iragankorrean xedatutakoa.

2. Atzerrian eratutako errenta eratzikipearen araubideko erakundeetako bazkide, jaraunsle, erkide edo partaideak zerga honen edo Sozietateen gaineko Zergaren zergadun badira, haiei eratziki beharreko errenta kalkulatzeko aurreko 1. arauan ezarritakoa aplikatuko da.

3. Baldin eta errenta eratzikipearen araubideko erakundeak errentak lortzen baditu atzerrian, hain zuzen ere Espainiak nazioarteko zergapetze bikoitza saihesteko hitzarmena, elkarri informazioa eman beharra ezartzen duen klausula duena, sinatuta ez duen herrialde batean, herrialde horretan bertan iturri beretik lortutako errenta positiboak gainditzen dituzten errenta negatiboak ez dira konputatuko.

Gaindikina hurrengo lau urteetan zenbatuko da 3. arau honetan ezarritakoarekin bat etorriz.

2. Errenta eratzikipearen araubideko erakundeei ordaintzen zaizkien errentei zerga honen arauetan ezarritako atxikipeak edo konturako sarrerak aplikatu behar zaizkie, erakundeko kideren bat zerga honen, Sozietateen gaineko Zergaren edo Ez-egoiliarren errentaren gaineko Zergaren zergaduna izatea gorabehera. Atxikipea edo konturako sarrera bazkide, jaraunsle, erkide edo partaidearen gaineko karga pertsonaletik kenduko da, hain zuzen ere errentak eratzikitzen zaizkion proportzio berean.

3. Errentak kasu bakoitzean aplikatu beharreko arauen edo itunen arabera eratzikiko zaizkie bazkide, jaraunsle, erkide edo partaideei. Zerga Administrazioak horien berri ez badu modu sinesgarrian, errentak hainbanatu egingo dira.

4. Errenta eratzikipenaren araubideko erakundeetako kideek, zerga honen zergadunak badira, foru arau honetako 25. artikuluko 4. idatz zatian, 30. artikuluko 3. idatz zatian eta 39. artikuluko 3. idatz zatian ezarritako integrazio ehunekoak aplikatu ahal izango dituzte euren autolikidazioan.

5. Sozietateen gaineko Zergaren zergadunek eta establezimendu iraunkorra duten Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren zergadunek, errenta eratzikipenaren araubideko erakunde bateko kide badira eta erakunde horrek talde inbertsioko erakundeen akzio edo partaidetzak eskuratzen baditu, euren zerga oinarrian sartu beharko dituzte akzio edo partaidetza horietatik datozen errentak, kontabilizatuak zein kontabilizatu beharrekoak. Halaber, zerga oinarrian sartu behar dira norberaren kapitalak hirugarrenei lagata errenta eratzikipenaren araubideko erakundearentzat sortutako kapital higigarriaren etekinak.

#### **56. artikulua. Errenta eratzikipenaren araubideko erakundeen informazioa betebeharrak.**

1. Errenta eratzikipenaren araubideko erakundeek aitorten informatiboa aurkeztu beharko dute (arau bidez ezarriko da zeren berri eman behar duten) euren bazkide, jaraunsle, erkide eta partaideei (Espainiako lurraldeko egoiliar izan zein ez) eratziki beharreko errentei buruz.

2. Aurreko idatz zatian aipatzen den informazioa eman beharra Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 45. artikuluko 3. idatz zatian ezarritakoaren arabera errenta eratzikipenaren araubideko erakundearen ordezkaria denak bete behar du; erakundea atzerrian eratuta badago, zerga honen edo Sozietateen gaineko Zergaren zergadun diren kideek bete behar dute.

3. Errenta eratzikipenaren araubideko erakundeek ondoko bi datuen berri eman behar diete bazkide, jaraunsle, erkide edo partaideei: erakundearen guztirako errenta eta arauz ezarritakoaren arabera bakoitzari eratzikitzen zaion errenta.

4. Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak artikuluko honetan aipatutako aitorten informatiboaren eredia ezarriko du, bai eta hura aurkezteko epealdia, tokia eta modua ere.

5. Jarduera ekonomikoren bat egin ez eta urtean 3.000 euro baino gehiago lortu ez dituzten errenta eratzikipenaren araubideko erakundeek ez dute artikuluko honetako 1. idatz zatian adierazitako aitorten informatiboa aurkeztu beharrik.

## VI BIS KAPITULUA ERREGIMEN BEREZIAK [\(10\)](#) [\(16\)](#)

### **56 bis artikulua: Langile lekualdatuentzako araubide berezia.**

1. [\(24\)](#) Espainiako lurraldera lekualdatzearen ondorioz zerga egoitza Araban ezartzen duten pertsona fisikoek artikuluko honetan ezartzen den araubide bereziaren arabera ordaindu ahal izango dute zerga bizileku aldaketa gertatzen den zergaldian eta ondoko hamar zergaldietan, baldin eta betekizun hauek betetzen badira arau bidez ezartzen den bezala:

a) [\(24\)](#) Espainiako lurraldera lekualdatzearen helburua kualifikazio bereziko lanak egitea izatea, hain zuzen ere, zuzenean eta nagusiki arlo hauetako jarduerekin lotutakoak: ikerketa eta garapena, zientzia, teknika, finantzak eta merkataritza.

b) [\(24\)](#) Espainiako lurraldera lekualdatzearen ondorioz zerga egoitza eskuratzen duten zergaldiaren aurreko bost urteetan zerga egoitza Espainian ez edukitzea. Edonola ere, ezinbestekoa da aurretik atzerrian bizi izana gutxienez bost urtez, datatik datara zenbatuta.

c) Lekualdatze hori lan kontratu baten ondorio izatea. Baldintza hori betetzat joko da Espainiako enplegatzaile batekin lan harremana (arrunta zein berezia) edo estatutu harremana ezarriz gero, bai eta enplegatzaile batek lekualdaketa agindu eta lekualdaketa gutuna eginez gero ere, baldin eta zergadunak ez badu lortu Espainiako establezimendu iraunkorraren bidez lortutakotzat joko litzatekeen errentarik.

d) Lanak benetan Espainian egitea. Baldintza hori betetzen dela ulertuko da, lanen zati bat atzerrian egin izan arren, betiere lan horiei dagozkien ordainsarien batura urte natural bakoitzean jasotako lan kontraprestazio guztien ehuneko 15etik gorakoa ez bada. Ez da kontuan hartuko Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren Legearen testu bategineko 13. artikuluko 1. idatz zatiko c) letran jasotakoaren arabera ordainsari horiek Espainiako lurraldean lortutako errentatzat hartzen diren ala ez. Lan kontratuan ezarritakoa dela eta zergadunak funtzio batzuk bereganatzen baditu Espainiako lurraldetik kanpo dagoen taldeko beste enpresa batean, Merkataritza Kodeak 42. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, aurrean aipatutako muga ehuneko 30 izango da.

Atzerrian egindako lanen ordainsarien zenbatekoa frogatu ezin bada, haiek kalkulatzeko kontuan hartu behar da langileak benetan zenbat egun eman dituen atzerrian lanean.

e) Lan horiek egitea edo egoitza Espainian duen enpresa edo entitate batentzat, edo, bestela, Espainiako lurraldean egoiliarra ez den entitate batek bertan kokatua duen establezimendu iraunkor batentzat. Baldintza hori betetzen dela ulertuko da zerbitzu horien onuradunak honako hauek direnean: egoitza Espainian duen enpresa edo entitate bat, edo, bestela, Espainiako lurraldean egoiliarra ez den entitate batek bertan kokatua duen establezimendu iraunkorra. Lekualdaketa enpresa talde baten barruan gertatu bada, Merkataritzako Kodeak 42. artikuluan ezarritakoaren arabera, eta ondorio hauetarako bakar-bakarrik, beharrezkoa izango da langilea egoitza Espainian duen taldeko enpresak kontratatzea edo Espainiako lurraldera egin beharreko lekualdaketa enplegatzaileak agintzea.



2. Artikulu honetan ezarritako tributazio araubidea hautatzen duten zergadunek foru arau honetan xedatutakoari jarraituz zehaztuko dute zerga zorra, honako berezitasun hauekin:

a) (24) Salbuetsita dago aurreko 1. apartatuan zehazten den lan harremanaren ondoriozko etekin osoen ehuneko 30.

b) Aurreko letra aipatzen duen salbuespena aplikatuta, lan pertsonalaren etekin garbia zehazteko, gastu kengarrien gastutzat hartuko dira foru arauaren 22. artikuluan ezarritakoak nahiz lekualdaketaren ondorioz sortutakoa bestelakoak, betiere lanpostu hori betetzean lortutako etekin osoen ehuneko 20ko mugarekin.

Arau bidez zehaztuko diren gastuen aplikazioa baldintzaturik egongo da, edozein kasutan, horien justifikazio dokumentalaren arabera.

Enplegatzaileak b) letra honetan aipatutako gastu gehigarriei aurre egiteko diru kopuruak ordaintzen baditu, horiek ez dira gauzako ordainsaritzat hartuko, aipatutako lanpostuan lortutako etekin osoen ehuneko 20ko mugaraino.

c) Zergadunaren titulartasuneko ondare elementuen ondorioz sortutako errentak salbuetsita egongo dira, baldin eta errenta horiek antzeko zerga edo zerga baliokide baten arabera ordaindu baditu zergak eta paradisu fiskaltzat hartzen den herrialde edo lurraldea ez bada, Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arauaren hamabosgarren xedapen gehigarriak ezarritakoari jarraikiz.

Letra honetan aurreikusitako salbuespena aplikatzen duten zergadunek ez dute eskubiderik izango foru arau honen 92. artikuluan errenta beretarako aurreikusitako kenkaria aplikatzeko.

d) Aurreko c) letran ezarritakoa lekualdaketaren ondorioz araubide berezi hau hautatzen duen eta egoitza fiskala Araban ezartzen duen zergadunaren ezkontideari edo izatezko bikotekideari ere aplikagarri izango zaio, bai eta familia unitateko kideei ere, baldin eta Espainiako egoiliarrik izan ez badira lurralde espainiarrera lekualdatu aurreko bost urteetan.

## **56. ter artikulua. (17) Ekintzailetzari, berrikuntzari eta jarduera ekonomikoren garapenari lotutako funtsak kudeatzearen zioz lortutako lan-etekinak.**

1. Lan-etekintzat joko dira Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2011ko ekainaren 8ko 2011/61/EB Zuzentarauan (inbertsio alternatiboko funtsen kudeatzaileei buruzkoa da, eta 2003/41/EE eta 2009/65/EE Zuzentarauak eta 1060/2009 (EE) eta 1095/2010 (EB) erregelamenduak aldatzen ditu) definitutako inbertsio alternatiboko funtsetako edozeinetan eskubide ekonomiko bereziak ematen dituzten partaidetza, akzio edo bestelako eskubideetatik lortutako etekinak, haien forma edo izaera juridikoa edozein izanik ere, entitateotako edo entitateon erakunde kudeatzaileetako edo taldeko entitateetako administratzaileek, kudeatzaileek edo enplegatuek lortutakoak direnean.

2. Aurreko zenbakian aipatzen diren etekinak haien zenbatekoaren ehuneko 50ean sartuko dira zerga-oinarrian, baldintza hauek betetzen direnean:

a) Partaidetza, akzio edo eskubide horien eskubide ekonomiko bereziek bete beharrekoa dute baldintza bat; hain zuzen, inbertsio alternatiboko erakundean dauden gainerako inbertsoreek lortzea inbertsio alternatiboko erakundearen erregelamenduan edo estatutuan definitutako gutxieneko errentagarritasun bermatua.

b) Partaidetzak edo eskubide bereziak bost urtez mantendu beharko dira, gutxienez, salbu eta aurretiaz likidatzen direnean, baliorik gabe geratzen direnean edo osorik edo partez galtzen direnean erakunde kudeatzailea aldatzearen ondorioz. Kasu horretan, beharrezkoa izango da etenik gabe mantentzea, inguruabar horiek gertatu bitartean.

Letra honetan xedatutakoa eskatu ahal izango zaie artikulu honetako 1. zenbakian aipatzen diren erakundeei, baldin eta partaidetzen, akzioen edo eskubideen jabetza badute.

**3.** Artikulu honetan xedatutakoa aplikatu nahi dutenek aurretiazko komunikazio bat aurkeztu beharko dute Tributu-administrazioaren aurrean, erregelamenduz ezarriko diren modu eta baldintzetan.

Aurreko zenbakian xedatutakoa zergaldi bakoitzean aplikatzeko, autolikidazioaren aurkezpenarekin batera erabili beharreko aukera hautatu beharko da, eta zergaren autolikidaziorako borondatezko epea amaitu ondoren aldatu ahal izango da, non eta Tributu-administrazioak aurretiazko errekerimendu bat egin ez badu.

## **VII. KAPITULUA ALDI EGOZKETA**

### **57. artikulua. (30) Aldi egozketa.**

**1.** Oro har, eta foru arau honetan ezarritakoa eragotzi gabe, Zergaren oinarrian sartu beharreko errentak eragiten dituzten sarrerak eta gastuak batzuk lortu eta besteak egin diren zergaldikoak izango dira, noiz ordaindu edo kobratu diren kontuan hartu gabe. Berezi, irizpide hauek aplikatuko dira:

a) Lanaren eta kapitalaren etekinak hartzaileak eska ditzakeen zergaldiari egotziko zaizkio.

b) (20) Jarduera ekonomikoen etekinak Sozietateen gaineko Zergaren Foru Arauan ezarri den bezala egotziko dira, foru arau honetan edo bestelako arauen bidez ezartzen diren kasu bereziak gorabehera.

Hala ere, nekazari gazteen lehen instalaziorako Espainiako Landa Garapenerako Esparru Nazionalean aurreikusitako laguntza publikoak lau zatitan egotzi ahal izango dira: laurden bat jasotzen diren zergaldian eta laurden bana hurrengo hiruretan.

c) Ondareko irabaziak eta galerak ondare aldakuntza gertatzen den zergaldiari egotziko zaizkio.

## 2. Arau bereziak:

a) Errenta osoa edo haren zati bat ordaindu ez bada, hura jasotzeko eskubiderik dagoen edo haren kopurua zenbatekoa den epai bidez ebatzi gabe dagoelako, ordaindu gabeko zenbatekoak epaia irmo bihurtzen den zergaldiari egotziko zaizkio.

b) Zergadunari ezin egotz dakizkiokeen inguruabar frogatuen ondorioz lanaren etekinak eska daitezkeen zergaldian barik beste batean jasotzen direnean, zergaldi horri egotziko zaizkio; hala denean, autolikidazio osagarria egingo da, eta ez da egongo ez berandutze korriturik ez errekarurik. Aurreko a) letran ezarritako inguruabarrak gertatzen direnean, etekinak epailearen ebazpena irmo bihurtzen den zergaldian eskatu ahal izango dira.

Aurreko paragrafoan aipatzen den autolikidazioa aipaturiko etekinak jasotzen diren egunetik zerga honen hurrengo autolikidazioa egiteko epealdia amaitu arteko aldiari aurkeztu behar da.

c) Lan arautegiarekin bat etorritik langabezia prestazioagatik ordainketa bakarrean kobratzen den dirua ordainketa bakarra jaso ezean prestazioa jaso ahal izango zuen zergaldietan egotzi ahal izango du.

Egozketa ordainketa bakarra jaso ezean zergaldi bakoitzean prestazioa jasotzeko eskubidea edukiko zuen aldiaren proportzioan egingo da.

d) Egiten duten jarduera ekonomikoaren etekin garbia kalkulatzeko zuzeneko zenbatespen erraztua erabiltzen duten zergadunek kobrantza eta ordainketen irizpidea hautatu ahal izango dute jarduera horren sarreren eta gastuen aldi egozketarako, ondokoak betez gero:

Lehenengoa. Inolaz ere ez da aldatu behar sarreren edo gastuen zerga kalifikazioa.

Bigarrena. Aldi egozketari buruzko irizpidearen aldaketak inolaz ere ez du ekarri behar gasturen edo sarreren bat konputatu gabe geratzea; egozketari buruzko irizpidea aldatu aurretik erregularizazio egokia egin behar da.

Hirugarrena. Egozketarako irizpidea bat bera izan behar da aplikatzen zaion jarduera ekonomikoaren sarrera eta gastu guztietarako.

Sarreren eta gastuen aldi egozketarako aplikatuko den kobrantzen eta ordainketen irizpidea Zerga Administrazioak onartutzat joko da ondorioak sortu behar dituen ekitaldiko autolikidazioa aurkeztean adieraziz gero, besterik gabe; irizpidea hiru urtean aplikatu behar da gutxienez.

e) Epeka edo prezio geroratuarekin egindako eragiketen kasuan, zergapekoak eragiketa horien bidez lortutako errentak modu proportzionalan egotzi ahal izango ditu kobrantzak eskatu ahala.

Eragiketarako epeka edo prezio geroratuarekin egintzat joko dira prezio osoa edo zati bat ondoz ondoko ordainketetan jasoz gero; horretarako ezinbestekoa da ondasuna eman denetik azken epealdiaren mugaegunera arteko aldia urtebete baino luzeagoa izatea.

Epeka edo prezio geroratuarekin egindako eragiketa baten prezio osoa edo zati bat kanbio efektuak jaulkiz ordaindu bada eta efektu horiek mugaeguna baino lehen irmo eskualdatu badira, errenta eskualdaketa egin den zergaldiari egotzi behar zaio.

Biziarteko eta aldi baterako kontratuen ondoriozko eragiketek ez dute inoiz tratamendu hori edukiko eskualdatzailearentzat. Ondasunak eta eskubideak biziarteko edo aldi baterako errenta baten truke eskualdatzen badira, errentadunaren ondareko irabazia edo galera errenta eratu den zergaldiari egotziko zaio.

f) Dibisa edo atzerriko moneten saldoen kontuetan kotizazio gorabeheren eraginez gertatzen diren diferentzia positiboak edo negatiboak egin den ordainketa edo kobratu den uneko zergaldiari egotziko zaizkio.

g) Foru arau honetako 7. artikuluan aipatzen diren errenta zenbatetsiak sortzen diren zergaldiari egotziko zaizkio.

h) (29) Aseguru hartzaileak inbertsioaren arriskua bereganatzen duen aseguru kontratuetan haxe izango da egotzi beharreko kapital higigarriaren zergaldiko etekina, foru arau honetako 36. artikuluan aipatzen dena: polizari atxikitako aktiboek zergaldi hasieran duten likidazio balioaren eta zergaldi amaieran dutenaren arteko diferentzia. Egotzitako zenbatekoak kontratu horien ondoriozko diru kopuruen etekina murriztuko du.

Arau berezi hau ezin da aplikatu honako inguruabar hauetako bat gertatzen den kontratuen errenten aldi egozketarako:

a) Hartzaileari polizari lotutako inbertsioak aldatzeko ahalmena ez ematea.

b) Hornidura matematikoak honako hauetan inbertitzea:

Lehenengoa: Inbertsio kolektiboko entitateen akzioak edo partaidetzak, kontratuetan aurrez zehaztuak, betiere inbertsio kolektiboko entitateak badira, Inbertsio Kolektiboko Erakundeei buruzko azaroaren 4ko 35/2003 Legea egokituak edo Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2009ko uztailaren 13ko 2009/65/EEE Zuzentarauak babestutakoak.

Bigarrena: Aseguru entitatearen balantzean berezita islatutako aktibo multzoak, betiere honako baldintza hauek betetzen badira:

1. Banan agerrarazitako aktibo multzo bakoitzeko aktiboak aseguru entitateak zehaztu beharko ditu beti. Horretarako aseguru entitateak erabateko askatasuna edukiko du aktiboak hautatzeko, soil-soilik aktibo multzoaren arriskuei buruzko alde aurretiko irizpide orokorreari edo beste inguruabar objektibo batzuei loturik.

2. Aktibo multzo bakoitzeko inbertsioak entitate aseguratzailerik eta berraseguratzailerik antolamendu, ikuskaritza eta kaudimenari buruzko azaroaren 20ko 1060/2015 Errege Dekretuak ezarritako arauak betetzen dituzten aktiboetan egin behar dira. Inola ere ezingo dira izan ondasun higiezinak edo higiezinen eskubide errealak.

Dena den, aktibo multzoek baldintza horiek betetzen dituztela ulertu behar da haien helburua denean Europako Batasuneko bigarren mailako balore merkatu ofizial batean burtsako edo errenta finkoko indize jakin bat erreproduzitzera zuzenduta dagoen inbertsio politika bat garatzea.

Hartzaileak aktibo multzo berezien artean aseguru zuzkidura automatikoa zeinetan inbertitu behar den hautatu ahal izango du, besterik gabe; hots, ez du izango hautatzen duen multzo bakoitzeko aktiboak hautatzerik

Kontratu hauetan hartzaileak eta aseguratuak kontratuetan berariaz ezarritako talde inbertsioko entitateen edo aktibo multzo berezien artean hautatu ahal izango du polizan jasotako zehaztapenei jarraiki, eta inolaz ere ezin izango da berezitasun singularrik ezarri hartzaile edo aseguratu bakoitzarentzat.

h) letra honetan aipatzen diren baldintzak kontratuaren indarraldi osoan bete behar dira.

i) Kapital higiezinaren etekinak kobrantzen diren zergaldiari egotziko zaizkio.

j) [\(4\)](#) Kreditu mugaeguneratu eta kobratu gabeen ondoriozko ondare galerak egotzi ahal izango zaizkio inguruabar hauetakoren bat barnean duen zergaldiari:

1. Eraginkor bihurtzea honako hauetakoren batean ezarritako kita bat: uztailaren 9ko 22/2003 Konkurtso Legearen 71 bis artikuluan eta laugarren xedapen gehigarrian aipatutako judizialki homologagarria den birfinantzaketa akordio batean; edo lege horretako X. tituluan aipatutako ordainketen akordio estrajudizial batean.

2. Zorduna konkurtso egoeran dagoela, eraginkor bihurtzea kredituaren zenbatekoan kita bat egitea adosten duen hitzarmena, uztailaren 9ko 22/2003 Konkurtso Legeak 133. artikuluan xedatutakoarekin bat; halakoetan, kitaren zenbatekoa izango du galerak.

Bestelakoetan, konkurtso prozedura amaitzea eta artean oraindik ordaindu gabe egotea kreditua, baldin eta ez bada adosten konkurtsoa amaitzea uztailaren 9ko 22/2003 Konkurtso Legeak 176.1 artikuluko 1., 4. eta 5. zenbakietan aipatutako kausak direla eta.

3. Urtebeteko epea igarotzea konkurtsokoa ez den prozedura judizial bat hasi zenetik eta prozedura horrek xede izatea kreditua gauzatzea kreditu hori artean ordaindu gabe dagoela.

Baldin kreditua j) letran aipatutako ondare galera zenbatu ondoren kobratu bada, ondare irabazi bat egotziko da kobratutako zenbatekoan kobrantza hori gertatu den zergaldian.

k) [\(5\)](#) [\(20\)](#) Laguntza publikoetatik eratorritako ondare irabaziak kobratzen diren zergaldian zenbatuko dira, l) letran aurreikusitako aukera gorabehera.

l) [\(20\)](#) Espainiako Landa Garapenerako Esparru Nazionalean nekazari gazteen lehen instalaziorako aurreikusitako laguntza publikoak, baldin eta nekazaritzako sozietate enpresen kapitaleko partaidetza eskuratzeko erabiltzen badira, lau zatitan egotzi ahal izango dira: laurden bat jasotzen diren zergaldian eta laurden bana hurrengo hiruretan.

3. [\(16\)](#) (17) Pertsona bat atzerrira badoa bizitzera eta ondorioz zergaduna izateari uzten badio, egotzi gabeko errentak aurreko egoitza dagoen lurraldean aurkeztu behar duen azken aitortpenaren zergaldiko zerga oinarrian integratu behar dira, arautegian ezarrita dagoen bezala; beharrezkoa izanez gero, autolikidazio osagarria egingo da, eta ez zaio ezarriko zehapenik, ez berandutze interesik, ez errekargurik.

Zergadunak Europar Batasuneko beste herrialde batera aldatzen badu egoitza edo Espainiarekin edota Europar Batasunarekin zerga kredituak kobratzeko elkarri laguntza emateko hitzarmena izenpetu duen Europako Esparru Ekonomikoko beste herrialde batera, baldin eta hitzarmen hori zerga, eskubide eta beste neurri jakin batzuei dagozkien kredituak kobratzeko elkarri laguntza emateari buruzko Kontseiluaren 2010eko martxoaren 16ko 2010/24/EB Zuzentarauan aurreikusitakoaren parekoa bada, zergadunak bi aukera izango ditu: errentak aurreko paragrafoan xedatzen denaren arabera egotzi, edo, bestela, egotzi beharreko errenta bakoitza lortu ahala azken zergaldiko autolikidazio osagarria egin (ez dago zehapenik, ez berandutze interesik, ez interesik). Autolikidazioa epealdi honetan aurkeztu behar da: zergaduna izateari utzi ezean errentak egotzi beharko ziren zergaldiko aitortpena aurkezteko epealdian.

4. Zergaduna hilez gero, egozteko dauden errenta guztiak aitortu beharreko azken zergaldiko zerga-oinarrian integratu behar dira.

## **VIII. KAPITULUA BALORAZIORAKO ARAU BEREZIAK**

### **58. artikulua. Zenbatetsitako errenten balorazioa.**

1. Foru arau honetako 7. artikuluan aipatzen diren zenbatetsitako errentak merkatuko balio normalaren arabera baloratuko dira; merkatuko balio normala norbanako lokabeek hitzartuko luketena izango da, kontrako probarik ezean.

2. Maileguen eta, oro har, besteen kapitalak erakartzeko edo erabiltzeko eragiketen errenten kasuan, merkatuko balio normala zergaldiko azken egunean indarrean dagoen diruaren legezko korritu tasaren arabera izango da.

3. Zergadunak bere jarduera ekonomikoko ondasunak, eskubideak edo zerbitzuak dohain lagatzen edo mailegatzen baditu edo berak kontsumitzen edo erabiltzen baditu, jardueraren etekin garbia kalkulatzeko ondasun, eskubide edo zerbitzuek merkatuan duten balio normala hartuko da aintzat.

Halaber, kontraprestazioa dagoenean eta ondasun, eskubide edo zerbitzuek merkatuan duten balio normala baino askoz gutxiago denean, merkatuko balioa hartuko da aintzat.

4. Zerga Administrazioak dauzkan datuen arabera zergadun batek bere ondasun higiezin bat errentan edo azpierrentan eman badu edo hura erabiltzeko eta gozatzeko eskubideak edo ahalmenak laga baditu eta ez baditu sartu etekinak autolikidazioan, kapital higiezinaren etekin garbia higiezinaren balioaren ehuneko 5 izango da, Ondarearen gaineko Zergari buruzko Foru Arauan ezarritakoarekin bat etorriz, ondoko kasuan izan ezik: ondasun higiezinaren edo haren gaineko eskubide errealaren eskuratzailerak, lagapen-hartzailea, errentaria edo azpierrentaria zergadunaren ezkontidea, izatezko bikoteko kidea edo ahaidea (hirugarren gradurainokoa, ezkontza bidezkoak barne) izatea.

#### **59. artikulua. Lotutako eragiketak.**

Lotutako pertsona edo erakundeen arteko eragiketen errenten balorazioa merkatuko balio normala izango da, Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 42. artikuluan ezarritakoaren arabera.

#### **60. artikulua. Gauzazko errentak.**

1. Oro har, gauzazko errenten balorazioa merkatuko balio normala izango da; balio hori inolaz ere ezin da izan ordaintzaileak jasandako kostua (zergak eta gastuak barne) baino gutxiago.

2. Lanaren gauzazko etekinak baloratzeko arau berezi hauek aplikatuko dira:

a) Ordaintzailearen etxebizitza erabiltzen bada, ondasun higiezinaren katastroko balioari ehuneko 3 aplikatzearen emaitza.

Zerga sortu den egunean higiezinak katastroko baliorik eduki ez badu edo balioa titularrari jakinarazi ez bazaio, haren ordezkari handienaren ehuneko 50 hartuko da: Administrazioak beste zerga baterako egiaztatu edo finkatutako balioa edo eskuraketaren prezioa, kontraprestazioa edo balioa.

Ordaintzailearena ez den etxebizitza bat erabiltzen den kasuetan gauzazko etekina hark jasaten duen kostua izango da (zergak eta gastuak barne); kopuru hori ezin da izan aurreko paragrafoetan xedatutakoa aplikatzearen emaitza baino gutxiago.

Gainera, ordaintzaileak etxebizitzaren erabilerak eragiten dituen gastuak ordaintzen baditu (uraren, gasaren eta elektrizitatearen kontsumoak eta etxebizitzarekin dakartzan gainerako gastu guztiak), gauzazko etekinaren balorazioa ordaintzaileak jasandako kostua izango da.

b) Ordaintzailearen turismo automobila (atoi eta guzti), ziklomotorra, motozikleta, kiroleko edo zabalaldirako itsasontzia edo aireontzia erabili edo eman gero:

- Ondasuna ematen bada, ordaintzaileak hura eskuratzeko jasandako kostua, eragiketaren gaineko zergak barne.

- Ondasuna erabiltzen bada, aurreko paragrafoan aipatzen den kostuaren ehuneko 20 urtean.

- Lehenbizi erabili eta gero ematen bada, ematearen baloraziorako kontuan hartuko da aurreko erabileraren balorazioa.

Ordaintzailearena ez den garraio gailu bat erabiliz gero, hark jasaten duen kostua, zergak eta gastuak barne.

Aurreko kasu guztietan, baldin eta ordaintzaileak ibilgailuaren berezko gastuak ordaintzen baditu (konponketak, erregaia, aparkatzeko zerbitzua eta bidesariak), gauzazko etekinaren zenbatekoa hark jasandako kostua izango da.

Ibilgailua lanerako eta helburu partikularretarako erabiltzen bada, gauzazko ordainsaria letra honetan ezarritako arau guztien araberrako balorazioaren ehuneko 50 izango da.

c) Diruaren legezko korritu tasa baino tasa baxuagoarekin ematen diren maileguen kasuan, gauzazko etekinaren balorazioa ordaindutako korrituen eta zergaldian indarrean egon den diruaren legezko korrituen arteko diferentzia izango da.

d) Ondoko errenten kasuan, ordaintzaileak jasandako gastua, eragiketaren gaineko zergak barne:

- Mantenu, ostatu, bidaia eta antzekoengatik jasotako prestazioak.

- Aseguru kontratuengatik edo antzeko beste batzuegatik ordaintzen diren primak edo kuota, foru arau honetako 17. artikuluko 2. idatz zatiko e) eta f) letretan xedatutakoa gorabehera.

- Zergadunaren, beraren ezkontidearen edo izatezko bikotekidearen edo berarekin ahaidetasunaz lotutako pertsonen (ezkontzaren edo izatezko bikotearen eraketaren ondoriozkoak barne) ikasketa gastuak eta mantenu gastuak ordaintzeko erabiltzen diren kopuruak, foru arau honetako 17. artikuluko 2. idatz zatiko c) letran ezarritakoa gorabehera.

e) (20) Beren zenbateko osoan, borondatezko gizarte aurreikuspeneko erakundeetako bazkide babesleek eta pentsio planen sustatzaileek ordaindutako kontribuzioak, eta enpleguko pentsio funtsen jardueri eta ikuskapenari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren abenduaren 14ko 2016/2341 (EB) Zuzentarauan araututako enpresa sustatzaileek ordaindutako kontribuzioak, bai eta enpresaburuek pentsioengatik konpromisoei aurre egiteko ordaindutako zenbatekoak ere, Pentsio Plan eta Funtsak arautzen dituen Legearen testu bateginaren lehenengo xedapen gehigarrian eta legea garatzen duen araudian ezarritakoarekin bat etorritik. Eta enpresaburuek mendetasun aseguruengatik ordaintzen dituzten kopuruak ere bai.

Aurreko letretan ezarritakoa gorabehera, lanaren etekina gauzazkoa denean eta ohiko jardueratzat gauza hori sortzea duen enpresa batek ematen duenean, balorazioa ezin da izan ondasuna, eskubidea edo zerbitzua jendearentzat daukan prezioa baino gutxiago.

Jendearentzako prezioa Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Estatutuari buruzko abenduaren 22ko 6/2003 Legeko 15. artikuluan ezarri da (ohiko deskontuak kendu behar zaizkio). Deskontu arrunt edo ohikotzat hartuko dira enpresako langileekin



pareka daitezkeen beste talde batzuei eskainitako deskontuak, bai eta gauza bidezko ordainketa egitean indarrean dauden promozio deskontu orokorrak nahiz, bestela, ehuneko 15 edo urteko 1.000 euro gainditzen ez dutenak.

3. Jarduera ekonomikoek sortzen dituzten gauzako errentak baloratzeko Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauan xedatutakoa aplikatuko da.

4. Ondareko gauzako irabaziak foru arau honetako 44. eta 47. artikuluen arabera baloratuko dira.

5. Gauzako errentak zerga oinarrian integratzeko, aurreko arauen aplikazioaren emaitzako balioari konturako sarrera gehitu behar zaio, errenta jaso duenari jasanari ez bazaio.

## **IX. KAPITULUA ERRENTA MOTAK**

### **61. artikulua. Errenta motak.**

Zergaren karga kalkulatzeko zergadunaren errentak honela sailkatzen dira: alde batetik errenta orokorra eta beste batetik aurrezkiaren errenta.

### **62. artikulua. Errenta orokorra.**

Honako hauek sartu behar dira errenta orokorrean: hurrengo artikuluan xedatutakoaren arabera aurrezkiaren errentakoak ez diren etekinak eta ondareko irabaziak eta galerak, bai eta foru arau honetako 51. eta 52. artikuluetan eta Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauko VI. tituluko III. kapituluan aipatzen diren errenta egozketak ere.

### **63. artikulua. Aurrezkiaren errenta.**

Aurrezkiaren errentan sartu behar dira:

a) Foru arau honetako 32. artikuluko 1. idatz zatian aipatzen diren etxebizitzek sortzen dituzten kapital higiezinaren etekinak.

b) [\(24\)](#) Foru arau honen 34., 35. eta 36. artikuluetan ezartzen diren kapital higigarriaren etekinak. Hala ere, erregelamendu bidez ezartzen diren kasuetan izan ezik, 35. artikuluan arautzen diren kapital higigarriaren etekinak, zergadunarekin lotutako entitateetatik datozenak, errenta orokorraren parte izango dira, Sozietateen Gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 42. artikulua eta foru arau honen 54. artikulua hiru hirugarren paragrafoan ezartzen den bezala.

c) Ondare elementuak eskualdatuta sortzen diren ondare irabaziak eta ondare galerak.

## **X. KAPITULUA ERRENTEN INTEGRAZIOA ETA KONPENTSAZIOA**

### **64. artikulua. Errenten integrazioa eta konpentsazioa.**

1. Zerga oinarria kalkulatzeko zergadunaren errenten zenbateko positiboak edo negatiboak integratu eta konpentsatuko dira foru arau honetan ezarritakoaren arabera.

2. Errentaren sailkapena kontuan hartuta, zerga oinarrian bi zati daude:

Zerga oinarri orokorra.

Aurrezkiaren zerga oinarria.

### **65. artikulua. Errenten integrazioa eta konpentsazioa zerga oinarri orokorrean.**

Zerga oinarri orokorra saldo hauen batura da:

a) Foru arau honetako 62. artikuluan aipatzen diren etekinak (jarduera ekonomikoenak ez beste guztiak) eta errenta egozketak, zergaldi batekoak, euren artean inolako mugarik gabe integratuta eta konpentsatuta sortzen den saldoa.

b) [\(10\)](#) Jarduera ekonomikoen zergaldi bateko etekinak euren artean inolako mugarik gabe integratuta eta konpentsatuta sortzen den saldoa. Eraitza saldo negatiboa bada, jarduera ekonomikoak hurrengo hogeita hamar urteetan sortzen duen saldo positiboarekin konpentsatuko da, Sozietateen gaineko zergaren Foru Arauko 55. artikuluan ezartzen denarekin bat etorriz.

[\(16\)](#)

c) Zergaldiko ondareko irabaziak eta galerak (hurrengo artikuluan aipatzen direnak ez beste guztiak) euren artean integratuta eta konpentsatuta sortzen den saldo positiboa.

Letra honetan aipatzen den integrazioaren eta konpentsazioaren eraitza saldo negatiboa bada, horren zenbatekoa artikuluko honetako a) eta b) letretan ezarritako errenten baturaren saldo positiboarekin konpentsatu behar da, hau da, zergaldi berean lortutako saldo positiboarekin (muga: saldo horren ehuneko 10).

Kompentsazioaren ondoko saldoa negatiboa bada, kopurua hurrengo lau urteetan zehar konpentsatuko da artikuluko honetako aurreko letretan ezarritako hurrenkeran.

Ondoko ekitaldi bakoitzean gehieneko kopurua konpentsatu beharko da, betiere lau urteko epealdiaren barruan, aurreko ekitaldietako ondare galerekin metatuz.

### **66. artikulua. Errenten integrazioa eta konpentsazioa aurrezkiaren zerga oinarrian.**

1. Aurrezkiaren zerga oinarria honako saldo hauek batuz ateratzen den saldo positiboa da:

a) Foru arau honetako 63. artikuluko a) eta b) letretan aipatzen diren etekinak, zergaldi batekoak, euren artean integratuta eta konpentsatuta sortzen den saldoa.

Letra honetan aipatzen den integrazioaren eta konpentsazioaren emaitza saldo negatiboa bada, zenbateko hori letra honetan aipatzen diren etekinetatik ondoko lau urteetan agerian jartzen direnen saldo positiboarekin soilik konpentsatu ahal ezingo da.

b) Foru arau honetako 63. artikuluko c) letran aipatzen diren ondareko irabaziak eta galerak, zergaldi batekoak, euren artean integratuta eta konpentsatuta sortzen den saldoa.

Letra honetan aipatzen den integrazioaren eta konpentsazioaren emaitza saldo negatiboa bada, zenbateko hori letra honetan aipatzen diren irabazi-galeretatik ondoko lau urteetan agerian jartzen direnen saldo positiboarekin soilik konpentsatu ahal ezingo da.

**2.** Aurreko apartatuan jasotako konpentsazioak ondorengo ekitaldietako bakoitzak baimentzen duen kopuru gehienekoan egingo dira eta, bide batez, aurreko apartatuan aipatzen den lau urteko epearen barruan egin beharko da, ondorengo ekitaldietan errenta negatiboak bailiran jasoz.

Behar den kasuetan zergadunak agiri bidez frogatu beharko ditu konpentsatu nahi dituen saldo negatiboen sorburuak eta kopuruak, sortu diren ekitaldia gorabehera.

## **V. TITULUA LIKIDAZIO OINARRIA**

### **67. artikulua. Likidazio-oinarria: orokorra eta aurrezkiarena.**

**1.** Likidazio oinarriak bi osagai dauzka: likidazio oinarri orokorra eta aurrezkiaren likidazio oinarria.

**2.** Likidazio oinarria kalkulatzeko ondoko murrizketa hauek aplikatu behar dira zerga oinarri orokorrean (hauexek soilik eta hemen azaldutako hurrenkeran):

Lehenengoa. Konpentsazio pentsioengatik eta urteko mantenuagatik egiten diren murrizketak.

Bigarrena. Gizarte aurreikuspeneko sistemetara egindako ekarpenengatik eta kontribuzioengatik aplikatzen den murrizketa.

Hirugarrena. Zerga batera ordaintzeagatik aplikatzen den murrizketa.

Idatz zati honetan aipatzen diren murrizketen aplikazioak ezin du ekarri likidazio oinarria orokorra negatiboa izatea, ez eta hura gehitu ere.

**3.** Aurrezkiaren likidazio oinarria kalkulatzeko eragiketa hau egin behar da: aurrezkiaren zerga oinarritik 69. artikuluan ezarritako murrizketaren ondoko gerakina kendu behar da, egonez gero. Honen emaitza ezin da izan negatiboa.

## **68. artikulua. Likidazio oinarri orokor negatiboen konpentsazioa.**

Likidazio oinarri orokorra negatiboa bada, hurrengo lau urteetako likidazio oinarri orokor positiboekin konpentsatu daiteke.

Kompentsazioa epealdi horretan egin behar da hurrengo ekitaldietako likidazio oinarri orokor negatiboekin pilatuta; ekitaldi bakoitzean gehieneko kopurua aplikatu behar da eta lau urteko epealdia amaitutakoan ezin da aplikatu konpentsaziorik.

Behar denean, zergadunak agiri bidez frogatu beharko du zein ekitalditakoak diren eta zenbatekoak diren konpentsatu nahi dituen likidazio oinarri orokor negatiboak (sortu diren ekitaldia gorabehera).

## **69. artikulua. Kompentsazio pentsioengatik eta mantenerako urtekoengatik aplikatzen diren murrizketak.**

Zerga oinarri orokorrari eta, behar denean, aurrezkiaren zerga oinarriari murrizketa hauek aplikatuko zaizkie, foru arau honek 67. artikuluan ezarri den bezala: epailearen aginduz ezkontidearen edo izatezko bikotekidearen alde emandako konpentsazio pentsioak eta urteko mantenerako urteko kopurua, zergadunaren seme-alabei ordaindutakoak izan ezik.

Kompentsazio pentsioa edo mantenerako urteko kopurua ordaintzen duena haren jasotzailearekin bizi bada, murrizketa hau ezin da aplikatu.

## **70. artikulua. Gizarte aurreikuspeneko sistemetara egiten diren ekarpen eta kontribuzioengatik aplikatzen diren murrizketak.**

1. Zerga oinarri orokorretik ken daitezke gizarte aurreikuspeneko sistemetara egiten diren ekarpen eta kontribuzio hauek:

1. Borondatezko gizarte aurreikuspeneko entitateetako bazkideek egindako ekarpenak, baldin eta beren xedea Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Entitateen otsailaren 23ko 5/2012 Legeak 24. artikuluko 1. apartatuan aipatzen dituen kontingentziak eta bazkide langileen langabezia estaltzea bada (lanaren etekin gisa egotzi zaizkien bazkide babesleen kontribuzioak ere bai).

2. Pentsio planen partaideek egindako ekarpenak, bai eta sustatzaileak egin eta partaideei lanaren etekin gisa egotzi zaizkien kontribuzioak ere.

3. [\(20\)](#) Enpleguko pentsio funtsen jardueri eta ikuskapenari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren abenduaren 14ko 2016/2341 (EB) Zuzentarauan araututako pentsio planetara partaideek egindako ekarpenak, enpresa sustatzaileek egindako kontribuzioak barne, betekizun hauek betez gero:

a) Zergei dagokienez, kontribuzioak prestazioa jasoko duen partaideari egotzi behar zaizkio.

b) Partaideari etorkizuneko prestazioa hartzeko eskubidea era ezeztazinean eskualdatu behar zaio.

c) Partaideari eskualdatu behar zaio kontribuzioaren baliabideen titulartasuna.

d) Azaroaren 29ko 1/2002 Legegintzako Errege Dekretuak onetsitako Pentsio Plan eta Funtsei buruzko Legearen Testu Bategineko 8.6 artikuluan ezarritako kontingentziak estali behar dira.

4. Gizarte aurreikuspeneko mutualitateetara egindako ekarpenak, betekizun hauek betez gero:

a) Betekizun subjektiboak:

1go. Gizarte Segurantzako araubide batean integraturik ez dauden profesionalak, beraien ezkontideek edo izatezko bikotekideek eta lehen mailako ahaide odolkideek edo lehen aipatutako mutualitateetako langileek gizarte aurreikuspeneko mutualitateekin kontraturiko aseguruengatik ordaindu dituzten kopuruak, hain zuzen ere azaroaren 29ko 1/2002 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Pentsio Plan eta Funtsei buruzko Legearen testu bategineko 8. artikuluko 6. idatz zatian araututako kontingentziak estaltzen dituen zatia, baldin eta gastu kengarritzat hartu ez badira jarduera ekonomikoen etekin garbiak foru arau honetako 27. artikuluko 1. arauko bigarren paragrafoan ezarritakoaren arabera kalkulatzear.

2gn. Gizarte Segurantzako araubideetako batean integratuta dauden profesionalak edo banako enpresariak, haien ezkontide edo izatezko bikotekideek, lehen graduko ahaide odolkideek eta mutualitateetako langileek gizarte aurreikuspeneko mutualitateekin hitzartutako aseguru kontratuen arabera ordaindutako kopuruak, azaroaren 29ko 1/2002 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Pentsio Plan eta Funtsei buruzko Legeko 8. artikuluko 6. idatz zatian ezarritako kontingentzien ondorioak estaltzeko diren heinean.

3gn. Besteren konturako langileek edo bazkide langileek gizarte aurreikuspeneko mutualitateekin hitzartutako aseguru kontratuen arabera ordaindutako kopuruak, are sustatzaileek haien alde lanaren etekin gisa egotzitakoak ere, baldin eta azaroaren 29ko 1/2002 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Pentsio Plan eta Fondeoi buruzko Legeko lehenengo xedapen gehigarrian ezarritakoarekin bat etorritik egiten badira bazkide langileen langabezia estaltzeko.

b) (29) Azaroaren 29ko 1/2002 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Pentsio Plan eta Funtsei buruzko Legearen testu bategineko 8. artikuluko 8. apartatuan pentsio planei dagokienez jasotako kasuetan bakarrik gauzatu ahal izango dira mutualisten eskubide kontsolidatuak.

5. Bermatutako aurreikuspen planei ordaindutako primak. Bermatutako aurreikuspen planak aseguru kontratuak dira eta hauexek dira beraien betekizunak:

a) Zergaduna izan behar da aseguru hartzailea, aseguraturia eta aseguruaren onuraduna. Nolanahi ere, haren heriotzak prestazioa jasotzeko eskubidea ekar dezake, azaroaren 29ko 1/2002 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Pentsio Plan eta Funtsei buruzko Legearen testu bateginean ezarri den bezala.

b) Azaroaren 29ko 1/2002 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Pentsio Plan eta Funtsei buruzko Legearen testu bategineko 8. artikuluko 6. idatz zatian ezarritako kontingentziak baizik ez dira estali behar, eta estalduraren xede nagusia erretiroa izan behar da. Kontratu hauetan, kopuruak Legearen testu bategineko 8. artikuluko 8. idatz zatian ezarritako kasuetan soilik baliatu ahal izango dira aldez aurretik. Kontratu horietan ez da aplikatuko Aseguru Kontratuei buruzko urriaren 8ko 50/1980 Legeko 97. eta 99. artikuluetan xedatutakoa.

c) Korrituak bermatu behar dira eta teknika aktuarialak erabili behar dira.

d) Polizaren baldintzetan berariaz eta modu nabarmenean agertu behar da bermatutako aurreikuspen plana dela.

e) [\(5\)](#) Erregelamendu bidez ezarriko dira hornidura matematikoa beste aurreikuspen plan aseguratu batera aldatzeko betekizunak eta baldintzak.

Foru arau honetan eta araua garatzeko arauetan berariaz erregulatuta ez dauden alderdietan, kontratu horien ekarpen, kontingentzia eta prestazioen araubidea pentsio-planen arautegi erregulatzailaren arabera izango da, salbu hornidura teknikoan alderdi finantzario eta aktuarialan. Bereziki, bermatutako aurreikuspen planen eskubideak ezin dira bahitu eta ezin zaie ezarri epai edo administrazio trabarik harik eta prestaziorako eskubidea sortu arte edo eskubideok, gaixotasun larria edo langabezialdi luzea dela eta baliatu arte, edo gutxienez hamar urteko antzintasunez ordaindutako hobariei badagozkie.

6. Langileek azaroaren 29ko 1/2002 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Pentsio Plan eta Funtsei buruzko Legearen testu bategineko lehenengo xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera enpresen gizarte aurreikuspeneko planetarako egin dituzten ekarpenak, hartzailearen kontribuzioak barne. Enpresen gizarte aurreikuspeneko planek ondokoak bete behar dituzte nahitaez:

a) Honelako aseguru kontratuetan bereizketarik ezaren, kapitalizazioaren, ekarpenen ezeztazintasunaren eta eskubide egozketaren printzipioak aplikatuko dira, azaroaren 29ko 1/2002 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Pentsio Plan eta Funtsei buruzko Legearen testu bategineko 5. artikuluko 1. zenbakian ezarritakoak.

b) Polizak zehaztuko ditu hartzaileak gizarte aurreikuspeneko plana betetzeko ordaindu beharko dituen primak; primak aseguratuak egotziko zaizkie.

c) Polizaren baldintzetan berariaz eta modu nabarmenean agertu behar da enpresaren gizarte aurreikuspeneko plana dela.

d) Hornidura automatikoa mora bereko beste aurreikuspen plan batera eramateko betekizunak eta baldintzak arau bidez ezarriko dira.

e) Aurreko 5. zenbakiko b) eta c) letretan xedatutakoa.

Foru arau honetan eta berau garatzen duten arauetan berariaz arautzen ez diren kasuetan aurreko 5. zenbakiko azken paragrafoan xedatutakoa aplikatuko da.

7. Mendetasun larriaren edo mendetasun handiaren arriskua bakarrik estaltzen duten aseguru pribatuei ordaindutako primak, autonomia pertsonala sustatzeko eta mendetasunean dauden pertsoneri laguntza emateko abenduaren 14ko 39/2006 Legean xedatutakoaren arabera.

(29) Halaber, zergadunarekin zuzeneko edo alboko lerroko ahaidetasun harremana (laugarren gradurainokoa, hori barne) duten pertsonak, edo haren ezkontideak edo izatezko bikotekideak, edo haren kargura tutoretza edo harrera erregimenean dauden pertsonak, edo hari dagokionez ordezkaritza ahalmena duen kuradoretza egiten dutenek aseguru horiei ordaindutako primak murriztu ahal izango dituzte beren zerga oinarri orokorrean, foru arau honen hurrengo artikuluan ezarritako murrizketa muga kontuan hartuta.

Zergadun berarentzat primak ordaintzen dituzten pertsona guztiek urtean aplikatutako murrizketen batura ezin da izan 5.000 euro baino gehiago, zergadunarenak berarenak barne.

Zergadun batentzat hainbat prima ordaintzen direnean, lehenengo eta behin zergadunak berak ordaindutako primen murrizketa aplikatu behar da; gero, lehen murrizketa 5.000 eurotik gorakoa ez bada, beste pertsona batzuek haren alde ordaindutako primei dagokien murrizketa aplikatu ahal izango dute euren zerga oinarri orokorrean, behar den proportzioan.

Prima horiek ez daude Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergaren kargapean.

Aseguru kontratuak aurreko 5. zenbakiko a) eta c) letretan xedatutakoa bete behar du.

Foru arau honetan eta berau garatzen duten arauetan berariaz arautzen ez diren kasuetan aurreko 5. zenbakiko azken paragrafoan xedatutakoa aplikatuko da.

Mendetasuneko talde aseguru egiten bada Pentsio Planei eta Funtsei buruzko Legearen Testu Bategineko lehenengo xedapen gehigarrian ezarritakoarekin bat etorriz, aseguru hartzaile bakarria enpresa izan behar da eta langilea aseguraturua eta onuraduna izan behar da.

Idatz zati honetan ezarritakoa arau bidez garatuko da.

**2.** Aurreko idatz zatiko lehen zazpi zenbakietan ezarritako gizarte aurreikuspeneko sistemak ematen dituzten prestazioak oso-osorik daude Zergaren kargapean; inolaz ere ezin kendu izango dira murrizketa eragin ez duten ekarpen eta kontribuzioen gaindikinak.

**3.** Hurrengo artikuluan ezarritako mugen arabera aplikatzen diren murrizketak gorabehera, zergadunaren ezkontideak edo izatezko bikotekideak ez badu lortu zerga oinarri orokorrean integratu beharreko errentarik, edo urtean lortutako halako errenten zenbatekoa 8.000 euro baino gutxiago bada, zerga oinarri orokorrean ezkontidea edo izatezko bikotekidea mutualista, partaide edo bazkide den gizarte aurreikuspeneko sistemetara egindako ekarpenak direla eta; murrizketa 2.400 eurokoa izan daiteke urtean gehienez.

Ekarpen horiek ez daude Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergaren kargapean.

4. Baldin eta, pentsio plan eta funtsei buruzko araudian aurreikusitako kasuak, borondatezko edo nahitaezko baja edo gizarte aurreikuspeneko erakundearen likidazioa gertatu gabe, zergadunak artikuluko honetan aipatzen diren gizarte aurreikuspeneko sistemetan dituen eskubide sendotuak eta eskubide ekonomikoak erabiltzen baditu osorik edo zati batean, zerga oinarri orokorrean aplikatutako bidegabeko murrizketen zenbatekoa itzuli beharko du autolikidazio osagarrien bidez, berandutze korrituak gehituta. Zerga ordaintzeari dagokionez, egindako ekarpenen zenbatekoaren gainetik jasotako kopuruak (sustatzaileak egotzitako ekarpenak tartean, halakorik bada) lanaren etekintzat hartuko dira, jaso diren zergaldian.

5. Aurreko 1. eta 3. idatz zatietan aipatzen diren gizarte aurreikuspeneko sistemetara bazkidea, partaidea, mutualista edo aseguratua erretiratu ondoko zergaldia hasi ondoren egiten diren ekarpenek eta kontribuzioek ez dute murriztuko zerga oinarria.

6. Halaber, gizarte-aurreikuspeneko sistemei egindako ekarpen eta kontribuzioei dagokienez (aurreko 1. zenbakian aipatzen dira), halakoak egiten diren ekitaldi berean kapital gisako prestazioak jasotzen badira erretiroagatik edo estalitako kontingentziengatik baino beste arrazoi batzuegatik edo azaroaren 29ko 1/2002 Legegintzako Errege Dekretuko (Pentsio Plan eta Funtsei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duenak) 8. artikuluko 8. zenbakian aipatzen diren egoerengatik baino beste arrazoi batzuegatik, bada, orduan, murriztapenetan muga izango dute ekitaldian egindako ekarpenek; hain zuzen, ekitaldiko zerga-oinarrian benetan integratutako hartukizunen zenbatekoa izango da muga hori. (5)

(20) Apartatu honetan ezarritakoa ez zaie aplikatuko honako hauetara egiten diren ekarpenei eta kontribuzioei: enpleguko pentsio planak; enpresen gizarte aurreikuspeneko planak; enpleguko pentsio funtsen jardueri eta ikuskapenari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren abenduaren 14ko 2016/2341 (EB) Zuzentarauan araututako pentsio planak; gizarte aurreikuspeneko mutualitateak; laneko gizarte aurreikuspeneko erakundeak. Gainera, artikuluko honetako 3. apartatuan eta foru arau honen 72. artikuluan aipatzen diren ekarpenei ere ez zaie aplikatuko.

#### **71. artikulua. Gizarte aurreikuspeneko sistemetara egiten diren ekarpen eta kontribuzioengatik aplikatzen diren murrizketen mugak.**

1. Berriazko araudian jasotako muga finantzarioak eragotzi gabe, gizarte aurreikuspeneko sistemetara egiten diren ekarpen eta kontribuzioengatik aplikatzen diren murrizketek muga hauek edukiko dituzte:

a) Partaide, mutualista eta aseguratuek aurreko artikuluan aipatzen diren gizarte aurreikuspeneko sistemetara egindako ekarpenen batura: 5.000 euro urtean.

b) Bazkide babesleek, enpleguko pentsio planen sustatzaileek (plan hauek aurreko artikuluko 1. idatz zatiko 2. eta 3. zenbakietan aipatzen dira), enpresen gizarte aurreikuspeneko tresna gisa edo enpresaren gizarte aurreikuspeneko planetan hartzaile gisa jarduten duten gizarte aurreikuspeneko mutualitateek bazkide, partaide,



aseguratu edo mutualisten alde egin eta haiei egotzitako enpresen kontribuzioen batura: 8.000 euro urtean.

Norbanako enpresaburuek gizarte aurreikuspeneko mutualitate edo erakundeetara, aurreko artikuluko 1. idatz zatiko 2. eta 3. zenbakietan aipatzen diren enpleguko pentsio planetara edo enpresen gizarte aurreikuspeneko planetara edo mendetasuneko talde aseguruetara egiten dituzten ekarpen propioak, beraiek sustatzaile eta partaide edo mutualista edo bazkide babesle edo onuradun direla, gehieneko kopuruan sartuko dira.

Borondatezko gizarte aurreikuspeneko erakundeetara egiten diren ekarpenek, aurreko paragrafoan aipatu direnek, arauz ezarritako baldintzak bete behar dituzte.

c) Idatz zati honetako aurreko letretan ezarritakoa gorabehera, eta horietan jarritako mugak errespetatuta, gizarte aurreikuspeneko sistemetara egindako ekarpenei eta kontribuzioei dagokien murrizketen muga 12.000 euro izango da urtean.

**2.** Aurreko paragrafoan jarritako mugak banaka eta independenteki aplikatuko zaizkio familia unitatean sartutako mutualista, partaide, aseguratu edo bazkide bakoitzari.

**3.** Aurreko artikulua 1. idatz zatian aipatzen diren gizarte aurreikuspeneko sistemetara egindako ekarpenak egin dituzten bazkide, partaide, mutualista edo aseguratuak aukera edukiko dute ekarpenok hurrengo bost ekitaldietan murrizteko, aipatutako muga errespetatuta, baldin eta zerga oinarri orokorrean murriztu ezin izan badira artikuluko honen 1. idatz zatiko a) letran ezarritako gehieneko muga gainditzeagatik eta murrizketa aplikatzen den ekitaldian erretiratuta ez badaude.

Modu berean jokatu daiteke bai enpresa kontribuzioen gehiegiko zenbatekoekin, haien mugari dagokionez, bai artikuluko honen 1. idatz zatiko c) letran aipatutako guztirako muga aplikagarriekin.

Ekarpenak edo kontribuzioak zerga oinarri orokorrean ezin izan direnean murriztu hori nahikoa ez izateagatik, hurrengo bost ekitaldietan murriztu ahal izango dira, baldin eta murrizketa egiten den ekitaldian bazkide, partaide, mutualista edo aseguratu erretiratuta ez badago.

Halaber, hurrengo bost ekitaldietan murriztu ahal izango dira aurreko artikulua 3. idatz zatian xedatutakoa dela bide egindako ekarpenetatik idatz zati horretan ezarritako muga gainditzeagatik zerga oinarri orokorrean murriztu ezin izan diren ekarpenak, baldin eta murrizketa egiten den ekitaldian bazkide, partaide, mutualista edo aseguratu den ezkontidea edo izatezko bikotekidea ordurako erretiratuta ez badago. Ekarpenak edo kontribuzioak zerga oinarri orokorrean ezin izan direnean murriztu hori nahikoa ez izateagatik, hurrengo bost ekitaldietan murriztu ahal izango dira, haiek gainditu gabe, baldin eta murrizketa egiten den ekitaldian bazkide, partaide, mutualista edo aseguratu den ezkontidea edo izatezko bikotekidea erretiratuta ez badago.

Erregela horiek ez zaizkie aplikatuko beren araudi finantzarioan jasotako gehieneko mugak gainditzen dituzten ekarpen eta kontribuzioei.

4. Artikulu honetan ezarritakoaren ondorioetarako, zergaldi batean enpresaren ekarpenak eta kontribuzioak pilatzen badira, lehenengo kontribuzioei dagokien murrizketa aplikatuko da eta ondoren ekarpenei dagokiena. Batera zein bestera, 1. idatz zatiko a), b) eta c) letretan ezarritako mugak aplikatuko dira.

## **72. artikulua. Pertsona desgaituen alde eraturako gizarte aurreikuspeneko sistemetara egindako ekarpenengatik aplika daitezkeen murrizketak.**

1. (29) Foru arau honen 70. artikuluan aipatzen diren gizarte aurreikuspeneko sistemetan ehuneko 65eko edo gehiagoko desgaitasun fisikoa edo sentsoriala dutenen eta ehuneko 33ko edo gehiagoko desgaitasun psikikoa dutenen alde egindako ekarpenak, baita Kode Zibilaren I. liburuaren XI. tituluan xedatutakoaren esparruan ordezkari-tza ahalmena duten eta kuradore-tzaren mende dauden pertsonen alde egindakoak ere, zerga oinarri orokorrean murriztu ahal izango dira, gehieneko muga hauekin:

a) (29) Desgaitasuna duten pertsonen alde urtean egindako ekarpenak, gehienez 8.000,00 euro ekarpena egiten duen pertsona bakoitzeko. Hori gorabehera, haiek ere beren ekarpenak egin ditzakete gizarte aurreikuspeneko sistemetara, foru arau honen 71. artikuluan ezartzen diren muga barruan.

Hauek egin ditzakete ekarpenak: desgaitasuna daukanaren ahaideek (zuzenekoek zein hirugarren gradurainoko albo lerrokoek), ezkontideak edo izatezko bikotekideak, harekin tutoretza edo harrera lotura duten pertsonak, eta hari dagokionez ordezkari-tza ahalmenarekin kuradore-tzan aritzen direnek.

Kasu horietan pertsona desgaitua onuradun bakar izendatuta egon behar da modu ezeztazinean, edozein gertakizunetarako.

Hala ere, desgaitasuna daukan pertsona hiltzen bada, gertaera horrek alarguntasun edo zurtasun prestazioetarako edo ekarpenak egin dituztenentzako eskubidea sortu ahal izango du egindako ekarpenen proportzioan.

b) Desgaituak berak urtean egindako ekarpenak: 24.250 euro gehienez.

Pertsona desgaitu baten alde urtean egindako ekarpen guztien murrizketen zenbatekoa, desgaituak egindakoak ere zenbatuta, ezin da izan 24.250 euro baino gehiago. Horretarako, urtean zehar desgaitasuna daukan pertsona baten alde ekarpen batzuk egin badira, lehenik eta behin desgaituak berak egindako ekarpenek sortuko dituzte murrizketak eta gero, aurrean ezarritako 24.250,00 euroko mugara iritsi ezean, beste pertsona batzuek euren zerga oinarrietan aplikatu ahal izango dituzte egindako ekarpenen ziozko murrizketa, modu proportzionalan. Pertsona desgaitu baten aldeko ekarpenak egiten dituzten pertsonak aplikatutako murrizketen zenbatekoa ezin da 24.250,00 euro baino gehiago.

Idatz zati honetan ezarritako mugak batera aplikatuko zaizkie pertsona desgaitu bakoitzaren alde eraturako gizarte aurreikuspeneko sistema guztiei.

2. Zerga oinarri orokorra nahikoa ez izateagatik edo aurreko idatz zatiko a) letran ezarritako mugaz gaindikoak izateagatik murrizketarik eragiten ez duten ekarpenek hurrengo bost ekitaldietan eragin ahal izango dute murrizketa.

Arau hau ez zaie aplikatuko berariazko finantza arautegian ezarritako gehieneko mugak gainditzen dituzten ekarpenei.

3. Artikulu honetan aipatzen diren ekarpenak ez daude Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergaren kargapean.

4. Desgaitasuna duten pertsonen alde eratutako gizarte aurreikuspeneko sistemei buruzko arautegian ezarrita ez dauden kasuetan, baja hartuz gero (nork bere borondatez zein behartuta) eta erakundea desegin eta likidatuz gero, prestazioak jasotzeko eta eskubide kontsolidatuak edo eskubide ekonomikoak alde baliatzeko foru arau honetako 70. artikuluko 4. idatz zatian xedatutakoa aplikatuko da

**73. artikulua. [\(9\)](#) [\(16\)](#) [\(24\)](#) [\(28\)](#) [\(29\)](#) Zerga batera ordaintzeagatik aplikatzen den murrizketa.**

1. Foru arau honen 97. eta 98. artikuluetan xedatzen denaren arabera baterako tributazioa hautatuz gero, 4.682,00 euroko murrizketa egin daiteke urteko autolikidazioko zerga oinarri orokorrean.

2. Aurreko apartatuko murrizketa 4.067,00 eurokoa izango da foru arau honetako 98. artikulua 2. apartatuan aipatzen diren familia unitateen autolikidazioan.

## **VI. TITULUA KUOTA OSOA**

**74. artikulua. Kuota osoa zer den.**

Oro har, kuota osoa kopuru hauen batura da:

- Likidazio oinarri orokorrari hurrengo artikuluko 1. idatz zatiko karga eskala aplikatzearen emaitzako kopurua. Kopuru hau foru arau honetako 77. artikuluan ezarritakoaren arabera murriztuko da; ezin da izan negatiboa.

- Aurrezkiaren likidazio oinarriari 79. artikuluko 1. idatz zatiko karga eskala aplikatzearen emaitzako kopurua.

- Bidezkoa denean, hogeigarren xedapen gehigarrian xedatutakoa aplikatzearen emaitzako kopurua.

**75. artikulua. Likidazio oinarri orokorraren eskala.**

1. [\(9\)](#) [\(16\)](#) [\(24\)](#) [\(28\)](#) [\(29\)](#) Likidazio oinarri orokorrari honako eskala honetan adierazten diren karga tasak aplikatuko zaizkio:

LIKIDAZIO OINARRI OROKORRA / GEHIENEZ (EUROAK)	KUOTA OSOA EUROAK	LIKIDAZIO OINARRIA, GAINERAKOA / GEHIENEZ (EUROAK)	KARGA TASA EHUNEKOAK
0,00	0,00	17.280,00	23,00
17.280,00	3.974,40	17.280,00	28,00
34.560,00	8.812,80	17.280,00	35,00
51.840,00	14.860,80	22.190,00	40,00
74.030,00	23.736,80	28.500,00	45,00
102.530,00	36.561,80	34.140,00	46,00
136.670,00	52.266,20	62.570,00	47,00
199.240,00	81.674,10	hortik aurrera	49,00

**2.** Batez besteko karga tasa orokorra kalkulatzeko eragiketa hau egin behar da: aurreko idatz zatian aplikatzearen emaitzako kuotaren eta likidazio oinarri orokorraren arteko zatiketa egin eta emaitza (zatidura) ehunez biderkatu. Batez besteko karga tasa orokorra bi hamartarrekin eman behar da.

**3.** Zergadunaren batez besteko karga tasa (aurreko idatz-zatian aipatutakoa) Sozietateen gaineko Zergaren oinarri orokorra baino gehiago bada, kuota osoari txikipen hau aplikatuko zaio: batez besteko karga tasaren eta Sozietateen gaineko Zergaren oinarri orokorraren arteko kenketaren emaitzako tasa jarduera ekonomikoen etekin garbi positiboaren osagai diren ondare irabazien zenbatekoari aplikatzearen emaitzako zenbatekoa.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa aplikatzeko, ondare irabazien zenbatekotik jardueraren etekin garbia kalkulatzeko kontuan hartutako ondare galeren zenbatekoa kenduko da, halakorik egon bada.

(29) Gainera, baldin eta sozietateen zergaren araudian xedatzen denaren arabera jarduera ekonomikoen aurreko urteetako saldo negatiboak konpentsatzen badira,

batez besteko karga tasa orokorraren eta sozietateen gaineko zergaren karga tasa inarri orokorraren arteko kenketaren emaitzako tasa diferentzia jarduera ekonomikoen etekin garbi positiboaren osagai diren ondare irabazien zenbatekoari aplikatzearen emaitzako zenbatekoari aplikatuko zaio.

#### **76. artikulua. Aurrezkiaren likidazio oinarriari aplikatuko zaion eskala.**

1. Aurrezkiaren likidazio oinarria ondoko eskalako tasen arabera kargatuko da:

<b>Aurrezkiaren likidazio oinarriaren zatia (euroak)</b>	<b>Karga-tasa (ehunekoa)</b>
2.500,00 arte	20,00
2.500 - 10.000,00	21,00
10.000,01 - 15.000,00	22,00
15.000,01 - 30.000,00	23,00
30.000,01 eurotik gora	25,00

2. Aurrezkiaren gaineko batez besteko karga tasa kalkulatzeko eragiketa hau egin behar da: aurreko idatz zatian aplikatzearen emaitzako kuotaren eta likidazio oinarri orokorraren arteko zatiketa egin eta emaitza (zatidura) ehunez biderkatu. Aurrezkiaren gaineko batez besteko karga tasa bi hamartarrekin eman behar da.

#### **77. artikulua. [\(9\)](#) [\(16\)](#) [\(23\)](#) [\(28\)](#) [\(29\)](#) Kuotaren murrizketa orokorra, murrizketa hutsik gelditzeko arriskuan dagoen eremuan edo herrigunean bizitzeagatik, eta aparteko murrizketa.**

1. [\(24\)](#) [\(28\)](#) [\(29\)](#) Zergadunek 1.544,00 euro kendu ahal izango dituzte kuotan, autolikidazio bakoitzean, foru arau honen 74. artikuluan ezartzen denarekin bat etorritik.

2. [\(28\)](#) [\(29\)](#) Ohiko etxebizitza foru arau honen hogeita hamalagarren xedapen gehigarrian aipatzen diren eremu edo herriguneetako batean duten zergadunek aurreko apartatuan aipatzen den murrizketa ez ezik beste bat ere egin ahal izango dute kuotan hutsik gelditzeko eremuan edo herrigunean bizitzeagatik: 107,00 euro autolikidazio bakoitzeko.

3. [\(28\)](#) [\(29\)](#) 2023ko zergaldiko autolikidazioan, zerga oinarri orokorra 30.000,00 eurokoa edo hortik beherakoa duten zergadunek artikulua honen aurreko apartatuan arabera bidezkoak diren murrizketak ez ezik beste bat aplikatu ahal izango dute kuotan: 200,00 euro autolikidazioko.

30.000,00 eta 35.000,00 euro bitarteko zerga oinarri orokorra duten zergadunen kasuan, aurreko paragrafoan aipatzen den murrizketa honako eragiketa hauen emaitza izango da autolikidazio bakoitzean: zerga oinarri orokorretik 30.000,00 euro kendu, horren emaitzako kopurua 0,04z biderkatu, eta honen emaitzako kopurua 200,00 eurotik kendu.

## **VII. TITULUA KUOTA LIKIDOA ETA KENKARIAK**

### **I. KAPITULUA KUOTA LIKIDOA**

#### **78. artikulua. Kuota likidoa zer den.**

1. Kuota likidoa kalkulatzeko kuota osoari titulu honetan ezarritako kenkariak eta foru arau honetan berariaz ezartzen diren gainerako guztiak aplikatu behar zaizkio.
2. Kuota likidoa ezin da izan negatiboa.

### **II. KAPITULUA FAMILIA KENKARIAK ETA KENKARI PERTSONALAK**

#### **79. artikulua. Ondorengo ziozko kenkaria.**

1. [\(9\)](#) [\(16\)](#) [\(24\)](#) [\(28\)](#) [\(29\)](#) Zergadunarekin bizi den ondorengo ahaide bakoitzeko kenkari hau aplikatu daitezke:
  - a) 651,00 euro urtean lehenengoagatik.
  - b) 806,00 euro urtean bigarrenagatik.
  - c) 1.359,00 euro urtean hirugarrenagatik.
  - d) 1.606,00 euro urtean laugarrenagatik.
  - e) 2.098,00 euro urtean bosgarrenagatik eta hurrengo bakoitzagatik.
2. [\(9\)](#) [\(13\)](#) [\(16\)](#) [\(24\)](#) [\(28\)](#) [\(29\)](#) Zergadunarekin bizi den sei urtetik beherako ondorengo bakoitzeko beste 376,00 euro kenduko dira urtean, aurreko zenbakiaren arabera kenkaria aplikatzeaz gainera.

Zergadunarekin bizi den sei urtetik hamasei urtera bitarteko ondorengo bakoitzeko aurreko idatz zatiaren arabera kenkaria aplikatzeaz gainera beste 60,00 euro kendu daitezke urtean. Kenkari hori ezin da bateratu aurreko paragrafoan ezarritakoekin.

**2.bis (10)** Aurreko 1. atalak aipatzen duen kenkaria ehuneko 15 handituko da zergadunak 4.000 biztanle baino gutxiago dituen Arabako udalerrri batean finkatzen badu ohiko etxebizitza. Horretarako, beharrezkoa izango da familia-unitateak udalerrri horretan jartzea bere interes-zentro nagusia; horrek esan nahi du bertan ezartzea, besteak beste, gizarte, osasun eta hezkuntza harremanak.

**3.** Ezin da aplikatu kenkaririk ondoko egoeretako batean dauden ondorengoengatik:

a) Hogeita hamar urte baino gehiago dauzkate; salbuespena: foru arau honetako 82. artikuluan ezarritako kenkaria egiteko eskubidea ematen dutenak.

b) Zergaldiko urteko errentak, salbuetsitakoak kontuan hartu gabe, lanbide arteko gutxienerako soldata baino gehiago izan dira, edo kideren batek lanbide arteko gutxienerako soldatetik gorako urteko errentak, salbuetsitakoak zenbatu gabe, lortu dituen familia unitate bateko kide dira.

c) Zergaldian zerga honen autolikidazioa aurkeztu dute edo aurkeztu behar dute.

**4. (10)** Ondorengoak gradu bereko aurreko batzuekin batera bizi badira, kenkaria hainbanatuko da eta ondorengo bakoitzari berdin egingo zaio.

Aurreko 2.bis atalean aipatutako kenkaria aplikatzeko eskubidea ondorengo guztiei ez badagokie, aurreko paragrafoan xedatutako hainbanaketa egiteko, ondorengo bakoitzak, tokatzen zaion kenkaria kalkulatzeko aldera, kontuan izango du bere egoerari dagokion zenbatekoa, aipatutako 2.bis atalean adierazitakoa aplikagarri zaion ala ez aintzat harturik.

Baldin badira ahaidetasun-gradu ezberdina duten aurrekoekin bizi diren ondorengoak, soilik izango dute kenkari honetarako eskubidea gradurik hurbilena duten aurrekoek; haien artean hainbanatu eta baliatuko dute zati berdinetan. Dagokion zergaldian, aurrekoen artean batek ere ez badu gutxienerako soldata interprofesionala baino handiagoak diren urteroko errentak lortzen, salbuetsiak barne, kenkaria gradu urrunenerako ondorengoei pasatuko da.

**5. (10)** Erabaki judizial batengatik ondorengoak ekonomikoki mantentzeko beharra izanez gero, kenkaria ondorengoaren mantentze ekonomikoaren ardura duen gurasoaren autolikidazioan egingo da, karga horrek berak bakarrik hartzen badu bere gain, edo erdibana egingo da, kontuan izanik aurreko 4. Atalaren bigarren paragrafoan adierazitakoa, guraso bakoitzaren autolikidazioan, baldin eta ondorengoaren mantentze ekonomikoa bien ardura bada. Atal honek aipatzen dituen kasuetan agintari judizial eskudunek xedatutakoaren arabera jardungo da eta aipatutako mantentze ekonomikoaren benetakotasuna eta eragingarritasuna egiaztatu behar izango da.

**6.** Artikulu honen ondorioetarako, ondorengo ahaideekin parekatuko dira adin txikikoak babesteko eskumena duen erakunde publikoaren aurrean hitzartutako tutoretza edo harrera dela eta zergadunarekin lotuta dauden pertsonak.

## **80. artikulua. Seme-alaben mantenurako urtekoak ordaintzearen ziozko kenkaria.**

1. [\(16\)](#) Epaille batek erabakiz zergadunak seme-alaben mantenurako urtekoak ordaintzen baditu, kontzeptu horrengatik ordaindutako kopuruaren ehuneko 15eko kenkaria aplikatu ahal izango du, muga honekin: aurreko artikuluko 1. idatz zatian ezarritako kenkariaren zenbatekoaren ehuneko 30 ume bakoitzeko.

2. [\(16\)](#) Aurreko apartatuan ezartzen dena gorabehera, epaille batek erabakitzen badu bi gurasoek ordaindu behar dituztela bien seme-alaben mantenurako urteko kopuruak, kenkaria bietako batek baino ezin izango du aplikatu, zergaldian zenbatekorik handiena ordaindu duenak, hain zuzen. Kenkariaren oinarria kalkulatzeko, guraso horren kontribuziotik besteak egindako kontribuzioaren zenbatekoa kendu behar da.

Baldin eta zergaldian gurasoek kopuru bera ordaintzen badute seme-alaben mantenurako, kenkari hau ezin izango da aplikatu.

## **81. artikulua. Aurreko ahaideen ziozko kenkaria.**

1. [\(9\)](#) [\(16\)](#) [\(24\)](#) [\(28\)](#) [\(29\)](#) Urte natural osoan etengabe eta jarraian zergadunarekin bizi den aurreko ahaide bakoitzagatik 313,00 euroko kenkaria aplikatu ahal izango da.

**1.bis** [\(10\)](#) Aurreko 1. atalak aipatzen duen kenkaria ehuneko 15 handituko da zergadunak 4.000 biztanle baino gutxiago dituen Arabako udalerrri batean finkatzen badu ohiko etxebizitza. Horretarako, beharrezkoa izango da familia-unitateak udalerrri horretan jartzea bere interes-zentro nagusia; horrek esan nahi du bertan ezartzea, besteak beste, gizarte, osasun eta hezkuntza harremanak.

2. Aurreko idatz zatiko kenkaria aplikatzeko ondokoak gertatu behar dira:

a) Aurrekoaren urteko errenten kopurua, salbuetsitakoak zenbatu gabe, ezin da izan zergaldiko lanbide arteko gutxieneko soldata baino gehiago.

b) Aurrekoaren familia unitatean ezin da egon inor zergaldiko lanbide arteko gutxieneko soldatetik gorako urteko errentarik daukanik, salbuetsitakoa zenbatu gabe.

c) Aurrekoak ez du aurkeztu behar zerga honen autolikidazioa zergaldian, ez aurkeztu beharrik eduki.

3. Aurreko ahaiderekin bat maila bereko hainbat ondorengo ahaiderekin bizi bada, kenkaria ondorengoen artean hainbanatuko da.

Aurrekoa ahaidetasun maila desberdineko hainbat ondorengorekin bizi bada, kenkaria egiteko eskubidea maila gertueneko ondorengoek soilik edukiko dute, eta kenkaria euren artean hainbanatuko dute. Ondorengo ahaidetako batek ere ez badu lortu zergaldian lanbide arteko gutxieneko soldatetik gorako urteko errentarik, salbuetsitakoak zenbatu gabe, maila urruneneko aurreko ahaideek edukiko dute kenkaria aplikatzeko eskubidea.

4. [\(10\)](#) Egoitzetan bizi diren aurrekoak badira, kenkaria aplikatuko zaie zentro horietako egonaldiaaren gastuak ordaintzeko diru-kopuruan ordaindu izana faktura bidez



egiaztatzen duten ahaiderik hurbilenei. Gastu horiek ordaintzen dituzten gradu bereko ahaideak badaude, kenkaria hainbanatu eta berdin aplikatuko zaie guztiei.

Aurreko 1.bis atalean aipatutako kenkaria aplikatzeko eskubidea ondorengo guztiei ez badagokie, aurreko paragrafoan xedatutako hainbanaketa egiteko, ondorengo bakoitzak, tokatzen zaion kenkaria kalkulatzeko aldera, kontuan izango du bere egoerari dagokion zenbatekoa, aipatutako 1.bis." atalean adierazitakoa aplikagarri zaion ala ez aintzat harturik.

**81 bis artikulua. (24) Kenkaria laguntzaile pertsonala kontratatzeagatik mendekotasun gradu jakina edo desgaitasuna daukan pertsona baten arretarako.**

1. (28) (29) Zergaren sortzapen egunean 39/2014 Foru Dekretuan (abuztuaren 1ekoa, Arabako autonomiarako eta mendekotasunari arreta emateko sistemaren prestazio ekonomikoak arautzen dituena) arautzen den laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoaren titular diren zergadunek, bertan eta beraren garapenean ezartzen diren baldintzak betez gero, kenkaria aplikatu ahal izango dute laguntzaile pertsonala kontratatzen dutenean. Kenkariaren zenbatekoa zergadunaren mendekotasunaren edo desgaitasunaren eta inoren laguntza behar izatearen arabera izango da:

<b>MENDEKOTASUNAREN EDO DESGAITASUNAREN GRADUA ETA HIRUGARREN BATEN LAGUNTZA BEHAR IZATEA</b>	<b>KENKARIA (EUROAK)</b>
Desgaitasuna ehuneko 65ekoa edo handiagoa Mendekotasun ertaina (I. gradua)	319
Desgaitasuna ehuneko 75ekoa edo handiagoa eta 15 - 39 puntu besteren laguntza behar izateagatik Mendekotasun larria (II. gradua)	531
Desgaitasuna ehuneko 75ekoa edo handiagoa eta 40 puntutik gora besteren laguntza behar izateagatik Mendekotasun handia (III. gradua)	1.061

2. Aurreko 1. apartatuan aipatzen den kenkaria haren ezkontideak edo izatezko bikotekideak egin dezake. Hala eginez gero, beharrezkoa izango da ezkontidea edo izatezko bikotekidea mendekotasuna edo desgaitasuna duen pertsonarekin bizi izatea urte natural osoan, etenik gabe.

3. Urte natural osoan, etenik gabe, mendekotasuna edo desgaitasuna duen pertsonarekin bizi diren laugarren gradura arteko ahaide guztiek aplikatu ahal izango dute aurreko 1. apartatuan aipatzen den kenkaria.

Baldin eta mendekotasuna duen pertsona batekin ezkontidea edo izatezko bikotekidea eta aurreko paragrafoan aipatzen diren ahaideetako bat bizi badira, kenkaria ezkontideak edo izatezko bikotekideak baino ezin dezake aplikatu. Salbuespena: zergaldian ezkontideak edo izatezko bikotekideak eduki dituen errentak (salbuetsiak ez beste guztiak) ez badira lanbidearteko gutxieneko soldata halako bi baino gehiago, kenkaria ahaide horrek/horiek aplikatu ahal izango du(te), kenkari hau aplikatzeko ezarrita dauden gainerako baldintzak betetzen badira.

4. Kenkari hau aplikatzeko, lehentasuna izango du aurreko 1. apartatuan aipatzen den zergadunak. Hark ez badu aplikatzen, kenkaria aurreko 2. apartatuan aipatzen den ezkontide edo izatezko bikotekidearengana pasatuko da. Aipatu berri diren pertsonak (adierazitako hurrenkeran) ez badute egiten kenkaria, edo 3. apartatuaren bigarren paragrafoan azaldutako egoera gertatzen bada, 3. apartatu horretan adierazitakoek egin ahal izango dute.

5. Desgaitasuna edo mendekotasuna duen pertsona gradu desberdineko ahaide bat baino gehiagorekin bizi bada, hurbileneko ahaideek bakarrik aplikatuko dute kenkaria.

Gradurik hurbileneko ahaide bat baino gehiago izanez gero, kenkaria haien artean hainbanatuko da, zati berdinetan, artikulua honetan ezartzen diren baldintzak betetzen dituen pertsonabakoitzeko.

6. Artikulu honetan arautzen diren kenkariak bateragarriak dira foru arau honen 81. artikuluan ezartzen den aurreko ahaideen kenkariarekin eta arau beraren 82. artikuluan ezartzen den desgaitasun edo mendekotasunaren kenkariarekin.

## **82. artikulua. Desgaitasunaren edo mendetasunaren ziozko kenkaria.**

1. [\(9\)](#) [\(16\)](#) [\(24\)](#) [\(28\)](#) [\(29\)](#) Desgaitasuna duen edo mendekotasunean dagoen zergadun bakoitzagatik kenkari bat aplikatuko da, eta zenbatekoa mendekotasunaren edo desgaitasunaren graduaren eta ezinduak behar duen laguntzaren arabera izango da (desgaitasunaren gradua eta laguntzaren beharra arau bidez ezarriko dira). Hona hemen taula:

<b>MENDEKOTASUNAREN EDO DESGAITASUNAREN GRADUA ETA HIRUGARREN BATEN LAGUNTZA BEHAR IZATEA</b>	<b>KENKARIA (EUROAK)</b>
Desgaitasuna ehuneko 33koa edo handiagoa eta ehuneko 65etik beherakoa	866
Desgaitasuna ehuneko 65ekoa edo handiagoa Mendekotasun ertaina (I. gradua):	1.237
Desgaitasuna ehuneko 75ekoa edo handiagoa eta 15 - 39 puntu besteren laguntza behar izateagatik Mendekotasun larria (II. gradua).	1.483
Desgaitasuna ehuneko 75ekoa edo handiagoa eta 40 puntutik gora besteren laguntza behar izateagatik Mendekotasun handia	1.850

(III. gradua).	
----------------	--

Mendekotasunaren edo desgaitasunaren gradua eta laguntza behar izateagatiko puntuak neurtzeko honako bi hauek ezartzen dutena aplikatuko da: abenduaren 23ko 1971/1999 Errege Dekretua, I. eranskina; otsailaren 11ko 174/2011 Errege Dekretua, mendekotasuna baloratzeko baremoa onartzen duena (baremo hori abenduaren 14ko 39/2006 Legeak, besteren menpean bizi diren pertsonen autonomia pertsonala eta arreta sustatzekoak).

Kenkari bera aplika daiteke desgaitasuna edo mendekotasuna daukan ezkontideagatik edo izatezko bikotekideagatik, apartatu honetan ezarritako betekizunak betez gero.

**2.** Kopuru bereko kenkaria aplikatu ahal izango da zergadunak bere kargura daukan ondorengo edo aurreko bakoitzagatik, bai eta laugarren gradurainoko (berau barne) albo ahaide bakoitzagatik ere, zeinahi ere dela beraren adina, baldin eta desgaituta edo mendetasunean badago eta zergaldian lanbide arteko gutxieneko soldata halako bitik gorako errentak lortu ez baditu, salbuetsitako errentak zenbatu gabe.

Aurreko edo ondorengo ahaidea edo laugarren gradurainoko (berau barne) albo ahaidea gizarte zerbitzuen foru sarekoa (ez horiekin berdinetsia) ez den egoitza zentro batean bizi bada, beraren ziozko kenkaria hango egonaldi gastuak ordaindu dituela faktura bidez frogatzen duen hurbileneko ahaideak aplikatu ahal izango du. Gastuok hurbiltasun gradu bereko hainbat ahaidek ordaindu badituzte, kenkaria hainbana aplikatu ahal izango dute.

(29) Halaber, kenkaria aplikatuko da desgaitasunen edo mendekotasunen bat duen pertsona zergadunarekin lotuta dagoenean adingabeen babesaren arloan eskumenak dituen erakunde publikoan formalizatutako tutoretza edo harrera arrazoiengatik, edo zergadunak, Kode Zibilaren I. liburuaren XI. tituluan xedatutakoaren esparruan, desgaitasuna duenari dagokionez ordezkaritza ahalmenak dituen kuradoretzatza gauzatzen duenean, apartatu honetan ezarritako gainerako inguruabarrak gertatzen badira.

**3.** Zergadunarekin aurreko idatz zatian adierazitako ahaideen edo berdinetsitakoen zerrendan ageri ez den 65 urtetik gorako pertsonaren bat bizi bada eta haren urteko sarrerak, errenta salbuetsiak zenbat gabe, lanbide arteko gutxieneko soldata halako bi baino gutxiago izan badira, aurreko idatz zatian ezarritako kenkariak aplikatuko dira, mendetasunaren edo desgaitasunaren gradua eta besteren laguntza behar duenez kontuan hartuta.

**4.** Desgaitasuna edo mendetasuna daukan pertsonak zerga honen autolikidazioa aurkezten badu, bi aukera edukiko ditu: kenkaria osorik aplikatu bere aitorpenean edo osorik aplikatzea beraz arduratzen den zergadunak. Bigarrena hautatzen badu eta desgaitasuna edo mendetasuna daukan pertsona zergadun batzuen kargura badago, kenkaria haien artean hainbanatuko da eta hein bereko kenkaria aplikatuko zaie denei.

(16)

### **83. artikulua. [\(9\)](#) [\(13\)](#) [\(16\)](#) Adinaren kenkaria.**

1. [\(24\)](#) [\(28\)](#) [\(29\)](#) 65 urtetik gorako zergadun bakoitzeko 375,00 euroko kenkaria aplikatuko da.

Zergadunak hirurogeita hamabost urte baino gehiago badauzka, aurreko paragrafoan aipatutako kenkaria 682,00 eurokoa izango da.

Apartatu honetan xedatzen dena aplikatzeko ezinbestekoa da zergadunaren zerga oinarria ez izatea 20.000,00 eurotik gorakoa.

2. [\(24\)](#) [\(28\)](#) [\(29\)](#) 20.000,00-30.000,00 euro bitarteko zerga oinarria duten hirurogeita bost urtetik gorako zergadunek honela aplikatuko dute kenkari hau urtean: 375,00 euroko kenkari horri kendu egingo diote zerga oinarriari 20.000,00 euro kenduz lortzen den zenbatekoa bider 0,0375 eginez ateratzen den emaitza.

3. [\(24\)](#) [\(28\)](#) [\(29\)](#) 20.000,00-30.000,00 euro bitarteko zerga oinarria duten hirurogeita hamabost urtetik gorako zergadunek honela aplikatuko dute kenkari hau urtean: 682,00 euroko kenkari horri kendu egingo diote zerga oinarriari 20.000,00 euro kenduz lortzen den zenbatekoa bider 0,0682 eginez ateratzen den emaitza.

4. Artikulu honen ondorioetarako, zerga oinarriaren zenbatekoa zerga oinarri orokorraren eta aurrezkiaren oinarri orokorraren batura izango da, foru arau honetako 65. eta 66. artikuluetan ezarritakoarekin bat etorriz. Zerga oinarri orokorra negatiboa izanez gero, aurrean aipatutako batura zero izango da.

Hala ere, foru arau honetako 69. artikuluan aipatzen den konpentsaziopentsioen eta janarirako urteko kopuruen ondoriozko murrizketa aplikatzen bada zerga oinarri orokorrean eta (behar den kasuetan) aurrezkiaren zerga oinarrian, aurreko paragrafoan xedatzen denarekin bat etorriz kalkulaturako zerga oinarritik kenduko da.

### **84. artikulua. Egoera pertsonala eta familiarra zehaztea.**

1. Kapitulu honetan ezarritako kenkariak aplikatzeko unean kontuan hartu behar diren egoera pertsonalaren eta familiarren egoeraren zehaztapena Zergaren sortzapen egunean bizi den egoera kontuan hartuz egingo da.

Kenkari horiek kalkulatzeko inolaz ere ezin da aplikatu inguruabarrak gertatu diren egutegiko egunen proportzioa.

2. Aurreko idatz zatian xedatutakoa gorabehera, zergaldian kenkaria aplikatzeko eskubidea ematen duen pertsona hil bada, kapitulu honetan ezarritako kenkariak aplikatzeko kontuan eduki beharreko inguruabar pertsonalak eta familiarrak hura hil denean izan den egoera aintzat hartuta zehaztuko dira, eta kenkaria ez da murriztuko egun horren arabera proportzioan.

### III. KAPITULUA

#### PERTSONA DESGAITUAREN ONDARE BABESTURA EGINDAKO EKARPENEN ZIOZKO KENKARIA

**85. artikulua. (29) Desgaitasuna duen pertsona baten ondare babestura egindako ekarpenengatik aplika daitekeen kenkaria.**

1. Zergadunek ehuneko 30eko kenkaria aplikatu ahal izango dute (urtean 3.000,00 euro gehienez) pertsona desgaitu baten ondare babestura egindako ekarpenengatik. Horrela dago ezarrita Pertsona desgaituen ondarea babestu eta Kode Zibila, Prozedura Zibilaren Legea eta zerga arautegia aldatzen dituen azaroaren 18ko 41/2003 Legean.

Aurreko paragrafoan ezartzen den muga babestutako ondarean ekarpenen bat jasotzen duen pertsona desgaitu bakoitzeko aplikatuko da.

2. Aurreko apartatuan aipatzen den kenkaria honako zergadun hauek aplikatu ahal izango dute: desgaitasuna daukan pertsonaren zuzeneko zein alboko ahaideek, laugarren gradurainokoek, bai eta haren ezkontideak edo izatezko bikotekideak, harekin tutoretza edo harrera lotura duten pertsonak, eta, Kode Zibilaren I. liburuaren XI. tituluari xedatzen den esparruan, hari dagokionez ordezkaritza ahalmenarekin kuradoretzan aritzen direnek.

Halaber, kenkari hau testamentu ahalordea edo gozamen ahala erabiltzeko zain dauden jarauntsiek ere aplikatu ahal izango dute, baldin eta ekarpenik egiten badute desgaitasuna daukan pertsonaren ondare babestura indarreko legeriarekin bat etorritik.

Pertsona desgaituak berak bere ondare babestura egindako ekarpenek ez dute kenkarirako eskubiderik ematen.

3. Ekarpena diruzkoa ez bada, zenbatekoa honako hau izango da: Irabazteko asmorik gabeko entitateen zerga araubideari eta mezenasgorako zerga pizgarriei buruzko abenduaren 23ko 35/2021 Foru Arauaren 21. artikuluan ezartzen dena aplikatzearen emaitza.

4. Pertsona desgaitu baten ondarera egiten diren ekarpenei dagozkien ondasunen eta eskubideen eskuraketak salbuetsita daude oinordetza eta dohaintzen gaineko zergatik.

### IV. KAPITULUA

#### OHIKO ETXEBIZITZAGATIKO KENKARIAK

**86. artikulua. (23) Ohiko etxebizitza alokatzeagatiko kenkaria.**

1. (10) Zergaldian ohiko etxebizitzaren alokairuagatik diru zenbatekoak ordaintzen dituzten zergadunek zergaldi horretan ordaindutako diru zenbatekoen ehuneko 20ko kenkaria aplikatu ahal izango dute (gehienez 1.600 euro urtean).

**2.** Aurreko 1. apartatuan jasotakoa gorabehera, kenkari espezifiko hauek finkatzen dira:

a) Zergaduna familia ugari baten titularra bada, aurreko 1. apartatuan jasotako kenkaria ehuneko 25ekoa izango da, 2.000 euroko kenkariaren mugarekin urtean.

b) Zergadunak 30 urte baino gutxiago badauzka, aurreko 1. apartatuan jasotako kenkaria ehuneko 30ekoa izango da, 2.400 euroko kenkariaren mugarekin urtean.

c) Ohiko etxebizitza foru arau honen hogeita hamalagarren xedapen gehigarrian aipatzen diren gune edo eremuetako batean duten zergadunen kasuan, aurreko 1. apartatuan jasotako kenkaria ehuneko 35ekoa izango da, 2.800 euroko kenkariaren mugarekin urtean.

**3.** (16) Artikulu honetan araututako kenkaria aplikatzeko ondorioetarako, zergadunak etxebizitzaren alokairurako dirulaguntza jaso badu eta zerga honi buruzko araudiaren aplikazioaren ondorioz dirulaguntza hori salbuetsita badago, horren zenbatekoa kendu beharko da ordaindutako diru kopuruetatik.

**4.** (3) Kapitulu honetan xedatzen denaren ondorioetarako, zergadunaren adina edo familia ugariaren titularitatea ezartzeko zergaren sortzapen eguneko egoerari erreparatu beharko zaio.

Artikulu honetako 2. apartatuko c) letran xedatutakoa aplikatzeko, errentaria hiltzen denean izan ezik, errentaria foru arau honetako hogeita hamalagarren xedapen gehigarrian aipatzen diren gune edo eremuetan biziko da zergaldi osoan.

**5.** Baterako zerga ordainketa hautatzen bada eta hainbat pertsonak badute kenkari horretarako eskubidea, batzuk 30 urtetik beherakoak eta beste batzuk adin horretatik gorakoak, aurreko 2. apartatuko b) letran ezartzen diren ehunekoak eta muga aplikatuko dira.

**6.** Baldin eta epaile batek ebazpen bidez ezartzen badu zergadunak bere kargura ordaindu behar duela familia etxebizitzaren alokairua, berak aplikatu ahal izango du artikulu honetako kenkaria autolikidazioan. Betebehar hori bi zergadunei ezarri bazaie, kenkaria bien artean hainbanatuko da, eta bakoitzak bidezko proportzioan aplikatuko du bere autolikidazioan, artikulu honetako 1. apartatuan ezarritako ehunekoak eta gehieneko kopuruak kontuan edukita, salbu eta hurrengo 2. apartatuan finkatutako betekizunak betetzen badituzte, kasu horretan apartatu horretan jasotako ehunekoak eta muga aplikatzeko eskubidea izango baitute.

**7.** (24) Aurreko zenbakietan xedatutakoaren ondorioetarako, ohiko etxebizitzaren alokairuagatik ordaindutako zenbatekoen parekoak izango dira erabilera lagapeneko erregimeneko etxebizitzengatik ordaindutako kanonak edo errenta sozialak, baldin eta ohiko etxebizitzat hartzen badira etxebizitza kooperatibetako edo bestelako elkarte moduetako bazkideek edo irabazteko asmorik gabeko elkarteetako bazkideek, betiere hotel industriari dagozkion zerbitzu osagarriak ematen ez badira; adibidez, jatetxea, arropa garbitzea edo antzeko beste batzuk, edo gizarte laguntzako zerbitzuak.

Hala ere, ohiko etxebizitzaren alokairuagatik ordaindutako zenbatekoen parekoak ez dira izango (eta ondorioz ez da aplikatuko artikulu honetan xedatzen dena) ohiko etxebizitzat hartzen diren eta ohiko etxebizitzat hartzen diren erabilera lagapeneko erregimeneko etxebizitzengatik ordaindutako kanonak edo errenta sozialak, erosketa aukeraren eskubidea edo jabetza transferitzeko klausula dutenak, bai eta etxebizitza kooperatibetako edo bestelako elkarte moduetako bazkideek edo irabazteko asmorik gabeko elkarteetako bazkideek ordaindutako beste batzuk ere, Eusko Legebiltzarraren Etxebizitzaren ekainaren 18ko 3/2015 Legearen hirugarren xedapen gehigarrian aurreikusitako baldintza guztiak betetzen ez direnean.

Administrazio publiko baten jabetzako lurren gaineko azalera eskubide bat eratuz egindako babes publikoko etxebizitzaren sustapenen kasuan, erabiltzeko eskubidearen izaera mugagabea betetzat joko da elkartekideen erabilera eskubidearen iraupena aipatutako azalera eskubidearen iraupenarekin bat datorrenean.

#### **87. artikulua. [\(10\)](#) Kenkaria ohiko etxebizitza erosteagatik.**

1. Zergadunek ohiko etxebizitzaren erosketan zergaldian inbertitutako diru kopuruaren ehuneko 18ko kenkaria aplikatu ahal izango dute, euren kargura joan diren erosketa gastuak barne.

Halaber, ohiko etxebizitza erosteko besteren kapitalak erabiltzeagatik, zergadunen kargura joan diren besteren finantzaketak sortutako gastuak barne, zergaldian ordaindutako interesen ehuneko 18ko kenkaria aplika dezakete.

Aurreko 1. atalak aipatzen duen kenkaria ehuneko 20koa izango da zergadunak 4.000 biztanle baino gutxiago dituen Arabako udalerrri batean finkatzen badu ohiko etxebizitza. Horretarako, beharrezkoa izango da familia-unitateak udalerrri horretan jartzea bere interes-zentro nagusia; horrek esan nahi du bertan ezartzea, besteak beste, gizarte, osasun eta hezkuntza harremanak.

Kenkari hori aplikatzeko orduan, etxebizitza erostea izango da etxebizitza horren jabetza osoa eskuratzea; ez da indarrrik gabe geratuko jabetza hori beste titular batzuekin partekatzeagatik.

2. Urteroko gehienezko kenkaria, aurreko 1. ataleko aurreko bi paragrafoek jasotako kontzeptuak batzeagatik, 1.530 eurokoa izango da.

Aurreko atalaren hirugarren paragrafoak aipatzen duen ehuneko 20ko portzentajea aplikatuz gero, urteroko gehienezko kenkaria, aurreko 1. ataleko aurreko bi paragrafoek jasotako kontzeptuak batzeagatik, 1.836 eurokoa izango da.

3. Aurreko 1. atalak jasotzen dituen kontzeptuengatik zergadun bakoitzak elkarren segidako zergaldietan kendutako zenbatekoen batuketa ezin izango da izan 36.000 euroko zenbateko minoratua, Foru Arau honen 49. Artikuluan jasotakoaren arabera berrinbertsioa egiteagatik salbuetsitako dagoen ondare-irabaziaren zenbatekoaren ehuneko 18a aplikatzearen emaitzan.

4. Zergadunak 30 urte baino gutxiago baditu edo familia ugariren titularra bada, honako espezialitate hauek aplikatuko dira:

a) Aurreko 1. atalean ezarritako portzentajeak ehuneko 23koak izango dira, salbu eta artikuluko honen 5. atalaren b) letrak aipatzen dituen kasuetan.

b) Aurreko 2. atalean ezarritako urteko gehieneko kenkaria 1.995 eurokoa izango da, salbu eta artikuluko honen 5. atalaren b) letrak aipatzen dituen kasuetan.

(16) Baterako tributazioa hautatzen bada eta hainbat pertsonak badute kenkari horretarako eskubidea, batzuk 30 urtetik beherakoak eta beste batzuk adin horretatik gorakoak, ehuneko 23 aplikatuko da eta muga 1.955 euro izango da, artikuluko honetako 5. apartatuko b) letran aipatzen diren kasuetan izan ezik.

Era berean, zergaduna 30 urtetik beherakoa edo familia ugariren titularra bada, eta aurreko 1. atalaren hirugarren paragrafoan xedatutakoa aplikagarri bada, honako espezialitate hauek aplikatuko dira:

a) Aurreko 1. atalean ezarritako portzentajeak ehuneko 25ekoak izango dira, salbu eta artikuluko honen 5. atalaren b) letrak aipatzen dituen kasuetan.

a) Aurreko 2. atalean ezarritako urteko gehieneko kenkaria 2.346 eurokoa izango da, salbu eta artikuluko honen 5. atalaren b) letrak aipatzen dituen kasuetan.

(16) Baterako tributazioa hautatzen bada eta hainbat pertsonak badute artikuluko honetako 1. apartatuko hirugarren paragrafoan xedatzen dena aplikatzeko eskubidea, batzuk 30 urtetik beherakoak eta beste batzuk adin horretatik gorakoak, ehuneko 25 aplikatuko da eta muga 2.346 euro izango da, artikuluko honetako 5. apartatuko b) letran aipatzen diren kasuetan izan ezik.

**4 bis. (24)** Artikuluko honen 5. apartatuaren c) letrako kasuetan, desgaitasuna ehuneko 75ekoa edo handiagoa bada eta hirugarren pertsona baten laguntza behar izateagatik 15 puntu baino gehiago lortzen badira edo mendetasuna larria bada (II. gradua) edo handia (III. gradua), kenkaria honako berezitasun hauekin aplikatuko da:

a) Aurreko 1. apartatuan ezartzen diren ehunekoak ehuneko 23koak izango dira, salbu eta artikuluko honen 5. apartatuaren b) letran aipatzen diren kasuetan.

b) Aurreko 2. apartatuaren lehen paragrafoan ezartzen den urteko gehieneko kenkaria 1.955 eurokoa izango da, salbu eta artikuluko honen 5. apartatuaren b) letran aipatzen diren kasuetan.

Zerga batera ordaintzeahautatzen bada eta kenkari hau aplikatzeko eskubidea daukan pertsonaren bat badago, kenkaria ehuneko 23koa izango da eta muga 1.955 eurokoa, artikuluko honen 5. apartatuaren b) letran aipatzen diren kasuetan izan ezik.

Baldin eta zergadunak 4 bis) apartatuan ezartzen diren baldintzak betetzen baditu artikuluko honen 5. apartatuaren c) letrari dagokionez, aurreko 1. apartatuaren hirugarren paragrafoan xedatzen dena aplikatu ahal bazaio, eta 30 urtetik beherakoa edo familia



ugariren titularra bada, edo kasu hauetako bat baino gehiago aplikatu ahal bazaizkio, honako berezitasun hauek aplikatuko dira:

a) Aurreko 1. apartatuan ezartzen diren ehunekoak ehuneko 25ekoak izango dira, salbu eta artikuluko honen 5. apartatuaren b) letran aipatzen diren kasuetan.

b) Aurreko 2. apartatuan ezartzen den urteko gehieneko kenkaria 2.346 eurokoa izango da, salbu eta artikuluko honen 5. apartatuaren b) letran aipatzen diren kasuetan.

Zerga batera ordaintzeahautatzen bada eta kenkari hau aurreko berezitasunekin aplikatzeko eskubidea daukan pertsonaren bat badago, kenkaria ehuneko 25ekoak izango da eta muga 2.346 eurokoa, artikuluko honen 5. apartatuaren b) letran aipatzen diren kasuetan izan ezik.

**5.** Artikulu honetan ezarritakoaren ondorioetarako, ohiko etxebizitza eskuratzearen parekotzat joko da:

a) Ohiko etxebizitza birgaitzeko diru-kopuruak.

b) Kreditu-entitateetan gordetako diru-kopuruak, araudiz ezartzen diren formalizazio-eta disposizio-betekizunak betetzen dituzten kontuetan, eta betiere kenkaria aplikatzeko eskubidea sortu duten kopuruak erabiltzen badira, kontua irekitzen datatik sei urte pasatu aurretik, ohiko etxebizitza erosteko eta birgaitzeko.

Disposizio-betekizuna ez da bete gabe geratuko kenkarirako eskubidea sortu duten diru-kopuruak kreditu-entitate berberean edo beste batean osorik berriz jartzen badira edo sartzen badira zerga ordaindu baino lehen.

Etxebizitza-kontuaren zenbatekoa ohiko etxebizitza erosteko eta birgaitzeko erabiltzeko betekizuna ez da bete gabe geratuko zergaduna hiltzen baldin bada letra honetako lehen paragrafoak aipatzen duen epea iraungi aurretik.

Letra honek aipatzen dituen kontuetan gordetako diru-kopuruengatik, kenkarirako eskubidea sortu badute, ezin izango dira berriz kenkaririk egin ohiko etxebizitza erosi edo birgaitzeko erabiltzen direnean.

c) [\(24\)](#) Ohiko etxebizitzan egokitzapenerako egiten diren obra eta instalazioak, bai eta eraikinaren elementu erkideak aldarazteko egiten direnak ere, baldin eta nahitaezko pasabide badira hiri lurreko finkaren eta herriko bidearen artean, berbarako, eskailerak, igogailuak, karrajuak, atariak edo arkitekturako beste edozein osagai, eta desgaituen edo mendekotasunean daudenen sentimenezko komunikaziorako edo haien segurtasunaren sustapenerako oztopoak gainditzeko eragingailu elektronikoak ezartzeko egiten direnak ere bai.

[\(29\)](#) Gainera, kontzeptu honetan sartzen dira letra honen azken paragrafoan aipatzen diren pertsonak errentari, azpierrenerari edo gozamedun gisa okupatutako etxebizitzak egokitzeko egiten diren obrak eta instalazioak.

Egokitzapenerako obrei eta instalazioei dagokienez, erregelamenduz ezartzen denaren arabera ziurtatu behar da beharrezkoak direla desgaitasuna edo mendekotasuna

daukaten pertsonen irisgarritasunerako eta sentimen komunikaziorako, hau da, haiek duintasunarekin eta modu egokian bizitzeko.

(29) Obra horiek zergadun ezinduak edo mendekoak, ezinduta dagoen edo mendeko den aurreko edo ondorengo batekin edo ezkontidearekin edo izatezko bikotekidearekin bizi den zergadunak eta ezindu edo mendeko batekin bizi den zergadunak (baldin eta ezinduak foru arau honen 82. artikuluan araututako kenkaria aplikatzeko eskubidea ematen badio) egin behar ditu, bai eta ohiko etxebizitzaren osagai erkideak aldatzeko obrak ordaintzera behartuta dauden jabeek ere.

d) (24) Erregelamendu bidez zehaztuko diren kasuak.

6. Birgaitzetzat joko dira jabeak bere ohiko etxebizitzan egindako lanak, lan horiek babestutako jarduketa gisa deklaratzeko ebazpena eman denean, ondare urbanizatu eta eraikia birgaitzeko jarduketa babestuei buruzko abenduaren 30eko 317/2002 Dekretuan xedatutakoaren arabera, edo bestela, abenduaren 12ko 2.066/2008 Errege Dekretua eta berau ordeztzen duten pareko arauen arabera babesteko moduko jarduketa deklaratu bada.

7. Erabaki judizial baten ondorioz ezarri bada familiaren etxebizitzagatiko zergadunak aurreko 1. atalak aipatzen dituen diru-kopuruetakoko bat ordaintzeko betebeharra, zergadunak eskubidea izango du bere autolikidazioan artikuluko honek aipatzen duen kenkaria. Betebehar hori zergadun biei egokituko balitzaie, kenkaria haien artean hainbanatuko da eta dagokion proportzioan, aurreko 1. eta 2. ataletan ezarritako portzentaje eta mugekin, salbu eta artikuluko honen 4. atalean ezarritako betekizunak betez gero; kasu horretan eskubidea izango dute atal horretan adierazitako portzentajea eta muga.

8. Zerga honen ondorioetarako, ohiko etxebizitzat joko da hori non zergaduna hiru urtez jarraian bizi den. Hala ere, etxebizitza ohikotzat joko da epe hori pasatu ez arren zergaduna hilez gero edo etxebizitza aldatzeko inguruabarrak izanez gero, hala nola: etxebizitza zergadunaren edo berarekin bizi den aurreko baten, ondorengo baten, senar-emaztearen edo izatezko bikotearen, edo zerga honen kuota osoaren kenkaria egiteko eskubidea sortzen duen pertsona baten desgaitasunera ez egokitzea, senar-emazteak banatzea edo izatezko bikotea desagertzea, lanagatik lekualdatzea, lehen enplegua edo beste enplegu bat eskuratzea, aipatutako epean etxebizitza ordaintzea galarazten duten inguruabar ekonomikoak, edo pareko bestelako inguruabarrak.

Ohiko etxebizitzak hala izateari utziko dio zergadunak bertan bizitzeari uzten dion unetik aurrera. Salbuespenak gehitu ahal izango zaizkio paragrafo honetan xedatutakoari.

Ez dira ohiko etxebizitzaren parte izango lorategiak, parkeak, igerilekuak edo kirol instalazioak, garajeak eta, oro har, berez etxebizitza osatzen ez duen edozein elementu, salbu eta etxebizitzarekin batera erregistro-lursail bakarra osatzen badute.

Familia-unitateko kideak hiri-higiezin baten baino gehiagoren jabe direnean, horietako bat baino ez da ohiko etxebizitzat joko. Horretarako, halakotzat joko da hori non familiak bizi-interesak, harreman pertsonalak, sozialak eta ekonomikoak dituen.

9. (24) Zergadunak dirulaguntzarik jaso badu desgaitasun edo mendekotasunagatik etxebizitza erosteko, zaharberritzeko edo egokitzeko, eta dirulaguntza horiek salbuetsita badaude zerga honi buruzko araudia aplikatuz, dirulaguntza horien zenbatekoa kendu beharko zaie aurreko apartatuetan aipatutako diru kopuruei, artikulua honetan ezarritako kenkaria aplikatzeko.

## **V. KAPITULUA**

### **JARDUERA EKONOMIKOAK SUSTATZEKO KENKARIAK**

**88. artikulua. Inbertsioengatik eta beste jarduera batzuegatik aplika daitezkeen kenkariak.**

1. (3) Zerga honetako zergadunek aktibo ez-korronte berrietan inbertsioak pizteko eta zenbait jardueraren burutzea pizteko Sozietateen gaineko zergaren Foru Arauaren V. tituluaren III. kapituluan eta hamabosgarren xedapen gehigarrian zehazten diren kenkariak aplikatu ahal izango dituzte, kenkari portzentaje eta muga berekin.

2. Kenkari hauek aplikatzeko Sozietateen Zergari buruzko Foru Arauan finkatzen diren mugak zerga honen kuota osoari dagozkio, hain zuzen ere jarduera ekonomikoaren etekinekin osatzen den zerga oinarri orokorreko kuota zatiari.

3. (10) Kuota osoaren nahikotasun ezagatik aplikatu gabeko kenkariak, aplikatu ahal izango dira muga berdinekin ondorengo hogeita hamar urteetan bukatzen diren zergaldietako autolikidazioetan.

4. (16)

**89. artikulua. (5) Langileek entitate enplegatzailean parte hartzeagatik kenkaria.**

1. Zergadunek ehuneko 15eko kenkaria egin ahal izango dute, gizonak badira, eta ehuneko 20koa emakumeak badira, zergaldian zehar eskudirutan ordaindutako kopuruengatik, kopuru horiek ondoren aipatzen diren entitateetako akzio edo partaidetzak eskuratu edo harpidetzeko erabili dituztenean:

a) (29) Langile gisa jarduten duten entitateak, betiere eskurapena egin aurreko bost urteetatik gutxienez bitan lan egin badute bertan.

b) (29) Langile gisa jarduten duten entitatearen taldeetako edozein. Kasu honetan, ezinbesteko beharkizuna izango da eskurapena egin aurreko bost urteetatik gutxienez bitan jardun izana langileek taldeko sozietateetan, eta, ondorio horietarako, sozietate taldeko entitate multzoa hartuko da kontuan.

c) Baldintza hauek betetzen dituen beste edozein entitate:

a') (29) Apartatu honen a) eta b) letretan aipatzen diren entitateetako langileak izatea partaide bakarrak, eta langile horiek eskurapena egin aurreko bost urteetatik gutxienez hirutan lan egitea bertan, letra horietan ezartzen den bezala.

Entitatearen akziodunen osaeraren ondorioetarako, ulertuko da aurreko paragrafoan langileak partaide bakarrak izateari buruz aipatutako baldintza betetzen dela bertan

parte hartzen duten pertsonak entitate enplegatzailean lan egitearen uzten diotenean ezintasun iraunkor osoa edo absolutua edo baliaezintasun handia aitortu baitiete.

Halaber, ulertuko da entitatearen akziodunen osaerari buruzko baldintza betetzen dela langileak partaide bakarrak diren entitatearen akzioak edo partaidetzak eskuratu ondoren hildako langileen ondorengoei dagokien partaidetza dagoenean. Aurrekoa aplikagarria izango da gehienez bi urteko epean langilea zentzen denetik zenbatzen hasita.

b') Bere aktiboaren gutxienez ehuneko 90, a) eta b) letretan aipatutako akzio edo partaidetzak izatea. Portzentaje hori zehazteko, diruzaintza ez da zenbatuko aktiboaren barruan.

Akzio edo partaidetzak eskuratu edo harpidetu badira entitatea eratzeko edo kapitala zabaltzeko, entitateak bi hilabeteko epea izango du b') letran ezarritako baldintza betetzeko.

**2.** Aurreko idatz zatiko a), b) eta c) letretan aipatutako entitatean edo taldeko entitateetan lan egindako denbora zenbatzeari begira, senideen zaintza dela-eta langileak borondatezko eszedentzian egon badira entitate horietako batean, egoera horretan emandako denbora tartekak ere lan egindako epealditzat hartuko dira.

**3.** Urteko kenkaria ezingo da izan 1.500 euro baino handiagoa, eskuratzailerak gizonetzkoa denean, edo 2.000 euro baino handiagoa, emakumezkoa denean.

Kopuruak ezin badira kendu aurreko paragrafoan ezarritako mugak gainditzeagatik edo kuota osoa nahikoa ez izateagatik, hurrengo lau ekitaldietan kendu ahal izango dira, betiere aipatutako mugak errespetatuz.

Zergaldi jarraituetan zehar zergadun bakoitzak artikuluko honen arabera kendutako zenbatekoen batura ezingo da izan 6.000 eurotik gorakoa, eskuratzailerak gizonetzkoa denean, edo 8.000 eurotik gorakoa, emakumezkoa denean.

**4.** Gainera, kenkaria aplikatzeko baldintza hauek bete behar dira:

a) 1. idatz zatian aipatzen diren akzioak edo partaidetzak ezin dira egon onartuta balore merkatu arautuetan negoziatzeko.

b) 1. idatz zatiko a) eta b) letrei dagokienez, entitateak ezin dira izan ondare sozietateak, Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauak bere 14.1. artikuluko a) letran ezarritako moduan.

1. idatz zatiko c) letrari dagokionez, baldintza hori bete beharrekoa izango da entitatearentzat edo entitateentzat, haien akzio edo partaidetzak letra horretan aurreikusita dagoen 100eko 90ko portzentajea zehazteko konputatzen direnean.

c) Kenkari honetarako eskubidea ematen duten akzio edo partaidetzak bost urtez mantendu behar dira gutxienez, salbu eta langile eskuratzailerak edo harpideduna epe horren barruan hiltzen denean edo enpresa konkurtso prozedura baten ondorioz likidatzen denean.

Akzio edo partaidetzak eskuratzen edo harpidetzen dituen langileak ekarpenean ematen badizkio akzio edo partaidetza horiek 1. idatz zatiko c) letran aipatutako entitateetako bati, baldintza betetzen dela ulertuko da langile horrek aurreko paragrafoan aipatutako epea osatu arteko denboran mantentzen duenean partaidetza entitate horretan.

1. idatz zatiko c) letraren kasuan, akzioak edo partaidetzak mantentzeko beharkizuna bete beharko dute bai langileek eratutako entitateak, eskuratutako eta harpidetutako akzio edo partaidetzei dagokienez, eta bai langileek berek, entitatearen beraren partaidetzei dagokienez. Entitatea desegiten bada epe hori bete aurretik, epea osatzeko ezinbestekoa izango da bazkide langileek beren akzioak eta partaidetzak mantentzea.

d) Idatz zati honetako c) letran aurreikusitako epean, ezinbestekoa da eskuratzailerak edo harpidedunak lanean jarraitzea dela entitatean bertan dela sozietate taldeko beste batean, salbu eta, eskurapenaren ondoren, hiltzen bada edo bertan lan egiteari uzten badio ezintasun iraunkor osoa, absolutua, edo baliaezintasun handia aitortu zaiolako. Ondorio horietarako, ulertuko da senideen zaintza dela-eta aipatutako entitateetako batean borondatezko eszedentzian dauden langileek bertan jarraitzen dutela lanean eszedentziak iraun bitartean.

1. idatz zatiko c) letraren kasuan, entitatea osatzen duten langile partaideei dagokie baldintza hau betetzea.

e) (29) Akzio edo partaidetzak 1. apartatuaren a) eta b) letretan aipatzen diren entitateetan eskuratzen edo harpidetzen badira, langile bakoitzak zuzenean edo zeharka entitateetan daukan partaidetza, barruan sartuta ezkontidearena edo izatezko bikote lagunarena, aurrekoena edo adoptatzaileena, ondorengoena eta adoptatuena edo hirugarren gradurainoko alboko ahaideena, ezin da izan ehuneko 40tik gorakoa apartatu honen c) letran ezartzen den aldian. Entitatea talde bateko kide bada, aurreko baldintza taldea osatzen duen entitate bakoitzari dagokionez bete beharko da.

1. idatz zatiko c) letraren kasuan, entitatea osatzen duten langile partaideei dagokie baldintza hau betetzea, eta ez entitateari.

**5.** Laugarren idatz zatiko baldintzak edo 1. idatz zatiko c) letrako portzentajea, aktiboaren osaerari buruzkoa, zergaldiko edozein egunetan ez betetzeak, kendutako kopuruak itzuli beharra ekarriko du berekin, berandutze interesak barne. Zenbat ordainduko den kalkulatzeko, kendutako zenbatekoari baldintza bete ez den zergaldiko kuota diferentziala batu beharko zaio. Hala ere, zergadunak kendutako kopuru horiek eta beraien berandutze interesak lehenago ordaintzeko aukera izango du.

1. idatz zatiko c) letran aipatzen diren entitateetako akzio eta partaidetzen eskurapen edo harpidetzetan, langileren batek, edo bat baino gehiagok, ez baditu betetzen 4. idatz zatiko c), d) eta e) letretan ezarritako beharkizunak, langile horiek bakarrik izango dute kendutako kopuruak erregularizatzeko obligazioa.

1. idatz zatiko c) letraren b') letran aipatzen den aktiboaren osaketa portzentajea ez betetzeagatik lehen paragrafoan ezarrita dagoen obligazioa ez da zertan bete beharko, baldin eta ez betetze hori gertatu bada taldeko entitate bat edo batzuk, zeinen akzio

edo partaidetzak konputatzen baitira portzentajea zehazteko, konkurtso prozedura baten ondorioz likidatu badira, eta ez betetze hori bi hilabeteko epean zuzentzen bada. Entitateen akzio edo partaidetzak konputagarriak badira aktiboaren ehuneko 90eko portzentajea zehazteko, eta entitate horiek guztiak konkurtso prozedura baten ondorioz likidatzen badira, ez da exijituko ez betetze hori zuzentzea.

6. Artikulu honetan ezarritakoa ez da aplikatuko eskurapena akzio edo partaidetzen gaineko aukerak baliatuta egiten denean.

7. (16) Letra horretan taldeei buruz egindako aipamenak sozietate taldeei egin zaizkiela ulertuko da, Merkataritzari buruzko Kodearen 42. artikulua ezarritakoaren ildotik.

**89.bis artikulua. (16) Langileek entitate enplegatzailean parte hartzeagatik (erabakietan parte hartuz) aplika daitekeen kenkaria.**

1. (29) Zergadunek kenkaria aplikatu ahal izango dute langile gisa jarduten duten entitatearen edo haren taldeko beste edozein entitatearen akzioak erosteagatik edo harpidetzeagatik, baldin eta erosketaren aurreko bost urteetatik bitan gutxienez entitatean lan egin badute: zergaldian horretarako eskudirutan ordaindutako kopuruaren ehuneko 15eko kenkaria gizonen eta 20koa emakumeek.

Entitatean lan egindako aldia zenbatzeko, kontuan hartuko dira taldeko beste entitate batzuetan lan egindakoaldiak. bai eta senideen zaintza dela eta borondatezko eszedentzian egondakoaldiak ere.

2. Artikulu honetako kenkariak muga dauka: eskuratzailerak gizona bada, 1.500 euro urtean; emakumea izanez gero, 2.000 euro urtean.

Kopuruak ezin badira kendu aurreko paragrafoan ezarritako muga gainditzeagatik edo kuota osoa nahikoa ez izateagatik, hurrengo lau ekitaldietan kendu ahal izango dira, aipatutako muga errespetatuz.

Segidako zergaldietan zergadun bakoitzak artikulu honen arabera aplikatzen dituen kenkarien batura ezin da izan 6.000 euro baino gehiago, gizonetzkoa bada, edo 8.000 eurotik gorakoa, emakumezkoa bada.

3. Artikulu honetako kenkaria aplikatu ahal izateko honako baldintza hauek bete behar dira:

a) Akzioak edo partaidetzak negoziatzeko onartuta egon behar dira balore merkatu arautu batean. Gainera, enpresako langileen jabetzan dauden boto eskubidedun akzioak edo partaidetzak sozietatearen kapitalaren ehuneko 10 izan behar dira gutxienez.

Entitatea talde bateko kidea bada, aurreko baldintza taldeko entitate guztietan bete behar da.

b) Akzioak edo partaidetzak dituzten langileen boto eskubideak taldekatu egin behar dira horren bidez enpresaren erabakietan parte hartu ahal izatea bermatzen duten tresnak eduki behar dira.

c) Enpresak jarduera ekonomikoa egin behar du.

d) Kenkari honetarako eskubidea ematen duten akzioak edo partaidetzak bost urtez mantendu behar dira gutxienez, honako kasu hauetan izan ezik: langile eskuratzailerak edo harpideduna aldi horren barruan hiltzen denean edo enpresa konkurtso prozedura baten ondorioz likidatzen denean.

e) Aurreko d) letran ezartzen den epealdian ezinbestekoa da eskuratzailerak edo harpidedunak entitatean lanean jarraitzea, honako kasu honetan izan ezik: eskurapenaren ondoren hiltzen bada edo bertan lan egiteari uzten badio ezintasun iraunkor osoa, absolutua, edo baliaezintasun handia aitortu zaiolako. Hori dela eta, langile batek borondatezko eszedentziahartzen badu senide bat zaintzeko, aldi hori lan egindako aldiz hartuko da.

f) (29) Aurreko d) letrako epealdian langile bakoitzak entitatean zuzenean edo zeharka daukan partaidetza (barruan sartuta ezkontidearena edo izatezko bikotekidearena, aurrekoena edo adoptatzaileena, ondorengoena eta adoptatuena eta hirugarren gradurainoko alboko ahaideena) ezin da izan ehuneko 40tik gorakoa.

4. Bost urteko aldi zehar aurreko apartatuko baldintzak ez betetzeak kendutako kopuruak itzuli beharra ekarriko du berekin, berandutze interesak barne. Zenbat ordainduko den kalkulatzeko, kendutako zenbatekoari baldintza bete ez den zergaldiko kuota diferentziala batu beharko zaio. Hala ere, zergadunak kendutako kopuru horiek eta beren berandutze interesak lehenago ordaintzeko aukera edukiko du.

5. Artikulu honetan ezartzen dena ez da aplikatuko eskuraketa akzio edo partaidetzen gaineko aukerak baliatuta egiten denean.

**90. artikulua. (10) (24) Kenkaria, mikroenpresetan, enpresa txikietan edo enpresa ertain sortu berrietan, berritzaileetan edo zilarrezko ekonomiari lotutakoetan inbertitzeagatik.**

1. Sozietateen gaineko Zergaren Foru Arauaren 13. artikuluan xedatutakoaren arabera mikroenpresatzat edo enpresa txiki edo ertaintzat jotzen diren enpresa sortu berri edo duela gutxi sortutako akzioak edo partaidetzak harpidetzeagatik edo eskuratzegatik dagokion zergaldian ordaindutako zenbatekoen ehuneko 25eko kenkaria aplikatu ahal izango dute zergadunek hurrengo 4. apartatuan xedatutakoa betetzen bada. Kapitalari aldi baterako ekarpena egiteaz gainera, inbertitzen duten entitatea garatzeko enpresa edo lanbide ezagutza egokiak ere jarri ahal izango dituzte, zergadunaren eta entitatearen arteko inbertsio akordioan ezartzen denari jarraituz.

Kenkari hori aplikatzeko, enpresak baliabide pertsonalak eta materialak eduki behar ditu jarduera ekonomikoa berria egiteko. Ez da baldintza hori betetzat joko honako eragiketaren ondorioz sortutako sozietateak badira: bat egitea, banantzea, aktibo

ekarpena, aktiboaren eta pasiboaren lagapen globala, jarduera adarren ekarpenak, interes ekonomikoko taldeak egitea, aldi baterako enpresa elkarteak eta jarduera ekonomiko berria sortzea benetan ez dakarten bestelako eragiketak.

Entitate batean akzioak edo partaidetzaharpidetzeak edo eskuratzeak ez du kenkari hau aplikatzeko eskubiderik emango, baldin eta lehendik beste titulartasun baten bidez gauzatzen zen jarduera bera egiten bada entitate horren bidez.

**2.** Aurreko apartatuan ezartzen den kenkaria delako epealdian ordaindutako zenbatekoen ehuneko 35 izango da, enpresa berritzaileen edo xede soziala zilarrezko ekonomiarekin zuzenean lotuta daukaten enpresen akzioak edo partaidetzaharpidetzeko edo eskuratzeko direnean, baldin eta mikroenpresatzaile, enpresa txikitzaile edo ertaintzatjotzen badira Sozietateen gaineko Zergaren Foru Arauak 13. artikuluan xedatzen duenaren arabera, hurrengo 4. apartatuan xedatutakoa betetzen denean.

Apartatu honetan xedatzen denaren ondorioetarako:

a) Enpresa berritzaileak joko dira partaidetzahartzen den urtean Batzordearen 2014ko ekainaren 17ko 651/2014 Erregelamenduko (EB) 2. artikuluan 80 apartatuan xedatutakoa betetzen dutenak; erregelamendu horren bidez, laguntza kategoria batzuk barne merkatuarekin bateragarriak direla adierazten da, Tratatuaren 107. eta 108. artikulua betez.

b) Zilarrezko ekonomizatjotzen da adineko pertsonen sektoreak eskatutako eta egindako jardueren eragin ekonomikoaren eta sozialaren ondoriozko aukera sorta. Entitate baten xede soziala sektore horri zuzenean lotuta dagoela ondorioztatze betekizunak eta baldintzak arau bidez zehaztuko dira.

**3.** Artikulu honen aurreko apartatuetan aipatzen den kenkariaren oinarria zergaldiaren barruan eskuratu edo harpidetutako akzioen edo partaidetzen eskuratze balioa izango da. Entitatearen kapitalean ehuneko 25etik gorako partaidetza duten akzioen edo partaidetzen eskuratze balioa ezin izango da zenbatu haren barruan, honako hau kontuan hartuz: zergadunak eta zergadunari lotutako pertsonak edo entitateak dituzten akzio edo partaidetza guztiak, Sozietateen Gaineko Zergari buruzko Foru Arauak 42.3 artikuluan ezartzen duenarekin bat etorriz.

Aurreko paragrafoan aipatzen den ehunekoa kalkulatzeko, zergadunaren partaidetza zuzena edo zeharkakoa hartuko da kontuan, haren ezkontideak edo izatezko bikotekideak edo zergadunarekin ahaidetasun lotura zuzena edo albokoa, odol ahaidetasuna edo ezkontza ahaidetasuna (bigarren gradurainokoa) duen edozein pertsonak entitate berean duen partaidetzarekin batera.

**4.** Aurreko apartatuetan zehaztutako kenkariak aplikatzeko:

a) Kenkaria aplikatzea eragiten duten akzioak edo partaidetzakeskuratzen edo harpidetzen dituen entitatea sozietate anonimoa, erantzukizun mugatuko sozietatea, kooperatiba, lan sozietate anonimoa edo erantzukizun mugatuko lan sozietatea izan behar da, Kapital Sozietateen Legearen testu bateginean (uztailaren 2ko 1/2010 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartu zen) eta Lan-sozietateei eta



partaidetutako sozietateei buruzko urriaren 14ko 44/2015 Legean ezartzen den bezala. Gainera, ezin da egon onartuta negoziatzeko merkatu antolatu batean.

Baldintza hori ekintza edo partaidetza izan den urte guztietan bete beharko da eta, halaber, betetzat joko da atzerrianegoitza duten entitateen akzioak edo partaidetzakeskuratzen edo harpidetzen direnean, baldin eta a) letra honetan ezarritako antzeko izaera juridikoa badute.

b) Entitatearen akzioak edo partaidetzak entitatea eratzen denean eskuratu behar ditu zergadunak, edo, bestela, eratu ondoko bost urteetan egindako kapital zabalkuntza baten bidez. Zergadunak bost urte baino gehiagoz eduki behar ditu akzioak edo partaidetzak bere ondarean.

Artikulu honen 2. apartatuaren a) letran aipatzen den kasuan, akzioak edo partaidetzak eskuratu beharko dira entitatea eratu ondoko zazpi urteetan. Hala ere, epealdi hori ez da exijigarria izango honako kasu honetan: erakundeen aurreko bost urteetako urteko eragiketen bolumenaren batez bestekoaren ehuneko 50etik gorako arriskuko finantzazioaren hasierako inbertsioa behar badute merkatu geografiko berrian edo produktuen merkatu berrian sartzeari begira egindako negozio plan batean oinarrituz.

**5.** Artikulu honetan aipatzen diren kenkari kontzeptuak ez zaizkie aplikatuko honako kasu hauetako batean dauden entitateetan egiten diren inbertsioei:

a) Berreskuratze agindu baten mende dauden enpresak, Europako Batzordeak erabaki baten bidez laguntza bat legez kanpokoa eta barne merkatuarekin bateraezina dela adierazi ondoren.

b) Krisian dauden enpresak, Europako Batzordearen 2014ko ekainaren 17ko 651/2014 (EB) Erregelamenduaren 2. artikuluko 18. apartatuan xedatutakoaren arabera. Erregelamendu horren bidez laguntza kategoriatzatzuk barne merkatuarekin bateragarritzat jotzen dira, Tratatuaren 107. eta 108. artikuluko aplikatuz.

c) Artikulu honen 1. eta 2. apartatuetan aipatzen diren akzioak edo partaidetzak jaulkitzeagatik aurreko letran adierazitako erregelamenduaren 21. artikuluko 9. apartatuan aipatzen diren arriskuko finantzaketaren zenbateko osoa gainditu duten edo gaindituko duten enpresak.

**6.** Kenkari honen kontzeptuak aplikatzeko, akzioak edo partaidetzak harpidetu edo eskuratu diren entitateak ziurtagiri bat eman beharko du, adierazten duena akzioak edo partaidetzak eskuratu diren zergaldian bidezko kenkaria aplikatzeko eskubidearen betekizunak bete direla.

Horrez gain, 2. apartatuaren a) letran arautzen den kasuan, aurreko apartatuaren b) eta c) letretan aipatzen diren erregelamenduaren 2. artikuluko 80. apartatuan ezartzen diren baldintzak betetzen direla egiaztatzen duten agiriak aurkeztu beharko ditu entitateak.

**7.** Zergaldian aplikatu ahal den gehieneko kenkaria ezin da izan zergadunaren likidazio oinarriaren ehuneko 20 baino gehiago. Funts berek ez dute emango pertsona edo entitate batek baino gehiagok kenkaria aplikatzeko eskubidea.

Ezarritako mugak gainditzen direlako kendu gabe geratzen diren zenbatekoak hurrengo bost urteetan amaitzen diren zergaldietako aitorpenetan aplikatu ahal izango dira, muga berberak errespetatuz.

8. (16) Aurreko 1-7 arteko apartatuetan aipatzen diren baldintzak betetzen ez badira, zergadunak kenkariaren ondoriozko kuota eta bidezko berandutze interesak sartu beharko ditu ez-betetzea gertatu den zergaldiaren aitorpenean.

#### **90.bis artikulua. (10) (23) Kenkariak jarduera ekonomikoa hastearren.**

1. 30 urtetik beherako zergadunek 1.000 euroko kenkaria aplikatu ahal izango dute, baldin eta jarduera ekonomikoa berri bati ekiten badiote lehen aldiz, eta jarduera hori garatzeko behar diren giza baliabideak eta baliabide materialak baditu.

Jarduera ekonomikoa berria lehen aldiz hasten duten zergadunak bat baino gehiago badira, aurreko paragrafoan aipatutako kenkaria zati berdinetan banatuko da jarduera ekonomikoa hori ohikotasunez, pertsonalki eta zuzenean egiten duten zergadun guztien artean, haien adina edozein dela ere. Kenkariaren banaketa hori egin ondoren, 30 urtetik beherako zergadunek aplikatuko dute, dagokien zatian.

2. Jarduera ekonomikoa foru arau honen hogeita hamalagarren xedapen gehigarrian aipatzen diren gune edo eremuetako batean hasten bada, kenkaria 1.000 eurokoa izango da, lehen aldiz jarduera ekonomikoa berri bat hasten duen zergadunaren adina edozein dela ere, eta jarduera hori hasten dutenen kopurua edozein dela ere.

Emakume diren zergadunek, jarduera ekonomikoa hori ohikotasunez, modu pertsonalean eta zuzenean gauzatzen badute eta aurreko paragrafoan ezarritako betekizunak betetzen badituzte, aurreko paragrafoan aipatutako kenkaria handitu ahal izango dute 500 eurotan.

Aurreko bi paragrafoetan xedatutakoa eremu eta gune horietan fisikoki eta modu iraunkorrean kokatuta dauden jarduera ekonomikoei baino ez zaie aplikatuko, aurrez aurre garatzen edo gauzatzen badira, eta eremu edo gune horietatik harreman zuzenean bezeroekin edo erabiltzaileekin.

3. Jarduera ekonomikoa berri bat hasi dela jotzeko, jarduera ekonomikoa berri bat agertu beharko da, modu erreal eta eraginkorrean.

4. 1. paragrafoan jasotako zergadunaren adina zehazteko, zergaren sortzapen egunean dagoen egoera hartuko da kontuan.

5. Aurreko 1. eta 2. apartatuetan jarritako zenbatekoraino aplikatzen ez den kenkari kopurua hurrengo eta jarraiko bost urteetan amaitzen diren zergaldietako autolikidazioetan aplikatu ahal izango da.

6. Artikulu honetan aipatzen den kenkaria aplikatzeko, jarduera ekonomikoa gutxienez bi urtez gauzatu beharko da, eta jarduera ekonomikoa urte osoan garatu. Beraz, ez dira hor sartuko urtaroko edo asteburuko jarduerak.

7. Kenkari hori aplikatzeko finkatutako betekizunak ez betetzeak ekarriko du behar ez bezala kendutako kopuruak eta beraien berandutza korrituak ordaindu beharra. Sartu beharreko kopuruari baldintzabetetzen ez den zergaldiko kuota diferentziala gehitu behar zaio. Hala ere, zergadunak aukera izango du behar ez bezala murriztutako kopuru horiek, dagozkien berandutza korrituekin batera, aurrez ordaintzeko edozein unetan.

8. Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorrek bere 115. artikuluko 3. apartatuan ezarritakoaren ondorioetarako, artikuluko honetako kenkaria aplikatu ahal izateko ezinbestekoa da ekitaldiko autolikidazioan zergadunak berariaz adieraztea aplikatu nahi duela.

**90.ter artikulua. [\(10\)](#) Berrikuntza bultzatzeko Europako funtsetan inbertitzeagatik kenkaria.**

1. Zergadunek berrikuntza bultzatzeko Europako funtsetako partaidetzak eskuratzeko zergaldian ordaindutako diru kopuruaren ehuneko 15eko kenkaria aplikatu ahal dute, martxoaren 7ko 2/2018 Foru Arauaren 10. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen badituzte.

Halaber, zergadunek kenkari berbera aplikatu ahal dute kreditu entitateetan funts horietako partaidetzak eskuratzeko kontuetan gordailatzen dituzten diru kopuruengatik.

2. Arestiko idatz zatiak aipatzen duen kenkaria ezingo da izan urteko 750 euro baino handiagoa.

3. Gordetako partaidetzak edo kopuruak eurak eskuratu edo gordailua ireki eta bost urteko epean mantendu beharko dira.

Mantentzeko baldintza ez da bete gabetzat joko partaidetzen edo gordailuaren titular den zergaduna aurreko idatz zatian aipatutako epea amaitu baino lehen hiltzen bada.

Zergadunak ez badu betetzen aipatutako mantentze epea, finantza entitateak ez baditu berrikuntza bultzatzeko Europako funtsetako partaidetzak eskuratzeko erabiltzen gordailututako diru kopuruak, edo funts horiek ez badituzte betetzen martxoaren 7ko 2/2018 Foru Arauaren 10. artikuluan ezarritako betekizunak, bidegabeki kendutako zenbatekoak sartu beharko dira, dagozkien berandutze interesekin batera. Murriztutako kopuru horri horietako edozein betetzen ez den zergaldiari legokiokeen kuota diferentzialari gehituko zaio eta batuketatik ateratzen den kopurua ordainduko da. Alabaina, zergadunak bidegabeki kendutako zenbateko horiek, dagozkien berandutze interesekin batera, lehenagoko une batean sartzeko aukera izango du.

4. Artikulu honetan xedatutakoa ez da aplikatzekoa izango zergadunak eskuratutako partaidetzetan baldin eta partaidetza horiek direla-eta zergadunak aplikatu badu Foru Arau honen 48. artikuluko 4. zenbakian ezarritakoa.

**90.quater artikulua. [\(16\)](#) Kenkaria langileek entitateak eratzegatik.**

1. [\(29\)](#) Zergadunek lanean ari diren entitateko akzioak edo partaidetzak eskuratzeko edo harpidetzeko zergaldian eskudirutan ordaindutako kopuruaren ehuneko 15eko

kenkaria aplikatu ahal izango dute, gizonak badira, edo ehuneko 20koa, emakumeak badira.

Urteko kenkaria ezingo da izan 1.200,00 euro baino handiagoa, eskuratzaileria gizonetzkoa denean, edo 1.800,00 euro baino handiagoa, emakumezkoa denean.

Kuota nahikorik ez egoteagatik kenkaririk aplikatzen ez zaien diru kopuruak hurrengo lau zergaldietako autolikidazioetan aplikatu ahal izango dira, aurreko muga errespetatuz.

Segidako zergaldietan zergadun bakoitzak artikuluko honen arabera aplikatzen dituen kenkarien batura ezin da izan 6.000,00 euro baino gehiago, gizona bada, edo 8.000,00 eurotik gorakoa, emakumea bada

**2.** Kenkari hau aplikatzeko honako baldintza hauek bete behar dira:

a) Harpidetzaren xedea entitatea eratzea izan behar da. Hori dela eta, xede horretakotzat joko dira eratu ondoko sei hiletan egiten diren harpidetzak.

b) Entitatea ezin da egon beste bati lotuta, Sozietateen gaineko Zergaren abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauak 42. artikuluko 3. apartatuan ezartzen duenarekin bat etorritik.

c) Baloreak ezin dira egon onartuta araututako balore merkatu batean negoziatzeko.

d) Entitatea mikroenpresa edo enpresa txikia edo ertaina izan behar da, Sozietateen gaineko Zergaren abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauak 13. artikuluan ezartzen duenarekin bat etorritik.

e) Entitatea eratzten denetik sei hilabete pasatu baino lehen zergaduna lanean hasi behar da bertan.

f) (29) Langile bakoitzak zuzenean edo zeharka entitatean daukan partaidetza (ezkontidearena edo izatezko bikotekidearena, aurrekoena edo adoptatzaileena, ondorengoena eta adoptatuena, eta hirugarren gradurainoko alboko ahaideena sartuta) ezin da izan ehuneko 40 baino gehiago.

g) (29) Guztira, langileek ehuneko 40ko partaidetza eduki behar dute entitatean gutxienez.

(24) Baldintza hauek, a), c) eta e) letretakoak ez beste guztiak, bost urtean bete behar dira entitatea eratu ondoren, gutxienez. g) letrako baldintza ez da bete beharko entitatea eratu ondoko lehen sei hilabeteetan.

h) (29) Entitatea eratzeko akzioak edo partaidetzak harpidetzen direnean, gutxienez hiru langilek parte hartuko dute.

**3.** Kenkari honetarako eskubidea ematen duten akzioak edo partaidetzak gutxienez bost urtean eduki behar dira entitatea eratu ondoren.

Zergadunak gutxienez bost urtean egin behar du lan entitatean, honako kasu hauetan izan ezik: epealdia amaitu aurretik hiltzen bada; bertan lan egiteari uzten badio irazpenaren ondorioz edo ezintasun iraunkor osoa, absolutua, edo baliaezintasun handia aitortu zaiolako. Hori dela eta, langile batek borondatezko eszedentziahartzen badu senide bat zaintzeko, aldi hori lan egindako alditzat hartuko da.

Aurreko paragrafoko baldintza ez da bete beharko entitatea eratu ondoko lehen sei hiletan.

4. Aurreko 2. eta 3. apartatuetan aipatzen diren baldintza edo inguruabarretako bat betetzen ez bada, zergadunak bidegabe aplikatutako kenkariaren zenbatekoak itzuli beharko ditu, bai eta beren bidezko berandutza interesak ere, honako kasu hauetan izan ezik: ez betetzeko arrazoia epealdia amaitu aurretik hiltzea bada; entitateak kaleratzen badute; entitatea konkurtso prozedura baten ondorioz likidatzen bada.

Zenbat diru itzuli behar den kalkulatzeko, bidegabe kendutako kopuruari araua urratu den zergaldiko kuota diferentziala batuko zaio. Hala ere, zergadunak bidegabe kendutako kopuru horiek eta beren berandutze interesak lehenago ordaintzeko aukera edukiko du.

#### **90. quinquies artikulua. (29) Kenkaria jarduera ekonomikoa egiten jarraitzeagatik**

1. Jarduera ekonomikoren bat egiten duten zergadunek 800,00 euroko kenkaria aplikatu ahal izango dute, gizonezkoak izanez gero, edo 1.000,00 eurokoa, emakumezkoak izanez gero, honako baldintza hauek betetzen badituzte:

a) Zerga sortzen den egunean jarduera ekonomikoa egiten urtebete baino gehiago eta bi urte baino gutxiago jardun izana.

b) Jarduera ekonomikoa hasi denerako norberaren konturako langileak edo langile autonomoak Gizarte Segurantzaren araubide berezian alta emanda egotea.

c) Langileok Gizarte Segurantzaren araubide berezian alta emanda egotea jarduera ekonomikoa egiten den artean.

d) Jarduera egiteko behar diren langileak eta baliabide materialak edukitzea, eta jarduera ekonomikoa pertsonalki eta zuzenean egitea.

e) Jarduera ekonomikoa urte osoan egitea. Beraz, sasoiko edo asteburuetako jardueretan ezin da aplikatu kenkaria.

2. Artikulu honetako kenkaria aplikatzeko, ezinbestekoa da jarduera ekonomikoa gutxienez bost urtean egitea eta aldi horretan aurreko apartatuaren c), d) eta e) letretan aipatzen diren baldintzak betetzea.

3. Artikulu honetan arautzen den kenkaria behin bakarrik aplikatu ahal izango da jarduera ekonomiko batean.

4. Kenkaria aplikatzeko ezarritako betekizunak betetzen ez badira, behar ez bezala jasotako diru kopuruak itzuli behar izango dira, bidezko berandutze interesekin. Itzulketa hori egingo da diru kopurua ez-betetzeagertatzen den zergaldiari dagokion kuota diferentzialari gehituz. Hala ere, zergadunak behar ez bezala kendutako diru kopuruak lehenago itzuli ahal izango ditu, bidezko berandutze interesekin.

5. Aurreko 1. apartatuan adierazitako zenbatekoraino kendu gabeko diru kopurua aplikatu ahal izango da ondoko bost urteetan amaitzen diren zergaldietako autolikidazioetan.

## **VI. KAPITULUA EMARIENGATIKO KENKARIAK**

### **91. artikulua. [\(25\)](#) Mezenasgo jarduerengatik aplika daitezkeen kenkariak.**

1. Zergadunek irabazteko xederik gabeko entitateen zerga araubidearen eta mezenasgorako zerga pizgarrien foru arauan ezartzen diren kenkariak aplikatu ahal izango dituzte.

2. Artikulu honetan aipatzen den kenkariaren oinarria ezin da izan zerga honen zerga oinarriaren ehuneko 35 baino gehiago. Zerga oinarriaren zenbatekoa zerga oinarri orokorraren eta aurrezkiaren zerga oinarriaren batura izango da, foru arau honek 67. eta 68. artikuluetan ezartzen duenarekin bat etorritz.

Ezarritako muga gainditzen delako kenkaririk gabe geratzen diren diru kopuruak hurrengo bost urteetan amaitzen diren zergaldietako autolikidazioetan aplikatu ahal izango dira, muga berberak errespetatuz.

3. Artikulu honetan xedatzen denaren aplikazioa autolikidazioa aurkeztean egin behar den hautapena da, foru arau honek 105. artikuluan ezartzen duenaren ondorioetarako (artikulu horretako 2., 3. eta 4. apartauetan xedatzen dena aplikatu behar da).

## **VII. KAPITULUA BESTE KENKARI BATZUK**

### **92. artikulua. Nazioarteko zergapetze bikoitzagatik aplika daitezkeen kenkariak.**

Zergadunaren errentan atzerrian lortu eta kargatutako etekinak edo ondare irabaziak egonez gero, kopuru hauetatik txikiena kenduko da:

a) Hau bezalako edo Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zerga bezalako zerga bategatik edo horien antzeko batengatik atzerrian etekinei edo ondare irabaziei aplikatutako kargengatik ordaindutako kopurua.

b) Atzerrian lortutako errentari batez besteko karga tasa edo aurrezkiaren gaineko batez besteko tasa aplikatzearen emaitzako kopurua (kasuan kasukoa errenta integratu den likidazio oinarriaren zatiaren arabera: orokorra edo aurrezkiarena).

**93. artikulua. Langileen sindikatuei ordaindutako kuoten eta alderdi politikoei emandako kuoten eta ekarpenen ziozko kenkaria.**

1. Zergadunek langileen sindikatuei ordaindutako kuoten ehuneko 20ko kenkaria aplikatu ahal dute.

2. Gainera, zergadunek alderdi politikoei ordaindutako afiliazio kuoten eta alderdiei egindako ekarpenen ehuneko 20ko kenkaria aplika dezakete.

Foru arau honetako 22. artikuluko b) letran ezarritakoaren arabera gastu gisa kendutako kopuruak ez dira sartu behar kenkari honen oinarrian.

3. Aurreko idatz zatietan ezarritako kenkariak foru arau honetako 116. artikuluko h) eta i) letretan aipatzen diren eredu informatiboan ageri diren zergadunek soilik aplika ditzakete.

**93 bis artikulua. [\(22\)](#) [\(29\)](#) Kenkaria, ohiko etxebizitza energia elektrikoaren hornikuntzarako inbertsioak egiteagatik.**

1. Zergadunek zergaldian honako elementu hauek erosteko ordaindutako kopuruen ehuneko 15eko kenkaria aplikatu ahal izango dute:

a) Eusko Jaurlaritzako sail eskudunaren Teknologia Garbien Euskal Zerrenda onartzen duen aginduan zehazten diren ekipo osoak, eguzki energia elektriko fotoboltaikoa sortzeko erabili ahal badira.

b) Sozietate xede nagusia aurreko a) letran aipatzen diren inbertsioen bidez energia iturriak eraginkortasun handiagoarekin aprobetxatzeko proiektuak egitea den entitateen akzioak, partaidetzak edo funts propioetako partaidetza ematen duten bestelako tresna guztiak.

b) letra honetan ezartzen diren tresnak hura eratzen denean sinatu behar dira edo, bestela, eratu ondoko bost urteetan egiten den kapital zabalkuntza batean.

2. Kenkariaren oinarrian honako hauek sartzen dira:

a) Aurreko 1. apartatuaren a) letran arautzen den kasuan, egindako inbertsioen zenbatekoa.

b) Aurreko 1. apartatuaren b) letran arautzen den kasuan, entitateko funts propioetako partaidetza ematen duen tresnaren eskuraketa kostua.

Aurreko a) eta b) letretan xedatzen denaren arabera kalkulatzeko den kenkariaren oinarritik zergadunak elementu horiek eskuratzeko jasotako dirulaguntza salbuetsien zenbatekoa kenduko da.

Energiaren kontsumoak eragiten dituen gastuak ez dira kengarriak izango.

3. Zergadun bakoitzak zergaldi guztietan aurreko 1. apartatuko kontzeptuengatik kentzen dituen zenbatekoen batura ezin da izan 3.000,00 euro baino gehiago.

**4.** Kuota osoa aski izan ez eta kentzen ez diren kopurua hurrengo lau zergaldietan aplikatu ahal izango dira. Aurreko 3. apartatuan ezartzen diren mugak aplikatu beharko dira.

**5.** Artikulu honetan arautzen den kenkaria aplikatzeko, honako baldintza hauek bete beharko dira bost urtez gutxienez:

a) 1. apartatuan aipatzen diren elementuen bidez lortzen den energia zergadunaren ohiko etxebizitzaren hornikuntzarako erabili beharko da.

Hori dela-eta, ohiko etxebizitzatzat hartzen dira errentari, azpierrenerari edo gozamedun gisa okupatzen diren etxebizitzak.

b) Kenkarirako eskubidea ematen duten aurreko 1. apartatuko elementuak zergadunaren ondarean egon beharko dira aldi horretan.

c) 1. apartatuaren b) letrako kasuan, zergadunak ezin eduki izango du, zuzenean zein zeharka, entitatearen kapital sozialaren edo boto eskubideen ehuneko 10 baino gehiago. Zergaduna familia unitate batean badago, muga hori aplikatzean kide guztien partaidetzat hartuko dira kontuan.

Apartatu honetan ezartzen den bost urteko epealdia a) letran zehazten diren ekipo osoak abian jartzen direnetik edo 1. apartatuaren b) letran ezartzen diren tresnak eskuratzen direnetik hasiko da zenbatze, kasuan kasukoa.

**6.** Aurreko apartatuan aipatzen diren betebeharrak betetzen ez badira, heriotza gertatzen denean ez beste kasu guztietan, ordaindu egin beharko da oker aplikatutako kenkarien zenbatekoa, bai eta hari dagozkion berandutze interesak ere. Zenbat ordaindu behar den kalkulatzeko, kendutako zenbatekoari baldintza bete ez den zergaldiko kuota diferentziala batu behar zaio. Hala ere, zergadunak diru sarrera hori lehenagoko egitea hautatu ahal izango du.

Baldin eta aurreko apartatuan ezartzen den bost urteko aldia amaitu baino lehen horren a) eta b) letretan ezartzen diren baldintzetako bat betetzen ez bada, ezin izango da aplikatu aurreko paragrafoan arautzen den erregularizazioa, honako hauek gertatu ezean: baldintza betetzen ez den egunaren aurreko edo ondoko bi urteetan zergadunak aurrean egindako inbertsioaren zenbateko bera, gutxienez, aurreko 1. apartatuan aipatzen diren elementuetan berrinbertitzea, eta inbertsio horren bidez aurreko apartatuan ezartzen den aldia bete ahal izatea, artikulu honetan ezartzen diren baldintzak eta betekizunak beteta.

Hori dela-eta, baldintza bete ez den eguna izango da zergadunaren ohiko etxebizitzak izaera hori galtzen duen eguna, hornidura amaitzen den eguna edo elementuak eskualdatzen diren eguna.

Inbertsio berriak ez du emango artikulu honetako kenkaria aplikatzeko eskubiderik, aurreko inbertsioetik kenkaririk sortu ez duen zatiari dagokionaz besterik.



## **VIII. KAPITULUA FROGAGIRIAK**

### **94. artikulua. Frogagiriak.**

Titulu honetan araututako kenkariak aplikatu ahal izateko ezinbestekoa da zergadunak aplikatzeko eskubidea daukala frogatzen duten agiriak aurkeztea. Agiri horietan enpresaburuei eta profesionaleri euren fakturak egiteko eta emateko ezarritako baldintzak bete behar dira, bidezkoa denean.

## **VIII. TITULUA KUOTA DIFERENTZIALA**

### **95. artikulua. Kuota diferentziala.**

1. Kuota diferentziala kalkulatzeko zenbateko hauek kendu behar dira kuota likidotik:

a) Zerga arautegian ezarritako atxikipenak, konturako sarrerak eta zatikako ordainketak.

b) Foru arau honetako 106. artikuluko 3. idatz zatian aipatzen diren atxikipenak.

c) Zergadun izatea egoitza aldaketaren ondorioa bada, foru arau honetako 106. artikuluko 2. idatz zatian aipatzen diren atxikipenak eta konturako sarrerak, eta Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergagatik egoitza aldatu den zergaldian sortu eta ordaindutako kuotak ere bai.

2. Aurreko idatz zatian aipatutako zenbatekoetan kenkaria aplikatzeko ezinbestekoa da hura agiri bidez frogatzea.

## **IX. TITULUA ZERGA ZORRA**

### **96. artikulua. Zerga zorra.**

1. Zerga zorrak osagai hauek dauzka: zerga kuota eta, bidezkoa denean, Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 57. artikuluko 1. eta 2. idatz zatietan ezarritako kontzeptuak.

2. Zergadunek euren zerga zorra ordaindu behar dute.

## **X. TITULUA BATERAKO TRIBUTAZIOA**

### **97. artikulua. Hautapena: Zerga batera ordaintzea.**

1. Hurrengo artikuluan aipatutako modalitateetako bateko familia unitate bateko kide diren pertsona fisikoek edozein zergalditan hautatu dezakete Zerga batera ordaintzea, beraren arau orokorreari eta titulu honetan ezarritako xedapen bereziei jarraituz, baldin eta familiako kide guztiak zergadunak badira.

Familia unitateko kide guztiak ez badira bizi lurralde berean eta Zerga batera ordaintzea hautatzen badute, foru arau honetako 2. artikuluko 1. zenbakiko a) letran xedatutakoa aplikatuko da.

Zergadunek ezingo dute Zerga batera ordaindu legezko banaketa gertatu edo epai bidez bien artean inolako loturarik ez dagoela adierazi ondoren edo izatezko bikotea azkendu ondoren, nahiz eta elkarrekin bizitzen segitu. [\(10\)](#)

2. Zergaldi batean Zerga batera ordaintzea hautatzeak ez dakar berekin hurrengo zergaldietan ere gauza bera egitea

3. Zerga batera ordaintzea hautatuz gero, familia unitateko kide guztiak ordaindu behar dute. Kide batek baterako zerga ordainketaren arauak aplikatzen ez baditu edo banakako autolikidazioa aurkezten badu, familia unitateko gainerako kideek araubide bera erabili behar dute.

4. [\(16\)](#) [\(24\)](#) Zergadunek bidezko autolikidazioa aurkezten ez badute, beharrezkoa izan arren, zerga banaka ordaintzen dutela pentsatuko da.

### **98. artikulua. Familia unitatea: modalitateak.**

1. [\(29\)](#) Familia unitateko kideak dira legez bananduta ez dauden ezkontideak edo izatezko bikoteko kideak, eta honako hauek:

a) Adingabeko seme-alabak, gurasoen edo adoptatzaileen baimenarekin beren kontura bizi direnak izan ezik.

b) Adinez nagusiak diren seme-alabak, baldin eta, Kode Zibilaren I. liburuaren XI. tituluaren xedatutakoaren esparruan, ordezkapen ahalmena duen kuradoretza bati lotuta badaude, eta, betiere, hori gurasoek edo adoptatzaileek gauzatzen badute.

2. Halaber, legezko banaketa gertatu bada edo ezkontza loturarik edo izatezko bikoterik ez badago, edo epaileak horri buruz ebazpena eman badu, familia unitateko kideak hauexek izango dira: gurasoetako bat eta aurreko idatz zatian aipatutako baldintzak betetzen dituzten seme-alabak, norekin bizi diren kontuan hartu gabe. Hala denean, beste gurasoa ez da izango familia unitateko kidea.

Familia unitatearen eraketari dagokionez, guraso bati esleituko zaizkio seme-alaba guztiak, bien artean hitzartuta.

Ados jartzen ez badira, familia unitateko kideak epailearen ebazpena dela bide seme-alaben zaintza daukan gurasoa eta seme-alabak izango dira. Honelako kasuetan bi familia unitate egon daitezke, bakoitzean guraso bat eta epai ebazpen bidez berak zaindu beharreko seme-alabak daudela. Hala izan dadin, familia unitatea eratzeko ezinbestekoa da seme edo alabaren baten zaintza edukitzea epai ebazpen bidez.

3. Pertsona bat ezin da izan bi familia unitatetako kidea aldi berean.

4. Familia unitate bateko kideak nortzuk diren zehazteko abenduaren 31ko egoera hartuko da kontuan.

(3) Urtean zehar familia unitateko kideren bat hil bada, gainerako kideek zerga batera ordaintzea hautatu ahal izango dute. Hala bada, autolikidazioan hildakoaren errentak sartu beharko dituzte, bai eta zendua dela eta foru arau honen VII. tituluaren II. kapituluaren ezarritakoaren arabera aplikatu daitezkeen kenkari pertsonalak eta familiarrak ere; kenkariak ez dira murriztu behar heriotza egunera arteko aldiaren proportzioan.

#### **99. artikulua. Baterako tributaziorako arauak.**

1. Baterako tributazioan zergadunen errenta, zerga oinarria, likidazio oinarria eta zerga zorra kalkulatzeko arau orokorrak aplikatuko dira, artikulua honetan ezartzen diren berezitasunekin.

2. Banakako tributaziorako finkatutako zenbateko eta muga kuantitatiboak neurri berean aplikatuko dira baterako tributazioan, familia unitateko kide kopuruaren arabera gehitu eta biderkatu gabe.

Aurreko paragrafoan ezarritakoa gorabehera:

a) Familia unitateko kide batek baino gehiagok jaso badituzte lanaren etekinak, foru arau honetako 23. artikuluan aipatzen den hobaria lanaren etekin guztiak kontuan hartuta aplikatuko da, jasotzaileen kopurua gorabehera.

b) Zerga honi buruzko arau orokorrekin bat etorritz, familia unitateko kideek Zerga banaka ordaindu duten aurreko zergaldietan sortu eta konpentsatu ez dituzten jarduera ekonomikoen etekinen saldo negatiboak, aurrezkiaren zerga oinarriaren saldo negatiboak, ondare-galerak eta likidazio oinarri orokor negatiboak konpentsatu daitezke.

Hurrengo zergaldi batean Zerga banaka ordainduz gero, aurrean aipatutako kontzeptuak zein zergadunek konpentsa ditzaketen zehazteko foru arau honetan errentak bakoizteko ezarritako arauak aplikatuko dira.

c) Foru arau honetako 71. eta 72. artikuluetan eta zortzigarren xedapen gehigarrian zerga oinarri orokorra murrizteko ezarritako gehieneko mugak banaka aplikatuko ditu familia unitateko partaide, mutualista, aseguratuta edo bazkide bakoitzak. Era berean, zergadun bakoitzaren zerga oinarriaren proportzioa kontuan hartuko da foru arau honetako 67. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako.

d) Foru arau honetako 83. artikuluan ezarritako kenkaria bertan aipatzen den adina daukaten zergadunek aplikatu dezakete. Kenkari hori aplikatzeko ezinbestekoa da baterako tributazioaren zerga oinarria, 83. artikuluko 4. idatz zatian ezarritakoaren arabera kalkulatua, 35.000 euro baino gehiago ez izatea.

e) [\(10\)](#) [\(24\)](#) 36.000 euroko kopurua, foru arau honen 87. artikuluko 3. apartatuan aipatzen dena, zergadun bakoitzari banaka aplikatuko zaio. Hala ere, urtean aplikatu daitekeen gehieneko kenkaria, foru arau honen 87. artikuluko 2., 4. eta 4. bis apartatuetan aipatzen dena, ezin daiteke izan 1.530, 1.836, 1.955, 2.346, 1.955 eta 2.346 eurotik gorakoa, hurrenez hurren, familia unitateko kideen kopurua gorabehera; salbuespena: foru arau honen 98. artikuluko 1. apartatuan ezarri bezala familia unitateko kideek baterako aitortzea eginez gero, muga horiek bi halako izango dira.

f) [\(10\)](#) Foru Arau honen 90. artikuluan ezarritako gehieneko muga zergadun bakoitzeko aplikatuko da, alegia, artikuluko horretan xedatutakoarekin bat etorriz partaidetzak eskuratzen dituzten edo kreditu entitateetan zenbatekoak gordailutzen dituzten zergadunetako bakoitzeko.

g) Foru Arau honetako 93. artikuluan aipatzen den kenkaria langileen sindikatuei kuota ordaintzen dizkion zergadun bakoitzari aplikatuko zaio.

**3.** Zerga batera ordaintzea hautatzen duen familia unitateko pertsona fisikoek lortutako errentak, mota guztietakoak, batera kargatuko dira.

**4.** Baterako tributazioan, autolikidazioa familia unitateko adin nagusiko kideek sinatu eta aurkeztu behar dute; kide horiek familia unitateko adin txikikoak ordezkatzeko dituzte, Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 45. artikuluko 1. idatz zatian xedatutakoaren arabera.

**5.** Familia unitateko kide guztiak zerga honen kargapean daude, denak batera eta maila berean; nolahi ere, zerga zorra denen artean hainbanatzeko eskubidea dute, bakoitzari dagokion errenta finakoaren zatiaren arabera.

## **XI. TITULUA ZERGALDIA ETA SORTZAPENA**

### **100. artikulua. Zergaldia eta sortzapena: arau orokorra.**

1. Zergaldia urte naturala da.

2. Zerga abenduaren 31n sortuko da urtero, hurrengo artikuluan ezarritakoa gorabehera.

### **101. artikulua. Urte naturala baino laburragoa den zergaldia.**

1. Zergaldia urte naturala baino laburragoa izango da zergaduna abenduaren 31 ez den egun batean hiltzen bada.

2. Aurreko idatz zatian azaldutako kasuan, heriotza egunean amaituko da zergaldia eta orduan sortuko da zerga, ezertan ukatu gabe foru arau honetako 98. artikuluko 4. idatz zatian Zerga batera ordaintzea hautatzen den kasuetarako xedatutakoa; horrelakoetan, Zerga batera ordaintzea hautatu eta bidezko murrizketa aplikatzearen ondorio soiletarako, heriotza abenduaren 31n gertatuzat joko da.

## XII. TITULUA KUDEAKETA

### I. KAPITULUA AUTOLIKIDAZIOAK

#### 102. artikulua. Autolikidazioa egin beharra.

1. Zergadunek zerga honen autolikidazioa aurkeztu eta sinatu beharko dute; arau bidez finkatuko dira mugak eta baldintzak.

2. [\(13\)](#) [\(16\)](#) [\(19\)](#) [\(24\)](#) Hala ere, errentak ondoko iturrietatik soilik lortzen dituzten zergadunek ez dute autolikidaziorik egin beharko:

a) [\(29\)](#) Lanaren etekin gordinak; urtean 14.000,00 euro gehienez, banakako tributazioan. Baterako tributazioan, muga hori horrelako etekinak izan dituen zergadun bakoitzari aplikatuko zaio.

b) [\(29\)](#) Lanaren etekin gordinak; 14.000,00 eta 20.000,00 euro bitartean urtean banakako tributazioan, hurrengo 3. apartatuan aipatzen diren egoeretako batean sartuta daudenezat izan ezik. Baterako tributazioan, muga hori horrelako etekinak izan dituen zergadun bakoitzari aplikatuko zaio.

c) Kapitalaren etekin gordinak eta ondare irabaziak, salbuetsiak barne (bi kontzeptuak), urteko guztirako zenbatekoa 1.600 euro baino gehiago ez bada.

Letra honetan xedatutakoa ez zaie aplikatuko inbertsio kolektiboko erakundeen akzio edo partizipazioen eskualdaketen edo itzulketen ondorio diren ondarezko irabaziei, baldin eta, arauz ezarritakoaren arabera, atxikipen oinarria ez bada zehaztu behar zerga oinarri guztiaren zenbatekoarengatik.

3. Aurreko idatz zatiko b) letran adierazitako zergadunek zerga honen autolikidazioa aurkeztu behar dute kasu hauetan:

a) [\(19\)](#) [\(24\)](#) [\(29\)](#) Ordaintzaile baten baino gehiagoren lanaren etekinak jaso badituzte.

Hala ere, 20.000,00 euro arteko laneko etekin gordinak jasotzen dituzten zergadunek ez dute aitorpena aurkeztu beharrik izango, baldin eta zenbatekoaren arabera hurrenkerako bigarren ordaintzailearengandik eta gainerako ordaintzaileengandik jasotako zenbatekoen batura, guztira, urtean 2.000,00 euro baino handiagoa ez bada.

b) [\(19\)](#) [\(24\)](#) [\(29\)](#) Ordaintzaile bakar baten lanaren etekinak jaso badituzte, baina lan edo administrazio kontratu bat baino gehiago izenpetu badute, indarrean dagoen ekitaldian edo luzapenean.

c) Ezkontideak edo izatezko bikotekideak emandako konpentsazio pentsioak edo mantenurako urtekoak, foru arau honetako 9. artikuluko 1. zenbakian ezarritakoak ez beste batzuk, jaso badituzte.

d) Arauz ezarritako egoeraren batean sartuta badaude.

Hala ere, idatz zati honetan ezarritakoaren arabera zergadunak autolikidazioa aurkeztu behar badu, hauetako bat hautatu ahal izango du:

- Zerga berari buruzko xedapen orokorrekin bat etorri ordaindu

- Zerga lanaren etekinak soilik kontuan izanik ordaindu, arau hauek aplikatuz.

a') [\(24\)](#) [\(28\)](#) Lanaren etekinetarako ezarritako atxikipen ehunekoaren taulak aplikatuko zaizkie sortutako lanaren etekinen zenbateko osoei, foru arau honetan xedatzen denaren arabera salbuetsita daudenak ez beste guztiei. Horretarako, kontuan hartuko dira atxikipena egin behar zaien etekinen zenbatekoa zehazteko arauak eta zergaren sortzapen egunean indarra duten atxikipen taulak finkatu eta aplikatzeko arauak.

b') Aurreko a') letran ezarritako eragiketaren emaitzako kopurutik lanaren etekinen gainean egindako atxikipenen eta kontura egindako sarreraren zenbatekoa kenduko da. Horren emaitzako kopurua Foru Aldundiari ordaindu beharko zaio; ordainketa arauz ezartzen den bezala zatikatu ahal izango da. Likidazio honen ondorioz inolaz ere ez da diru kopururik itzuliko.

c') Inolaz ere ez da aplikatuko ez gastu kengarririk, ez hobaririk, ez txikipenik, ez baterako tributazioko araurik, ez Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren arauetan ezarritako pizgarririk.

**4.** Zergadunek eragiten dieten autolikidazioko datu guztiak adierazi bete behar dituzte. Horrez gainera, ezarritako eta ezartzen diren dokumentuak eta frogagiriak ere aurkeztu behar dituzte.

**5.** Kausatzailearen oinordekoek falta diren zerga honen autolikidazioak aurkeztu eta sinatu beharko dituzte, zehapenak bazter utzita, Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 39. artikuluekin bat etorri.

**6.** Zergadunek egoitza aldatzen badute, Zerga Administrazioari horren berri eman beharko diote, horrek Zerga eskatzeko eskumenean ere aldaketak eraginez gero.

**7.** Autolikidazio ereduak eta autolikidaziorako modalitate erraztuak edo bereziak erabiltzea Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak onartuko ditu. Foru diputatu horrek berak zehaztuko du autolikidazioa nola eta noiz aurkeztu behar den, bai eta autolikidazioak baliabide telematikoen bidez nolako kasuetan eta nola aurkez daitezkeen ere.

8. Foru Aldundiak ezarritako baliabideak, prozesu informatiko edo bestelakoak edo zerbitzuak erabiliz edo horietaz baliatuz egin daitezke zerga honen autolikidazioak, arau bidez finkatzen denaren arabera.

### **103. artikulua. Autolikidazioa eta zerga zorraren sarrera.**

1. Autolikidazioa aurkeztearekin batera zergadunek zerga zorra zehaztu beharko dute, eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak erabakitako tokian, moduan eta epean ordaindu beharko dute.

2. Autolikidazioaren ondorioz egin beharreko sarrera arau bidez ezartzen den moduan zatitu ahal izango da.

3. Aparteko kasuetan, Foru Aldundiak, nahi dituen txostenak egin eta gero, zerga zorra (eta behar denean zehapenak ere bai) zainahi ondasun edo eskubide emanez ordaintzea onartu ahal izango du.

Aipatutako ondasunak zerbat ordaintzeko ematen direnean ageran geratzen dren errentak ez dra sartuko zerga onarrian, eta Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 59. artikuluko 2. idatz zatian araututako kasuetan ageran geratzen drenak ere ez.

4. Kausatzailearen oinordekoek zerga honen ziozko burutu gabeko betebeharrak bete beharko dituzte, zehapenak izan ezik, Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 39. artikulua arabera.

### **104. artikulua. Autolikidazio proposamenak.**

1. Foru Aldundiak autolikidazioaren proposamena bidali ahalko die autolikidazioa egin behar duten zergadunei.

2. Zergadunaren ustez proposatutako autolikidazioan beraren zerga egoera islatzen bada, proposamena sinatu, berretsi edo aldatu ahal izango du arau bidez ezarritakoarekin bat etorriz. Hori eginez gero, proposamena autolikidaziotzat hartuko da.

Foru Aldundiak bidalitako autolikidazio proposamena sinatu edo berresten duen zergadunari ezin izango zaio zehapenik ezarri proposamenean jasotako datuak direla eta.

3. Zergadunak ez badu onartzen bidali zaion autolikidazio proposamena, administrazio jarduketa ez egintzat joko da eta zergadunak autolikidazioa aurkeztu beharko du, betebeharrak hori edukiz gero.

### **105. artikulua. [\(16\)](#) Autolikidazioa aurkeztean egin beharreko hautapenak.**

1. Arabako zergen Foru Arau Orokorreko 115. artikuluko 3. apartatuan xedatzen duena aplikatzeko, zerga honen autolikidazioa aurkezten denean hautapen hauek egin behar dira:

a) Atzerrian egindako lanengatik jasotzen diren lan-etekinen salbuespena aplikatzeagatiko aukera (9.17 artikuluan arautzen da), edo gaindikinen araubidea aplikatzeagatiko.

b) Aparteko mozkinen berrinbertsioa; 25.3 artikuluan arautzen da.

c) Aurreko ekitaldietako saldo negatiboen konpentsazioa; 65. artikuluko b) letran arautzen da.

d) (17) Foru-arau honetako IV. tituluko VI. Bis kapituluari jasotako erregimen bereziak aplikatzeko aukera.

e) Jarduera ekonomikoak sustatzeko kenkariak; 88., 89., 89.bis, 90. eta 90. quater artikuluetan arautzen dira.

f) Berrikuntza bultzatzeko Europako funtsetan inbertitzeagatik aplika daitekeen kenkaria.

g) Zerga batera ordaintzea; 97. artikuluan arautzen da.

h) Negoziatzeko onartutako baloreek sortutako ondare irabazietarako aukerako tributazio araubidea; hogeigarren xedapen gehigarrian arautzen da.

i) (29) Foru arau honen 91. artikuluan arautzen den mezenasgo jardueren ondoriozko kenkariak aplikatzea hautatzea.

**2.** Zergadunek Zergaren autolikidazioan aurreko idatz zatian aipatzen diren hautapenak aldatu ahal dituzte Zergaren aitortzea norberaren borondatez aurkezteko epealdia amaitu ondoren, baldin eta Zerga Administrazioak errekerimendurik egin ez badie.

**3.** Zerga Administrazioak errekerimendua egin ondoren zergadunek ezin izango dituzte egin artikuluan honetan aipatzen diren hautapenak.

**4.** Aurreko apartatuetan xedatzen denari dagokionez, aurretiazko errekerimendua zer den Arabako Zergen Foru Arau Orokorra ezartzen du 27.1 artikuluko bigarren paragrafoan.

## **II. KAPITULUA KONTURAKO ORDAINKETAK**

### **106. artikulua. Konturako ordainketak.**

**1.** Zerga honetan konturako ordainketak beti izango dira zerga zorrak; mota hauekoak izan daitezke:

a) Atxikipenak.



b) Konturako sarrerak.

c) Zatikako ordainketak.

2. Egoitzaren aldaketa dela eta norbait zergadun bihurtzen ba, zerga honen konturako ordainketatzat joko dira egoitza aldatu den zergaldian Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergagatik egindako atxikipenak eta konturako sarrerak.

Zerga honen ziozko zergadun ez diren besteren konturako langileak Espainiako lurraldera aldatuko direla eta zergadun bihurtuko badira, Zerga Administrazioari jakinarazi ahal izango diote inguruabar hori, eta Espainiako lurraldean zein egunetan sartuko diren adierazi, lanaren etekinen ordaintzaileak zerga honen ziozko zergaduntzat har ditzan, ez beste ezertarako.

Araudian ezartzen den prozedurari jarraituz, Zerga Administrazioak frogagiria emango die hala eskatzen dioten besteren konturako langileei, lanaren etekinak ordaintzen dizkieten Espainiako egoiliarrei edo bertan establezimendu iraunkorra dutenei eman diezaieten agiri hori. Agiri horretan adieraziko da zein egunetatik aurrera egin behar diren zerga honen ziozko atxikipenak eta konturako sarrerak, eta idatz zati honetako lehenengo paragrafoan adierazitakoa hartuko da kontuan atxikipen tasa kalkulatzeko.

3. Zerga honen konturako ordainketatzat hartuko dira Kontseiluak aurrezkien korrituen ziozko etekinen fiskalitateari buruz ekainaren 3an emandako 2003/48/EE Zuzentarauko 11. artikuluan xedatutakoa dela bide aplikatutako atxikipenak.

#### **107. artikulua. Atxikipenak eta konturako sarrerak egin beharra.**

1. (4) Jarraian aipatuko direnak behartuta daude atxikipenak eta konturako sarrerak egitera, jasotzaileari dagokion Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren konturako ordainketa gisa, arau bidez zehazten den kopuruan, bai eta horien zenbatekoa Foru Aldundiari ordaintzera ere Ekonomia Itunean jasotako kasuetan eta erregelamendu bidez finkatzen den moduan:

a) Zerga honi lotuta eta salbuetsi gabe dauden errentak ordaintzen dituzten pertsona juridikoak eta entitateak, errentak eratzkitzeko araubidean dauden entitateak barne.

b) Ekonomia jarduerak egiten dituzten zerga honen zergadunak, jarduera horiek gauzatzean zerga honi lotutako eta salbuetsi gabeko errentak ordaintzen dituztenean.

c) Egoitza lurralde espainiarrean izan gabe, bertan establezimendu iraunkorarekin zein iraunkorrik gabe jarduten duten pertsona fisikoak, juridikoak eta bestelako entitateak, beraiek ordaintzen dituzten lan etekinei dagokienez, bai eta atxiki edo kontura sartu beharreko beste etekin batzuei dagokienez ere, baldin eta Ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren Foru Arauak 24. artikulua 2. idatz zatian aipatzen dituen errentak lortzeko gastu kengarriak badira.

Entitate batek, egoiliarra izan ala ez, lanaren etekinak ordaintzen badizkie Sozietateen gaineko zergaren Foru Arauak 42. artikuluan ezarritakoaren arabera berari lotuta dagoen entitate egoiliar baten edo Espainiako lurraldean dagoen establezimendu iraunkor baten zerbitzuan ari diren zergadunei, atxikipena edo konturako sarrera

zergaduna lanean ari den entitateak edo establezimendu iraunkorrak aplikatu behar du.

(5) Egoitza Europako Espazio Ekonomikoko kide den beste estatu batean daukaten entitate aseguratzaileak Espainian aritzen badira, zerbitzuen prestazio libreko erregimenean, Espainian egiten dituzten eragiketei dagokienez atxikipena edo konturako sarrera egin beharko dute.

(5) (20) Europar Batasuneko beste estatu kide batean helbideratutako pentsio funtsek, Espainiako legediaren peko enpleguko pentsio planak garatzen badituzte, enpleguko pentsio funtsen jardueri eta ikuskapenari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren abenduaren 14ko 2016/2341 (EB) Zuzentarauan ezarritakoaren arabera, edo, egoki bada, haien erakunde kudeatzaileek atxikipena eta konturako sarrera egin beharko dituzte Espainian egiten dituzten eragiketetan.

Atzerriko estatuek Espainian dauzkaten misio diplomatikoez eta kontsul bulegoek ez dute atxikipenik ez konturako sarrerarik aplikatu behar.

2. Errenta jakin batzuei atxikipena edo konturako sarrera egin beharrendaren salbuespenak ezarri ahal izango dira araudian.

3. Atxikipena edo konturako sarrera egin behar duten subjektuek euren gain hartu behar dute Foru Aldundiari dirua ordaindu beharra; betebeharrak ez betetzeak ez ditu salbuetsiko sarrera egin beharretik.

4. Baldin eta epaile edo administrazio baten ebazpena dela bide pertsona batek zerga honengatik atxikipena edo konturako sarrera aplikatu behar zaion errenta bat ordaindu behar badu, atxikipena edo konturako sarrera ordaindu beharreko diru kopuru osoari aplikatu behar dio eta zenbatekoa Foru Aldundiari sartu behar dio, artikulua honetan ezarri den bezala.

5. Atxikipena edo konturako sarrera aplikatu beharreko etekinak jasotzen dituzten zergadunek atxikipena edo konturako sarrera kalkulatzeko kontuan hartu beharreko inguruabarrak jakinarazi behar dizkiote ordaintzaileari (araudian ezarriko da nola).

#### **108. artikulua. Atxikipenen eta konturako sarreraren zenbatekoa.**

1. Atxikipenaren zenbatekoa kalkulatzeko araudian finkatzen den ehunekoa aplikatu behar zaio ordaintzen edo abonatzen den kopuru osoari.

2. Gauzazko ordainsariengatik egin beharreko konturako ordainketaren zenbatekoa kalkulatzeko araudian finkatzen den ehunekoa aplikatu behar zaio foru arau honetan ezarritakoaren arabera kalkulatzeko balioari.

3. Jasotzaile bati lanaren errentak diruz eta gauzaz ordaintzen zaizkionean, atxikipena ordaindutako kontraprestazio edo onura guztien gainean egingo da.

Kasu horietan, aurreko 1. idatz zatian aipatzen den atxikipen ehunekoa kalkulatzeko kontuan hartu behar dira aurreikus daitezkeen diruzko eta gauzazko ordainsariak, finakoak zein aldakorak. Urtean zehar diruzko edo gauzazko ordainsarien zenbatekoa

aldatzen bada, beste ehuneko bat kalkulatu beharko da aldaketak kontuan hartuta. Dena delako aldaketak gertatzen direnetik aurrera bakarrik aplikatuko da beste ehuneko hori.

Ordaindutako diruzko etekinetatik kopuru hau kendu behar da: aurreko paragrafoan aipatutako ehunekoa ordaindutako kontraprestazio eta onuren guztirako zenbatekoari aplikatzearen emaitzako kopurua.

### **109. artikulua. Atxikipenaren eta konturako sarreraren kalkulua.**

1. Zerga honengatik atxikipena aplikatu behar zaion errentaren bat jasotzen duenak sortutako kontraprestazio osoa hartu behar du errentaren zenbatekotzat.

(5) Atxikipenik egin ez denean edo behar baino gutxiago egin denean, atxikitzailari edo kontura sartzera behartutakoari bakarrik egotzi dakiokkeen arrazoi batengatik, atxiki beharreko kopurua kenduko du kuotatik jasotzaileak.

Legez ezarritako eta sektore publikoak ordaindutako ordainsarien kasuan, egiatan atxikitako zenbatekoak baino ezin izango ditu kendu hartzaileak.

Kontraprestazio ordaindu osoa ezin egiazta daitekeenean, Zerga Administrazioak zenbateko bat konputatu ahal izango du zenbateko oso gisa, zenbateko hori, atxikipena kendu ondoren, egiatan jasotakoa adinakoa bada. Kasu horretan, egiatan jasotakoaren eta zenbateko osoaren arteko aldea kenduko da kuotatik konturako atxikipen gisa.

2. Konturako sarrera egin beharra dagoenean, sarrera hori egintzat joko da. Gauzazko ordainsarien balorazioa zerga oinarrian sartuko du zergadunak, foru arau honetan ezarritako araei jarraituz, eta konturako sarrera ere bai, jasanarazi ez bazaio.

### **110. artikulua. Zatikako ordainketak.**

1. (10) (20) Jarduera ekonomikoak egiten dituzten zergadunek ordainketa zatikatuak egin behar dituzte zerga honen kontura (araudian zehaztuko da nola).

Ordainketa zatikatu horiek hiru hilean behin edo sei hilean behin egin ahal izango dira, erregelamendu bidez ezarritakoaren arabera.

2. Araudian betebeharrak horretatik salbuetsi ahal izango dira euren sarreretan atxikipenak edo konturako sarrerak aplikatu zaizkien zergadunak; salbuespenaren ehunekoa berariaz ezarriko da.

3. Errenta eratxikipenaren araubidea izan eta jarduera ekonomikoak egiten dituzten erakundeei dagokien zatikako ordainketa horrelako errentak egotzi ahal zaizkien bazkide, jaraunse, erkide edo partaideetariko bakoitzeko egingo da, bakoitzak erakundearen mozkinetan duen partaidetzaren araberako proportzioan.

### **III. KAPITULUA BEHIN-BEHINEKO LIKIDAZIOAK**

#### **111. artikulua. Behin-behineko likidazioak.**

Zerga Administrazioak bidezko behin-behineko likidazioak egin ahal izango ditu Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean ezarritakoarekin bat etorritz.

#### **112. artikulua. Ofiziozko itzulketak.**

1. Foru arau honetako 95. artikuluko 1. idatz zatian aipatutako diru kopuruen batura kuota likidoa baino gehiago bada, autolikidazioa aurkeztu ondoren Zerga Administrazioak likidazioa egin beharko du autolikidazioa aurkezteko ezarritako epealdia amaitzen denetik sei hilabete pasatu baino lehen.

Autolikidazioa epez kanpo aurkeztuz gero, aurreko paragrafoan aipatutako sei hileko aldia aurkezpen egunetik aurrera zenbatuko da.

2. Autolikidazioaren edo, bestela, behin-behineko likidazioaren ondorioz gertatzen den kuota likidoa foru arau honetako 95. artikuluko 1. idatz zatian aipatzen diren diru kopuruen batura baino gutxiago bada, Zerga Administrazioak kuota horretatik gorako gaindikina itzuliko du ofizioz aurreko idatz zatian ezarritako epealdian; horrek ez du eragotziko gero bidezkoak diren likidazioak egitea, behin-behinekoak edo behin betikoak.

3. Behin-behineko likidazioa artikuluko honetako 1. idatz zatian ezarritako epealdian egin ezean, Zerga Administrazioak ofizioz itzuliko du autolikidatutako kuotatik gorako gaindikina. Hala ere, gero egin ahalko dira bidezko gertatzen diren likidazioak, behin-behinekoak edo behin betikoak.

4. Itzulketa egiteko epealdian Zerga Administrazioari egotzi ahal zaizkien arrazoiengatik berori ordaintzeko agindua ematen ez bada, epealdia amaitu eta hurrengo egunetik itzulketa jasotzeko eskubidea onartzeko erabakia hartzen den egunera arte itzuli beharreko kopuruari Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 26. artikuluko 6. idatz zatian aipatutako berandutze korrituak aplikatuko zaizkio. Zergadunak ez du edukiko eskatu beharrik.

5. Artikulu honetan aipatzen den ofiziozko itzulketa egiteko prozedura eta ordaintzeko modua araudian zehaztuko dira.

### **IV. KAPITULUA BETEBEHAR FORMALAK**

#### **113. artikulua. Zergadunen betebeharrak formalak.**

1. Zergadunek euren autolikidazioetan zehaztu beharreko denetariko eragiketa, errenta, gastu, sarrera, murrizketa eta kenkari guztien frogagiriak eta egiaztagiria gorde behar dituzte preskripzioaldi osoan.

2. Jarduera ekonomikoak egiten dituzten zergadunek eman beharreko fakturen inguruko kontrol prozedurak edo sistemak araudian ezarri ahal izango dira.

3. Araudian ondarearen arloko informazioaren inguruko betebeharrak ezarri ahal izango dira, hain zuzen ere zerga honen autolikidazioa aurkeztearekin batera bete beharrekoak, zergadunen errentak edo ondasun eta eskubide jakin batzuen erabilera kontrolatzeko.

4. Pertsona desgaituen ondarea babestu eta Kode Zibila, Prozedura Zibilaren Legea eta horri buruzko zerga araudia aldatzeko azaroaren 18ko 41/2003 Legeak araututako ondare babestuaren titularrak diren zerga honetako zergadunek aitortpena aurkeztu behar dute (araudian ezarriko da nola) ondareko elementuen berri emateko, eta zergaldian egin diren ekarpenak eta diru baliatzeak argitzeko.

**113 bis artikulua. (21) Ondasun emateak eta zerbitzugintzadokumentatzen dituzten fitxategien osotasuna, artapena, trazabilitatea, bortxaezintasuna eta bidalketa bermatzen dituen sistema informatikoa erabili beharra.**

1. Foru arau honetako 24. artikuluan xedatzen denaren arabera jarduera ekonomikoren bat egiten duten pertsona fisikoek egiten dituzten ondasun emateak eta zerbitzugintzadokumentatzen dituzten fitxategi informatikoen osotasuna, artapena, trazabilitatea, bortxaezintasuna eta bidalketa bermatzen dituen sistema informatikoa erabili beharko dute (betekizunak, mugak eta baldintzak araudi batean ezarriko dira). Hain zuzen ere, sistema horretan honako baldintza hauek bete beharko dira:

a) Ondasun emate eta zerbitzugintzabakoitzeko fitxategi informatiko bat sortu beharko da faktura edo egiaztagiria egin aurretik, eta sinadura elektronikoa erantsi beharko zaio. Fitxategiaren edukia eta ezaugarriak araudian zehaztuko dira.

Fitxategi informatiko horretan honako informazio hau agertu beharko da:

a') Aurreko eragiketa dokumentatzen duen fakturaren edo frogagiriaren identifikazioa.

b') Egindako eragiketaren fakturaren edo frogagiriaren datuak, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduak (pertsona fisikoen babesari buruzkoa, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez, eta indarrik gabe uzten duena 95/46/EE Zuzentaraua) 9. artikuluan ezartzen duenaren arabera babestuta daudenak izan ezik.

c') Erabilitako sistema informatikoaren edo softwarearen identifikazioa (sistemak edo softwareak hurrengo 2. idatz zatian ezartzen dena bete behar du), eta hura garatu duen pertsonaren edo entitatearen identifikazioa.

b) Aurreko a) letran xedatzen denarekin bat etorritik sortzen den fitxategi informatiko bakoitza berehala bidali beharko da zerga administraziora, edo arautegian ezartzen den pealdiaren barruan.

c) Fakturaren edo frogagiriaren identifikazio kodea. Fakturak edo frogagiriak "QR" kodea eduki beharko du.

Halaber, idatz zati honetan arautzen den betebeharra bete beharko dute errentak esleitzeko araubidean dauden entitateek eta testamentu ahalordea baliatzearen edo gozamen ahalorduna baliatzearen zain dauden jarauntsiek, jarduera ekonomikoren bat egiten badute. Nolanahi ere, etekinak kideen artean esleitu beharko dira.

Betebehar honen salbuespenak ezarri ahal izango dira arautegian.

**2.** Aurreko idatz zatian ezartzen dena betetzeko honako hauek erabili beharko dituzte zergadunek:

a) Arabako Foru Aldundiak zergadunen eskura ipinitako aplikazio informatikoa (baldintzak eta mugak arautegian ezarriko dira).

b) Berariaz eraturako erregistroan inskribatutako softwarea, erregistro horretan berean inskribatuta dagoen pertsona edo entitate batek garatua (garatzaileakerantzukizunpeko adierazpena sinatuta eduki behar du).

Letra honetan aipatzen den erregistroko inskripzioa, horren aldaketa eta baja arautegian ezartzen denarekin bat etorriko dira.

Baldin eta b) letra honetan aipatzen den softwarea zergadunak berak garatu badu, berak sinatu beharko du erantzukizunpeko adierazpena eta berak inskribatu beharko du softwarea erregistroan.

**3.** Arautegian arau bereziak ezarri ahal izango dira aurreko 1. idatz zatian arautzen den betebeharrari dagokionez kasu honetarako: faktura eragiketaren jasotzailea den pertsona edo entitate batek edo hirugarren batek egiten duenean.

**4.** Zerga administrazioak faktura edo frogagiriaren jasotzaileak diren pertsona eta entitateei aukera emango die fakturak edo frogagiriak jasotzen dituzten zergapekoek egiaztatzeko 1. idatz zatian arautzen diren betebeharrak betetzen direnez.

Egiaztatpena egiteko modua arautegian zehaztuko da.

#### **114. artikulua. Kontabilitateko eta erregistroko betebeharrak.**

**1.** Jarduera ekonomikoren bat egiten duten zergadunek Merkataritza Kodean agindutako kontabilitatea arteztu behar dute, eta Sozietateen gaineko Zergarako ezarritako erregistro osagarriak ere bai.

**2.** Aurreko idatz zatian xedatutakoa gorabehera, jarduera ekonomikoa ez bada merkataritzakoa Merkataritzako Kodearen arabera edo beraren etekina zuzenean zenbatespenaren metodoaren modalitate erraztuaren bidez kalkulatu bada, erregistroko betebehar bakarra liburu hauek artezteak izango da:

- a) Salmenten eta sarreraren erregistro liburua.
- b) Erosketen eta gastuen erregistro liburua.
- c) Inbertsio ondasunen erregistro liburua.

3. Aurreko idatz zatietan xedatutakoa gorabehera, lanbide jardueraren bat egiten duten zergadunek erregistro liburu hauek arteztu behar dituzte:

Diru sarreraren erregistro liburua.

Gastuen erregistro liburua.

Inbertsio ondasunen erregistro liburua.

Funts zuzkiduren eta gehikinen erregistro liburua.

4. (7) Errenten egozketaren araubideko erakundeek, jarduera ekonomikoak egiten badituzte, egindako jarduerari dagozkion liburuak soilik eraman behar dituzte, euren bazkide, jaraunsle, erkide edo partaideei egin behar dieten etekin egozketaren kalterik gabe.

Halaber, testamendu ahalordea edo gozamen ahaldua erabili gabe duten herentziek liburuak eraman beharko dituzte, baldin eta jarduera ekonomikoak garatzen badituzte edo jarduera horien ondorioz etekinak egozten bazaizkie.

5. Artikulu honetan aipatzen diren erregistro liburuak dilijentziatzeko prozedura araudian zehaztuko da. Merkataritzako Kodean eskatzen diren liburuak betebeharrak honetatik salbu daude.

Gainera, araudian artikulu honetan aipatzen diren erregistro liburuak nola arteztu zehaztu ahal izango da, haien ordezkari artezpen prozedurak ezarri ahal izango dira eta, behar bada, zergadun batzuk liburuok arteztu edo dilijentziatu beharretik aske utzi ahal izango dira.

#### **115. artikulua. Atxikitzailearen eta konturako sarrera egin behar duenaren betebeharrak.**

Atxikipenak eta konturako sarrerak egin behar dituen subjektuak atxikitako diru kopuruen edo egindako konturako ordainketen aitorpena aurkeztu behar du, edo aitorpen negatiboa, atxikipen eta konturako sarrerarik egin beharrik eduki ez badu. Araudian ezarriko da nola, non eta zer epealditan egin behar duen. Halaber, atxikipenen eta konturako sarreraren urteko laburpena aurkeztu behar du; araudian zehaztuko da nolakoa izan behar den.

Atxikipenak eta konturako sarrerak egin behar dituen subjektuak dokumentazioa gorde behar du eta egindako atxikipenen eta konturako sarreraren ziurtagiriak egin behar ditu; araudian ezarriko da nola egin behar dituen.

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak horretarako behar diren aitorten ereduak onartuko ditu.

#### **116. artikulua. Informazioaren inguruko beste betebeharrak formal batzuk.**

Ondoko eragiketa hauek egiten dituzten edo egoera hauetako batean dauden pertsonen eta erakundeen informazio betebeharrak ezarri ahal izango zaizkie araudian:

- a) Maileguak ematen dituzten erakundeei, etxebizitzak erosteko emandako maileguei buruz.
- b) Atxikipenik gabeko lanaren edo kapitalaren errentak ordaintzen dituzten erakundeei.
- c) Sariak ordaintzen dituzten erakunde eta pertsona juridikoei, nahiz eta zerga honen ondorioetarako errentak salbuetsita egon.
- d) Zerga honetan kenkarirako eskubidea ematen duten dohaintzak jasotzen dituzten erakundeei, dohaintza emailearen identitateari eta jasotako zenbatekoei dagokienez, emaileak zerga honen autolikidazioaren ondorioetarako dohaintzaren ziurtagiria eskatuz gero.
- e) Kreditu erakundeei, horietan etxebizitza kontu gisa gordailututako diru kopuruei buruz. Zergadunek kreditu erakundearen aurrean identifikatu beharko dute zein kontu erabiltzen den horretarako.
- f) [\(5\)](#) Egoitza Europako Espazio Ekonomikoko kide den beste estatu batean izan eta zerbitzuen prestazio libreko erregimenean Espainian aritzen diren entitate aseguratzaileetarako, Espainian egiten dituzten eragiketei dagokienez.
- g) [\(5\)](#) Espainian egiten diren eragiketei dagokienez, foru arau honetako 107. artikuluko 1. idatz zatiaren azkenaurreko paragrafoan aurreikusitako entitateetarako.
- h) Langileen sindikatuei, haiek ordaindutako kuotei dagokienez, arauz ezartzen denarekin bat etorritik.
- i) Alderdi politikoei, euren erakunde politikoari ordaindutako diru kopuruei dagokienez, foru arau honetako 22. eta 93. artikuluetan ezarritakoaren arabera.
- j) Kooperatibei, kooperatibari egindako ekarpen sozialen eskualdaketek edo itzulketek sortutako errentei dagokienez.
- k) [\(29\)](#) Sektore publikoari, ematen dituen laguntza publiko, prestazio eta dirulaguntzei dagokienez.
- l) [\(5\)](#) Ekarpeneren itzulketarekin kapitala murriztu edo jaulkipen prima banatzen duten entitateetarako, atxikipeneren mende ez dauden banaketei dagokienez.
- m) [\(10\)](#) Berrikuntza bultzatzeko Europako funtsak kudeatzen dituzten entitateei eta, halaber, finantza entitateei, funts horietako partaidetzei dagokienez eta partaidetza horiek eskuratzeko gordailututako diru kopuruei dagokienez.



### XIII. TITULUA ONDARE ERANTZUKIZUNA ETA ZEHAPEN ARAUBIDEA

#### **117. artikulua. (7) Zergadunaren ondare erantzukizuna.**

Zerga honengatik sortutako zerga zorrak eta zerga zehapenek Kode Zibileko 1.365. artikuluan aipatutakoen izaera bera izango dute. Ondorioz, ondasunen foru komunikazioan, irabazpidezko ondasunek edo irabazitako ondasunek zuzenean erantzungo diote Foru Aldundiari, zor eta zehapen horiek direla eta, baldin eta ezkontideetako batek hartutakoak badira; nolahi ere, Foru Arau honetako 98.5 artikuluan baterako tributaziorako ezarritakoa ere aplikatzekoa izan daiteke.

Aurreko paragrafoan ezarritakoa aplikagarri ere izango zaie Eusko Legebiltzarraren maiatzaren 7ko 2/2003 Legean xedatutakoaren arabera eraturiko izatezko bikoteei, betiere aurreko paragrafoak aipatzen dituen kasu berberetan.

#### **118. artikulua. (21) Arau haustek eta zehapenak.**

Hurrengo artikuluan eta foru arau honetako gainerako manuetan xedatzen dena gorabehera, zerga honen arloko arau hausteei zehapena ezarriko zaie otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak, Arabako zergei buruzkoak, xedatzen duenarekin bat etorriz.

**118 bis artikulua. (21) Ondasun emateak eta zerbitzugintzadokumentatzen dituzten fitxategien osotasuna, artapena, trazabilitatea, bortxaezintasuna eta bidalketa bermatzen dituen sistema informatikoa erabili beharra: arau haustek eta zehapenak.**

1. Zergen arloko arau haustek dira:

a) Ondasun emateak eta zerbitzugintzadokumentatzen dituzten fitxategien osotasuna, artapena, trazabilitatea, bortxaezintasuna eta bidalketa bermatzen dituen sistema erabili beharra ez betetzea foru arau honetako 113 bis artikuluan eta hori garatzen duten xedapenetan ezartzen denarekin bat etorriz.

b) Foru arau honetako 113 bis artikuluan aipatzen diren sistema informatikoa, softwarea edo fitxategi edo erregistro informatikoak ezabatzea, eskuz edo prozesu informatiko baten bidez.

2. Aurreko 1. idatz zatiko a) letran aipatzen den arau hausteagatik honako zehapen hauek ezarriko dira:

a) Orokorrean, diruzko isuna: aurreko ekitaldiko negozio kopuruaren ehuneko 20 (20.000 euro gutxienez).

Aurreko ekitaldia egutegiko urtea baino laburragoa izan bada, negozio kopurua urtekoratu egingo da.

Jarduera ekonomikoa hasi berria bada, lehenengo ekitaldian egindako negozio kopurua hartuko da aintzat; lehen ekitaldia urtea baino laburragoa izan bada, ekitaldiko negozio kopurua urtekoratu egingo da.

Baldin eta aurreko 1. idatz zatiko a) letran aipatzen den arau haustea egin aurreko lau urteetan arau hausleari ebazpen irmoaren bidez, letra honetan xedatzen denarekin bat etorriz, zehapena ezarri bazaio administrazio bidean beste arau hauste batengatik, diruzko isun proportzionala ezarriko zaio, aurreko ekitaldiko negozio kopuruaren ehuneko 30ekoa, hain zuzen (gutxienez 30.000 euro).

b) Aurreko a) letran xedatzen dena gorabehera, sistema erabili beharra ondasun emate edo zerbitzugintza batekin edo batzuekin betetzen ez bada, isuna diruzko isun finkoa izango da: 2.000 euro sistema erabili ez den eragiketa bakoitzeko.

Aurreko paragrafoan xedatzen denaren ondoriozko zehapena inolaz ere ezin da izan aurreko a) letran xedatzen denaren aplikazioaren emaitzako kopurua baino gehiago.

Baldin eta aurreko 1. idatz zatiko a) letran aipatzen den arau haustea egin aurreko lau urteetan arau hausleari ebazpen irmoaren bidez, letra honetan xedatzen denarekin bat etorriz, zehapena ezarri bazaio administrazio bidean beste arau hauste batengatik, zehapena aurreko a) letrako lehen paragrafoan xedatzen denarekin bat etorriz ezarriko da.

**3.** Aurreko 1. idatz zatiko b) letran aipatzen den arau hausteagatik honako zehapen hauek ezarriko dira:

a) Diruzko isuna: aurreko ekitaldiko negozio kopuruaren ehuneko 20 (40.000 euro gutxienez).

Zehapen hau eta aurreko 2. idatz zatiko a) letran arautzen den zehapena bateragarriak izango dira.

Aurreko ekitaldia egutegiko urtea baino laburragoa izan bada, negozio kopurua urtekoratu egingo da.

Jarduera ekonomikoa hasi berria bada, lehenengo ekitaldian egindako negozio kopurua hartuko da aintzat; lehen ekitaldia urtea baino laburragoa izan bada, ekitaldiko negozio kopurua urtekoratu egingo da.

Baldin eta aurreko 1. idatz zatiko b) letran aipatzen den arau haustea egin aurreko lau urteetan arau hausleari ebazpen irmoaren bidez, a) letra honetan xedatzen denarekin bat etorriz, zehapena ezarri bazaio administrazio bidean beste arau hauste batengatik, diruzko isun proportzionala ezarriko zaio, aurreko ekitaldiko negozio kopuruaren ehuneko 30ekoa, hain zuzen (gutxienez 60.000 euro).

b) Baldin eta zerga administrazioak egiaztatzen badu aurreko 1. idatz zatiko b) letran aipatzen den ezabaketan edo manipulazioan esku hartu duela softwarea garatu duen pertsonak edo entitateak edo foru arau honetako 113 bis artikulua arabera zergapekoa dena ez beste pertsona batek, pertsona edo entitate hori ere arau hausletzat joko da eta diruzko isun finkoa ezarriko zaio: 40.000 euro.

Baldin eta aurreko 1. idatz zatiko b) letran aipatzen den arau haustea egin aurreko lau urteetan arau hausleari ebazpen irmoaren bidez, b) letra honetan xedatzen denarekin bat etorriz, zehapena ezarri bazaio administrazio bidean beste arau hauste batengatik, diruzko isun proportzionala ezarriko zaio: 60.000 euro.

c) Baldin eta zergadunak berak garatu badu softwarea eta, gainera, aurreko 1. idatz zatiko b) letrako arau haustea egiten badu, idatz zati honetako a) letran xedatzen denarekin bat etorriz ezarriko zaio zehapena.

Idatz zati honetan ezartzen denaren ondorioetarako, pertsona edo entitate batek aurreko 1. idatz zatiko b) letran aipatzen den ezabaketan edo manipulazioan esku hartu duela ulertuko da honako kasu hauetan:

- Sistema informatikoa edo softwarea aldatu badu, edo fitxategi edo erregistro informatikoak.
- Sistema informatikoa edo softwarea kontrolatu edo kontrolatzen badu, edo fitxategi edo erregistro informatikoak.
- Ezabaketa edo manipulaziorako sistema, baliabide edo metodoren bat jarri badu beste pertsona edo entitate baten eskura.
- Ezabaketarako edo manipulaziorako jarraibideak eman edo irakatsi baditu.
- Ezabaketa edo manipulaziotzat jotzeko bezain garrantzitsua ez izan arren, ezabaketa edo manipulazio prozesuko elementua den ekintza bat egiten badu edo beharrezko zerbait egiten ez badu, baldin eta horren ondorioz, beste pertsona edo entitate baten edo batzuenekintzekin edo ez-egiteekin batera, ezabaketa edo manipulazioa gertatzen bada.

**4.** Artikulu honetan arautzen diren arau hausteak eta zehapenak bateragarriak dira otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak, Arabako zergei buruzkoak, 206. artikuluan arautzen dituenekin.

Hala ere, aurreko 2. idatz zatian arautzen diren zehapenetako bat ezarri gero, ezin izango da ezarri otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak, Arabako zergei buruzkoak, 206.2.b) artikuluko bigarren paragrafoan arautzen duen zehapena.

**5.** Aurreko 2. eta 3. idatz zatietan xedatzen denarekin bat etorriz ezartzen diren zehapenei otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak, Arabako zergei buruzkoak, 192. artikuluan arautzen duen murrizketa aplikatu ahal zaie, bidez.

## **XIV. TITULUA JURISDIKZIO ORDENA**

### **119. artikulua. Jurisdikzio ordena.**

Bide ekonomiko-administratiboa agortuz gero, Administrazioarekiko auzietako jurisdikzioa izango da Administra zioaren eta zergadun, atxikitzaile eta gainerako zergapekoen artean, foru arau honetan aipatu gaietariko edozein dela-eta, sortzen diren egitezko eta zuzenbidezko eztabaidak ebazteko eskumeneko jurisdikzio bakarra.

### **XEDAPEN GEHIGARRIAK**

#### **Lehenengoa. Izatezko bikoteak. (31)**

##### **Bigarrena. Salbuespena nazioarteko bake eta segurtasun operazioetan parte hartzen dutenentzat.**

Bake eta segurtasunerako nazioarteko operazioetan parte hartzen dutenentzako kalte-ordainei buruzko azaroaren 5eko 8/2004 Legegintzako Errege Dekretuak aipatzen dituen kalte-ordainak direla eta jasotako diru kopuruak salbuetsita egongo dira Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergatik eta beste edozein zerga pertsonaletatik.

##### **Hirugarrena. Erregistro berezian inskribatutako itsasontzietako zenbait tripulatzailerentzako salbuespena.**

Itsasontzietako tripulatzaileek euren lan pertsonalaren bidez lortzen dituzten etekinen ehuneko 50 salbuetsita egongo da, baldin eta etekin horiek uztailaren 6ko 19/1994 Legeak, Kanarietako araubide ekonomiko eta fiskala aldatzekoak, 75. artikuluan aipatzen dituen itsasontzi eta itsas enpresen erregistro berezian inskribatutako itsasontzietan egindako nabigazioz sortutakoak badira.

##### **Laugarrena. Aurrezpen sistematikorako banakako planak.**

1. Aurrezpen sistematikorako banakako planetatik jasotzen den biziarteko errentak foru arau honetako 36. artikuluko 1. idatz zatiko b) letran xedatutakoaren arabera zergapetuko dira. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Legeak, Sozietateen gaineko, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko eta Ondarearen gaineko zergei buruzko legeak partez aldatzen dituenak, hirugarren xedapen gehigarrian arautzen ditu plan haiek.

2. Zergadunak, biziarteko errenta eratu baino lehenago, metatutako eskubide ekonomikoak osorik nahiz zati batean erabiltzen baditu, foru arau honetan xedatutakoaren arabera zergapetuko da, egindako erabilpenaren proportzioan. Horretarako, berreskuratutako kopurua lehenik ordaindutako primei dagokiela pentsatuko da, horien errentagarritasuna barne delarik.

Eratutako biziarteko errentaren ondoriozko eskubide ekonomikoak osorik nahiz zati batean aurreratuz gero, zergadunak aurreratze hori egiten den zergaldian integratu

beharko du Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko araudiaren indarrez salbuetsita egon zen errenta.

3. Horrelako kontratuetan prima moduan gehienez ere 8.000 euro ordaindu ahal izango dira urtean, eta muga hori gizarte aurreikuspeneko sistemetako ekarpenen mugetatik aparte izango da. Orobat, kontratu horietan metatutako prima guztien zenbatekoa ezin izango da zergadun bakoitzeko 240.000 euro baino gehiago izan.

4. (4) Ordaindutako lehenengo primak bost urte baino gehiagoko antzintasuna izan beharko du, bizi arteko errenta eratzen den garaian.

#### **Bosgarrena. Zenbatespen objektiboko metodoaren zeinu, indize edo moduluen modalitatearen bidez zehazten diren jarduera ekonomikoen etekinen gaineko atxikipena.**

Zenbatespen objektiboaren metodoaren zeinu, indize edo moduluen modalitatearen bidez zehazten diren jarduera ekonomikoen etekinei atxikipenak aplikatuko zaizkie; araudian ezarriko da zer kasutan, nolako ehunekoak aplikatuko diren eta zer baldintza bete behar diren.

#### **Seigarrena. Araudiaren aipamenak.**

Foru araudian Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 29ko 3/2007 Foru Arauari buruz egiten diren aipamen guztiak foru arau honetako xedapenei buruzkoak direla pentsatuko da.

#### **Zazpigarrena. Salbuetsitako ondare irabaziak.**

Foru arau honetako 42. artikuluko e) letran xedatutakoak ondorioak sortuko ditu preskribatu gabeko zergaldietan egindako ohiko etxebizitzaren eskualdaketetarako.

#### **Zortzigarrena. Besteren konturako langileen mutualitateak.**

Zerga oinarri orokorra murriztu ahal izango dute dena delako lanbide elkargoek ezarrita dauzkaten gizarte aurreikuspeneko mutualitateekin itundutako aseguru kontratuen ondorioz besteren konturako langile diren mutualista elkargokideek, beren ezkontide, izatezko bikote lagun edo lehen mailako ahaide odolokideek eta mutualitate horietako langileek ordaindutako kopuruek, foru arau honetako 71. eta 72. artikuluetan ezarritakoarekin bat etorritik, baldin eta mutualitateko organo egokien erabaki batek ahalbidetzen badu laguntzak Pentsio Plan eta Funtzak arautzen dituen Legearen testu bateginak (azaroaren 29ko 1/2002 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartuak) 8. artikuluko 6. idatz zatian ezarritako kontingentziak gertatzen direnean bakarrik kobratzea.

#### **Bederatzigarrena. Kirolari profesionalen gizarte aurreikuspeneko mutualitatera egindako ekarpenen eta jasotako prestazioen zerga araubidea.**

1. Kirolari profesionali eta goi mailakoei, baldin eta izaera hori legeria aplikagarriaren arabera aitortua badute eta kirolari profesionalen mutualitateari (prima finkoko gizarte

aurreikuspeneko mutualitatea) ekarpenak egiten badizkiote, xedapen gehigarri honetako 3. idatz zatian ezarritako zerga tratamendua aplikatuko zaie.

2. Xedapen gehigarri honetako zerga araubidea aplikatzeko, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Legeak (Sozietateen gaineko, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko eta Ondarearen gaineko zergei buruzko legeak partzialki aldatzen dituenak) hamaikagarren xedapen gehigarrian ezarritako betekizunak, ezaugarriak eta baldintzak bete beharko dira.

3. Kirolari profesionalen gizarte aurreikuspeneko mutualitatera (prima finkoko gizarte aurreikuspeneko mutualitatea) egindako ekarpenek eta horietatik eratorritako prestazioek zerga araubide hau izango dute:

a) Ekarpeneak, zuzenekoek nahiz egotziek, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergako zerga oinarri orokorra murriztu ahal izango dute, muga honekin: etekin osoa gastu kengarrien zenbatekoaz murriztuta gelditzen diren lanaren etekinak gehi ekitaldian jarduera ekonomikoetatik banaka lortutako etekin garbien zenbatekoa, 24.250 euro gehienez.

b) Zerga oinarri orokorra nahikoa ez izateagatik edo aurreko a) idatz zatian ezarritako mugaren aplikazioz hura murriztu ezin izan duten ekarpenak ondoko bost ekitaldietan murriztu ahal izango dira. Erregela hau ez zaie aplikatuko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Legeak (Sozietateen gaineko, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko eta Ondarearen gaineko zergei buruzko legeak partzialki aldatzen dituenak) hamaikagarren xedapen gehigarriko lehenengo idatz zatiko 2. zenbakian ezarritako gehieneko muga gainditzen duten ekarpenei.

c) Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Legeak (Sozietateen gaineko, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko eta Ondarearen gaineko zergei buruzko legeak partzialki aldatzen dituenak) hamaikagarren xedapen gehigarriko lehenengo idatz zatiko 4. zenbakian aipatzen ez dituen kasuetan eskubide kontsolidatuak erabiltzeak zergadunari ekarriko dio behar ez bezala egindako murrizketak zerga oinarri orokorrean berrezartzeko betebeharra. Horretarako, autolikidazio osagarriak egin beharko ditu, berandutze korrituak ere sartuta. Zerga ordaintzeari dagokionez, egindako ekarpenen zenbatekoaren gaineratik jasotako kopuruak (sustatzaileak egotzitako ekarpenak tartean, halakorik bada) lanaren etekintzat hartuko dira, jaso diren zergaldian.

d) Jasotako prestazioak, bai eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Legeak (Sozietateen gaineko, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko eta Ondarearen gaineko zergei buruzko legeak partzialki aldatzen dituenak) hamaikagarren xedapen gehigarriko lehenengo idatz zatiko 4. zenbakian jaso dituen kasuetan eskubide kontsolidatuak hartzea ere, oso-osorik lanaren etekin gisa zergapetuko dira, foru arau honetan ezarritakoaren arabera.

e) Foru arau honetako 70. artikuluko 4. idatz zatian xedatutakoa aplikatuko da, baldin eta zergadunak eskubide kontsolidatuak baditu Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Legeak (Sozietateen gaineko, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko eta Ondarearen gaineko zergei buruzko legeak partzialki aldatzen dituenak)

hamaikagarren xedapen gehigarriko lehenengo idatz zatiko 4. zenbakian ezarritakoak ez beste kasuetan.

4. (4) Aurreko paragrafoan jasotako araubidea zeinahi dela ere, kirolari profesionalak eta goi mailakoek aukera izango dute kirolari profesionalen gizarte aurreikuspeneko mutualitateari ekarpenak egiten jarraitzeko, kirolari gisa egiten zuten lan jarduna amaitu arren edo izaera hori dagoeneko galdu arren.

Ekarpen horiengatik murrizketak egin ahal izango dira Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergako zerga oinarri orokorrean, Pentsio Plan eta Funtsak arautzen dituen Legearen Testu Bateginak, azaroaren 29ko 1/2002 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartuak, 8. artikuluko 6. idatz zatian ezartzen dituen egoerak estaltzea helburu duen zatian.

Mutualisten eskubide kontsolidatuak gauzatu ahal izango dira soilik azaroaren 29ko 1/2002 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Pentsio planak eta funtsak arautzen dituen Legearen Testu Bateratuak 8. artikuluko 8. idatz zatian pentsio planei dagokienez jasotako kasuetan.

Ekarpen hauen baterako murrizketa muga gisa, Foru Arau honen 71. artikuluko 1. idatz zatian ezarritakoa aplikatuko da.

Nolanahi ere, ezin izango dira zerga oinarritik murriztu gizarte aurreikuspeneko sistemara egiten diren ekarpenak, horiek bazkideak, partaideak, mutualistak edo aseguruak erretiratu ondoko zergalditik aurrera egiten badira.

Foru Arau honen 70. artikuluko 4. idatz zatian ezarritakoa aplikatuko da, baldin eta zergadunak eskubide kontsolidatuak baditu Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren Legeak, Sozietateen gaineko, Ez-egoiliarren errentaren gaineko eta Ondarearen gaineko zergen legeak partez aldatzen dituenak, hamaikagarren xedapen gehigarriaren Bat idatz zatiko 4. zenbakian jasotakoak ez diren kasuetan.

### **Hamargarrena. Informazio betebeharrak.**

1. Araudian informazio betebeharrak ezarri ahal izango zaizkie talde inbertsioko erakundeak kudeatzen dituzten sozietateei, inbertsio sozietateei, egoitza Espainian edo atzerrian duten talde inbertsioko erakundeen akzioak edo partaidetzak Espainiako lurraldean merkaturatzen dituzten erakundeei, eta zerbitzuak emateko askatasunez diharduen erakunde kudeatzailearen izenean aritzen den eta zergen arloko hainbat xedapen aldatu dituen maiatzaren 10eko 7/2004 Foru Arauko seigarren xedapen gehigarrian xedatutakoaren arabera izendatua den ordezkariari, erakunde horien akzio edo partaidetzen gaineko eragiketei dagokienez, haien salmenta eta erosketa eragiketen emaitzari buruz daukaten informazioa barne delarik.

2. (29) Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren edo Sozietateen gaineko Zergaren zergadunek informazioa eman beharko dute, arauz ezartzen denaren arabera, jurisdikzio ez-kooperatibotzat jotako herrialde edo lurraldeekin egiten dituzten edo haiekin zuzenean edo zeharka loturiko balore edo ondasunen edukitzaren ondorio diren eragiketa, egoera, kobrantza eta ordainketei buruz.

### 3. Araudian informazio betebeharrak ezarri ahal izango zaizkie ondokoei:

a) Pertsoneri edo erakundeei, foru arau honen 70. artikuluan aipatzen diren gizarte aurreikuspeneko sistemei buruz.

b) [\(5\)](#) Finantza entitateei, merkaturatzen dituzten aurrezpen sistematikoko banakako planei dagokienez, foru arau honetako laugarren xedapen gehigarriak aipatutakoak, edo foru arau honetako 42. artikuluko f) letran aurreikusitako biziarteko errenta aseguratuei dagokienez.

c) Gizarte Segurantzari eta mutualitateei; informazioa beren afiliatu edo mutualistengatik sortutako kotizazio eta kuotei buruzkoa izango da.

d) Erregistro Zibilari, jaiotza, adopzio eta heriotzen inguruko datuei dagokienez.

4. Bankuek, aurrezki kutxek, kreditu kooperatibek eta banku edo kreditu trafikoan diharduten pertsona fisiko nahiz juridiko guztiek, araudian ezartzen denaren arabera, erakunde horietan irekitako edo beraiek hirugarrenen esku jarritako kontu guztien identifikazioa eskuratu beharko diote Zerga Administrazioari, zeinahi ere den haien modalitatea edo jasotzen duten izena, atxikipenik edo konturako sarrerarik egin ez denean ere.

Informazio horren barruan kontu horien titular baimendunen edo edozein onuradunen identifikazioa egongo da.

5. Azaroaren 18ko 41/2003 Legeak, desgaitasuna duten pertsonen ondarea babestu eta helburu horrekin Kode Zibila, Prozedura Zibilaren Legea eta zerga araudia aldatzekoak, 3. eta 4. artikuluetan xedatutakoaren arabera, babestutako ondareetara egindako ekarpenen formalizazioan esku hartzen duten pertsonak ekarpen horiei buruzko aitortpena aurkeztu beharko dute, araudian ezartzen denarekin bat etorritz. Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak ezarriko du aitortpena non, nola eta zer epealditan egin behar den.

6. [\(29\)](#) Espainian egoitza duten pertsonak eta entitateek eta atzerrian egoitza duten pertsonak edo entitateek Espainian dituzten establezimendu iraunkorrek, baldin eta hirugarrenen izenean gako kriptografiko pribatuak gordetzeko, moneta birtualak mantentzeko, biltegitratzeko eta transferitzeko zerbitzuak ematen badituzte, eta zerbitzu hori nagusiki edo beste jarduera bati lotuta ematen badute, Zerga Administrazioari eman beharko diote mantentzen dituzten moneta birtual guztiei buruzko informazioa, betiere erregelamenduan ezartzen denarekin bat etorritz. Hornidura horretan, diru birtual desberdin bakoitzeko saldoei buruzko informazioa jasoko da, eta, behar denean, legezko erabilerako diruari buruzkoa, bai eta saldo horien titularren, baimenduen edo onuradunen identifikazioa ere.

7. [\(29\)](#) Espainian egoitza duten pertsonak eta entitateek eta atzerrianegoitza duten pertsonak edo entitateek Espainian dituzten establezimendu iraunkorrek txanpon birtualen eta legezko erabilerako diruaren arteko edo moneta birtualen arteko truke-zerbitzuak ematen badituzte, edo edozelan eragiketa horiek egiteko bitartekari gisa jarduten badute, edo inoren izenean gako kriptografiko pribatuak babesteko zerbitzuak ematen badituzte, moneta birtuala mantentzeko, biltzeko eta transferitzeko, Zerga



Administrazioari jakinarazi beharko zaizkio arauetan ezarritakoaren arabera, moneta birtuala eskuratzeko, eskualdatzeko, trukatzeko eta transferitzeko eragiketak, baita moneta horietan egindako kobrantzak eta ordainketak ere, haietan esku hartzen badute edo bitartekari gisa jarduten badute. Horretarako, esku hartzen duten subjektuen zerrenda aurkeztu beharko da, hauexek adierazita: helbidea, identifikazio fiskaleko zenbakia, txanpon birtualen mota eta kopurua, eta eragiketaren prezioa eta data.

Aurreko betebeharrak bera izango dute Espainian egoitza duten pertsonen eta entitateen eta atzerrian egoitza duten pertsonen edo entitateen Espainiako lurraldeko establezimendu iraunkorrek,

moneta birtual berrien hasierako eskaintzak egiten badituzte eta beste moneta birtual batzuen edo legezko erabilera diruaren truke ematen badituzte.

**Hamaikagarrena. (29) Kuradoretzaren menpe dauden eta ordezkaria ahalmena duten pertsonen zerga araubidea.**

Foru arau honetan ehuneko 65eko desgaitasuna edo handiagoa duten desgaituen alde aurreikusitako xedapen espezifikoak desgaitasuna duten pertsonen aplikatuko zaizkie, baldin eta, Kode Zibilaren I. liburuaren XI. tituluaren xedatutakoaren esparruan, ordezkaria ahalmena badute eta kuradoretzaren mende badaude, maila horretara iritsi ez arren.

**Hamabigarrena. Erreskate eskubidea, Pentsio Plan eta Funtsei buruzko Legearen Testu Bategina onartu duen azaroaren 29ko 1/2002 Legegintzako Errege Dekretuko lehenengo xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera enpresek euren gain hartutako pentsio konpromisoak bideratzen dituzten aseguru kolektiboko kontratuak.**

Pentsio Plan eta Funtsei buruzko Legearen Testu Bategina onartu duen azaroaren 29ko 1/2002 Legegintzako Errege Dekretuko lehenengo xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera enpresek euren gain hartutako pentsio konpromisoak bideratzen dituzten aseguru kolektiboko kontratuak erreskate eskubideaz baliatuta sortzen den errenta ez dago Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren kargapean baliabide ekonomikoen titularrentzat ondoko kasu hauetan:

a) Polizan bideratutako konpromisoak aurrean aipatutako lehenengo xedapen gehigarrian ezarritako beharrezkoak betetzen dituen beste aseguru kontratu batean integratzeko, osorik edo zati bat.

b) Lan harremana amaitzen denean jatorrizko aseguru kontratuaren arabera langileari dagozkion eskubideak aseguru kolektiboko beste kontratu batean integratzeko.

Aurreko a) eta b) letretan jasotako kasuek ez dute aldatuko primen izaera enpresak zerga arloan haiek egozteari dagokionez, ez eta jatorrizko aseguru kontratuen ordaindutako primen antzintasunaren konputua ere. Dena dela, aurreko b) letretan

jasotako kasuan, primak ez baziren egotzi, enpresak horien kenkaria egin ahal izango du mobilizazio hori dela-eta.

Pentsio Plan eta Funtsei buruzko Legearen Testu Bategina onartu duen azaroaren 29ko 1/2002 Legegintzako Errege Dekretuko lehenengo xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera hartutako pentsio konpromisoak bideratzen dituzten aseguru kontratuen mozkinetako partaidetzen ondoriozko errentak ere ez daude Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren kargapean, mozkinetako partaidetza hori kontratu horietan aseguraturako prestazioak gehitzeko erabiltzen denean.

**Hamahirugarrena. Ondare pertsonaleko ondasunak baliatzea zahartzaroak eta mendetasunak dakartzaten diru beharriaz erantzuteko.**

1. Ez dira errentatzat hartuko 65 urtetik gorako pertsonen ohiko etxebizitza baliatuta jasotzen dituzten diru kopuruak, eta berdin gertatuko da mendetasun larria edo handia duten pertsonekin, hain zuzen ere, autonomia pertsonala sustatzeko eta mendetasuna duten pertsonen laguntzeko Legeak 26. artikuluan aipatzen dituenekin. Horretarako, xedapen horiek abenduaren 7ko 41/2007 Legeko lehenengo xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera egin behar dira. Lege horrek Hipoteka merkaturako arautzeko martxoaren 25eko 2/1981 Legea eta hipoteka eta finantza sistemaren beste arau batzuk aldatzen ditu, eta, halaber, arautzen ditu alderantzizko hipotekak eta mendetasun aseguruak, eta ezartzen du zerga arau jakin bat.

2. Goian aipatu den abenduaren 7ko 41/2007 Legeko lehenengo xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera ohiko etxebizitza alderantzizko hipoteka bat ezarrita xedatuz gero, onuradunak eragiketa horretatik aldi berean jasotzen dituen kopuruak (osorik edo horien zati bat) bermatutako aurreikuspen plan bat kontratatuzko erabili ahal izango dira, foru arau honetako 70. artikuluko 1. idatz zatiko 5. zenbakian ezarritakoarekin bat etorritik. Horretarako, erretiroarekin (foru arau honetako 70. artikuluko 1. idatz zatiko 5. zenbakian arautu da) berdintsiko da bermatutako aurreikuspen planeko lehen prima ordaintzen denetik hamar urtera hartzaileak bizirik irautea.

Aurreikuspen planeko hornidura matematikoa ezingo da gizarte aurreikuspeneko beste tresna batera aldatu, eta ezingo dira tresna horretara aldatu gizarte aurreikuspeneko beste sistema batzuetako hornidura matematikoak edo eskubide kontsolidatuak.

**Hamalagarrena. Gauzazko ordainketak.**

Ez dira gauzazko ordainketatzat hartuko diruaren legeko korritu tasa baino txikiagoa duten maileguak, 1992ko urtarrilaren 1a baino lehenago itunduak badira eta haien printzipala egun hori baino lehenago jarri bazen mailegu hartzailearen esku.

**Hamabosgarrena. Kapital murrizketaren ostean negoziatzeko onartu ez diren baloreak edo partaidetzak eskualdatzea.**

1. Espainiako bigarren mailako balore merkatu ofizialetan negoziatzeko onartu ez diren balore eta partaidetzak eskualdatu baino lehen, zergadunak zirkulazioan jarri dituen balore eta partaidetza guztiei era berean eragiten ez dien balio izendatuaren murrizketaren bidezko kapital murrizketa gertatzen bada, foru arau honetako IV.

tituluko V. kapituluaren ezarritako arauak aplikatuko dira, berezitasun hauek kontuan izanik.

1. Eskualdaketa balioztat haxe joko da: foru arau honetako 41. artikuluko 2. idatz zatiko a) letran ezarritakoaren aplikazioaren emaitzako balio izendatuaren arabera eskualdaketak edukiko lukeena.

2. Zergadunak bere balore edo partaidetza guztiak eskualdatu ez baditu, benetan eskualdatutako baloreen edo partaidetzen balio izendatuari dagokion eskualdaketa balioaren eta aurreko paragrafoan aipatutako eskualdaketa balioaren arteko diferentzia positiboa gainerako balore edo partaidetza homogeneousoen eskuraketa balioetik kenduko da, deuseztatu arte. Gaindikirik egonez gero, ondare irabazi gisa kargatuko da.

2. Aurreko idatz zatian ezarritako arauak ondare sozietateen kapitaleko partaidetzak edo baloreak eskualdatzen diren kasuetan aplikatuko dira.

**Hamaseigarrena. (29) Geroratze-araubidea aplikatzeinbertsio kolektiboko entitateetan 2023ko urtarrilaren 1a baino lehen eskuratutako partaidetza edo akzio jakin batzuei.**

Foru arau honen 48. artikuluko 2. paragrafoaren c) letran ezarritako baldintza ez zaie aplikatuko c) letra horretan aipatzen diren inbertsio kolektiboko entitateetako partaidetzei edo akzioei, zergadunak 2023ko urtarrilaren 1a baino lehen eskuratu baditu eta Espainiako balore burtsan kotizatu ez baditu, errenboltoaren edo eskualdatzearen zenbatekoa ez bada aipatutako c) letran ezarritako inbertsio kolektiboko entitateen akzioak edo partaidetzak eskuratzeko erabiltzen.

**Hamazazpigarrena. Sozietateen gaineko Zergaren karga-tasa orokorra aplikatzen ez zaien kapital aldakorreko inbertsio sozietateek egindako kapital murrizketak (ekarpenak itzulita) eta jaulkipen primen banaketak.**

1. Foru arau honetako 34. artikuluko e) letran eta 41. artikuluko 2. idatz zatiko a) letran ezarritakoa gorabehera, Sozietateen gaineko Zergaren karga tasa orokorra aplikatzen ez zaien kapital aldakorreko inbertsio sozietateek, Talde Inbertsioko Erakundeei buruzko azaroaren 4ko 35/2003 Legeak araututakoek, kapital murrizketak (ekarpenak itzultzeko) eta jaulkipen primen banaketak egiten badituzte, bazkideek edo partaideek integratu beharreko errenta honela zehaztuko da:

a) Kapital murrizketaren helburua ekarpenak itzultzea bada, integratu beharreko errenta izango da murrizketaren zenbatekoa edo jasotako ondasun eta eskubideen merkatuko balio normala (kapital higigarriaren etekina izango da, foru arau honetako 34. artikuluko a) letran ezarritakoaren arabera); errentaren gehieneko kopurua bi hauetako handiena izango da:

- Akzioen likidazio balioaren gehikuntza, eskuratu edo harpidetu direnetik sozietatearen kapitala murriztu arte.

- Kapitalaren murrizketa banatu gabeko mozkinen ondoriozkoa bada, berriz, mozkinen zenbatekoa. Horretarako, kapital murrizketak, helburua gorabehera, lehenbizi banatu

gabeko mozkinetatik datorren sozietatearen kapitalaren zatiari eragingo dio, hura ezabatu arte.

Mugaz gaindiko kopurua akzioen eskuraketa baliotik kenduko da, foru arau honetako 44. artikuluko 2. idatz zatiko a) letran ezarritako erregelak aplikatuta, hura ezabatu arte. Gainera, gaindikin badago, mota guztietako erakundeen funts propioen partaidetzaren ondorioz lortutako kapital higigarriaren etekintzat hartuko da, lehen jaulkipen prima banatzeko ezarritako moduan.

Letra honetan araututako kapital higigarriaren etekinei inolaz ere ezin zaie aplikatu foru arau honetako 9. artikuluko 24. zenbakian ezarritako salbuespena.

b) Kapital aldakorreko inbertsio sozietateen akzioen jaulkipen primak banatzen badira, lortutako zenbateko osoa integratu behar da, eta ezin da aplikatu foru arau honetako 34. artikuluko e) letran ezarritakoa, hau da, akzioen eskuraketa balioaren murrizketa.

2. Aurreko 1. idatz zatian xedatutakoa beste estatu batzuetan erregistratutako talde inbertsioko erakundeei (kapital aldakorreko inbertsio sozietateen baliokide direnei) aplikatuko zaie, inbertsiogile talde murrizak direla-eta dituzten mugak gorabehera, beraien akzioak eskuratzen, lagatzen edo erreskatatzen direnean. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2009ko uztailaren 13ko 2009/65/EE Zuzentarauak, balore higigarrietako talde inbertsioko erakunde batzuei buruzko lege, arau eta administrazio xedapenak koordinatu dituenak, babesten dituen sozietateei kasu guztietan aplikatuko zaie.

### **Hamazortzigarrena. Loteria eta apustu jakin batzuen gaineko karga berezia.**

1. Zerga honen zergadunek lortzen dituzten ondoko sari hauek Zergaren kargapean daude karga berezi baten bidez:

a) Estatuko Loteria eta Apustuen Estatu Sozietateak edo autonomia erkidegoetako organo edo erakundeek antolatutako loteria eta apustuetan irabazitako sariak, Espainiako Gurutze Gorriak antolatutako zozketetan irabazitakoak eta Espainiako Itsuen Erakundeari baimendutako joko modalitateetan irabazitakoak.

b) Europar Batasuneko edo Europako Esparru Ekonomikoko beste estatu batzuetan irabazteko asmorik gabe gizarte edo laguntza lanetan ari diren erakunde publikoek edo entitateek antolatzen dituzten loteria, apustu eta zozketetako sariak, baldin eta antolatzaileon helburuak aurreko letran azaldu diren erakunde eta entitateenak bezalakoak badira.

Karga berezia saritutako loteriako dezimo, zatiki edo kupoi bakoitzari edo saritutako apustu bakoitzari aplikatuko zaio.

2. [\(11\)](#) Sari osoa 40.000 euro edo gutxiago bada, sari hori karga berezia ordaintzetik salbuetsita egongo da. Sariaren zenbateko osoa 40.000 euro baino gehiago bada, berriz, karga berezia ordaindu beharko da, zenbateko hori gainditzen duen sariaren zatia dela-eta.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa aplikatuko da, baldin eta loteriaren dezimo, zatiki edo kupoiaren edo apustuaren kostua gutxienez 0,50 euro bada. Kostua 0,50 euro baino gutxiago bada, aurreko paragrafoan adierazitako gehieneko zenbateko salbuetsia modu proportzionalean murriztuko da.

Sariaren titulartasuna pertsona batek baino gehiagok badute, aurreko paragrafoetan ezarritako zenbateko salbuetsia titular guztien artean hainbanatuko da, bakoitzari dagokion kuotaren arabera.

**3.** Aurreko 2. idatz zatian ezarritako zenbateko salbuetsia gainditzen duen sariaren zenbatekoa izango da karga bereziaren zerga oinarria. Gauzazko saria bada, zerga oinarria zenbateko hau izango da: sariaren merkatu balioak 2. idatz zatian ezarritako zenbateko salbuetsia gainditzen duen zatia ken konturako sarrera.

Sariaren titulartasuna pertsona batek baino gehiagok badute, zerga oinarria titular guztien artean hainbanatuko da, bakoitzari dagokion kuotaren arabera.

**4.** Aurreko 3. idatz zatian ezarritako zerga oinarriari ehuneko 20ko tasa aplikatuz kalkulatu da karga bereziaren kuota osoa. Kuota horretatik xedapen gehigarri honetako 6. idatz zatian ezarritako atxikipenen edo konturako sarreraren zenbatekoa kenduko da.

**5.** Lortutako saria ordaintzen den unean sortuko da karga berezia.

**6.** Xedapen gehigarri honetan ezarritako sariei atxikipena edo konturako sarrera aplikatuko zaie, foru arau honetako 106., 115. eta 116. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorritik.

Atxikipenaren edo konturako sarreraren tasa ehuneko 20 izango da. Atxikipenaren edo konturako sarreraren oinarria karga bereziaren zerga oinarriaren zenbatekoa izango da.

**7.** Xedapen gehigarri honetako sariak lortzen dituzten zergadunek ez dute autoliquidaziorik aurkeztu beharko karga berezi hau dela-eta.

Hala ere, autoliquidazioa aurkeztu beharko da, baldin eta lortutako saria aurreko 2. idatz zatian ezarritako zenbateko salbuetsitik gorakoa bada edo atxikipenik edo konturako sarrerarik egin ez bada 6. idatz zatian xedatutakoarekin bat. Halakoetan, kasuan kasuko zerga zorraren zenbatekoa zehaztuko da, eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak ezarriko du non, nola eta zer epealditan ordaindu behar den.

**8.** Zerga oinarrian ez dira sartuko xedapen gehigarri honetan zehaztutako sariak, eta haien zenbatekoa ez da kontuan hartuko foru arau honetako 102. artikuluko 2. idatz zatiko c) letran xedatutakoaren ondorioetarako. Foru arau honetan xedatutakoarekin bat etorritik aplikatzen diren atxikipenek edo konturako sarrerak ez dute murriztuko Zergaren kuota likido osoa, eta ez dira kontuan hartuko foru arau honetako 112. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako.

**9.** Xedapen gehigarri honetan ezarritakoa ez zaie aplikatuko 2013ko urtarrilaren 1aren aurretik egindako jokoaren ondoriozko sariei.

### **Hemeretzigarrena. Irabazteko Xederik Gabeko Erakundeen Zerga Araubideari eta Mezenasgorako Zerga Pizgarriei buruzko Foru Arauaren aldarazpena.**

Irabazteko Xederik Gabeko Erakundeen Zerga Araubideari eta Mezenasgorako Zerga Pizgarriei buruzko uztailaren 12ko 16/2004 Foru Arauko 21. artikuluko 1. idatz zatia aldatu da eta honela geratu da:

“1. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergako zergadunek eskubidea izango dute kuota osotik foru arau honetako 20. artikuluan xedatutakoaren arabera kalkulaturako kenkari oinarriaren ehuneko 20 kenkaria egiteko, salbu eta, foru arau honetako 19. artikuluko 1. idatz zatiko f) letran xedatutakoaren arabera, aipaturako 20. artikuluko 1. idatz zatiko h) letran ezarritakoa.”

### **Hogeigarrena. Negoziatzeko onartutako baloreek sortutako ondare irabaziaz zergapetzeko aukerako araubidea.**

**Bat. (3) (16)** Foru arau honetako 47. artikuluko 1. apartatuko a) letran aipatzen diren baloreak kostu bidez eskualdatzen dituzten zergadunek aukeran izango dute artikuluko horretan xedatutakoa aplikatzea eskualdaketa sortutako ondare irabazia kalkulatzeko, edo ehuneko hiruko karga berezia aplikatzea eskualdaketa balioari, betiere balio hori 10.000 eurotik beherakoa bada ekitaldi bakoitzean, eskualdatutako balore guztiak batuta.

Xedapen gehigarri honetan xedatzen dena ez zaio aplikaturako balore horien harpidetza eskubideen eskualdaketa, eta haien eskualdaketa balioa ez da zenbatuko aurreko paragrafoan aipatzen diren balore eskualdaketa guztietako baloreen eskualdaketa balioa zehazteko. Foru arau honetako 47. artikuluko 1. apartatuko a) letrako bigarren paragrafoan ezartzen denaren arabera zehaztuko da zenbatekoa den harpidetza eskubideok eskualdatzearen ondoriozko ondare irabazia.

Zergadunak araubide hori aplikatzen badu eta balore homogeenak badaude, eskualdatu dituen baloreak lehenik eskuratu zituenak direla pentsatuko da.

**Bi. (24)** Karga berezia aplikatuta kalkulatu den zenbatekoa ez da sartuko foru arau honen 66. artikuluan aipatzen den aurrezkiaren zerga oinarrian, eta kuota osoari batuko zaio, foru arau honen 74. artikuluan ezartzen denaren arabera.

**Hiru.** Foru arau honetako 111. artikuluan ezarritakoari dagokionez, Zerga Administrazioak behin-behineko likidazioa egin ahal izango du xedapen gehigarri honetan xedatutakoa aplikatuz, honako kasu hauetan:

a) Zergadunak autolikidaziorik aurkeztu ez badu, edo autolikidazioan ez badu konputatu eskualdaketa horietatik sortutako ondare galera edo ondare irabazia.

b) Zergadunak, Zerga Administrazioaren errekerimendua jasota, ez badu behar bezala justifikatzen konputaturako irabazia edo galera.

Zerga Administrazioak behin-behineko likidazioak bidali ahal izango ditu, xedapen gehigarri honetan ezarritakoa aplikatuz.

**Hogeita batgarrena. Talde kaleratzeen eta arrazoi objektiboengatik kontratu azkentze batzuen ondorioz langileek jasotzen dituzten aldizkako soldata osagarriak.**

1. (3) Foru arau honen 9. artikulua 5. zenbakian xedatutakoaren arabera kopuru batzuk salbuetsia egotea gorabehera, eta kontuan edukita hurrengo idatz zatian azaltzen diren betekizunak bete behar direla, lanaren etekin gisa integratuko da hurrengo idatz zatian aipatzen diren langileek jasotzen dituzten kopuruaren ehuneko 70, muga honekin: lanbide arteko gutxieneko soldata 2,5ez biderkatzearen emaitza urtean.

Muga hori aurreko ehuneko 70 aplikatu baino lehen ezartzen da; mugatik gorako kopuruak oso-osorik sartu behar dira zerga oinarrian.

2. Aurreko idatz zatiko ehunekoa aplikatzeko ezinbestekoa da hauek guztiak betetzea:

a) Diru kopuruak Langileen Estatutuko 51. artikuluan xedatutakoaren arabera egindako talde kaleratze baten ondorioz edo Langileen Estatutuko 52. artikuluko c) letran ezarritako arrazoiengatik batez besteko gertatzen den kontratu azkentze baten ondorioz jaso behar dira, eta kaleratzea edo kontratu azkentzea arrazoi ekonomiko edo teknikoengatik edo ezinbestean gertatu behar da.

Letra honetan xedatutakoaren ondorioetarako, aurrean aipatutako kaleratze eta kontratu azkentzeekin berdinetara dira herri administrazioek Langileen Estatutuko 51. artikuluan ezarritako arrazoiengatik bat oinarritzat hartuta egiten dituzten giza baliabideen plan estrategikoak.

b) (29) Enpleguko Zerbitzu Publiko Nazionaletik, Gizarte Segurantzako Institutu Nazionaletik edo horren ordezkari erakundeetatik jasotako zenbatekoen osagarriak izatea. Tratamendu berbera emango zaie zergadunaren inguruabar bereziak direla eta ekitaldian erakunde horietatik inolako prestaziorik lortu ez duen kasuetan jasotako kopuruei.

c) Aldian-aldean jasotzea (aldi baterakoak zein bizi artekoak izan daitezke) edo dena batera jasotzea kapitalizatuta, ordaintzailea nor den gorabehera.

Kopuruak kapitalizatuta jasoz gero, artikulua honetan zerga tratamendua ondoko kasuan soilik aplikatuko da: zergadunarentzat lanaren etekin irregularretarako ezarritako araubide orokorra baino onuragarriagoa denean.

**Hogeita bigarrena. Ondarearen gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren aldarazpena.**

Ondarearen gaineko Zergari buruzko martxoaren 11ko 9/2013 Foru Arauan aldaketa hauek egin dira:

1. 5. artikuluko zazpigarren idatz zatiko f) letra aldatu da eta honela geratu da:

"f) Mendetasuna estaltzen duten aseguru pribatuei (Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 70. artikuluko 1. idatz-zatiko 7. zenbakian aipatzen dira) ordaindutako primei dagozkien eduki ekonomikodun eskubideak."

2. 5. artikuluko hamaikagarren idatz zatia aldatu da eta honela geratu da:

“Hamaika. Zergadunaren ohiko etxebizitza, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 87. artikuluko 8. idatz zatian ezarritako definizioaren arabera; salbuetsitako zenbatekoa: 400.000 euro gehienez.”

3. 6. artikuluko laugarren idatz zatia aldatu da eta honela geratu da:

“Lau. Artikulu honetan ezarritakoaren ondorioetarako, aktibo bat ezinbestekoa da jarduera ekonomiko baterako berari lotuta badago Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 26. artikuluan ezarritakoaren arabera; salbuespena: artikuluko horretako 1. idatz zatiko c) letrako azken tartekian aipatzen diren aktiboak (hauek ere jarduera ekonomiko bati lotuta egon daitezke).”

4. 12. artikuluko lehenengo idatz zatia aldatu da eta honela geratu da:

“Bat. Hiri edo landa ondasun higiezin zerga oinarria beraien katastroko balioa izango da.

Zerga sortzen denean ondasun higiezin batek ez badauka katastroko balioa ezarrita, edo atzerrian badago, beraren eskuraketa balioa hartuko da zerga oinarritzat, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 45. artikuluko 2. idatz zatian aipatzen diren koefizienteak aplikatuz eguneratu ondoren.”

5. 33. artikuluko lehenengo idatz zatiko b) letra aldatu da eta honela geratu da:

“b) Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zerga oinarriari ondoko hauek gehituko zaizkio: Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauko xedapen gehigarriaren 1. idatz zatian aipatzen diren dibidenduak eta mozkinetako partaidetzak.”

**Hogeita hirugarrena. (3) Pentsio planetan finkatutako eskubideak berreskuratzea, ohiko etxebizitzaren gainekoak exekutatzuz gero.**

1. Partizipaziodunek pentsio planetan finkatutako eskubideen berreskuratzea, Pentsio planak eta funtsak arautzeko Legearen testu bateratuaren zazpigarren xedapen gehigarrian xedatutakoa, pentsio planetako prestazioetarako foru arau honetan xedatutako zerga araubideari lotuta egongo da, zergati horregatik eskubideen lehen berreskuratzea ehuneko 60n integratzea barne. Azaroaren 29ko 1/2002 Legegintzako Errege Dekretu bidez onartu zen testu bateratu hori.

2. Hauei ere aplikatuko zaie aurreko idatz zatian xedatutakoa: zazpigarren xedapen gehigarrian xedatutako eskuragarritasuna dela-eta berreskuratzeak egiten dituzten foru arau honen 70. artikuluan aipatzen diren aurreikuspen plan bermatuetako, enpresa gizarte aurreikuspeneko planetako eta gizarte aurreikuspeneko mutualitateetako asegurudunei.

3. Aseguru kolektiboen prestazioetarako xedatutako zerga araubideari lotuta egongo da asegurudunek zazpigarren xedapen gehigarrian xedatutako aseguru kolektiboetan finkatutako eskubideak berreskuratzea.



Batez ere, foru arau honen 19. artikulua 2. idatz zatiko c) letran xedatutakoari jarraituz aplikagarri den ehuneko zehazteko, aseguru kolektiboen berreskuratzea erretiro prestazioen pareko izango da.

**Hogeita laugarrena. (3) (24) Pertsona fisikoek Euskadiko Kooperatiben Legean arautzen diren mendeko finantza ekarpenen ondorioz lortutako etekinei aplikatzen zaien zerga araubidea.**

1. (24) 2015eko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, Euskadiko Kooperatiben ekainaren 24ko 4/1993 Legearen 57. artikulua 5. paragrafoan edo, behar denean, Euskadiko Kooperatibei buruzko abenduaren 20ko 11/2019 Legearen 60. artikulua 6. paragrafoan aipatzen diren mendeko finantza ekarpenetatik eratorritako errentak kapital propioak hirugarrenei lagatzearen ondorioz lortutako etekintzat joko dira, foru arau honen 35. artikuluan ezartzen denaren arabera.

2. Ondoren adierazten diren egoerak noiz gertatzen edo gertatuko diren gorabehera, hau izango da aplikagarri den zerga tratamendua:

a) Etekinak aurreko idatz zatian xedatutakoaren arabera kalifikatuko dira, balore horiek eskualdatzeko, berreskuratzeko, ordaintzeko, amortizatzeke, trukatzeko edo bihurtzeko eragiketetan.

Zerga trataera bera izango dute saltzen dituzten erakundeekin epaiz kanpoko erabakien ondorio diren salerosketa edo transakzioek, ordainketa horiei konturako atxikipena egin zaien ala ez gorabehera.

b) (10) Tituluaren harpidetzaren deuseztasuna deklaratu duten epaien kasuan, esan nahiko du haien titularrak ondare irabazi edo galera bat izan duela, eta bata edo bestea epaia irimo bihurtzen den ekitaldiari egotziko zaiola; hain zuzen ere, epaian bere alde onartutako berandutze interesen eta ordaindu behar duen zenbatekoaren artean dagoen alde garbia egotziko da, dagozkion interesak barne, eta ez da bidezko izango arrazoi horregatik dagozkion autolikidazioak zuzentzea.

Tratamendu fiskal horixe bera aplikatuko da epaian deusez deklaratu den lehentasunezko partaidetzen edo mendeko zorraren harpidetza.

c) Titulu horien kooperatiba jaulkitzaileei dagokienez, kooperatiba horiek konkurtso egoeran badaude eta titulu horiek konkurtso kreditu bihurtzen badira, zergadunek kreditu horren ondorio den ondare aldaketa errenta orokorrean sartu ahal izango dute, foru arau honen 62. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik edo xedapen gehigarri honen 1. idatz zatian araututako kalifikazioa aplikatzeagatik.

3. Xedapen gehigarri honetan xedatutakoak ez du aldatuko kooperatiba jaulkitzaileentzako mendeko finantza ekarpenen zerga tratamendua. Horiei ekainaren 9ko 16/1997 Foru Arauaren, kooperatiben zerga araubidearen, 16.4 artikuluan xedatutakoa aplikatuko zaie.

**Hogeita bosgarrena. (3) Menpeko finantza-ekarpenen, lehentasunezko partizipazioen eta mendeko zorraren ondorio diren errenta negatiboak integratzeko eta konpentsatzeko araubidea.**

1. (24) Foru arau honen 66. artikuluan 1. paragrafoan xedatutakoa gorabehera, paragrafo horren a) eta b) letretan aipatzen diren saldo negatiboen zatia, Euskadiko Kooperatiben abenduaren 20ko 11/2019 Legearen 60. artikuluan 6. paragrafoan aipatzen diren mendeko finantza ekarpenen ondorio diren ondare galeren edo higigarrien kapitalaren etekin negatiboen emaitza dena, noiz gertatu den gorabehera, letra horietan aipatutako saldo positiboarekin konpentsatu ahal izango dira, bata zein bestea.

Mendeko finantza-ekarpenen berrerozte, harpidetza edo truke bidez jasotako baloreen eskualdatzearen ondorio diren ondare galerei eta higigarrien kapitalaren etekin negatiboari ere aplikatuko zaie konpentsazio araubide hori.

2. Maiatzaren 25eko 13/1985 Legearen, finantza-bitartekarien inbertsio-koefizienteei, baliabide propioei eta informazio-betebeharrei buruzkoaren, bigarren xedapen gehigarrian xedatutako baldintzetan jaulkitako mendeko zorraren baloreek eta lehentasunezko partizipazioek aurreko idatz zatian xedatutako trataera bera izango dute hala ondare galeren nola higigarrien kapitalaren etekin negatiboen ondorio diren saldo negatiboen zatiari dagokionez, bai eta berrerozte eta harpidetza edo truke eragiketen bidez jasotako baloreen eskualdaketaen ondoriozkoak direnei ere, noiz gertatzen edo gertatuko diren gorabehera.

3. 2015eko urtarrilaren 1etik aurrera aplikatuko da xedapen gehigarri honetan araututako integratze eta konpentsatze araubidea, 2. idatz zatian xedatutakoak izan ezik, 2014ko urtarrilaren 1etik aurrera izango baititu ondorioak.

**Hogeita seigarrena. (4) Zordunak konkurtso prozeduretan eskuratutako errentak salbuetsiko dira.**

Zerga honetatik salbuetsiko dira zordunek eskuratutako errentak, honako hauetakoren batean ezarritako zorren kiten eta ordainean emateen ondorioz agertzen badira: uztailaren 9ko 22/2003 Konkurtso Legean ezarritako prozeduraren arabera judizialki onartutako hitzarmen batean; lege horretako 71 bis artikuluan eta laugarren xedapen gehigarrian aipatutako judizialki homologatutako birfinantzaketa akordioan; X. tituluan aipatutako akordio estrajudizialean; edo lege horretako 178 bis artikuluan aipatutako ordaindu gabeko pasibo kentzeen ondorioz, betiere zorrak ez badira sortu jarduera ekonomikoak egitetik.

**Hogeita zazpigarrena. (4) Kreditu mugaeguneratu eta kobratu gabeen ondoriozko ondare galerak.**

Foru Arau honetako 57. artikuluko 2. idatz zatiko j) lettran ezarritako aldi baterako egozpenaren erregela berezia ezartzearen ondorioetarako, j) letra horretako 3. zenbakian aurreikusitako egoera kontuan hartuko da soilik urtebeteko epea 2015eko urtarrilaren 1etik aurrera amaitzen denean.

**Hogeita zortzigarrena. (4) Entitate hartzekodun hipotekarioa onuradun duten aseguruetatik datozen etekinak.**

Aseguru batean estalitako ezintasun kontingentziagatiko prestaziotik datozen errentak, prestazioa zergadunaren hartzekodun hipotekarioak jasotzen duenean aseguruaren onuradun delako, eta zergadunaren hipoteka zorra guztiz edo zati bat kentzeko betebeharra dagoenean, onuraduna zergaduna bera izango balitz egokituko litzaiokeen zerga tratamendu bera emango zaie errenta horiei. Nolanahi ere, errenta horiei inolaz ere ez zaie atxikipenik egingo.

Horren ondorioetarako, hartzekodun hipotekarioa kreditu entitatea izan beharko da, edo modu profesionalean hipoteka kredituak edo maileguak ematen dituen bestelako entitatea.

**Hogeita bederatzigarrena. (5) Sozietateen gaineko Zergaren mende dauden sozietate zibilak.**

1. Sozietateen egoitza fiskaleko araudia dela-eta Sozietateen gaineko Zergaren zergadun diren sozietate zibiletako bazkideek ez dute beren zerga oinarrian sartuko foru arau honetako 11. artikuluan ezarritakoaren arabera egotzi beharko litzaizkiekeen errenten parte proportzionala

2. Aurreko paragrafoan ezarritakoa gorabehera, sozietate zibil horietako bazkideek beren zerga oinarriaren barruan sartu beharko dute sozietate zibilak lortutako errenta positiboa, bakoitzari dagokion proportziora, eta erregela hauek aplikatuko zaizkie:

a) Errenta positibo hori zerga oinarrian sartuko dute, hain zuzen, sozietate zibilak bere ekitaldi soziala amaitzen duen egunaren ostean amaitzen den zergaldian

b) Foru arau honetan nahiz zerga honi buruzko gainerako xedapenetan zerga oinarria zehazteko finkatu diren printzipio eta irizpideen arabera kalkulatu da zerga oinarrian sartu beharreko errenta positiboaren zenbatekoa.

Errentatzat joko da, hain zuzen, irizpide eta printzipio horiek aplikatuzetik ateratzen den zerga oinarriaren zenbatekoa.

c) Xedapen gehigarri honetan jasotakoa aplikagarria zaien zergadunek, zerga honen autolikidazioarekin batera, sozietate zibilar buruzko datu hauek aurkeztu behar dituzte:

i) Sozietatearen izen edo izendazioa, eta sozietatearen egoitzaren lekua.

ii) Administratzaileen zerrenda.

iii) Balantzea eta galera irabazien kontua.

iv) Zerga oinarrian sartu beharreko errenta positiboa dela eta ordaindutako zergen frogagiriak.

d) Xedapen gehigarri hau aplikagarria zaien zergadunek zerga honen kuota osotik Sozietateen gaineko Zergaren pareko edo izaera berdineko zergak edo kargak kendu

ahalko dituzte, behar bezala ordaindu badituzte, zerga oinarrian jasotako errenta positiboari dagokion neurrian.

Benetan ordaindutzat joko dira egoiliar ez den sozietate zibilak eta hark partaidetza daukan entitateek ordaindutakoak, baldin partaidetza ehunekoa Sozietateen gaineko Zergaren Foru Arauko 33. artikuluko 1. idatz zatiko a) letran ezarritakora heltzen bada.

Letra honetan aipatutako kenkariak ezin du gainditu zerga oinarrian sartutako errenta dela-eta zerga honetan ordaindu beharreko kuota osoa, eta atzerrian ordaindutako zergak kenduz gero, kenkariaren zenbatekoa ezin da izan errenta Arabako Lurralde Historikoko Sozietateen gaineko Zergaren arautegiaren menpean dagoen entitate batek ordainduz gero errenta hori dela-eta ordaindu beharreko kuota osoa baino gehiago.

**3.** Ez dira zerga oinarrian sartuko sozietate zibiletatik jasotako dibidenduak edo mozkinetako partaidetzak, ez eta sozietate horietako partaidetza eskualdatuz lortutako errentak ere, baldin eta errenta horiek zerga honen zerga oinarrian integratu badira xedapen gehigarri honetan ezarritakoa aplikatuz.

Berdin jokatu da konturako dibidenduekin.

Errenta positibo bera behin bakarrik sar daiteke, edozein modutan eta edozein entitatek sortua delarik ere.

**Hogeita hamargarrena. (7) Testamendu ahalordea edo gozamen ahalduna erabili gabe dauden herentzien zerga araubidea.**

**Lehenengoa.** Xedapen gehigarri honek, Foru Arau honen artikuluetan ezarritako berezitasunekin batera, arautzen du testamendu ahalordea edo gozamen ahalduna erabili gabe dauden herentzien zerga araubidea, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan.

Herentziaren kausatzaileak, heriotzaren unean, Araban izan badu ohiko bizilekua, Arabako Foru Aldundiari dagokio aipatutako zerga ordainaraztea aurreko paragrafoan jasotako xedapenak aplikatuta.

**Bigarrena.** Arau zehatzak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan.

**1.** Errentak baldin badatoz testamentu ahalordea edo gozamen ahalduna erabili gabe duten herentzietatik, Foru Arauak bere 12. artikuluan 6. idatz zatian jasotakoaren arabera, errenta horiei aplikatuko zaizkie aipatutako Foru Arauan ezarritako xedapen orokorrak eta hura garatzen duten arauzko xedapenak, bigarren zenbaki honetako idatz zatietan jasotzen diren berezitasunekin.

**2.** Kausatzailea hil aurreko bi urteetan zehar kausatzailearekin etxebizitzan bizi izan den bikotekide alargunaren ohiko etxebizitza eskualdatzearen ondorioz lortzen diren ondare irabaziak edo galerak zerga honetatik salbuetsita egongo dira, testamentu ahalorde edo gozamen ahaldun bat gauzatzeke duen jaraunspenaren zati bat bada, eskualdatze horrek Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergaren sortzapena dakarrenean eta, betiere, eskualdaketan lortutako zenbatekoa bikotekide

alargunarentzako ohiko etxebizitza berri bat eskuratzeko inbertitzen bada, Foru Arau honetan ezarritakoaren arabera. Ondore horietarako, ohiko etxebizitzatzat hartuko da Foru Arau honen 87. artikuluan 8. idatz zatian ezarritako baldintzak betetzen dituen. Berrinbertitutako zenbatekoa eskualdaketan jasotako zenbateko osoa baino gutxiago bada, berrinbertitutako zenbatekoari dagokion ondare irabaziaren zati proportzionala soilik geratuko da zergapetu gabe.

Era berean, zerga honetatik salbuetsita egongo dira ohiko etxebizitzaren kostu bidezko eskualdaketa dela-eta edo ohiko etxebizitza ordainean ematearen ondorioz sortzen diren ondare irabaziak, Foru Arau honen 42. artikuluan b, c eta e letretan aipatuak, etxebizitza hori testamentu ahalorde edo gozamen ahaldu bat gauzatzeke dagoen jaraunspenaren barruan dagoenean, baldin eta eskualdaketa horrek ez badu Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zerga sorrarazten, eta betiere baldin eta ezkontide alarguna kausatzailearekin batera ohiko etxebizitzan bizi izan bada kausatzailea hil aurreko bi urteetan, eta hori aplikatzeko aipatutako letretan ezarritako betekizunak betetzen baditu.

### **3. Honako arau hauek aplikatuko dira zerga oinarria zehazteko:**

a) Testamentu ahalorde bat edo gozamen ahaldu bat gauzatzeke duen herentziako zati diren eskubideak eta ondasunak eskualdatzearen ondorioz lortzen diren ondare irabazi eta galerak, eskualdatze horrek Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergaren sortzapena ez dakarrenean, herentziaren bidez lortutakotzat joko dira eta Foru Arau honetan kostu bidezko eskualdaketetarako ezarri diren arauekin bat etorri zehaztuko dira; gauzak horrela, ondasunen eta eskubideen eskuraketaren balioa eta data izango dira bai kausatzaileak bai herentziak horiek eskuratzeko unea.

b) Foru Arau honen 35. artikuluan aipatutako kapital higigarriaren etekinak, baldin eta testamentu ahalordea edo gozamen ahaldu erabiltzearen zain dauden herentzien baitako besteren kapitalen erakarpina eta erabilera ordeztzen dituzten aktiboak eskualdatuz lortzen badira, eta eskualdaketa horiek Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergaren sortzapena ez badakarte, herentziaren bidez lortutakotzat hartuko dira eta Foru Arau honetan ezarritako arauen arabera zehaztuko dira; gauzak horrela, eskuraketaren xede diren aktiboen eskurapenaren balioa eta data izango dira bai kausatzaileak bai herentziak horiek eskuratzeko unea.

c) Jarduera ekonomikoen etekinak testamentu ahalordea edo gozamen ahaldu erabiltzearen zain dauden herentziaren bidez lortutakotzat hartuko dira betiere, kontuan hartu gabe Foru Arau honetako 24. artikuluko 1. idatz zatian ezarritako betekizuna betetzen duten ala ez.

**4. Likidazio oinarri orokorra kalkulatzeko, hala badagokio, testamentu ahalordea edo gozamen ahaldu erabiltzearen zain dagoen jaraunspenaren kargura epailearen erabakiz ordaindu den mantenturako urtekoaren ondoriozko murrizketa soil soilik aplikatuko zaie zerga oinarri orokorrari eta aurrezkiaren zerga oinarriari, betiere Foru Arau honetako 67. eta 69. artikuluek eta ekainaren 25eko 5/2015 Legeak, Euskal Zuzenbide Zibilari buruzkoak, xedatutakoaren arabera.**

5. (29) Zergaren kuota likidoa kalkulatzeko, kuotan aplikatuko diren kenkari bakarrak foru arau honen 51. artikulua 8. apartatua, 85. artikulua, 88. artikulua eta 92. artikulua ezarritakoak izango dira.

6. Testamentu ahalordea edo gozamen ahaldua erabili gabe duten herentziei dagozkien oinarri likidagarri negatiboak, jarduera ekonomikoen etekinen saldo negatiboak, zerga oinarri orokorraren ondare galerak, eta kuota nahikoa ez izateagatik aplikatu ez diren kuotako kenkariak bakar-bakarrik konpentsatu daitezke, zerga araudiak baimentzen duenean, herentzia horiei dagozkien oinarri likidagarri positiboekin, jarduera ekonomikoen etekinetatik datozen saldo positiboekin, zerga oinarri orokorraren ondare irabaziekin eta kuota positibo osoekin.

7. Testamentu ahalordea edo gozamen ahaldua erabili gabe duen herentziak zerga ordaintzeko betebeharra du, eta haren betebeharra da, era berean, xedapen gehigarri eta Foru Arau honetan eta hura garatzen duten arauzko xedapenetan ezartzen diren gainerako betebeharrak betetzea.

8. Testamentu ahalordearen edo gozamen ahalduaren erabilera oso eta ezeztazina edo hori azkentzeko beste edozein arrazoi abenduaren 31 ez den beste egun batean gertatzen bada, zergaldia urte naturala baino laburragoa izango da. Hala denean, zergaldia egun horretan amaitu, eta zerga orduan bertan sortuko da.

**Hirugarrena.** Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari eta Ondarearen gaineko Zergari begirako xedapen erkideak.

1. Testamentu ahalordea edo gozamen ahaldua baliatzearen zain dauden herentziaren betebeharrak formal eta materialak, herentziaren administratzaileak edo gozamendun ahalduak bete beharko ditu, hurrenez hurren.

2. Testamentu ahalordea erabili gabe duen herentziaren administratzailea eta gozamen ahaldua erabili gabe duen herentziaren gozamendun ahaldua erantzule subsidiarioa izango da Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren eta Ondarearen gaineko Zergaren ordainketari dagokionez.

3. Testamentu ahalordea edo gozamen ahaldua erabili gabe duen herentziako ondasun eta eskubideek Pertsona Fisikoen gaineko Errentaren Zergan eta Ondarearen gaineko Zergan tributatu dute, haien edukitzailea zeinahi dela ere, salbu eta edukitzaile hori erregistroko fede publikoak babestutako hirugarren bat bada, edo, ezin inskriba daitezkeen ondasun higigarrien kasuan, onustez eta titulu zuzenarekin justifikatzen bada ondasun eta eskubideok merkataritzako edo industriako establezimendu batean eskuratu direla.

Horretarako, aurreko paragrafoan aipatutako ondasun eta eskubideen eskualdaketan, ondasun eta eskubide horiek testamentu ahalordea edo gozamen ahaldua osorik edo zatiz eta modu ezeztazinean erabiltzeagatik edo horiek azkentzeagatik eskualdatzen badira, esku hartzen duten notarioek, beraiek eskuetsitako agirietan, ohartarazi behar dute ezen ondasun eta eskubide horiek Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren eta Ondarearen gaineko Zergaren kuotak, eskualdaketa baino lehen sortutakoak, ordaintzeari lotuta geratzen direla, ordaintzeko obligazioa preskribatzen ez den bitartean.

Era berean, Jabetzako edo Merkataritzako erregistratzaileek orri bazterreko ohar baten bidez adierazi behar dute ondasunak eta eskubideak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren eta Ondarearen gaineko Zergaren kuotak, eskualdaketa baino lehen sortutakoak, ordaintzeari lotuta geratzen direla, ordaintzeko obligazioa preskribatzen ez den bitartean.

**Laugarrena.** Atxikipena egin beharra.

1. Testamentu ahalordea edo gozamen ahaldua erabili gabe duten herentziak behartuta daude atxikipenak, konturako sarrerak eta ordainketa zatikatuak egitera, eta dagokien zenbatekoa Arabako Foru Aldundiari ordaintzera, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Foru Arauan, Sozietateen gaineko Zergaren Foru Arauan, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren Foru Arauan eta horiek geratzen dituzten arauzko xedapenetan ezarritako kasu eta moduetan.

2. Nolanahi ere, atxikipenak, konturako sarrerak eta ordainketa zatikatuak behartuta dauden aldetik, testamentu ahalordea edo gozamen ahaldua erabili gabe duten herentziek beren gain hartuko dute diru sarrera Arabako Foru Aldundiari egiteko obligazioa, eta beste obligazio hori ez betetzeak ez ditu salbuetsiko diru sarrera egiteko betebeharrak honetatik.

**Hogeita hamaikagarrena (6).** Finantza entitateekin sinatutako akordioen edo epaiak edo arbitraje laudoak betetzearen ondorioz itzultzen diren diru kopuruei, maileguen korritu tasak mugatzeko klausulengatik ordaindutakoei, aplikatuko zaie zerga tratamendua.

1. Ez dira sartuko zerga honen zerga oinarrian finantza entitateekin sinatzen diren akordioen ondorioz itzultzen diren kopuruak, maileguen korritu tasak mugatzeko klausulengatik ordaindutakoak, hain zuzen, eskudirutan zein bestelako konpentsazioen bitartez jasotzen direnak, ez eta haien kalteordain korrituak ere.

2. Aurreko idatz zatian ezartzen denaren arabera dirua itzultzen zaion zergadunak lehen ordaindutako kopuruei zerga tratamendu hau aplikatuko zaie:

a) Aurreko ekitaldietan kopuru horiek ohiko etxebizitza erosteagatik aplikatu ahal den kenkariaren oinarrian sartuko baziren, kopuruok direla eta kenkaria aplikatzeko eskubidea galduko da, eta finantza entitatearekin akordioa sinatu den ekitaldian sortutako kuota likidoari honako hauek bakarrik gehitu beharko zaizkie: Administrazioak zerga zorra likidazio bitartez zehazteko daukan eskubidea preskribatu ez den ekitaldietan bidegabe aplikatutako kenkariak, berandutza korrituak barne.

Aurreko paragrafoan azaltzen den gehikuntzatik salbu geratuko dira kopuru hauek: zergadunarekin akordio batera iritsi ondoren finantza entitateak ohiko etxebizitza erosteko maileguaren printzipala murrizteko zuzenean aplikatzen dituen kopuruak.

b) Administrazioak zerga zorra likidazio bitartez zehazteko daukan eskubidea preskribatu ez den ekitaldietan kopuru horiek aurreko ekitaldietako gastu kengarriztat jo badira, kengarritasuna galduko dute eta ekitaldi horietako autolikidazio osagarria egin beharko da akordioa sinatzen denetik zerga honen autolikidazioa aurkezteko

hurrengo epealdia amaitu bitartean, eta ez da egongo zehapenik, ez berandutza korriturik, ez errekarurik.

c) Zergadunak kopuru horiek ordaindu dituen ekitaldietako autolikidazioa aurkezteko epealdia ez bada egon amaituta finantza entitatearekin itzulketa akordioa sinatu denean, kopuruok, ez eta aurreko a) letrako bigarren paragrafoan aipatzen diren kopuruak ere, ez dira sartuko ohiko etxebizitza erosteagatik aplika daitekeen kenkariaren oinarrian eta ez dira gastu kengarritzat joko.

3. Aurreko idatz zatietan xedatzen dena kasu honetan ere aplikatuko da: 1. idatz zatian aipatzen diren kopuruak epaitegiko epai baten edo arbitraje laudo baten ondorioz itzultzen direnean.”

### **Hogeita hamabigarrena (8). Epe Luzeko Aurrezki Planak.**

1. Epe luzerako aurrezki-plana zergadunaren eta aseguru- edo kreditu-erakunde baten arteko kontratu bat da, baldintza hauek betetzen dituena:

a) Epe luzerako aurrezki-plan batera ekarritako baliabideak honela bideratu behar dira: edo bizi-aseguru indibidual baten edo segidako aseguru batzuen bidez -xedapen gehigarri honetako 2. zenbakian aipatzen dira, eta epe luzerako bizi-aseguru indibidual deritze-, edo, bestela, finantza-gordailu edo -kontratuen bidez -xedapen gehigarri honetako 3. zenbakian aipatzen dira, eta epe luzerako aurrezki-erakunde kontu indibidual batean sartuko dira-.

Zergadun bat, aldi berean, epe luzerako aurrezki-plan baten titular soilik izan daiteke.

b) Epe luzerako aurrezki-plana irekiko da lehenengo prima ordaintzen denean edo epe luzerako aurrezki-erakunde kontu indibidualerako lehenengo ekarpena egiten denean -kasu bakoitzean dagokiona-, eta iraungi, berriz, plan horretako dirua erabiltzen denean edo zenbaki honetako c) letran ekarpenentzat ezarritako muga betetzen ez denean iraungiko da.

Ondorio horietarako, epe luzerako aurrezki-erakunde aseguru indibidualen kasuan ez da ulertuko aseguru horretako dirua erabili denik baldin eta aseguruaren muga-egunera ailegatutakoan aseguru-erakundeak prestazioaren zenbateko osoa eskualdatzen badu, zergadunak aginduta, zergadun horrek erakunde berarekin kontratatutako epe luzerako aurrezki-erakunde beste aseguru indibidual batera. Kasu horietan, aseguru berrira eramandako prestazioaren zenbatekoa ez da kontuan hartuko zenbaki honetako c) letran ezartzen den 5.000 euroko mugari begira, eta foru arau honetako 9. artikuluko 32. zenbakian zehazten den epea zenbatzeko, berriz, planerako ekarpenak egiteko erabili zen lehenengo aseguruaren lehenengo prima noiz ordaindu zen hartuko da aintzat.

c) Epe luzerako aurrezki-plan batean ezin dira inoiz 5.000 euro baino gehiago jarri urtean, plana indarrean dagoen urte guztietan.

d) Zergadunak kapital moduan bakarrik erabil dezake planean metatutako kapitala, osorik, eta ezin du planeko dirua zatika erabili.



e) Aseguru-erakundeak edo kreditu-erakundeak bermatu behar du zergadunak, bizi-aseguru indibiduala muga-eguneratzen denean edo finantza-gordailu edo -kontratu bakoitza muga-eguneratzen denean, gutxienez, ordaindutako primen edo finantza-gordailu edo -kontratuari egindako ekarpenen ehuneko 85aren baliokidea den kapitala jasoko duela. Aurrekoa gorabehera, bermea ehuneko 100 baino txikiagoa bada, kontratatutako finantza-produktua gutxienez urtebeterako izan behar da.

2. Epe luzerako aurrezkirako aseguru indibiduala (SIALP) bizi-aseguru indibiduala da, baina ez da foru arau honetako 36. artikuluan aurreikusten diren bizi-aseguruen modukoa, ez ditu biziraupena edo heriotza ez diren kontingentziak estaliko, eta zergaduna bera izango da kontratatzailea, aseguraturua eta onuraduna, heriotzaren kasuan izan ezik.

Kontratuaren baldintzetan berariaz eta modu nabarmenean adierazi behar da epe luzerako aurrezkirako aseguru indibidual bat dela eta zer sigla dituen plan horrek (SIALP), eta 2016ko urtarrilaren 1etik sinatutako kontratuak soilik izan daitezke, eta foru arau honetan ezarritako baldintzak bete behar dituzte.

3. Epe luzerako aurrezkirako kontu indibiduala diruaren gordailu-kontratu bat da, zergadunak kreditu-erakunde batekin egiten duena, eta haren kargura diru-gordailu bat edo gehiago eratu ahal izango dira, bai eta (Balore Merkatuari buruzko Legearen Testu Bategineko 37.6 artikulua garatzen duen) EHA/3537/2005 Aginduko bigarren artikuluko 1. zenbakiko azken paragrafoan definitzen diren moduko finantza-kontratuak ere, baldin eta haien baldintzetan zehazten bada bai ekarpenak bai muga-egunean egingo den likidazioa dirutan eta dirutan bakarrik egingo direla. Epe luzerako aurrezkirako kontu indibiduala ireki duen kreditu-erakunde berarekin kontratatu behar ditu zergadunak finantza-gordailu eta -kontratuok. Kontuaren etekinak, nahitaez, kontu indibidualean bertan sartuko dira, eta ez dira zenbatuko aurreko 1. zenbakiko c) letran ezarritako mugari dagokionez.

Epe luzerako aurrezkirako kontu indibiduala bereziki identifikatu behar da, beste ezarpen-modu batzuetatik berezita. Gainera, kontuan sartuta dauden finantza-gordailu eta -kontratuon identifikazioan kontuari berari buruzko aipamena jaso behar da.

Kontratuaren baldintzetan berariaz eta modu nabarmenean adierazi behar da epe luzerako aurrezkirako kontu indibidual bat dela eta zer sigla dituen plan horrek (CIALP); 2016ko urtarrilaren 1etik sinatutako kontratuak soilik izan daitezke, foru arau honetan ezarritako baldintzak bete behar dituzte, eta bertan sartuko dira egun horretatik aurrera kontratatutako finantza-gordailu eta -kontratuak.

4. Erakunde kontratugileek kontratuan bereziki adierazi behar dute, berariaz eta modu nabarmenean, xedapen gehigarri honetako 1. zenbakiko e) letrak bermeak zer zenbateko izango duen eta zer data hartuko duen kontuan; halaber adierazi behar dute bizi-aseguru indibidualeko edo finantza-gordailu edo -kontratuko kapitala zer baldintzatan erabil daitekeen muga-eguneratu aurretik edo noiz eta nola egin daitekeen ekarpen gehiago.

Erakunde kontratugileek, gainera, kontratuan berariaz eta modu nabarmenean ohartarazi behar dituzte zergadunak, eta adierazi behar diete aldi berean epe luzerako aurrezkirako plan bakarraren titular soilik izan daitezkeela, urtean ezin dituztela 5.000

eurotik gorako ekarpenak egin, ez eta plan horretan eratzen den kapitala zatika erabili ere. Halaber jakinarazi behar diete zer ondorio fiskal dituen planean metatutako dirua planera lehenengo ekarpena egin zenetik bost urte igaro aurretik eta ondoren erabiltzeak.

5. Erregelamendu bidez garatu ahal izango dira epe luzerako aurrezkirako aseguru indibidualetako eskubide ekonomiko guztiak eta epe luzerako aurrezkirako kontu indibidualetan metatutako funts guztiak mobilizatzeko baldintzak, baina horrek ez du esan nahi baliabideak erabiliko direnik foru arau honetako 9. artikuluko 37. zenbakian ezarritakoari begira.

6. Foru arau honetako 9. artikuluko 37. zenbakian ezarritako epea amaitu aurretik metatutako kapitalaren zatiren bat erabiltzen bada edo ez bada betetzen xedapen honetako 1. zenbakiko c) letran ekarpenentzat ezarritako muga, erakundeak erregelamenduz ezartzen den zenbatekoaren besteko atxikipena edo konturako ordainketa egin beharko du plana ireki zenetik lortutako kapital higigarriaren etekin positiboak direla eta, plana iraungitzeak sor litzakeen etekinak ere kontuan hartuta.

7. Epe luzerako aurrezkirako plana indarrean dagoen urteetan lortzen diren kapital higigarriaren etekin negatiboak -plana iraungitzeak sor litzakeen etekinak barne- plana iraungitzen den zergaldian egotziko dira, baina bakarrik egotziko dira salbuespena aplikatu zaien plan horretako etekin negatiboen batura gainditzen duten etekin negatiboak.

**Hogeita hamahirugarrena. (21) Ondasun emateak eta zerbitzugintzak dokumentatzen dituzten fitxategien osotasuna, artapena, trazabilitatea, bortxaezintasuna eta bidalketa bermatzen dituen sistema erabiltzea sustatzeko kenkaria.**

1. 2020ko urtarrilaren 1etik 2022ko abenduaren 31ra arte jarduera ekonomikoren bat egiten duten pertsona fisikoek, errentak esleitzeko araubideko entitateek eta testamentu ahalordea baliatzearen edo gozamen ahaldua baliatzearen zain dauden jarauntsiek abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauak, sozietateen gaineko zergarenak, hogeita seigarren xedapen gehigarrian arautzen duen kenkaria aplikatu ahal izango dute, bertan ezartzen denarekin bat etorriz eta xedapen gehigarri honetan arautzen diren berezitasunekin.

2. Aurreko idatz zatian aipatzen den kenkaria zerga honen kuota osoari aplikatuko zaio, hain zuzen ere jarduera ekonomikoen etekinekin osatzen den zerga oinarri orokorraren zatiari dagokion kuota osoari.

3. Errentak esleitzeko araubideko entitateen eta testamentu ahalordea baliatzearen edo usufruktu ahaldua baliatzearen zain dauden jarauntsien kasuan, aurrean aipatutako hogeita bigarren xedapen gehigarriko 2. idatz zatian arautzen den gehieneko muga, jarduera ekonomikoren bat egiten duten errentak esleitzeko araubideko entitateetako bazkideei, jaraunseei, erkideei edo partaideei dagokiena, entitatearen negozio zenbateko garbiaren eta pertsona horiek entitatearen emaitzetan duten partaidetzaren arabera zehaztuko da.

Aurrekoaren aplikazioan ez dute eraginik edukiko errentak esleitzeko araubidean dauden entitateetako bazkideek, jaraunsleek, erkideek edo partaideek beren bakarkako jarduera ekonomikoengatik duten gehieneko mugak.

4. Kenkari hau aplikatzea aukerakoa da; aukera baliatzeko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak, Arabako zergei buruzkoak, 115. artikuluko 3. idatz zatian xedatzen duena eta foru arau honetako 105. artikuluan xedatzen dena aplikatuko da.

**Hogeita hamalagarrena. (23) (29) Hutsik geratzeko arriskuan dauden eremuak edo herriguneak.**

Honako hauek dira hutsik geratzeko arriskuan dauden eremuak edo herriguneak:

Hutsik geratzeko arriskuan dagoen eremua edo herrigunea	Udalerriaren izena	Kuadrillaren izena
Aberasturi	Gasteiz	Gasteiz
Abetxuko (landa eremua)	Gasteiz	Gasteiz
Abezia	Urkabustaiz	Gorbeialdeko Kuadrilla
Acebedo	Gaubea	Añana
Adana	Donemiliaga	Arabako Lautada
Aginaga	Aiara	Aiara
Alangua	Agurain	Arabako Lautada
Albeiz	Asparrena	Arabako Lautada
Alcedo	Lantarón	Añana
Alda	Harana	Kanpezu - Arabako Mendialdea
Aletxa	Arraia-Maeztu	Kanpezu - Arabako Mendialdea
Aloria	Amurrio	Aiara
Altube	Zuia	Gorbeialdeko Kuadrilla
Amarita	Gasteiz	Gasteiz
Anda	Kuartango	Añana
Andagoia	Kuartango	Añana
Andoin	Asparrena	Arabako Lautada
Angostina	Bernedo	Kanpezu - Arabako Mendialdea
Antezana de Ribera	Erriberagoitia	Añana
Antoñana	Kanpezu	Kanpezu - Arabako Mendialdea
Añes	Aiara	Aiara
Apinaiz / Apellániz	Arraia-Maeztu	Kanpezu - Arabako Mendialdea
Aperregi	Zuia	Gorbeialdeko Kuadrilla
Aprikano	Kuartango	Añana

Arbigano	Erriberagoitia	Añana
Areatza	Arraia-Maeztu	Kanpezu - Arabako Mendialdea
Aretxabaleta	Gasteiz	Gasteiz
Arexola	Aramaio	Gorbeialdeko Kuadrilla
Argandoña	Gasteiz	Gasteiz
Arkauti	Gasteiz	Gasteiz
Arluzea	Bernedo	Kanpezu - Arabako Mendialdea
Arreo	Erriberagoitia	Añana
Arriano	Kuartango	Añana
Arrieta	Iruraiz-Gauna	Arabako Lautada
Arriola	Asparrena	Arabako Lautada
Arrizala	Agurain	Arabako Lautada
Artatza Foronda	Gasteiz	Gasteiz
Artatza	Erriberagoitia	Añana
Artomaña	Amurrio	Aiara
Artxua	Kuartango	Añana
Askartza	Gasteiz	Gasteiz
Axpuru	Donemiliaga	Arabako Lautada
Assa	Lantziego	Biasteri-Arabako Errioxako Kuadrilla
Estuliz	Gaubea	Añana
Atauri	Arraia-Maeztu	Kanpezu - Arabako Mendialdea
Atiaga	Añana	Añana
Audikana	Barrundia	Arabako Lautada
Azazeta	Arraia-Maeztu	Kanpezu - Arabako Mendialdea
Azilu	Iruraiz-Gauna	Arabako Lautada
Azkoaga	Aramaio	Gorbeialdeko Kuadrilla
Bachicabo	Gaubea	Añana
Baranbio	Amurrio	Aiara
Baroja-Zumentu	Urizarra	Kanpezu - Arabako Mendialdea
Barrio	Gaubea	Añana
Gorrebusto / Barriobusto	Oion	Biasteri-Arabako Errioxako Kuadrilla
Barrón	Erriberagoitia	Añana
Basabe	Gaubea	Añana
Basquiñuelas	Erriberagoitia	Añana
Bellojín	Gaubea	Añana
Beluntza	Urkabustaiz	Gorbeialdeko Kuadrilla
Bergantzu	Zanbrana	Añana

Bergonda	Lantarón	Añana
Berroztegieta	Gasteiz	Gasteiz
Berrozi	Bernedo	Mendialdea
Betolatza	Arratzua-Ubarrundia	Gorbeialdeko Kuadrilla
Bikuña	Donemiliaga	Arabako Lautada
Billatxika	Okondo	Aiara
Bolívar	Gasteiz	Gasteiz
Bóveda	Gaubea	Añana
Bujanda	Kanpezu	Kanpezu - Arabako Mendialdea
Buruaga	Zigoitia	Gorbeialdeko Kuadrilla
Caicedo Yuso	Lantarón	Añana
Caicedo Sopeña	Erriberagoitia	Añana
Campijo	Artziniega	Aiara
Campillar (El)	Guardia	Biasteri-Arabako Errioxako Kuadrilla
Caranca	Gaubea	Añana
Castillo-Sopeña	Erriberagoitia	Añana
Zekuiano	Arraia-Maeztu	Kanpezu - Arabako Mendialdea
Corro	Gaubea	Añana
Opellora / Costera	Aiara	Aiara
Dallo	Barrundia	Arabako Lautada
Delika	Amurrio	Aiara
Zigoitiko herrigune sakabanatua	Zigoitia	Gorbeialdeko Kuadrilla
Domaikia	Zuia	Gorbeialdeko Kuadrilla
		Arabako Lautada
Durruma	Donemiliaga	
Egileor	Agurain	Arabako Lautada
Elorriaga	Gasteiz	Gasteiz
Elosu	Legutio	Gorbeialdeko Kuadrilla
Erbi	Aiara	Aiara
Escanzana	Berantevilla	Añana
Eskibel	Gasteiz	Gasteiz
Estarroa	Gasteiz	Gasteiz
Etxabarri Urtupiña	Barrundia	Arabako Lautada
Etxabarri-Kuartango	Kuartango	Añana
Etxaguen	Aramaio	Gorbeialdeko Kuadrilla
Etxaguen (Zigoitia)	Zigoitia	Gorbeialdeko Kuadrilla
Etxegoien	Aiara	Aiara

Ezkerekotxa	Iruraiz-Gauna	Arabako Lautada
Faidu	Urizarra	Kanpezu - Arabako Mendialdea
Fontecha	Lantarón	Añana
Foronda	Gasteiz	Gasteiz
Fresneda	Gaubea	Añana
Galarreta	Donemiliaga	Arabako Lautada
Gamiz	Gasteiz	Gasteiz
Gantzaga	Aramaio	Gorbeialdeko Kuadrilla
Gauna	Iruraiz-Gauna	Arabako Lautada
Gereña	Gasteiz	Gasteiz
Gereñu	Iruraiz-Gauna	Arabako Lautada
Gobeu	Gasteiz	Gasteiz
Goian	Legutio	Gorbeialdeko Kuadrilla
Gometxa	Gasteiz	Gasteiz
Gordeliz	Artziniega	Aiara
Gordoa	Asparrena	Arabako Lautada
Gibilloarrate	Kuartango	Añana
Ginea	Gaubea	Añana
Gurendes	Gaubea	Añana
Heredia	Barrundia	Arabako Lautada
Hereña	Erriberagoitia	Añana
Hermua	Barrundia	Arabako Lautada
Ixona	Burgelu	Arabako Lautada
Otoharren	Gasteiz	Gasteiz
Ibarguren	Asparrena	Arabako Lautada
Ibisate	Arraia-Maeztu	Kanpezu - Arabako Mendialdea
Igaegi	Erriberabeitia	Añana
Ilarduia	Asparrena	Arabako Lautada
Inoso	Urkabustaiz	Gorbeialdeko Kuadrilla
Iñurrieta	Kuartango	Añana
Izartza	Bernedo	Kanpezu - Arabako Mendialdea
Jauregi	Iruraiz-Gauna	Arabako Lautada
Jokano	Kuartango	Añana
Jugo	Zuia	Gorbeialdeko Kuadrilla
Karkamu	Gaubea	Añana
Katadiano	Kuartango	Añana
Kintana	Bernedo	Kanpezu - Arabako Mendialdea

Kontrasta	Harana	Kanpezu - Arabako Mendialdea
Korres	Arraia-Maeztu	Kanpezu - Arabako Mendialdea
Kripan	Kripan	Biasteri-Arabako Errioxako Kuadrilla
Labraza	Oion	Biasteri-Arabako Errioxako Kuadrilla
Lacervilla	Berantevilla	Añana
Lacorzana	Armiñon	Añana
Lacorzanilla	Berantevilla	Añana
Lagran	Lagran	Kanpezu - Arabako Mendialdea
Lahoz	Gaubea	Añana
Lalastra	Gaubea	Añana
Landa	Arratzua-Ubarrundia	Gorbeialdeko Kuadrilla
Langarika	Iruraiz-Gauna	Arabako Lautada
Larrazkueta	Urkabustaiz	Gorbeialdeko Kuadrilla
Larrea	Barrundia	Arabako Lautada
Larrinoa	Zigoitia	Gorbeialdeko Kuadrilla
Lasierra	Erriberagoitia	Añana
Leciñana de la Oca	Erriberagoitia	Añana
Leziñana / Leciñana del Camino	Lantarón	Añana
Legarda	Gasteiz	Gasteiz
Lexartzu	Aiara	Aiara
Lekamaña	Amurrio	Aiara
Letona	Zigoitia	Gorbeialdeko Kuadrilla
Llantenó	Aiara	Aiara
Lopida	Gasteiz	Gasteiz
Loza	Urizaharra	Kanpezu - Arabako Mendialdea
Lubiano	Gasteiz	Gasteiz
Lukiano	Zuia	Gorbeialdeko Kuadrilla
Luna	Kuartango	Añana
Luxo	Aiara	Aiara
Luzuriaga	Donemiliaga	Arabako Lautada
Madaria	Aiara	Aiara
Mandojana	Gasteiz	Gasteiz
Marieta-Larrintzar	Barrundia	Arabako Lautada
Marinda	Kuartango	Añana
Markina	Zuia	Gorbeialdeko Kuadrilla
Markinez	Bernedo	Kanpezu - Arabako Mendialdea

Maroño	Aiara	Aiara
Martioda	Gasteiz	Gasteiz
Menagarai	Aiara	Aiara
Mendibil	Arratzua-Ubarrundia	Gorbeialdeko Kuadrilla
Mendieta	Artziniega	Aiara
Mendiguren	Gasteiz	Gasteiz
Mendixur	Barrundia	Arabako Lautada
Menio	Aiara	Aiara
Mezkia	Donemiliaga	Arabako Lautada
Mijancas	Berantevilla	Añana
Miñao Gutxia	Gasteiz	Gasteiz
Miñao	Gasteiz	Gasteiz
Mioma	Gaubea	Añana
Molinilla	Lantarón	Añana
Monasterioguren	Gasteiz	Gasteiz
Montoria	Urizarra	Kanpezu - Arabako Mendialdea
Morillas	Erriberagoitia	Añana
Munain	Donemiliaga	Arabako Lautada
Musitu	Arraia-Maeztu	Kanpezu - Arabako Mendialdea
Langara Ganboa	Arratzua-Ubarrundia	Gorbeialdeko Kuadrilla
Narbaiza	Donemiliaga	Arabako Lautada
Navarrete	Bernedo	Kanpezu - Arabako Mendialdea
Nograro	Gaubea	Añana
Nuvilla	Erriberagoitia	Añana
Ocio	Zanbrana	Añana
Oiardo	Urkabustaiz	Gorbeialdeko Kuadrilla
Okariz	Donemiliaga	Arabako Lautada
Okina	Bernedo	Kanpezu - Arabako Mendialdea
Olano	Zigoitia	Gorbeialdeko Kuadrilla
Erroeta / Onraitia	Arraia-Maeztu	Kanpezu - Arabako Mendialdea
Opakua	Agurain	Arabako Lautada
Urbisu	Kanpezu	Kanpezu - Arabako Mendialdea
Ordoñana/Erdoñana	Donemiliaga	Arabako Lautada
Ormijana	Erriberagoitia	Añana
Osma	Gaubea	Añana



Oteo	Kanpezu	Kanpezu - Arabako Mendialdea
Otogoien	Gasteiz	Gasteiz
Ozeka	Aiara	Aiara
Paul	Erriberagoitia	Añana
Pinedo	Gaubea	Añana
Pipaon	Lagran	Kanpezu - Arabako Mendialdea
Zabalate	Zanbrana	Añana
Kexaa	Aiara	Aiara
Quejo	Gaubea	Añana
Quintanilla	Gaubea	Añana
Quintanilla de la Ribera	Erriberabeitia	Añana
Erretana	Gasteiz	Gasteiz
Retes de Llanteno	Aiara	Aiara
Erretes Tudela	Artziniega	Aiara
Ribaguda	Erriberabeitia	Añana
Ribera	Gaubea	Añana
Erroitegi	Arraia-Maeztu	Kanpezu - Arabako Mendialdea
Sabando	Arraia-Maeztu	Kanpezu - Arabako Mendialdea
Salcedo	Lantarón	Añana
Gesaltza Añana	Añana	Añana
Salmantón	Aiara	Aiara
Samaniego	Samaniego	Biasteri-Arabako Errioxako Kuadrilla
San Miguel	Erriberagoitia	Añana
Durruma Kanpezu	Bernedo	Kanpezu - Arabako Mendialdea
Done Bikendi Harana	Harana	Kanpezu - Arabako Mendialdea
Santa Cruz del Fierro	Berantevilla	Añana
Santa Eulalia	Kuartango	Añana
Santa Koloma	Artziniega	Aiara
Santurde	Berantevilla	Añana
Sendadiano	Kuartango	Añana
Sobrón	Lantarón	Añana
Soxoguti	Artziniega	Aiara
Soxo	Aiara	Aiara

Subijana de Alava/Subillana-Gasteiz	Gasteiz	Gasteiz
Tertanga	Amurrio	Aiara
Tobera	Berantevilla	Añana
Tobillas	Gaubea	Añana
Tortura	Kuartango	Añana
Turiso	Lantarón	Añana
Txintxetru	Donemiliaga	Arabako Lautada
Ugalde	Okondo	Aiara
Uribarri-Harana	Harana	Kanpezu - Arabako Mendialdea
Uribarri Arratzua	Gasteiz	Gasteiz
Uribarri-Dibiña	Gasteiz	Gasteiz
Untzilla	Aramaio	Gorbeialdeko Kuadrilla
Urabain	Asparrena	Arabako Lautada
Urarte	Bernedo	Kanpezu - Arabako Mendialdea
Urbina de Basabe	Kuartango	Añana
Urbina Eza	Kuartango	Añana
Uribarri-Kuartango	Kuartango	Añana
Urturi	Bernedo	Kanpezu - Arabako Mendialdea
Uzkiano	Urkabustaiz	Gorbeialdeko Kuadrilla
Valluerca	Gaubea	Añana
Villabezana	Erriberagoitia	Añana
Villafría	Bernedo	Kanpezu - Arabako Mendialdea
Villaluenga	Erriberagoitia	Añana
Villamaderne	Gaubea	Añana
Villamanca	Kuartango	Añana
Villamardones	Gaubea	Añana
Villambrosa	Erriberagoitia	Añana
Uribarri Gaubea	Gaubea	Añana
Villaverde	Lagran	Kanpezu - Arabako Mendialdea
Viloria	Erriberagoitia	Añana
Binasperi	Lantziego	Biasteri-Arabako Errioxako Kuadrilla
Birgara Goien	Arraia-Maeztu	Kanpezu - Arabako Mendialdea
Birgara Barren	Arraia-Maeztu	Kanpezu - Arabako Mendialdea

Zaitegi	Zigoitia	Gorbeialdeko Kuadrilla
Zarate	Zuia	Gorbeialdeko Kuadrilla
Zerio	Gasteiz	Gasteiz
Zestafe	Zigoitia	Gorbeialdeko Kuadrilla
Ziorraga	Zuia	Gorbeialdeko Kuadrilla
Zirao	Arratzua-Ubarrundia	Gorbeialdeko Kuadrilla
Zuhatza	Aiara	Aiara
Zuhatzu Donemiliaga	Donemiliaga	Arabako Lautada
Zubillaga	Lantarón	Añana

**Hogeita hamabosgarrena. (32) Abenduaren 27ko 20/2022 Errege Lege Dekretuan diru sarrera eta ondare gutxiko pertsona fisikoentzat aurreikusitako laguntzatik salbuestea.**

Zerga honetatik salbuetsita egongo da diru sarrera eta ondare gutxiko pertsona fisikoentzako laguntza, zeina onetsi baitzuen Ukrainako gerraren ondorio ekonomiko eta sozialei aurre egiteko neurrien eta La Palmako uhartea berreraikitzen eta beste kalte beratasun egoera batzuei erantzuten laguntzeko abenduaren 27ko 20/2022 Errege Lege Dekretuak 74. artikuluan.

## **XEDAPEN IRAGANKORRAK**

**Lehenengoa. 1994ko abenduaren 31 baino lehen eskuratutako ondare elementuetatik datozen ondare irabazien zenbatekoa kalkulatzeko.**

**Bat.** 1994ko abenduaren 31 baino lehen eskuratu diren eta jarduera ekonomikoei atxikita ez dauden ondare elementuak eskualdatuta lortutako ondare irabazien zenbatekoa ondoko erregelara hauei jarraikiz kalkulatu da:

1. Oro har, foru arau honen IV. tituluko V. kapituluaren arabera kalkulatu dira ondare elementu bakoitzerako. Horrela kalkulatu ondare irabazitiko bereizi behar da zein zati sortu den 2007ko urtarrilaren 1a baino lehen, eta haxe hartuko da halakotzat: eskuraketa egunetik 2006ko abenduaren 31ra arte (bi egunak barne) igarotako egun kopuruari zergadunaren ondarean egon den egun kopuru osoarekiko proportzioan dagokion ondare irabaziaren zatia.

2007ko urtarrilaren 1a baino lehen sortutako ondare irabaziaren zatia era honetan murriztuko da:

a) Zergadunaren ondarean elementuak izan duen iraupen aldizat honako hau hartuko da: elementua eskuratu den egunetik 1996ko abenduaren 31ra bitartean igarotako urteen kopurua, goitik biribilduta.

Eskualdatutako ondare elementuetan hobekuntzak egin badira, elementu horiek zergadunaren ondarean izan duten iraupen aldia honako hau izango da: hobekuntzak

egin diren egunetik 1996ko abenduaren 31ra bitartean igarotako urte kopurua, goitik biribilduta.

b) (5) Eskualdatutako ondare elementuak ondasun higiezinak, horien gaineko eskubideak edo Baloreen Merkatuari buruzko Legearen Testu Bategineko 314. artikuluan (urriaren 23ko 4/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onartutakoa) aipatutako entitateen baloreak badira, kanpoan utzita higiezinaren inbertsio sozietate edo funtsen kapital sozialaren edo ondarearen akzio edo partaidetzak, murrizketa ehuneko 11,11koa izango da aurreko letran adierazitako iraupen urteak bitik gora gainditzen diren urte bakoitzeko.

c) (24) Eskualdatutako ondare elementuak Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko maiatzaren 15eko 2014/65/EB Zuzentarauan, finantza tresnen merkatuei buruzkoan, definitutako bigarren mailako balore merkatu ofizialetako batean negoziatzeko onartutako akzioak badira -sozietate edo entitateen funts propioetan parte hartzea adierazten dutenak-, kanpoan utzita ondasun higigarri zein higiezinetan inbertitzen dituzten sozietateen kapitalaren adierazgarri diren akzioak, murrizketa ehuneko 25ekoa izango da aurreko a) letran adierazitako iraupen urteak bitik gora gainditzen diren urte bakoitzeko.

d) 2007ko urtarrilaren 1a baino lehen sortutako gainerako ondare irabaziak ehuneko 14,28 murriztuko dira aurreko a) letran adierazitako iraupen urteak bitik gora gainditzen diren urte bakoitzeko.

e) Aurreko b), c), eta d) letretan adierazitakoarekin bat etorritik 1996ko abenduaren 31n hurrenez hurren hamar, bost eta zortzi urtetik gorako iraupenaldia izan duten ondare elementuek 2007ko urtarrilaren 1a baino lehen sortutako ondare irabaziaren zatia ez da egongo kargapean.

2. 2006ko abenduaren 31 iritsita merkatu arautuetan negoziatzeko onartuta dauden baloreak direnean edo foru arau honetako 47. artikuluko 1. idatz zatiko a) eta d) letretan ezarritako araubidea aplikagarria zaien talde inbertsio kolektiboko erakundeetako akzio edo partaidetzen kasuan, ondare irabaziak eta galerak foru arau honen IV. tituluko V. kapituluan ezarritakoaren arabera kalkulatu dira balore, akzio edo partaidetza bakoitzerako.

Aurreko paragrafoan xedatutakoaren ondorioz ondare irabazi bat lortzen bada, ondoko murrizketetatik bidezkoa dena egingo da:

a) Eskualdaketa balioa balore, akzio edo partaidetzei 2006ko Ondarearen gaineko Zergan dagokiena bera edo handiagoa bada, 2007ko urtarrilaren 1a baino lehen sortu den ondare irabaziaren zatia aurreko 1. erregelari ezarritakoaren arabera murriztuko da. Ondorio horietarako, 2007ko urtarrilaren 1a baino lehen sortutako ondare irabaziak haxe izango da: balore, akzio edo partaidetzei 2006ko Ondarearen gaineko Zergan dagokien eskualdaketa balioa hartuta ateratzen den ondare irabaziaren zatia.

b) Eskualdaketa balioa balore, akzio edo partaidetzei 2006ko Ondarearen gaineko Zergan dagokiena baino gutxiago bada, ondare irabazi guztia 2007ko urtarrilaren 1a baino lehen sortutzat joko da eta aurreko 1. erregelari ezarritakoaren arabera murriztuko da.

3. Eskualdatutako ondare elementuetan hobekuntzarik egin bada, osagai bakoitzari besterentze balioan zein zati dagokion bereiziko da xedapen iragankor honetan xedatutakoa aplikatzeari begira.

**Bi.** Zergadunaren jarduera ekonomikoari atxikita izan diren ondare elementuen eskualdaketetan ez da aplikatuko xedapen iragankor honetan ezarritakoa, jarduera hori beste titularitate batekin egiten jarraitzen denean.

### **Bigarrena. 1985eko maiatzaren 9a baino lehenagoko errentamendu kontratuak.**

Kapital higiezinaren etekinak 1985eko maiatzaren 9a baino lehen egindako errentamendu kontratuetatik datozenetan eta kontratu horiek Hiri Errentamenduei buruzko azaroaren 24ko 29/1994 Legeak bigarren xedapen iragankorreko 11. idatz zatiko 7. erregelari ezarritakoaren aplikazioz errenta berrikusteko eskubiderik ez dutenean, etekinak zehazteko garaian foru arau honetako 32. artikuluan ezarritakoa aplikatuko da, ondoko berezitasunak kontuan izanik:

1. Kapital higiezinaren etekinak etxebizitzetatik baldin badatoz, ondasun higiezin bakoitzeko lortutako etekin osoen ehuneko 50eko hoberia aplikatuko da.
2. Aurreko 1. zenbakian sartu ez diren kapital higiezinaren etekinetan, hoberia ondasun higiezin bakoitzeko lortutako etekin osoen ehuneko 40koa izango da.

Xedapen iragankor honetan aipatutako errentamendu kontratuei ez zaie aplikatuko foru arau honetako 58. artikuluko 4. idatz zatian xedatutakoa.

### **Hirugarrena. Ohiko etxebizitzan inbertitzeagatik 1999ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietan aplikatutako kenkariak.**

Foru arau honetako 87. artikuluko 3. idatz zatian aipatzen den 36.000 euroko muga zergadun guztiei aplikatuko zaie, ohiko etxebizitza zein unetan eskuratu duten kontuan hartu gabe.

Aurrekoa gorabehera, 36.000 euroko gehieneko kopurutik zenbateko hauek kenduko dira:

Zergadunak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 16ko 35/1998 Foru Arauko 77. artikuluari jarraikiz ohiko etxebizitzan inbertitzeagatik kendu dituen kopuruak gehi, bidezkoa bada, foru arau horretako 46. artikularen arabera egindako berrinbertsioagatik salbuetsita dagoen ondare irabaziaren ehuneko 15.

Zergadunak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 29ko 3/2007 Foru Arauko 89. artikuluari jarraikiz ohiko etxebizitzan inbertitzeagatik kendu dituen kopuruak gehi, bidezkoa bada, foru arau horretako 51. artikularen arabera egindako berrinbertsioagatik salbuetsita dagoen ondare irabaziaren ehuneko 18.

**Laugarrena. Kenkaria aplikatzea pertsona batek baino gehiagok 2007ko urtarrilaren 1a baino lehen elkarrekin eskuratutako ohiko etxebizitzan inbertitzeagatik.**

Foru arau honetako 87. artikuluko 3. idatz zatian aipatzen den muga banan-banan aplikatuko zaie 2007ko urtarrilaren 1a baino lehen ohiko etxebizitza elkarrekin eskuratu duten zergadunei, aurreko hirugarren xedapen iragankorrearantz ezarritakoa kontuan hartuz.

**Bosgarrena. Zerga paradisuak jotzen diren herrialde edo lurraldeetan eraturako talde inbertsioko erakundeen zerga balioa.**

1. Foru arau honetako 52. artikuluan adierazten den likidazio balioaren gaindikina kalkulatzeko, eskuraketa balioetatik 1999ko urtarrilaren 1eko likidazio balioa hartuko da, egun horretan zergadunak dituen partaidetza eta akzioei dagokienez. Akzio edo partaidetzak eskualdatuz edo itzuliz lortzen diren errentak kalkulatzeko, balio horren eta benetako eskuraketa balioaren arteko diferentzia ez da eskuraketa balioetatik hartuko.

2. Talde inbertsioko erakundeek banaturako dibidenduak eta mozkin partaidetzak 1999ko urtarrilaren 1a baino lehen lortutako mozkinetatik datozenean, bazkide edo partaideen zerga oinarrian sartuko dira. Ondorio horietarako, banaturako lehenengo erreserbak irabazitako lehenengo mozkinekin zuzkitu direla pentsatuko da.

**Seigarrena. Enplegua erregulatzeko espedienteetatik jasotako prestazioak.**

Pentsio Plan eta Funtsei buruzko Legearen Testu Bateginak, azaroaren 29ko 1/2002 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartuak, laugarren xedapen iragankorrearantz ezarritakoa betetzeko hitzartzen diren aseguru kontratuak enplegua erregulatzeko espedienteen prestazioak bideratzeko egiten badira, eta kontratu horien onuradunek 2001eko urtarrilaren 1etik aurrera jaso dituzten diru kopuruei (kontratua egin aurretik barruko funtsen kontura ordaindutakoei) Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 16ko 35/1998 Foru Arauko 16. artikuluko 2. idatz zatian ezarritako integrazio ehunekoak aplikatu ahal bazaizkie, foru arau honetako 19. artikuluko 2. idatz zatian ezarritako integrazio-ehunekoak aplikatuko zaizkie. Horrelako kontratuak egiteak ez du aldatuko prestazio horien sorkuntzaldia kalkulatzeko modua.

**Zazpigarrena. Gizarte aurreikuspeneko mutualitateei aplikatuko zaien araubide iragankorra.**

1. Erretiro eta elbarritasun prestazioak gizarte aurreikuspeneko mutualitateekin hitzarturiko aseguru kontratuetatik badatoz eta horiei dagozkien ekarpenak, 1999ko urtarrilaren 1a baino lehen egindakoak, gutxienez zati batean murriztu badira zerga oinarrian, lan etekin gisa integratu beharko dira Zergaren zerga oinarrian.

2. Integrazio hori egingo da jasotako zenbatekoa mutualitateari egindako ekarpenak baino gehiago denean, eta betiere, ekarpen horiek Zergaren araudiaren arabera zerga oinarrian murriztu edo gutxitu ezin izan direnean eta, beraz, lehendik tributatu dutenean.

3. Zerga oinarria murriztu edo gutxitu ezin izan duten ekarpenen zenbatekoa frogatzerik ez badago, erretiro edo elbarritasunagatik jasotako prestazioen ehuneko 75 sartuko da zerga oinarrian.

**Zortzigarrena. 1999ko urtarrilaren 1a baino lehen ondare-gehikuntzak edo gutxipenak sortu dituzten bizitza aseguru kontratuen araubide iragankorra.**

Kapital geroratu bat jasotzen denean, 2007ko urtarrilaren 1a baino lehen sortutako eta foru arau honen IV. tituluko IV. kapituluko 3. atalean ezarritakoaren arabera kalkulaturako etekin garbi osotik 1994ko abenduaren 31 baino lehen ordaindutako primei dagokien zatiak ehuneko 14,28ko murrizketa izango du prima ordaindu zenetik 1994ko abenduaren 31ra arte pasatutako urteko, goitik biribilduta.

Etekin garbi osotik kendu beharreko zenbatekoa kalkulatzeko hauxe egingo da:

1. Zehaztu behar da zer zati dagokion etekin garbi osotik 1994ko abenduaren 31 baino lehen ordaindutako prima bakoitzari. Lortutako etekin osotik aseguru kontratuko prima bakoitzari zenbat dagokion kalkulatzeko etekin oso hori ondoko zatiketa honen emaitzako ponderazio koefizienteaz biderkatu behar da:

- Zenbakitzailean, prima ordaindu zenetik prestazioa kobratu arte pasatutako urteen kopurua primaz biderkatzearen emaitza.

- Izendatzailean, prima ordaindu zenetik prestazioa kobratu arte pasatutako urteen kopurua prima guztiez biderkatuta sortzen diren kopuruen batura.

2. Etekin garbi osotik 1994ko abenduaren 31 baino lehenago ordaindutako prima bakoitzari dagokion zati bakoitzerako, zehaztu beharko da, baita ere, zein zati sortu den 2007ko urtarrilaren 1a baino lehen. Egun hori baino lehenago sortu den zatia kalkulatzeko, aurreko 1. zenbakian adierazitako eragiketarik 1994ko abenduaren 31 baino lehen ordaindutako prima bakoitzerako ateratzen den zenbatekoa ondoko zatiketarik ateratzen den ponderazio koefizienteaz biderkatu behar da:

- Zenbakitzailean, prima ordaindu zenetik 2007ko urtarrilaren 1era arte pasatutako denbora.

- Izendatzailean, prima ordaindu zenetik prestazioa kobratu arte pasatutako denbora.

3. Etekin garbi osotik kendu beharreko zenbatekoa kalkulatu da. Horretarako, etekin garbi osoaren zatietako bakoitza, aurreko 2. zenbakian xedatutakoaren arabera kalkulaturako, ehuneko 14,28 murriztuko da dagokion primaren ordainketarik 1994ko abenduaren 31ra arte pasatutako urteko. Bi data horien artean sei urte baino gehiago pasatzen badira, ehuneko 100 aplikatuko da.

**Bederatzigarrena. Biziarteko eta aldi baterako errenten araubide iragankorra.**

1. Biziarteko eta aldi baterako errentetatik, berehalakoak nahiz geroratuak izan, kapital higigarriaren etekintzat jotzen den zatia zehazteko, 2007ko urtarrilaren 1etik aurrera errenta moduan jasotzen diren prestazioei foru arau honetako 36. artikuluko 1. idatz

zatiko b) eta c) letretan ezarritako ehunekoak bakarrik aplikatuko zaizkie, baldin eta errentak 1999ko urtarrilaren 1a baino lehen eratu badira.

Biziarteko errenten kasuan, ehuneko horiek errenta eratzen den unean hartzaileak duen adinaren arabera aplikatuko dira, edo errentaren iraupen osoaren arabera, aldi baterako errentak baldin badira.

2. 1999ko urtarrilaren 1a baino lehen eratu diren biziarteko edo aldi baterako errentak erreskatatuz gero, erreskate hori dela eta sortutako kapital higigarriaren etekina kalkulatzeko errenta eratu arte lortutako errentagarritasuna kenduko da.

3. Biziarteko eta aldi baterako errentetatik, berehalakoak nahiz geroratuak izan, kapital higigarriaren etekintzat jotzen den zatia zehazteko, 2007ko urtarrilaren 1etik aurrera errenta moduan jasotzen diren prestazioei foru arau honetako 36. artikuluko 1. idatz zatiko b) eta c) letretan ezarritako ehunekoak aplikatuko zaizkie, baldin eta errenta horiek 1999ko urtarrilaren 1etik 2006ko abenduaren 31ra bitartean eratu badira.

Biziarteko errenten kasuan, ehuneko horiek errenta eratzen den unean hartzaileak duen adinaren arabera aplikatuko dira, edo errentaren iraupen osoaren arabera, aldi baterako errentak baldin badira.

Gainera, foru arau honetako 36. artikuluko 1. idatz zatiko d) letran aipatzen den errenta eratu arte lortutako errentagarritasuna gehitu egingo da, bidezkoa bada.

#### **Hamargarrena. Aseguru kontratu berri jakin batzuen zerga araubidea.**

Etekin osoa kalkulatzeko foru arau honetako 19. artikuluko 2. idatz zatiko c) letran ezarritako ehunekoa (%25) 1994ko abenduaren 31tik aurrera hitzartutako aseguru kontratuei baino ez zaie aplikatuko.

#### **Hamaikagarrena. Bizitza aseguru kolektiboak, lanaren etekinak sortzen dituztenak enplegatuei primarik egotzi gabe.**

Foru arau honetako 19. artikuluko 2. idatz zatiko c) letran xedatutakoa gorabehera, 2003ko urtarrilaren 1a baino lehen hitzartutako aseguru kontratuen kasuan, gertatzen bada prima guztiak 2003ko apirilaren 11 baino lehen ordaindu direla enplegatuei gauzen bidezko lanaren etekin gisa egotzi gabe, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 16ko 35/1998 Foru Arauko hamabosgarren xedapen iragankorrean xedatutakoa aplikatuko da.

#### **Hamabigarrena. Bizitza aseguru kontratu jakin batzuk aurrezpen sistematikoko banakako plan bihurtzea.**

1. 2007ko urtarrilaren 1a baino lehen formalizatu diren bizitza aseguru kontratuetan zergaduna kontratatzaile, aseguratu eta onuradun gisa ageri denean eta kontratu horiek foru arau honetako laugarren xedapen gehigarrian araututako aurrezpen sistematikoko banakako plan bihurtzen badira, foru arau honetako 9. artikuluko 23. zenbakia eta laugarren xedapen gehigarria aplikatuko zaizkie biziarteko errentak eratzen diren unean, ondoko beharkizunak betez gero:



a) Aseguru kontratua indarrean egon den denboran prima gisa urtean ordaindutako gehieneko kopurua 8.000 euro baino gehiago ez izatea, eta metatutako prima guztien zenbatekoa ez izatea 240.000 euro baino gehiago zergadun bakoitzeko.

b) (4) Lehenengo prima ordaindu zen egunetik hamar urte baino gehiago pasatuta egotea.

2. Kontratua banakako plan bihurtzeko garaian, kontratuaren baldintzetan espresuki eta nabarmen adieraziko da aurrezpen sistematikoko banakako plan bat dela, foru arau honetako laugarren xedapen gehigarrian araututakoa.

3. Kontratua banakako plan bihurtu eta gero, eta eraturako biziarteko errentatik datozen eskubide ekonomikoak modu aurreratuan baliatzen badira dela osorik dela zati batean, zergaduna behartuta egongo da foru arau honetako 23. artikuluko 9. idatz zatian xedatutakoaren indarrez salbuetsita egon zen errenta eskubideak modu aurreratuan baliatu diren zergaldian integratzera.

**Hamahirugarrena. Bizitzako edo baliaezintasuneko banakako kontratuei aplikatzen zaien zerga-kontentsazioa.**

(4)

**Hamalaugarrena. 2012ko urtarrilaren 1aren aurretik eskualdatutako harpidetza eskubideen zerga araubidea.**

(4) Foru Arau honetako 47. artikuluko 1. idatz zatiko a) letran aipatzen den eskuratze balioa kalkulatzeko, 2012ko urtarrilaren 1aren aurretik eskualdatutako harpidetza eskubideengatik lortutako zenbatekoa kenduko da, salbu eta eskualdatze horietan lortutako zenbatekoa eskualdatzailearen ondare irabazitzat hartu bazen eskualdaketa egin zen zergaldian. Harpidetza eskubide guztiak eskualdatu ez badira, eskualdatutakoak lehenik eskuratutako baloreei dagozkiela pentsatuko da.

**Hamabosgarrena. Enpresaren akzioak edo partaidetzak langileei ematea.**

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 29ko 3/2007 Foru Arauko 17. artikuluko 2. idatz zatiko c) letran xedatutakoa aplikagarria izango da akzio edo partaidetzak emateko planetan, foru arau honek indarra hartu aurretik ezarritako planak badira eta egun hori baino lehen egin bazaie eskaintza langileei; horrelakoetan, 2013ko zergaldian indarrean dauden arauak aplikatuko dira.

**Hamaseigarrena. Justifikatu gabeko ondare irabazien egozketa.**

Foru arau honetako 50. artikuluko 3. idatz zatian arautzen den egozketa bertan xedatutakoaren arabera dagokion zergaldiari aplikatuko zaio: salbuespena: 2012ko ekitaldiari edo aurrekoren bati egotzi behar izanez gero, 2013ko ekitaldiari egotziko zaio.

### **Hamazazpigarrena. Kaleratzearen ondoriozko kalte-ordain salbuetsiak.**

1. 2012ko otsailaren 12tik 2013ko urtarrilaren 1era bitartean gertatutako kaleratzeen ondoriozko kalte-ordainak salbuetsita egongo dira, kaleratzea bidegabe deklaratu izan balitz egokituko litzatekeen zenbatekoa gainditzen ez duen neurrian, enpresaburuak hala aitortzen duenean kaleratzea jakinarazteko unean, edo adiskidetze egintzaren aurreko beste edozein unetan, eta, betiere, kontratu amaierak ez badira baja pizgarriaren plan edo sistemen esparruan adostu.

2. Enplegu erregulazioko espedienteen ondorio diren kaleratzeengatiko edo kargugabetzeengatiko kalte-ordainak, Lan Merkatua Erreformatzeko Presako Neurriari buruzko uztailaren 6ko 3/2012 Legeko hamargarren xedapen iragankorrek aipatzen dituenak, salbuetsita egongo dira, lan urteko berrogeita bost eguneko soldata gainditzen ez duen zenbatekoan. Urtebetetik beherako aldiak hileka hainbanatuko dira (berrogeita bi hileko gehienez).

### **Hamazortzigarrena. (3) Gizarte aurreikuspeneko sistemetara egindako ekarpenen gaindikinen araubide iragankorra (2014a baino lehenagoko zergaldietan murriztu ez diren ekarpenak).**

1. Foru arau honen (2013ko abenduaren 31n indarrean zen idazketa) 71. artikularen 3. idatz zatian eta zortzigarren eta bederatzigarren xedapen gehigarrietan aipatzen diren gizarte aurreikuspeneko sistemei larregiz egindako ekarpenak eta ordainketak, 2009, 2010, 2011, 2012 eta 2013 ekitaldietan egindakoak eta 2014ko urtarrilaren 1ean artean murriztu gabe zeudenak, foru arau honen 71. artikularen lehen idatz zatian eta bederatzigarren xedapen gehigarriaren 3. idatz zatian xedatutako mugak zainduz murriztu ahalko dira. Ezin izango da, berriz, foru arau honen 70. artikularen 5. idatz zatian xedatutako erretiro egoerari buruzko muga aplikatu.

2. Gehienez ere, 2.400 euro murriztu ahalko dira urtean, bazkidea, partaidea, mutualista edo asegurduna erretiratuta dagoen ala ez gorabehera, ezkontidea edo izatezko bikotekidea bazkide, partaide, mutualista edo titular duen gizarte aurreikuspeneko sistemara zergadunak larregiz egindako ekarpenak eta ordainketak, 2009, 2010, 2011, 2012 eta 2013 ekitaldietan egindakoak, 2014ko urtarrilaren 1ean artean murriztu gabe zeudenak eta foru arau honen (2013ko abenduaren 31n indarrean zen idazketa) 71. artikularen 3. idatz zatian aipatuak.

3. Foru arau honen 72. artikularen 2. idatz zatian xedatutako mugak zainduz murriztu ahalko dira ezintasunen bat duten pertsonen alde eratutako gizarte aurreikuspeneko sistemara larregiz egindako ekarpenak, 2009, 2010, 2011, 2012 eta 2013 ekitaldietan egindakoak, 2014ko urtarrilaren 1ean artean murriztu gabe zeudenak eta foru arau honen (2013ko abenduaren 31n indarrean zen idazketa) 72. artikularen 1. idatz zatian aipatuak.

### **Hemeretzigarrena. Langilea kaleratzearen edo kargugabetzearen ondoriozko kalte-ordainen araubide iragankorra.**

Foru arau honetako 9. artikuluko 5. zenbakian ezarritako salbuespen muga ez zaie aplikatuko langileen kaleratze edo kargugabetzeengatiko kalte-ordainei, idatz zati

horretan araututa daudenei, baldin eta foru arau honek indarra hartu aurretik lan harremanak azkentzearen ondorioz gertatu badira.

**Hogeigarrena. Etekin irregularrei aplikatu beharreko integrazio ehunekoaren araubide iragankorra.**

1. Foru arau honetako 19. artikuluko 2. idatz zatian eta 25. artikuluko 4. idatz zatian ezarritakoa gorabehera, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 29ko 3/2007 Foru Arauan xedatutakoaren arabera denboran modu nabarmen irregularrean lortutzat jotzen diren etekinei, 2014ko urtarrilaren 1a baino lehen sinatutako kontratu edo akordioen ondoriozkoak badira, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 29ko 3/2007 Foru Arauan ezarritakoa aplikatuko zaie.

2. Foru arau honetako 30. artikuluko 3. idatz zatian eta 39. artikuluko 3. idatz zatian ezarritakoa gorabehera, 2014ko urtarrilaren 1a baino lehen sinatutako kontratu edo akordioen ondoriozko etekinei Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 29ko 3/2007 Foru Arauan ezarritakoa aplikatuko zaie.

3. Foru arau honetako 19. artikuluko 2. idatz zatian, 25. artikuluko 3. idatz zatian, 30. artikuluko 3. idatz zatian eta 39. artikuluko 4. idatz zatian ezarritakoa gorabehera, foru arau hau indarrean jarri aurretik lortutako etekinei Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 29ko 3/2007 Foru Arauan ezarritako integrazio ehunekoak aplikatu bazaizkie eta zatika kobratzen badira, foru arau horretan ezarritakoa aplikatuko zaie.

**Hogeita batgarrena. Jarduera ekonomiko bati ekiteko inbertsioei begira kreditu erakundeetan egindako gordailuengatik aplika daitezkeen kenkariaren araubide orokorra.**

(4) 1. Urtarrilaren 29ko 3/2007 Foru Arauak, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergarenak, 92. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, 2014ko urtarrilaren 1a baino lehen jarduera ekonomiko bati ekiteko behar diren inbertsio eta gastuetarako diru kopuruak kreditu entitate batean gordailutzen dituzten zergadunek kenkaria aplikatzen jarraitu ahal izango dute aipatutako manuan ezarri den bezala, baldin eta egun horretan ez badira 3 urte pasatu kontua ireki zenetik.

2. Ez da Foru Arau honetako 90. artikuluan araututako kenkariaren oinarriaren zati izango urtarrilaren 29ko 3/2007 Foru Arauak 92. artikuluan araututako enpresarako aurrezki kontuetako saldoarekin eskuratutako partaidetzen edo akzioen zenbatekoa, baldin saldo horri kenkaria aplikatu bazaio.

**Hogeita bigarrena. (3) Sozietateen gaineko zergaren Legearen testu bateratuaren hogeita laugarren xedapen iragankorrean xedatutakoaren arabera desegin eta likidatutako ondare sozietateetako bazkideen araubidea. Testu bateratu hori martxoaren 5eko 4/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartu zen.**

Xedapen iragankor horren 2. idatz zatiaren d) letran eta 3. idatz zatian xedatutakoa aplikatuko dute pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren, sozietateen gaineko zergaren eta ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren zergadunek, baldin eta

Sozietateen gaineko zergaren Legearen testu bateratuaren (martxoaren 5eko 4/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartua) hogeita laugarren xedapen iragankorrean xedatutakoa aplikatzen zaien ondare sozietateetako bazkide badira.

**Hogeita hirugarrena. (4) Antzinasun betekizuna, 2015eko urtarrilaren 1a baino lehen formalizatutako aseguru kontratuetako aurrezpen sistematikorako banakako planen tratamenduaren ondorioetarako.**

2015eko urtarrilaren 1a baino lehen formalizatutako aurrezpen sistematikorako banakako planei aplikagarri izango zaie Foru Arau honen laugarren xedapen gehigarriaren 4. idatz zatian ezarritako bost urteko betekizuna.

Baldin 2015eko urtarrilaren 1a baino lehen formalizatutako aurrezpen sistematikorako banakako plan bati, edo Foru Arau honen hamabigarren xedapen iragankorrean araututako aseguru kontratu bati, epemuga aldatzen bazaio xede bakartzat hartuta biziarteko errentaren sorkuntza eguna aurreratzea aipatutako xedapenetan eskatzen den antzinasuna, lehenengo prima ordaindu zenetik bost urtekoa, izan dezan, aldaketa horrek ez du zerga eraginik izango hartzailearentzat.

**Hogeita laugarrena (5). Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga arautzen duen eta Sozietateen gaineko, ez egoiliarren errentaren gaineko eta ondarearen gaineko zergen legeak partez aldatzen dituen azaroaren 28ko 35/2006 Legeko hemeretzigarren xedapen iragankorrean xedatutakoaren arabera desegin eta likidatutako sozietate zibilen bazkideen erregimena.**

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren, Sozietateen gaineko Zergaren eta Ez egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren zergadunak Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga arautzen duen eta sozietateen gaineko, ez egoiliarren errentaren gaineko eta ondarearen gaineko zergen legeak partez aldatzen dituen azaroaren 28ko 35/2006 Legeko hemeretzigarren xedapen iragankorrean xedatutakoa aplikagarria zaien sozietate zibilen bazkideak badira, xedapen iragankor horren 2. ataleko c) letran xedatutakoa aplikatuko dute.

**Hogeita bosgarrena. (5) (16) Hogeita bosgarrena. Langileek enpresan parte hartzeagatik 2016ko urtarrilaren 1a baino lehen aplikatutako kenkaria.**

Langileek enpresan parte hartzeagatik zergadun bakoitzak segidako zergaldietan kendutako zenbatekoen muga (foru arau honetako 89. artikuluko 3. apartatuko hirugarren paragrafoan ezartzen dena) aplikatzean ez dira konputatuko 2016a baino lehenagoko zergaldietan kontzeptu horregatik kendutako kopuruak.

**Hogeita seigarrena. (10) Sortu berri diren edo berritzaileak diren mikroenpresetan, enpresa txikietan edo ertainetan inbertitzeagatik kenkaria.**

Foru Arau honen 42. artikuluko g) letran ezarritakoa aplikagarri izango zaie 2018ko urtarrilaren 1etik eskuratutako akzio edo partaidetzetatik eskuratzen diren ondare irabaziei.

**Hogeita zazpigarrena. (11) 2018ko eta 2019ko ekitaldietan loteria eta apustu jakin batzuetako sarien gaineko karga berezitik salbuetsitako zenbatekoa.**

2018ko uztailaren 5a baino lehenago egindako jokoetako sarien zenbateko bat, foru arau honen hemezortzigarren xedapen gehigarriaren 2. apartatuan ezarritakoa, salbuetsita egongo da karga berezitik, apartatu horren 2017ko abenduaren 31ko indarreko testuaren arabera.

Zenbateko hori 10.000 euro izango da 2018ko zergaldian 2018ko uztailaren 5etik aurrera egindako jokoen sarietarako, eta 20.000 euro 2019ko zergaldian egindako jokoen ondoriozko sarietarako.

**Hogeita zortzigarren xedapen iragankorra. (29) Desgaitasuna duten pertsonei beren gaitasun juridikoa erabiltzen laguntzea.**

Desgaitasuna duten pertsonei laguntzeko alde aurretik ezarritako neurriak ekainaren 2ko 8/2021 Legearen bosgarren xedapen iragankorrean eta hura garatzen duten xedapen guztietan ezarritakoaren arabera berrikusten diren bitartean (lege horren bidez, desgaitasuna duten pertsonei beren gaitasun juridikoa erabiltzen laguntzeko legedi zibil eta prozesala aldatzen da), lehen ordezkari-tza-ahalmena duten eta kuradore-tzaren menpe dauden pertsonak eta foru arau honen 70., 72., 82. eta 85. artikuluetan eta hamaikagarren xedapen gehigarrian aipaturiko ordezkari-tza-ahalmen horiek erabiltzen dituzten pertsonak aipatzean, hauexek direla ulertu behar da, hurrenez hurren: Kode Zibilean ezarritako arrazoi-ondorioz judizialki deklaratu-tako ezgaitasuna duten pertsonak eta aurrekoei dagokienez tutore kargua betetzen dutenak.

Halaber, aurreko paragrafoan aipatzen den al-dian, foru arau honen 98 artikulua-ren 1. apartatuaren b) letran xedatu-takoaren ondorio-etarako, familia unitateko kideak izango dira luzatu-tako edo birgaitu-tako guraso ahalaren mende dauden legez ezgaitu-tako seme-alaba adindunak.

## **XEDAPEN INDARGABETZAILEA**

**Bat.** Foru arau honetan ezarritakoarekin bat ez datozen xedapen guztiak indargabetu dira, eta batez ere Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 29ko 3/2007 Foru Araua.

**Bi.** Foru arau honetan ezarritakoarekin bat datozen arau xedapenek indarrean jarraituko dute, arau honetan ezarritako arauzko gaikuntzak erabiltzen ez diren bitartean.

**Hiru.** Aurreko 1. idatz zatian aipatu-tako xedapenak indargabetzeak ez ditu eragotziko Zerga Administrazioak haien indarraldian sortu-tako bete-beharren gainean dauzkan eskubideak.

## **AZKEN XEDAPENAK**

### **Lehenengoa. Indarrean jartzea eta ondorioak.**

**Bat.** Foru arau hau ALHAOn argitaratzen den egunean jarriko da indarrean eta 2014ko urtarrilaren 1etik aurrera sortuko ditu ondorioak.

**Bi.** Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren ondorioetarako, foru arau hau 2014ko urtarrilaren 1etik aurrera lortzen diren errentei eta egun horretatik aurrera egotzi beharrekoei aplikatuko zaie Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren orain arteko araudian denboraren arabera egozketarako ezarritako irizpideen arabera.

[\(15\)](#) Beste lerroalde bat, bigarrena, gehitzen zaio pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga aldatzen duen martxoaren 27ko 10/2019 Foru Arauaren azken xedapenetatik lehenengoari. Gaur egun dagoen testua lehenengo lerroaldea izango da, eta hona hemen gehituko den testua:

Era berean, atzeraeraginezko ondorio horiek - aurreko lerroaldean ezarri direnak eta lerroalde horretan aipatutako suposizioetarako-, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren pean daudenei ezarriko zaizkie. Hori hala izango da, nahiz eta eragiten dieten egintzak irmoak izan administrazio-bidean, eta nahiz eta administrazio-bideko edozer errekurtsoren edo Arabako Lege eta Administrazioaren aurrean egindako edozer erreklamazioen ondoriozko berariazko ezezpen baten xede diren egintzak irmoak izan.

Aurreko lerroaldean xedatutakoaren eraginpean dauden zergadunek eskaera egin beharko diote Arabako Foru Aldundiko Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailari.

### **Bigarrena. Arauak emateko gaikuntza.**

Foru Aldundiari eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuari baimena eman zaie foru arau hau garatzeko eta betearazteko behar diren xedapen guztiak emateko.

## **OHARRAK**

- (1) 20/2014 Foru Araua, ekainaren 18koa.  
(ALHAO, 72. zk., 14-6-27koa).
- (2) Ikusi otsailaren 17ko 5/2015 Foru Dekretuko 1. artikulua.  
(ALHAO, 24. zk., 15-2-25ekoa).
- (3) 15/2015 Foru Araua, urriaren 28koa.  
(ALHAO, 130. zk., 15-11-6koa).

- (4) 22/2015 Foru Araua, abenduaren 29koa.  
(ALHAO, 152. zk., 15-12-30ekoa).
- (5) 19/2016 Foru Araua, abenduaren 23koa.  
(ALHAO, 147. zk., 16-12-30ekoa).
- (6) 2/2017 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, otsailaren 28koa.  
(ALHAO, 28. zk., 17-03-8koa).
- (7) 18/2017 Foru Araua, irailaren 20koa.  
(ALHAO, 112. zk., 17-9-29koa).
- (8) 13/2017 Foru Araua, ekainaren 28koa.  
(ALHAO, 82. zk., 17-7-19koa).
- (9) 21/2017 Foru Araua, abenduaren 29koa.  
(ALHAO, 147. zk., 17-12-29koa).
- (10) 2/2018 Foru Araua, martxoaren 7koa.  
(ALHAO, 32. zk., 18-3-16koa).
- (11) 1/2018 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, uztailaren 17koa.  
(ALHAO, 85. zk., 18-7-23koa).
- (12) 11/2018 Foru Araua, uztailaren 11koa.  
(ALHAO, 84. zk., 18-7-20koa).
- (13) 1/2019 Foru Araua, otsailaren 4koa.  
(ALHAO, 15. zk., 19-2-23koa).
- (14) 10/2019 Foru Araua, martxoaren 27koa.  
(ALHAO, 44. zk., 19-4-10koa).
- (15) 19/2019 Foru Araua, azaroaren 20koa.  
(ALHAO, 138. zk., 19-11-29koa).
- (16) 22/2019 Foru Araua, abenduaren 13koa.  
(ALHAO, 149. zk., 19-12-30ekoa).
- (17) 25/2019 Foru Araua, urriaren 20koa.  
  
(ALHAO, 149. zk., 19-12-30ekoa).
- (18) 12/2020 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, urriaren 6koa.  
(ALHAO, 116. zk., 20-10-14koa).
- (19) 14/2020 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, abenduaren 1ekoa.  
(ALHAO, 140. zk., 20-12-9koa).
- (20) 2/2021 Foru Araua, urtarrilaren 29koa.

- (ALHAO, 15. zk., 21-02-8koa).
- (21) 13/2021 Foru Araua, apirilaren 21ekoa.  
(ALHAO, 46. zk., 21-04-30ekoa).
- (22) 24/2021 Foru Araua, azaroaren 17koa.  
(ALHAO, 136. zk., 21-11-29koa).
- (23) 31/2021 Foru Araua, abenduaren 15koa.  
(ALHAO, 145. zk., 21-12-27koa).
- (24) 34/2021 Foru Araua, abenduaren 23koa.  
(ALHAO, 146. zk., 21-12-29koa).
- (25) 35/2021 Foru Araua, abenduaren 23koa.  
(ALHAO, 146. zk., 21-12-29koa).
- (26) 2/2022 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, otsailaren 22koa.  
(ALHAO, 26. zk., 22-03-2koa).
- (27) 5/2022 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, apirilaren 5ekoa.  
(ALHAO, 44. zk., 22-04-13koa).
- (28) 11/2022 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, abuztuaren 2koa.  
(ALHAO, 90. zk., 22-08-8koa).
- (29) 24/2022 Foru Araua, abenduaren 23koa.  
(ALHAO, 150. zk., 22-12-30ekoa).
- (30) 5/2022 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, otsailaren 7koa.  
(ALHAO, 19. zk., 22-02-15ekoa).
- (31) 24/2023 Foru Araua, abenduaren 15ekoa.  
(ALHAO, 150. zk., 23-12-29koa).
- (32) 26/2023 Foru Araua, abenduaren 22koa.  
(ALHAO, 150. zk., 23-12-29koa).